

DENBORA ZARRETAKO EUSKAL-ELIZAREN EDESTIA

Bigarren Liburua

**Latiegi ta Eraso'tar Bixente**

**EUSKERAZAINTZAKOA**

**Euskal  
Kristautasunaren  
Zabalkuntza**

BOSGARREN

MENDEKO

EUSKALERRI

JENTILLEAN

**Gure Asaben Arteko Kristautasuna**



EDITA:

© WILSEN EDITORIAL

Mayor, sIn

Teléfono (948) 54 00 22

31241 OLLOBARREN (Navarra)

AUTOR:

Vicente Latiegui

Ricardo Buesa, 1-3º

Teléfono (945) 13 22 11

01008 VITORIA

LIBURU ONEN AZALA

(EGUZKI - LORE JENTILLEN ARTEAN

KRISTAUTASUNA ZABALTZEN ARI )

Iber Saenz - andereñoak margoztua

ISBN: -84-85918-99-1

Depósito legal: NA-81-1997

IMPRIME:

Wilsen Editorial

31241 OLLOBARREN (Navarra)

LATIEGI ELOSTA ARRIETA IGERATEGI" TAR FELIS  
ORONoz SORABILLA ETXANIZ ELORTZA" TAR JUANA  
ERASO MUÑAGORRI OTAMENDIA ARSUAGA" TAR FRANTZISKO  
IGERABIDE GOIKOETXEA BALIA IRIARTE" TAR JOXEPA  
NERE AITON-AMONEN  
OROIZ





## LIBURU ONTAKO GAIAK

IV MENDETIK WERA. LAU IDAZLE. EUSKALERRIAREN ETSIAIAK? .....	319
Abieno, Orosio, Nola'ko Paulino Donea. Nere ustez oker ulertuak izan diran idazleak.	
V MENDEKO GIRO ZALLA.! .....	59
BARBARITARREN ETORRERARI BEGIRA. ....	63
Tolosa'ko Erreñu Bisigot arianikeri-zalea, Eliz-zigortzaille?. Bagaudak. Bagaudak kristauak? Euskalerriko bagaudak.	
BARBARITARREN NORTASUNA TA NOLAKOTASUNA. ....	79
Zer ziran eta zer izan zirala esan oi dan. Bandalitarrak eta Kristautasuna. Leobigildo.	
SILBANO KALAGURRI'KO GOTZAIAREN AUZIA. ....	95
V MENDEAN EUSKALERRIKO TA EUSKALERRIAREN INGURUKO ELIZBARRUTIAK.	
GALIETAN .....	143
Bordele, 65 or. Tolosa, 71 or. Narbona or. Iliberri or. Karkasona or. Albiga or. Tarbe or. Laktora or. Elusa or. Eliberri or. Begorra or. Akize or. Oloron or. Konbenerria or. Kontsora or.	
ISPANIETAN .....	199
Salduba or. Ilerda or.	
ISPANIETAN LURRARTEKO ITXASOAREN ALBOKOAK. ....	211
Rodope or. Anpuri or. Gerona or.	
ISPANT LEGORREKOAK .....	219
Ausona or. Uregel or. Turiaso or. Kalagurri or.	
EUSKO-LEKAIDETZA .....	225
Euskalerriko Priszilikeria. Araba'ko "Gobiak". Bilibio'ko Felize Donea ta Kukulla'ko Donernillian, aren ikaslea.	

SARKALDEAN ZARRENETAKOAK, EUSKALERRI Z A RREK 0	
PARROKIAK.. .. .	299

## BIBLIOGRAFIA.

### ITURRI IZAN ZAIZKIDAN IDAZTIAK

Liburu ta aldizkari asko erabilli bear izan ditut lan asko eta oso asti luzea kosta zaidan idazki au bere elbururaino eraman aal izateko. Liburu oietatik geien-geienak Gazteiz'ko gure seminarioko liburutegian aurkitu ditut. Besteak, Gazteizen bertan "Santxo Jakintsua" deritzan Erakundearenean.

- Antonino: "Itinerarium Provinciarum Omnium Imperii". Nik liburu au beste ontan aurkitu dut: "Vetera Romanorum itineraria sive Antonini Augusti Itinerarium. Itinerarium Hierosolymitanum". Amsterdam, 1.735.

"Archivo Español de Arqueología". Consejo Superior de Investigaciones Científicas. Madrid.

Arrinda Donato, Estomba Manuel: "Historia General del País Vasco". Bilbao, 1.980.

Ausonio. (Decimus Magnus Ausonius). Nik, onako liburu ontan erabilli dut: "Oeuvres Complètes d'Ausone. Traduction Nouvelle par E. F. Compert". Paris, 1842-1843". Bi liburu dira.

Aymeric Picaud: "V Lliber Sancti Jacobi": "Jakoba Deunaren Bosgarren Liburua". "Gula del Peregrino" edo "Erromesaren Esku-Liburua" ere esan oi zaio. Eta baita "Codes Calixtinus. Lliber V" edo "Kalisto'ren Bilduma'ko Bosgarren Liburua". Izan ere, bera bait da bost liburuk osotzen duten Bilduma ortan bosgarrena. 1.124'ean il zan Kalisto Aitasantuak ez zuan Bilduma orrekin zer ikusirik izan, baiñan bere izena eman zitzaion gero, berari leporatutako itzaurre apokrifiko baten erruz.

Nik, Jeanne Viellard'ek prantzeraz eta lateraz 1,938'an argira emandako "Le Guide du Merin de Saint Jacques de Cornpostelle" erabilli dut nere lan ontarako.

- Azkarate Garai-Olaun, Agustfn: "Arqueologfa Cristiana de la Antigüedad Tardfa en Alava, Guipuzcoa y Vizcaya". Gazteiz'en; 1.988'an. 553 orri eta argazki ta marrazki askoz eratutako liburu mardul ederra. Gai onibuniz, orain arte, libururik onena. Egillea, Euskal-kristautasunaren atzeratzaileekin zerbaittxo bat legunagoa dala dirudi, aurreratzaileekin baiño,

- Azcona, Jesus: "La Escuela Histdrica de Viena y la Antropologfa Vasca. (Cuadernos de Etiologfa y Etnograffa de Navarra)". 43. 1984. 137-153

- "Bibliotheca Patrum et Veterorum Auctorum Ecclesiasticorum". Margarinum de la Bigne'k antolatua. Paris, 1.609. 8 liburu dira. Nik 8' erabilli dut.

- "Bibliotheca Sanctorum. Instituto Giovani XXIII nella Pontificia Universita Lateranense". 24 liburu, 1.961'tik 1.969'ra. Geigarri bat badu; 1.987'koa; ia osoki Españi'n "gorrien" aldean eraildakoen berri emanez osotua. Aipatzen dituan donegai oiek egiazko martiriak izan ziranik ukatu gabe, nere ustez oar bat eskatzen zuan zintzotasunak, Españi'ko gudu nardagarri artan "gorriek" aiña jende edo geiago "zuriek" ere erail zutela esanez.

- Cange, Iateraz, Cangius: Glossarium mediae et infimae latinitatis, conditum a Carolo Dufresne Domino du Cange. Cum suplementis integris Monachorum Ordinis Sancti Benedicti, D.P. Carpinterii, Adelungii, alioérum, suisque digessit G.A.L Henschel". Paris, 1.840-1.850. Zazpi liburu dira.

- Caro Baroja Julio: "San Amando y loa Vascones", "Principe de Viana"n 122-123 (1971), 7-26.

- Caro Baroja, Julio: "Los Pueblos del Norte de la Peninsula Ibérica". Madrid, 1.943. Liburu ontako zatirik jakingarriena, 101 garren orrian. Oker dabil nere ustez Caro Baroja, ikusi aal izango dugun bezala, Bordele'ko Ausonio eta Nola'ko Paulino'ren olerki txit ezagunei berenez ez duten garrantzia ematerakoan.

- "The Catholic Encyclopedia". Yorke Berrian 1.907'tik 1.912'ra bitartean argitaratua. 18 liburu dira eta 2 geigarri. Biotan azkenekoa, 1951é'garren urtekoa. Gauza askorako idazti egokia da, besteek ematen ez dituzten albisteak berak ematen ditualako. Badakit, orain oso-osoan, berriro, zearo aldaturik eta gaur-eguneraturik birr-argitaratzeko asmotan dabiltzala.



- "Catholicisme Aujourd'hui, Demain. Dirigee par G. Jaquemant, du cierge de Paris". VI liburuan gero "Centre Interdisciplinaire des Facult6 Catholiques de Lille" izeneko bazkunaren zaintzapean agertzen zaigu. 1.948'kea du lenen liburua. Eta, 11 'garreanean, "propres" itzaraiño iritxi da. Oso Iztegi ederra; baiñan Frantzi'ko gauzei arreta geiago eta jaramon kuttunagoa ematen diela gogoan euki bearra da.

- Chadwick, Henry: "The Early Church". Portugaleraz, "A Igreja Primitiva" izenez erabilli dut nik, Maria Helena Albarran de Carvalho'-ren itzulpenean.

- "Conciliarum Collectio Regia Maxima, ad P. Philippi Labhei & P. Gabrielis Cossartii e Societate Jesu labores haud modica accessione facta & emendationibus plurimis additis, praesertim ex codicibus manuscriptis; cum novis & locupletissimis indicibus: Studio P. Joannis Harduini ex eadem Societate Jesu presbyteri". XII tomoa. Paris, 1.715.

- "Corpus Christianorum". Bilduma onek iru sail ditu: Aurrenekoa, erromatean Iateraz idatzitako idaztiena, 1.954'ean asia. Bigarrena, erromatean eleneraz idatzitakoena, 1.977'an asia. Eta, irugarrena, oraindik azalduz diarduna, erdiaroko idaztiena. Belxika'ko Turnay urian ari da argitaratzen.

"Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinorum". Biena. 1.882.

"Dictionnaire de la Bible publi par F. Vigouroux. Bost liburu lodi dira. Paris'en 1.895'a eta 1.912'aren artean argitaratuak. **gero**, geigarri asko argitaratu ditu: Amaika, orain artean. Eta argitaratuz jarraitzen du. Nik, lan eder orren III liburua erabilli dut, Erodes Antipas erregearen eta Erodiase bere sasiemaztearen eriotza, Flabio Josefo'k idatzi zuan lez Euskaldunen artean gertatu ote zan ikusteko.

- "Diccionario de Historia Ecclesiastica de España dirigido por Quintfn Aldea Vaquero, Marfn Martfnez y Jase Vives Castell. Instituto Enrique FliSrez. Consejo Superior de Investigaciones Cientfficas". 1.972'tik 1.975'era bitartean argitara azaldua. 4 Liburu dira eta geigarri bat. Au, 1.987,, 'koa. Garrantzizko alhiste ta gai asko aipatu ere gabe utzi dituelako, ez da liburu atsegiñegia gertatzen. Gaiñera damaizkigun gaiak billatzeko, ez du batere erreztasunik eskeintzen, eta, orregaitik zailla egiten da bere erabilketa. Ori, españa-zalegia dala esateke!

- "Diccionario de Historia de España". Revista de Occidente'k Madrid'en 1.952'an argitaratua. Bi liburu dira. Egille askoren zitua. Edes-

tiaurreari eta Aro Zarrari dagozkien gai guztiak, Antonio Garefa Bellido'k idatziak ditu.

- "Diccionario del Mundo Cffiico redactado por catedr&icos y profesores de arqueologfa y arte clsico, filosofia griega y latina, especialistas en derecho romano, medicina y ciencias de la antiqiiedad, archiveros, bibliotecarios y eruditos escritores bajo la direccidn del Rvdo. P. Ignacio Errandonea S. J. (B. Lit. Oxford). 1.954". Bi liburu dira. Arras interesgarriak.

- "Dictionarium Morale et Canonicum", P. Pallazzini'k zuzendua. 3 liburu dira, 1.962'tik 1.966'ra Erroma'n argitaratuak. Priszilikeriari-buruz ikustaldi batzuk eman dizkiot. Gai ontaz "Catholicisme" Iztegia duzu iturri-rik egokienetakoa.

- "Dictionaire d'Archeologie Chrétienne et de Liturgie publico par le R.P. Dom Fernand Cabrel abbé de Saint-Michel de Farmborough (Angleterre)". 1.913'az gero asten da Dorn H. Leclercq ere zuzendaritza lanean. Azkenekoa H. Morrou'k zuzendua da. 1.907'an asi ziran iztegi bikain au argitaratzen, eta 1.953'an bukatu. Guztira 30 liburu mardul dira iztegi eder au osotzen dutenak.

- "Dictionnaire de Droit Canonique publié sous la direction de R. Naz, ancien professeur de la Faculte Libre de Lille". Zazpi liburu. Paris, 1957.

"Dictionnaire de Géographie (Suplement au Mamuel du Libraire) ancienne et moderne al'usage du libraire et de l'Amateur de Libres, par un Bibliophile". Paris. Urtearen aipurik ez du.

- "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclesiastiques. Publico sous la direction de Mgr. Alfred Baudrillart, recteur de l'Institut Catholique de Paris, M. Albert Vogt, docteur 8s lettres, profeseur a l'Universit de Friburg, et M. Urbain Rouzis". 1.912'an asi zuan argitalpena. 24 liburu aundi irten dira, baiñan oraindik "Honolulu" itzara bakarrik iritxi dira. Zuzendari asko izan ditu Iztegi onek. Azkenekoa, R. Aubert, Lobaina'ko Unlbersitate Katolikoan irakasle eta Belxika'ko Akadernian akademilari dana.

- "Encyclopaecia Britannica". Edozein gauzetarako oso maiz erabili oi dedan iztegia.

- "Enciclopedia General Ilustrada del Pafs Vasco. Cuerpo A. Diccionario Enciclopédico Vasco. Editorial Auñamendi, Estornes Lasa Hnos". Donosti'n 1.968'an asi, ta 34 liburu-zear "Orozko" itzaraño itxi da.

Baditu gauza onak, eta baditu ain onak ez diranak ere. Agian laisterregi egiña dalako.

- Estornes Lasa, Bernardo: "Historia General de Euskalerrria. 22I a.de C. - 476 d. de C. Epoca Romana. Enciclopedia General Ilustrada del PaIs Vasco. Cuerpo B. Enciclopedia Sistemática". Zarautz, 1.978.

Estornes Lasa, Bernardo: "Historia General de los Vascos. Epoca Romana: -221 a 476". Donosti. 1.967. Euskalerrriaren edestiari dagozkion gaietatik ugari dira sakonki Estornes Lasa'tar Bernardo'k landu dituanak. Aipatu bearrak ditut bere "Orfgenes de los Vascos", eta berak zuzendutako Enciclopedia General Ilustrada del Pafs Vasco erraldoiean bere lumaz idatzi dituan lan ugariak.

Fabre, Pierre: "Saint Paulin de Nole et l'Amitie Chretienne". Paris, 1.949.

- Fernandez Alonso, Justo: "La Cura Pastoral en la España Romano-visigoda". Roma 1955.

- Fl6rez, Enrique: "España Sagrada". Arras liburu-sorta ezaguna. Aurkezpenaren bearrrik gabekoa, XVIII mendez gero atertzeke idazle orok erabilia izan dana.

- Forcellini: "Totius Latinitatis Lexicon". Sneerbergae (Saxoni'ko Schneerberg). 1.831. Du Cange'ren iztegiarekin batera bee-laterazko itzak aurkitzeko egokia.

- "Gallia Christiana in Prouincias Ecclesiasticas distributa, qua Series et Historia Archiepiscoporum, Episcoporum et Abhatum Franciaie vicinorurnque ditionum, ab origine Ecclesiarum ad nostra tempora deducitur et probatur ex authenticis Instrumentis ad calcem appositis. Opera et studio Domini Dionisii Sarmmartani Presbyteri et Monachi e Congragatione Sancti Mauri. Parisiis, ex Typographia Regia, M.CC.XVI". 16 liburu dira. Au-rrenekoa, 1.716'koa. Azkenekoa, 1.865'ekoa.

- Gams P.P.B. "Series Episcoporum Ecclesiae Catholicae quotquot innotuerunt a Beato Petro Apostolo. - A multis adjutus edidit P. Pius Bonifatius Gams O.S.B. Zweite Unver&kierte Auflage. Leipzig 1.931.

Garcia Bellido: "Los Vascos en el Ejercicio Romano": "Fontes Linguae Vasconum", I (1969), 102 orr.

-Garcia Villada, Zacarfas, "Historia Eclesiastica de España", 5 liburu. Madrid, 1.929-1.936. Oso españi-zalea dala gogoan euki bearra da. Gizaé gaixoa, bere azkeneko liburua argitaratu zuan urte ortan bertan, izan zan

Madrid'en "gorriek" erailla, Franco Errepublikaren aurka izkilluz jeiki izatearen ondorioz.

- Garca Villoslada, Ricardo. Bere zuzendaritzapean argitaratu ziran Madrid'en, 1.979'an, "Historia de la Iglesia en España" baten 5 liburuak. Au ere, benetan espallolista. Nik, bilduma ortatik, I liburuaren I atala erabilli dut, Manuel Sotomayor y Muro'k idatzia.

- "GER (Gran Enciclopedia Rialp)". Opus Derren goi-gidaritzapean eratua. 24 liburu, danak 1.979'an argira agertuak. Gure liburutegian dugun iztegi onen geigarria, 1.987'koa da.

- Griffe, "La Gaule Chretienne a L'Époque Romaine. Des Origines Chretiennes ala fin de IV siecle". Paris, 1.964.

Goñi Gaztanbide, José: "Historia de loa Obispos de Pamplona" Ediciones Universidad de Navarra. 1.979,

- "Historia de Euskal Herria". Idazle askoren artean egiña. Aurreneko tomoa Bilbao'n 1.980'ean argitaratu zuten. Zazpigarrena, 1.923'garren urteraiño iristen dana, 1.982'an. Ez dakit aurrera jarraitu duten. Axal politaz ta irudi askoz ederturik dago. Mamia ez dirudi ain eder oparoa duanik. Gaiñera idazle askoren lana izanik, ez digu atal bakoitza nork idatzia izan dan esaten. Izugarritzko akatsa, edesti-liburu batentzat.

Idatius Aquaeflaviensis. Gaur Chaves esaten zaion eta len Aquae Flaviae zeritzan uri portugaldar ortako gotzaia izan zan V mendean. Ikus "Patrologiae Cursus Completus". Bilduma orren 5I'garren liburuan erabilli bait dut nik Idazio'ren "Chronicon" izeneko edestia; naitanaiezkoa Ispanietako V mendea ezagutzeko.

- Imhart de la Tour: "Les Origines Religieuses de la France, Les Paroisses Rurales du 4'e au 11'e Siecle". Paris, 1900.

- Isidoro Done Sebillatarra: "De Viris Illustribus". Liburu au eta "Etimologieta" nik beste ontan aurkitu ditut: "SS. PP. Toletanorum Quotquot Extant Opera". "Tomus Primus". Madrid 1.782. Lenen tomo ortan Toledo'ko Ildefonso'ren "De Viris Illustribus"en aurretik dator Sebillako Isidoro'rena; bere anai onen izen berdiñeko lana osotzeko idatzi bait zuan ark berea.

Jedin, Hubert: "Manual de Historia de la Iglesia", Jedin'en zuzendaritzapean idazle askok antolatua. Nik, nere lan ontarako, Alejandro Lator Ross'ek gazteleratutako II liburua erabilli dut (Bartzelona, 1.980). Liburu

au, Karl Baus, Hans-Georg Beck, Eugen Ewig eta Hrtman Josef Vogt'ek idatzia da.

Labriolle (P. de): "Un épisode de la fin du paganisme. La correspondance d'Ausone et de Paulin de Nole". Paris, 1.910

Labrousse: "Histoire de la Gascogne des origines a nos jours". Roanne, 1.977.

Larrañaga, Koldobika: "En torno al caso del Obispo Silvano de Calagurris. Consideraciones sobre el estado de la Iglesia del Alto y Medio Ebro a fines del Imperio. Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueologia y Filologfa Cl<sup>s</sup>icas. N<sup>o</sup> 6. Año I.989". Gazteitz'en Euskalerriko Unibersitateak argitaratzen duan aldizkaria da. Larrafiaga'ren lana I71'garren orritik 191'garrenera.

- A. Latreille (professeur a l'Universite de Lyon), E. Delaruelle (professeur a l'Institut Catholique de Toulouse), J. R. Palanque (professeur l'Universite d'Aix-en-Provence): "Histoire du Catholicisme en France". Editions Spes, Paris, 1957.

Latxaga: "Errioxa'ko San Millan euskal iturri". Donoti, 1.974.

- Latxaga: "Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban". Bilbao, 1.976. Frantzerazko eta Gaztelarazko itzulpenak badaramatza. Merezimendu aundiko liburua da bideak urratuz idatzia izan zalako. Gaur, ordea, jakintzarako bide eta langailluak asko obeagotu diralako, eta Araba'n, arkeologiari dagokion arloan garrantzi aundiko idoroketa berriak egin diralako, beste era batera idatziko liguke liburu ori, eginkizun oietarako ain ederki gerturik dagoan Joxemari San Sebastian "Latxaga"k. Paris'ko Ikastetxe Nagusietan irabazitako iru doktoradutzen jabe bait dugu Euskerazaintzako Akademilari bikain au.

- Mañaricua, Andres Eliseo: "Introduction del Cristianismo en el Pais Vasco". Facultad de Teologfa. Vitoria. 1 Semana de Historia Eclesiástica del Pafs Vasco. Homenaje a D. Jose Miguel de Barandiarñ y D. Manuel de Lecuona. Vitoria, 1981. 27'garren orritik, 41'garrenera. Asko idatzi zuan Mafiarikua'k gai ontaz. Baiñan beti aburu bera arrazoi berdiñen bidez babestuz. Orregaitik, aburu orren laburpen txukuna dan itzaldi au irakurteza naikoa du irakurleak, gizon onuragarri aren oldozbideak ezagutzeko.

- Monreal Jimeno, Luis Alberto: "Eremitorios Rupestres Altomeclievales. (Alto Valle del Ebro). Bilbao, 1989". Lauren da ogeitamar orrialde ederreko liburu bikaiña. Aipatzen dituan gaiak ezagutzeko, egokiena.

- Narbaitz, Pierre: "La CristianizaciÓN del Pafs Vasco-Franc6". "Primera Sernana de Historia Eclesiastica del Pafs Vasco", 41'garren orritik 67'garrenera. Gazteiz, 1.981.

- Narbaitz, Pierre; "Le Matin Basque ou Histoire Ancienne du Peuple Vascon". Paris, 1.975. Idazti atsegiña. Egilleak, ordea, ardura geiegi artzen du Euskaldunak hasatiegiak uste dituztenen aldean bere burua agertze-ko. "Progresikeri-zaleen" bildurrez? Edestia, ordea, "progresista" oien etsai aurkezten zaigu, ikusiko dugun lez.

- "Nomina Hispanarum Sedium". Bere izen osoa au da: "Provinciale Visigothicum sev Nomina Hispanarvm Sedivm de Provinciis Hispaniae. Nomina Civitatum Hispaniae Sedes Episcopaliwm". Kordoba'n, 850'aren iguruan idatzitako "kodes" edo "larruki-bilduma" mozarabiar baten atal bat da. Naiz IX mendekoa izan, IV eta V mendeko albisteak ere jasotzen omen ditu. Nik, "Españi'ko Gotzai-Uri-Zerrenda" ori "Corpus Christianorum" izeneko bilduman erabili dut.

- "Notitia Dignitatum et Administrationum Omnium tam Civilium quam Militarium in Partibus Orientis et Occidentis. Comentariis Indicique Illustravit Eduardus Bikking. Bonnae, 1.885". V mendean idatzia izan omen da "Notitia Dignitatum" edo aro artako "Kargu Garaien" zerrenda au.

- Oihenart: "Notitia Vtriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitaniae. Parisiis M.DC.XXXVIII".

- Orlandis, J. "Historia de España", Madrid 1977. Nik "La España VisiÓtica izeneko alea erabili diot.

Orosius (Paulus): "Adversum Paganos". Ikus "Corpus Scriptorum Ecclesiasticorum Latinorum", Biena'n 1.882'an argitaratutako bilduma orren 5'garren liburuan aurkitu bait dut nik Orosio'ren idazki ori. Orosio V mendeko idazlea da, Tarragona'ko semea. Donejeronimo ta Augustin Donearen ikasle eta adiskide aundia.

- Paulinus Nolanus: "Carmina". Guilelmus Harter'ek Biena'n argitaratua. 1.894.

- Paulinus Nolanus: "Epistulae". Guilelmus Harter'ek Biena'n 1.894'-an argitaratua.

- Petri Pithorei Opera, Sacra, Ivridica, Historica, Miscellanea. Parisiis, MDCIX.

- Prosperus Aquitanus: Ikusi ezazu "Patrologiae Cursus Completus". Bilduma orren 51'garren liburuan aurkitu bait ditut nik Prospero'ren idazkiak. Prospero ori, olerkari ta edestilari ezaguna, V mendearen asieran Akitani'n jaio zitzaigun.

- Prudentzio (Aurelius Prudentius Clemens). Olerkari Kalagurritarra. Nik, olerkari au, B.A.0 bilduman Jose Guilledek I.950'ean argitaratutako "Obras Completas de Prudencio"n erabili dut. Aurkibide askorekin, lateraz eta gazteleraz, egoki eratutako lana da B. A.C.-en bilduma au.

- Rabf Ben Zaid, Iiberis (Elbira)'ko gotzaia: 961'an idatzitako Donetegi Mozarabiar baten egillea. Ikus "Simonet".

- Richard, M.: "Collection des Auteurs Latins publie sous la direction de M. Richard". 35 liburu lodi; zoritxarrez, zenbatu gabeak. 1.843'tik 1.885'ra Paris'en argitaratuak. Oso liburu egokia da, beste iñon aurkitu ezin daitezkean liburuak bertan bait datoz.

- Rogier, Aubert, Knowles. Iru edestilari oien zuzendaritzapeko "Nouvelle Histoire de (Paris, 1.963).

Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Repoblación y Religiosidad Popular en el Oeste de Alava (S. IX-XII). Gazteiz 1.989. Izugarri españi-zalea da praille prantziskotar au. Alare xeetasun jakingarriak baditu. Badu beste idazti bat ere lengo onen antzekoa. Jarraian datorkizun au:

- Ruiz de Loizaga, Saturnino: "Monasterios Altomedievales del Occidente de Alava. Valdegovfa. CÓmo nacen los Pueblos". Biak argital-leku eta urtegarrenaren aipurik gabe.

- Sainz Ripa: "Sedes Episcopales de la Rioja. I. Siglos IV-XIII". Logroño, 1994.

L. Serrano: "El Obispado de Burgos y Castilla Primitiva desde el Siglo V al XIII". III liburu. Madrid 1955-1936.

- Simonet, Francisco Javier; "Satoral Hispano-Mozkabe escriro en 961 por Rabf Ben Zaid Obispo de Iiberis". Madrid 1871.

- Sulpitius Severus: "Libri Qui Superunt Recensuit et Commentario Critica Introduxit Carolus Halm. Vindobonae, 1.866". Austri'ko uriburu dan Biena'ri esan zitzaion Vindobona. Migne'ren "Patrologia Latina"ko XX liburuan ere aurkitu dezazkezu Sulpizio Sebero'ren idaztiak. Onako izenburu auekin datoz: "Chronicorum Libri Duo" ("Historia Sacra" ere esan oi zaio); "De Vita Sancti Martini Llber Unus"; "Dialogi", "Epistolae". Baita idazle oni buruz, idazle zarren aburuen kopuru txit jakingarri bat ere.

Sulpizio Sebero, Bordele'ko semea, 361'garren urtearen inguruan jaioa, 410'ean edo 420'ean il omen zitzaigun. Nola'ko Donepatilino'ren adiskide aundia, eta Donernartin Turonatarren adiskide aundia ez ez jarrailelea ere izan zan.

- Tranoy, Alain: "Hydace. Cronique" "Sources Chretiennes"en 218 eta 219'garren zenbakietan. Paris 1.974. Idazio'ren lana lateraz eta frantzeraz dator lenen zenbakian; Bigarreanean, berriz, Idazio'ren lanari-buruzko txit azalpen egokiak aurkituko'ituzu.

- Ubieto Arteta, Antonio : "Cartulario de San **de la Cogolla**. Balentzi'n 1.976'ean argitaratua. Uri artako Unibersitatean irakasle bait da Ubieto Arteta.

- Ubieto Arteta, Antonio: "Introducción a la Historia de España" Bartzelona 1.969. Nik erabilitakoa VI argitalpena da.

- "Vetera Christianorum", Itali'n Bari'ko Unibersitatearen "Litteratura Cristiana Antica" erakundeak argitaratzen duan bilduma. 28'garren urtea darama,

- "Veleia. Revista de Prehistoria, Historia Antigua, Arqueologia y Filologia C1sicas. Euskal Herriko Unibersitatea". Gazteiz.

- Vives, Jose: "Inscripciones cristianas de la España Romana y Visigótica", por el Rdo. Dr. Jose Vives, Pbro. del Consejo Superior de Investigaciones Científicas". Barcelona 1942,

Vives, Jose: "Concilios Visigóticos e Hispano-Romanos" Barceionamadrid. 1.963.



## LABURPENAK

Conc.Colee.Reg. = Conciliorum Collectio Regia Maxima.

E.G.I.P.V. = Enciclopedia General Ilustrada del Pafs Vaseo.

B.V.P.A.E. = Bibliotheca Veterorum Patrum et Auetorum Ecclesiasticorum.

Bib.S. = Bibliotheca Sanctorum.

C.E. = Catholic Encyclopedia

Cathol. = Catholicisme.

C.Col. = Conciliorum Collectio Regia Maxima.

Corp.Cris. = Corpus Christianorum.

Corp.S.L. = Corpus Scriptorum Latinorum.

D. B. = Dictionnaire de la Bible.

D.A.Chr. = Dictionnaire d'Archeologie Chr&ienne et de Liturgie.

D.H.EcI.E. = Diccionario de Historia Ecclesiastica de España.

D.H.E.G. = Dictionnaire d'Histoire Ecclésiastique et de Gdographie.

D.M.C. = Dictionarium Morale et Canonicum.

Dic.Theo.Cath. = Dictionnaire de Thologie Catriolique".

E.Jud. = Encyclopedia Judaica.

G.M.I.L. = Glossarium Mediae et Infimae Latinitatis.

Ib. = Ibidem. Toki berean.

Id. Idem. Berak.

L.C. = Loco Citato. Aipatu-berria dan toki berean.

Nom.His,S. = Nomima Hispanarum Sedium.

Not.Dig. = Notitia Dignitatum.

Op.C. = Opus Citatum. Aipatutako Liburuan. Liburuaren izenik ematen ez ba'dut, izendatu-berri dutan idazle orrek liburu ori bakarrik idatzi zualako edo bere liburuetatik nik ori bakarrik erabili dutalako izango da.

Liburu ori, aipatua non dagoan? Bere xeetasun guztiekin, iturri izan zaiz-

kidan idazkien zerrendan, liburu onen lenen-orrietan. Zerrenda ortan "liburu aipatua" aurkitzeko, bere idaztearen izena billatu bear duzu.

P.L. = Migne'ren "Patrologia Latina".

S.Ep. = Series Episcoporum Ecclesiae Caratholicae.

Vet.Christ. = Vetera Christianorum.

Nere ustez  
garrantzi aundikoak diran

\*

## OARRAK

\*

**LIBURU ONTAKO EUSKALERRIA:** Oraingoan ere, liburu ontako Euskalerria ez da gaurrengungo Euskalerrri txikia; Sarkaldeko Inperio Erromatarra jausi zaneko Euskalerrri zabal eta edatsu ura baizik: Garona Ibaietik Iber-Mendietara zabaltzen zana, eta Oka-mendietatik gaurko Xirona probintzi katalauniarrera -- eta, agian oraindik Auñamendiko aranak-zear --, Menditerranean-Itxasoraiño, Lurrarteko itxasorairio, edatzen zana. An, Lurrarteko-Itxasoaren ertzean zegoan ILLIBERRIS, seigarren mendean gotzai-urizango zana.

- Liburu onek aztertuko duan garaia, bosgarren mende osoa izango da: Erroma'ko Inperioa jausi zaneko mendea.

- Euskalerrri artako politika giroa.- Euskaldunek beren artean bizizuten politika-erari-buruz deus ez dakigu.

Ezer gutxi dakigu Atzerritarrek Euskalerrri Zar aren barruan izan zezaketen eraginmenari-buruz ere.

V mende aren asieran, Suebiarrek, Alandarrek eta Bandalitarrek, goitik beera igaro zuten Euskalerrria. Igaro ere, gaurko Euzkadi'ren mendiak-barrena igaro zituzten, Iparretik Egora, gure Euskalerrriko lurrak, ortarako, erromatarrek irikitako "Asturika-Burdigala" izeneko bidezal ederraz baliatuz.

Suebiarrek "Penintsula" edo laugaratearen" Sarkaldera joan ziran eta an eraiki zuten beren Erreiñua: Izan zituzten Euskaldunekin borrokak, baiñan ez zuten emen iñoiz agindu. Bandaliarrak eta Alandarrak, gure mugetatik urruti gelditu ziran.

Gure ipar-lurretan, Akitani'n, Bisigotiarrek izan genituan, uriburutzat Tolosa artuz, beren Erreiñua eratu zutenak, VI mendea sartuz gero Frankiar garailleek Ispanietara bidali zituzten arte. V mendean, ordea, Bisigotiarrena izan zan Loira ibaiaz egoko GaLi guzia. Akitani'n zenbait aiña sumatu zuten Euskaldunek aien agintaritzea, ez dakigun gauza da.

Tolosa, Bisigoten V mendeko Erreiñuaren uriburua, Garona ibaiaren ertzean dago, antziñako Euskalerra Zar aren albo-alboan. Baiña ez dirudi, Tolosa'ko Bisigotek Euskalerra aren barruan aginmenik batere izan zutenik, mendearen erdia igarota gero, Euriko izan zala- esan oi bait da Nobenpopulani, ots, Akitani euskalduna menderatu zuan erregea: ainzuzen Bisigoten erregerik bizkorrena: Euriko,

Zenbateraiño zapaldu zuan Euriko'k Euskaldunen Akitania, ziur ez dakigu. Euriko ilda gero, II Alariko bere semearen garaiean, yare jarraitzen zuala dirudi Euskalerra zarreko lurralde zabal arek. Eta yare jarraituko zuan luzaro Frankiarren aurka borrokan, auek II Alariko garaituta Bisigotak Galietatik Ispanietara bultzatu zituztenez gero.

Ego-Euskalerra "Tarracensis" izeneko probintzian sartu zuan Erroma'k, eta V mende osoan Probintzi ori dana Erroma'ko Inperatoreen agintaritzapean egon zan, Erroma bera 576'ean Eruldarren menpera jausi zan arte. Orregaitik, Ego-Euskalerrian, politikari dagokionez, aldaketarik gabe Jarraitu zuten gure asabek V mende guzian.

Ez zitzaien nekerik falta izan. Bagauda izeneko jende txiroen iraultza, adibidez, Ibero-Ibaiaren ibarretan; eta Rekiario Errege Suebiarrak eta Erroma'ko Inperatorearen aginduz Rekiario aren aurka Teodoriko Irak, Tolosa'ko Bisigoten erregeak, egindako sarrerak, baiñan ederki esan daiteke naiko paketsu bizitu ziralda bosgarren Mende artan Egoaldeko euskaldunak. VI mendera sartuz gero jausiko zaizkie gaiñera Toledo'ko Erreiñuko Bisigoten eraso zipotzak, baiñan garaille irtengo dira Euskaldunak

Badirudi, Euskalerrira sartzea errez lortzen zutela aro aietako atzerritar etsaiek: Ala adibidez Tolosa'ko Erreiñu Bisigotiarretik Euriko'k eta II Teodoriko'k, Galizi-aldeko Erreiñu Suabiarretik Rekiario'k, Toledo'ko Erreiñu Bisigotiarretik, Leobigildo'k eta onen ondorengo ia Errege Bisigotiar guztiek, eta aien atzetiko Arabitarrek Euskalerrira sartzea lortzen zuteé Ia, baiñan bein euskaldunek beren indarrak bildu, Euskalerrian gelditzea eta, baita bein baiño geiagotan, Karlomagno'k bezala, Euskalerritik andamenik gabe ateratzea izaten zutela benetan kostatzen zitzaien gauza larria.

- Gure elburua, liburu ontan, gizarte-giro casi eta odoitsu artan gure Asaben artean kristautasuna nola zabaltzen aritu zan agertzea izanen da.

- Gure tresnak, ortarako, bereiziki dokumentu idatziak izango dira. V mendean dokumentuak bai bait ditugu. Oso gutxi, baiñan baditugu. V mendeari-buruzko dokumentuen urritasun ori, ez da gure arazoa bakarrik, geiago edo gutxiago Sarkaldeko kristaudian errialde guztiena baizik.

*KONDAIRA ETA EDESTIA*: Kondaira, Larramendi'k asmatutako itz berri bat, bere Iztegiko "historia" itzen ikusi dezakezunez. Arek, euskeraz "historia" esateko asmatu zuan, beste bi itz bikin batera: "esagaroa" eta "lenpiztea". Iru itz oietatik "kondaira" bakarrik sartu zan gure idazleean artera. Bañan "kondaira" gaztelerazko "lo que se euenta"tik sortua dalako "leyenda" adierazteko askoz egokiagoa dala derizkiot, eta zentzu ortan erabiliko dut nik beti. Historia adierazteko, beti, "edesti" idatziko dut. Badakizu, beraz, irakurle: Nere liburu guztietan, "kondaira" = leyenda"; "edestia" = "historia".

**BIRR-ESANAK.** Jakintsua ba'zera, nere liburu au gai batzuetan "reiteraivo" dala esango didazu, ots, "gauza-bera-birr-erabilli-zalea". Liburu au ordea ez da jakintsuentzat bakarrik idatzia izan, gure erriko jende euskaldunentzat baizik bereiziki, eta irurogei ta bost urtez irakasle izan ondorean kultura normaleko jendearentzat, gauzak naiz era ezberdiñean bein baiño geiagotan aurkeztea txit irakas-bide egokia dala ikasirik nago.

**LOGIKAREN ZEREGINA:** Edestia ez da dokumentuak pillakatze utsa. Ori, dokumentuen kutxa bat besterik ez litzake izango; ez litzake beintzat edesti bat izango. Dokumentuak, edestilariarentzat, zitroiak goxogillearentzat diran gauza bera dira: lanerako gaiak. Zitroiak ez dira jaten. Zitroiei zukua ateratzen zaie. Dokumentuak ere ez dira jaki edestilariarentzat. Dokumentuei ere, eman dezaketen zukua atera bear izaten die edestilariak. Eta zuku-ateraketa ortan du Logikak bere zer egiña.

Edestilariaren obligazio edo bearbizun nagusia.- Gozokigillea saiatzen da, lanean asi aurretik, erabilli bear dituan zitroiak ustelak diran edo ez jakiten: Edestilariak ere saiatu bear du darabilzkian dokumentuen balioa neurtzen. Ez da berdiña dokumentuen eta edestilariak dokumentu oietatik

ateratako zukuaren balioa. Doktumentuek, gertatu *zana* erakusten digute. Zukuak, *gertatutakoaren zergaitia ta ondorenak*. Dokumentuak gertakizunak dira; zukuak, iritziak. Gertakizunak, egiazkoak dira; iritziak egiazkoak... izan daitezke..., edo ez.

Orregaitik, une bakoitzean, bere iritziak ematen asten dan une bakoitzean bearturik dago edestilaria, dokumentuak iritzietatik argi bereiztera. Argi ta garbi esan bear du, zer duan dokurnentuetik jasoa eta zer duan dokumentu ori oiñarriztat artuz berak pentsatu duana, ots, dokumentu orrek dionari-buruz berari gogoratu zaizkion iritziak.

itz damaizut, irakurle, beti egingo dedala nik ori. Bai; iñor atzipe-tu ez dezadan, ezpaierako biderik emateke argi eta garbi aitortuko dizut nik zer dan dokurnentuek diotena eta zer dan nik *uste* dedana. Nere iritzi utsa dana, iritzi utsa bezala izango dizut aurkeztua.

*IZTEGIA* : Liburu onek badu, azkeneko orrietan iztegi bat. Iztegi ori, "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" deitzen dan liburuak zeraman iztegi bera da, Liburu ura eta eskuetan daukazun au liburu bat bezala izan bait zirar idaztiak, eta, gero, liburu bakar ori luzeegia irten zalako bitan hanatuak. Gauza berdiña gertatzen da arek eta onek asieran daramaten Bibliografiarek n

*EUSKALERRI ZARREKO ERRI-IZENEN EUSKAL-ITXURA*: "*Euskai-Kristautasunaren Sorkuntza*"n esanik utzi nuan bezala, arrigarria da benetan, Erromatarrek eman zizkiguten iru Akitanietako eta "Tarraeonensis" Probintziko urien izenak duten euskaldun itxura nabarmen arrigarria`.

---

<sup>1</sup> Julio Zesar'ek "Galietako Guda"ri buruzko liburua idazterakoan, Akitani, egiazko Akitani'd esaten zion: Garona iaia eta Auñamendiaren arteko lurralde euskaldunari. Gero Zesaraugusto'k Akitani'ren iparreko muga Loira ibaiaraiaño jaso zuan; eta geroago, IV mendean, Akitani zabal ura iru puska izan bait zan egiña, onela aurkitzen zan aztertzero goazten V mendean: "Aquitania Prima", sortaldeko zatia, "Bituriges", ots "Bituri" (gaurko Bourges) uribururu zuala; "Aquitania Secunda", sarkaldean Loira eta Garona arteko lurraldea, (uribururu, Bordele), eta "Aquitania Tertia", iaia osoki Julio Zesar'en denborako Akitania. "Novempopulania" edo "Beatziurieta" ere esaten zitzaion. Elusa izan zuan

Badakit "zerbait" biren bata-bestearekingo itxuraren berdintasuna ez dala naikoa "zerbait" bi oiek mota bat bereko gauzak dirala aitortu aal izateko.

Orregaitik, ez dizut nik esango, alako euskerazko izenen antza, — antza miresgarria duten erromateko uri zar aien izenak jatorriz euskaldunak diranik, baiñan bai, esango dizut, azterketa sakon baten eske ari zaizkigula, eta seguruaski euskeraz ari zaizkigula azterketa ori eskatzen.

*EUSKALERRI ZAR ARTAKO ENDA EZBERDIÑAK*: Badu edestilari zarren idazkietan antziñako Euskalerriak saski-naski baten itxura. Ala agertzen bait zaigu mota ezberdiñetako Erriz betea: Iberitarrak, Keltiarrak, Keltibeltarrak, eta, jakiña, Euskaldunak. Auek, leiñu edo tribu ugaritan zatituak.

Saski-naski ortan, ordea, ez da erreza gauzak zuzenki sumatzea:

Edestilari aiek atzerritarrak ziralakoz;

Onera etorri gabe, bestek esaten zienaz fidaturik urrundik idazten zutelako;

Gure Erriko gertakizun eta gure tokien izenak ongi aditu eta zuzen idazteko, aien eta atzerritar orenen ezintasuna beti arras aundia izan dalako;

Beraiek ere bein baiño geiagotan Errien nortasuna ematerakoan, oztopoka ibilli zitzaizkigulako. Tito Libio'k, adibidez, aurrena keltibeltar-edo egin zituan kalagurritarrak, euskaldun egin zizkigun gero, liburu bat beraren orrietan.

Egia da, Ibero, Kelta, Keltibero, danetatik izan zala gure Euskalerrian, gero ta geiago ari bait zaizkigu jende-mota aien aztarnak azaltzen.

Baiñan:

Jende aiek oso gutxi ziran. Araba'ko Biasterl'ren albo-alboko "Laويا" da jende zar aien egoitzarik garrantzitsuenetako bat<sup>1</sup>. Ba, an, ez ziran beñere 100 baiño pertsona geiago bizitu.

---

uriburu.

<sup>2</sup> LAOIA: Orain ikerlari erdelzaleek "La Hoya" idazten duten izen orren euskalduntasunaz "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" a mintzatu nintzan.

Geiago bizi ote zan Urietan? Baleike, baiñan euskaldunak izan edo ez uri aietako biztanle guztiak, uriek beintzat izen euskaldun nabarmenak izan oi dituzte maiz aski; Garai, adibidez, gero erromatarrek "Numantia" birri-zendatu zuten arek.

Iberieraz idatzitako txanponek ez digute illunpe aiek argitzeko balio. Txanpon oietako eta arri-gaiñetako idazkiak, euskaldunak izan bait daitezke, naiz iberieraren izkiak, letrak, erabilliz idatzirik agertu. Euskaldunok beñere gure izkirik sortu ez dugulako, atzerritarrek gugana ekarritako izkiak erabilli bait ditugu beti. Orrela ba'litz, ez lukete ikeriariek, idazki oietan ainbeste euskal-itx aurkitzeaz arritu bearrik izango.

Aia ere, esan dezagun ez dugula oraindik idazkera ta izkuntza zar aiek zintzo irakurri ta eskier ulertzeko, bear aiñako yayotasunik lortu.

*ORTOGRAFIA*: Iltzeaz dagoan euskera gaixoarentzat bear-bearrezko gauza da, bere ulerpena eraezten duan guztia, idazterakoan erabiltzea, eta zailtzen duan guztia kentzea.

Orregaitik nik ez dut beñere euskeraz "H"rik erabilliko:

1'go. Gure euskerak sekulan "H"rik erabilli ez dualako. (Bearbada beste iñork baiño obeki ezagutzen ditut Erdiaroko gure dokumentu zarrak. Agian orregaitik andotxo dakit, erdiarokan "H" a ez zala agoskatua izateko idatzia izaten, "komodin" baten antzera beste izki baten doiñua emateko baizik.

2'gn. Oraingo "H" ori, Arantzazu'n Euskaltzaindiak 1968)an egindako batzar doakabe artan, ETA'ren giroko gazte-jende iraultzalari ezkertiarrek Euskaltzain geienen borondatearen aurka, oiuka ta marruka, auteskundegintzarik uzteke, artuerazi zutelako. Euskaltzain osoak "el batuaren" eta "H"aren etsaiak ziran, baita Lafitte ere, Laburditarren ordezkariarik garrantzitsuena, baiñan beren iritzia agertu nai izan zutenean, "zarrak etxera" oiuka izan ziran isilduak<sup>3</sup>.

3'gn. "H" a, euskaldunentzat, sasiortografi berri au ikasteko, eta, ez-euskaldunentzat euskera bera ikasteko zailtasun arras aundiko izkia dalarik,

---

Ikus "Euskerazaintza" aldizkariaren XXXV zenbakian (1969.Jorrailla-Ekaiña), 56'garren orritik 60'garrenera billera ari buruz "oar" bitan esaten dituan gauza izugarriak).



iltzeko unean aurkitzen dan euskera doakabearentzat berebiziko eragozpen kaltegarria dalako.

Alatagutziz, idatziko nuke nik "H" a Iparraldean.

Dirala urte batzuk Gazteiz'ko Seminarioan Teologi-Fakultateko euskal-irakaslea ninduzuten ni, Nere azken irakasturtean, ez dakit zerzalata, "emen" idatzi nuan olbeltzean.

Erderaz, jakiña, "aizu, itz orrek ez al darama "H" bat"? galdetu zidaten arnarretik iru ikasle berrik.

"Ez, erantzun aien "Emen, Ego-Euskalerrian, itz orrek "H" rik ez darama. Laburdi'n ba'nego, ipiñiko nuke "H" ori, laburditarrek naiz agoskatu ez "H" a idazten dutelako. Eta Benaparroa'n edo Zuberoa'n idatzi eta agoskatu egingo nuke, an agoskatu ere egiten dutelako. Eta ni ez bait naiz iñor, ipartarrei beren euskeran nola jokatu erakutsi nai izateko"

Iru ikasle aiak ez ziran geiago agertu, eta urrengo irakasturtearen asieran, neri iñork deus esan gabe, ordura arte urte batzuetan nerea izandako eginkizun artarako beste irakasle berri bat izendaturik aurkitu nuan: euskaldun berria, eta atxezalea, jakiña.

*GALDE-IKURRAK:* Euskaldun berrientzat Euskeraren irakurketa eta ulerketa erreztu dezakean oro erabilli bearra dalako, nik, bearrezkoa iduritzen zaidanetan, kezkarik gabe erabilliko ditut galde-ikurra biak:        eta

*IZKI BIKOI7ZAK:* Bi itz lerrotxo ("-") baten bidez alkartzen ditugunean bi itzak bat egiten ditugulako, aurrekoaren atzetik "Sr, "LL" eta "RR" erabilli bearrak dirala derizkiot: adibidez, "urr-ontzi" ("vasija de avellanas") idatzi bear dala, "ur-ontzi" ("vasija de agua")rekin nasi ez dedin.

"A " *ATZIZKIA*, neretzat, toki-izenetan, gaztelarazko "EL", "LA" artikularen kidekoa da: artikulatu bat: gaztelarrek "EL" eta "LA" bezala, itza nominat'eran ipintzeko ere erabiltzen duguna. Era ortan, Donosti, San Sebastian da, eta Donostia, la San Sebatian; Germani, Germania, eta Germania, la Germania.

"A" ori        GermaniA --itzaren gorpuzki dala? Bai, agian, lateraz, orrela nai ba'da. Baiñan, gero, beste izkuntzek, bakoitzak bere senaren

araura, era ezberdiñez jaso dute izen ori: Germanie, frantzerak; Germany, inglanderak; Germanien, doixkerak; Germanujo, esperant'eraz. Gaiñera, lateraz ere, "A" ori ez da itzaren gorpuzki, egiazko aurrizkia baizik: nomié nat'erari dagokiona, deklinabidearen beste eratarako aldatu-bearra. "GER-MANI" da, beraz, eraskin oroz yare, izen orren enborra.

Gaiñera, badu euskerak beste edozein izkuntzek aiña, erderetatik ar-tzen dituan itzak bere senaren araura itxuraz aldatuz euskalduntzeko eskubi-de betea. Ori egin du beti; baita erderetatiko itz oiei beren jatorrizko itxura zearo aldatuz ere: Orrela, "ecclesia"tik, "eliz" atera digu; "presbyter"tik, "bereter" ; p areere" tik, "barkatu" etabar.

*Norahidea:* Badut, idazten ditudan liburuetan nere norabidea emateko oitura. Ona ba, irakurle, zerbait galdetu edo liburu onen alde edo aurka zerbait esan nai ba'didazu, askatasun osoz eta iñolako bildurrik gabe nora jo dezakezun:

Latiegi'tar Bixente,  
Rikardo Buesa Kalea, 1, 3.  
01008 Gazteiz.  
Urrutizkiña, 945 13 22 11.

Nerekin aurrez-aurre itzegin nai ba'duzu berriz, ni Gazteiz'ko Semina-rioan egoten naiz egun osoz lanean. Emen aurkituko nauzu, eta adiskideai zor zain begirune ta maitasunez izango zera onartua. Eskerrak, aurretik, zuri.

## EUSKALERRIAREN IZENA LZIKINTZEN?

Ikusi aal izan dugun lez, erromate osoko idazle klasiko guztien artean ezin daiteke Euskaldunen izena zikintzen duan idazlerik aurkitu. Ezta, garai zaar artako idazle kristauen artean ere. Alderantziz, Euskaldunen goresgarri orokorra agertu zaigu antziñate artan aurkitu aal izan ditugun Euskaldunei--buruzko aipu ugarien sorta mardula.

V mendean gero asiko zaizkigu gure Asaben aurka ikaragarrikeriak esaten Iparraldeko eta Egoaldeko atzerrietatik, gorrotoak itxututako idazleek: Euskalerriaz mintzatzen diran idazle ia danek. Idazle oiek ordea, barbaritarrak ziran: Bisigotak edo Frankiarrak, Euskaldunon ertsiak beraz. Jakiña bait da Euskaldunen eta bi Erri barbaritar aien artean gudua izan zala, ia beti, alkarren arteko bizi-kerak.

V mendean, ez zan adiskidetasun aundiegirik izan Euskaldunen eta Tolosa'n Erreiñuaren uriburua ezarri zuten Bisigotiarren artean. Aztertu dugu II Teodoriko eta I Euriko Erregeen jardunkera. Esan dugu nola Euriko'k Iruña artu zigun, eta Isidoro Doneak dioskunez, nola gure uri aundi ura sei urtez, 466'tik 472'era, Tolosa'ko bisigoten mendean egon zitzaigun (Isidoro, "Hist. Goth", 466).

Baiñan batez ere, Bisigotek, 507'an VouilWko ondamenaren ondorioz Galietatik jaurtiak izanda, Toledo'n uri nagusia ezarriz, Españi'n eraiki zuten Erreiñu oro-lapurtzaillearen aurka izan ziran gogorrek, V mendean erdiaz gero, gure Arbaso zarren borrokak.

Galietan, Vouill&ko garaitza aundiaz gero Frankiarrak izan zitzaizkigun gure iparraldeko mugetara iritxi ziranak. Eta jaien aurka bait izan ziralak benetan gogorrek gure Asaben borrokak!

Zoritxarrez, Euskaldunek ez zuten deus idatzi. Garai aietan bizitutako gure Asaben bizieraz eta jardunkeraz jakin dezakegun guztia, Frankiarrak eta Bisigotiarrek idatzi zutenetik jaso bearrean aurkitzen gera. Idazle aiek,

ordea, gure Erriaren aurka gudan zebiltzan Errietako semeak ziran eta Erri aietako Erregeen adiskide, maitale, rnieste ta goratzaille!

Gorroto zioten Euskalerrriari. Ez da beraz arritzekoa, are gutxiago osoósoan sinistekoa, VI mendez geroko idazki Frankiarretan eta bisigotiarretan aurki dezakeguna.

Gaurr-egungo edestilarien artean, bereiziki gaurr-egungo edestilari españizaleen artean badira V mende bereko idazleen liburutetan ere Euskaldunen aurkako epai-itzak ikusten dituztenak. Iru dira aipatzen dituzten idazleak: Abieno, Orosio, eta, batez ere, Nola'ko Paulino Donea.

Aztertu'itzagun iruak oraintxe, eta ementxe, lez bait du iruetatiko batek ere Euskalerrriaren izena orbandu dezakeanik deus esaten!!!

\* \* \*

RUFUS FESTUS AVIENUS, olerkari jentilla: Itali'ko Etruri'n jaió omen zan. Aristokrazikumea. Afrika Erromatarre'ko (366) eta Arkaya'ko (372) Jaurle izan zitzaigun. Eta geografilart ta olerkari. Geografilari bezala ez zigun beregandikotasun aundirik erakutsi, bestek bildutako uztatik egin bait zuan larre. "Rufo Festo A<sup>y</sup> ieno tomó de un `periplo griego ' de autor desconocido, escrito del año 530 al 500 antes de J.C., la descripción geográfica de las costas hispanica (Atlantik-itxasokoa) e iberica (Mediterran-itxasokoa) fundada según se cree en informes de origen fenicio" (Espasa).

Abieno ez zan ba beiñere emen izan. Greziar ezezagun ark ¡Krist'aurreko VI mendean! idatzitakotik jaso zituan damaizkigun albisteak, Baiñan greziar ezezagun ura ere ez zitzaigun iñoiz emen izan. Feniziarrek segu-ruaski bai, ibilli ziran gure itxas-ertzetan. **goiz, K.a. VI mendean bai ote?**

Danadala, mende antziñatsu artan emen ibilli omen ziran feniziar ezezagun aiek oiñarritzat artuz, K.a. VI mende artan bertan elendar ezezagun batek "periplo" batean idatzi zuanari geroago albiste batzuk erantsi,

---

"Periplo", eleneraz "periplous", lurralde baten inguruan itxasoz egindako ibillaldiari esaten zaio, eta, baita, ibillaldi ortaz mintzatzen dan idazki hat i ere. Ta, azkeneko zentzu orixe da, ainzunen, emen duana.

eta, guzti ori lateraz eman besterik ez zigun egin Abieno'k. Oso iritzi on laburra merezi duan lana! Euskalerrriari dagokionez batez ere, bera sekulan emen egon ez zan ezkeru.

Orrelako gauzak, ordea, zoritxarrez, ez dira gure edestiari dagozkionee tan bein edo bi aldiz bakarrik gertatutakoak.

Geografilari lez bezain besteren eskuko dugu, gure Abieno ori, olerkari lez ere. "Como poeta, Avieno, ni sobresale por su originalidad ni por su lenguaje, que es pobre, amazacotado y lleno de arcaísmos" (ib).

Ez da, beraz, Abieno'k esan dezakeana, oiñarri naiko sendoa edeski ziur baterako. Bere iturri nagusiak zearo ezezagunak bait zaizkigu. Alare, naiz ark emandako beste albiste danak bezala oso ziurra izan ez, zerbait zor diogu Abieno'ri. Bera da ba, bere poemaren 158'garren bertsoan, Ondarra-bi'ko Asturiaga itxas-kolkoaren gaiñean dagoan Iger arkaitz-muturrari "Veneris Yugum" edo "Benus jainkemearen Aitza" esan ziona.

Baiñan ez omen dugu gauza eskierra Abiano'ren "Veneris Yugum" dalako ori gure Iger aitza danik. Egia ba'litz, orrek, Euskalerrrian Benus lizunkeriaren jainkemea jainkotzat gurtua izan zala esan naiko luke. Nork gurtua? Euskaldunek? Ala, zillar-berun-meatzak zirala-ta, "Oiasso"ren lurralde aietan ugari bizi ziran atzerritarrek?

Beste bi bertsoan Baskoien urduritasunaz mintzatzen zaigu Ibero ibaiatz itz egiterakoan "de illa tlumine quod INQUIETOS vascones praelabitur", ots, "Baskoi *urduriak* ukituz igarotzen dan ibaia" aipatzen duanean. (Azpimarraketak nereak).

Eta orixe besterik ez da Abieno'k Baskoien aurka? esandako guztia: INQUIETOS VASCONES!

Abieno, ordea, bi bertso oietan, Sertorio'ren eta Ponpeyo'ren denboraz ari da. Bi aien arteko guduan, Euskaldun batzuk Sertorio'ren alde sartu ziran. Ponpeyo'ren alde jarri ziran berriz beste batzuk. "INQUIETOS" ori, bertsoak ala eskatzen zualako, betegarri utsa besterik ez ba'litz ere, eta ori dala dirudi, ez litzake garai artan batere arritzekoa izango Euskalerrria naiko URDURI egon izatea.

Ez du beraz ezertxo ere balio Abieno'ren poemak Euskalerrriaren izen ona zikintzen ibilli nai izateko.

Ez dut uste iñork esan duanik, baiñan bat edo batek, agian esan lezake, Abieno'k ez zuala "urduri" itza, orduan Baskoiak urduri zebiltzala adierazteko erabili, beste onako au adierazteko baizik: Baskoiak beti dirala

urduriak, urduri izatea beren jitez dagokien gauza dutelako, edo, berdin dana, urduritasuna dala Baskoien nolakotasunaren adigarrik nabarmenena.

Ori esan lezakeanak, ordea, bi gauza egiztatu bearko lituzke: Lendabizi, urduritasuna Euskaldunon ezaugarritzat guk artu aal izateko **Euskaldunok** beste jendeak baiño urduriagoak gerala..., edo, beintzat, noizbait izan giñala. Eta, bigarren, (Euskaldunon antziñako urduritasun ura, naiz benetan izan egiazkoa, Kristautasunaren sarrerako oztopogarri izan zitekeela uste aal izateko, ortarako aitatzen dira ba iru idazle zar aien esariok), "urduri" itzak au esa nai zuala Abienorentzat: "gaizkilleak", "gaiztakeriari itsatsiak", edo "beren betiko setakeriari totuak", "aldakaitzak", "actimenez itxiak", "berria daitekean ooren etsaiak, edo beste orrelako zerbait zirala gure Arbasoak.

Kolkoa bete lan izango du, noski, bait bata bai bestea egiztatzen asteko prest agertzen danak! "Urduri" itzak, gaiñera, "aldakorra" itzarekin kidetasun geiago bait du "aldakaitza"rekin baiño; eta, baita adimenez "irikia"rekin, adimenez "itxia"rekin baiño.

Laga dezagun ba bein betirako Abieno olerkariaren auzia; ez bait zuan agian eman diogun garrantzirik merezi, eta ikus dezagun zer dioskun Orosio edestilariak.

\* \* \*

**PAULUS OROSIUS:** Batzuen ustez Tarragona'n eta beste batzuen ustez Portugal'eko Braga'n IV mendearen azken aldera jaiotako idazlea. Abieno jentilla izan zan bezala, kristaua izan zan Orosio, eta ez nolanaiko kristaua gaiñera. Augustin Donearen ikasle, adiskide eta lagun, teologilari, biblilari eta edestilari, garai artako kristau-gizonik ospetsuenetakoa izan zan, Augustin bera eta Jeronimo'z gero.

Ainzuzen Doneaugustiñ'ek bidalita joan zan 415'an Jerusalem'era, orduan an bizi zan Donejeronimo'ri, animaren sorketari-buruzko teologi-arazo batzuk argitzeko laguntz'eske.

Teologilari bezala, giza-adimen eta giza-naimenaren askatasunaz "Apologi" bat idatzi zuan, Pelagio'k erakusten zuana zuzenduz. Eta, ongi eza-guna da, Euskalerrian ere ainbeste zabaldu zan priszilikeriaren akatsak azalduz, Augustin Doneari bidali zion gutuna. Gai ori bera jorratuz beste gutun baten bidez erantzun zion arek.

Edestilari lez, aizuzen Augustiffek eskatuta idatzi zuan, munduaren asieratik 417'garren urteraiño iristen dan zazpi liburuko "Edestia". Teologizko lana, au ere, asmoz beintzat: Egunetik egunera argiago ageri zan Inperioaren ondamena. Jausketa aren errua, kristautasunari leporatu nai zioten jentillek. Jentil oiei Jainkoaren "Probidentzia", Jainkoaren "Ardura Orokor Donea" erakustea izan zan ba bere liburu orren elburu nagusia.

Orosio'k ere aipatzen digu gure Euskalerra zar ura. Ez ordea, ez orixe, gure Erri ura zakartu naiez. Soilki V mendean, Baskoi lapur batzuen berri ematen bait digu, Lapur aiek egiazko lapurrak izan ba'ziran ere, ez da noski aipamen ori mirarizko gauza. Inperio-lurreko mendiak beti egon bait ziran lapurrez eta gaizkillez beteak. V mende artan, batez ere: Ordurako Inperioaren aalmena usteldurik aurkitzen zan mende artan. Eta, esana bedi au gure Asaba zar aien laudorior lapurkeriari dagokionez, Inperio-lurreko beste edozein Errialde egon zan beti Euskalerra baiño askoz okerrago. Ortaz mintzatuak gera, eta mintzatuak gera berriz ere.

Euskalerrira kristautasuna oso berandu sartu zala uste dutenen arrazoietakoa bat Euskalerra gaizkille-erria izan zala uste izatea da. Uste ori gezurtatuz agertu zaizkigu IV mendera arteko idazle klasiko guztiak. Eta, ikusi dugunez, oraingo bi auek, Abieno eta Orosio, ez zaizkigu, ez noski, Euskalerra izena kirasteko asmoz etorri.

So dagoigun iru2arrenari. So dagoigun Nola'ko Paulino Doneari, Euskalerriko kristautasunaren "atzeratzailleek" geien erabilli oi duten idazle zarrari. ¡Bera omen da ba, Auñamendiko bere ibillaldia kontatzerakoan Euskaldunak gaitzesten dituana!!!

Nere ustez, ordea, bere itzak zuzen ulertzen ba'dira Paulino'k ere, ez du gure Asaben izenik zikintzed.

\* \* \*

PONTIUS MEROPHIUS ANITIUS PAULINUS Nola'ko Gotzai Donea, Akitaniarra izan zan jaiotzez. Bordele'n etorri bait zan mundu ontara 353

---

<sup>5</sup> Alare, izugarria izan da olerkari oni enian zaion garrantzia-ta, astiro azaldu nai nuke auzi guzti orren arazoa. Barkatu bekit irakurleak.

ala 355'garren urtean, arras aberats eta kultur aundiko ta politikazko aalmen aundiagoko gurasoen seme.

Ez dakigu guraso auek eusko-jatorrikoak ala orduan garrantzi aundiko uria zan Bordele'ra etorritako atzerritarrak ziran: italiar-endako Inperioaren serbitzari ospetsuak agian. Ez bait zan garai artan Bordele nolanaiko uria". "Centro culturale tra il pid rinomati della Galia nel sec. IV", esaten dio "Bibliotheca Sanctorum" italiarrak (X, 1g65): "Izenik aundienetakoa, IV mendean, galietako kultur-kabien artean".

Bordele'n bertan egin zituan bere aurreneko ikasketak. Ez edozein irakasleren zaintzapean, Ausonio bere irakaslea, bordeletarra au ere, "il illustre maestro della fiorente scuola burdigalense" izan zala esaten bait digu aipatutako "Biblioteca Sanctorum berak (ib): "Bordele'ko eskola loretsuan irakaslerik ospetsuena".

Izen aundiko olerkaria izateaz gaiñera, politikaren barrutian ere kargurik garaienetara iritxi zan Ausonio: Balentiniano inperatoreak inperatore izanan zan bere seme Graziano'ren irakasle izendatu zuan. Eta baita laister "Praetor Palatii" ("Inperatorearen Jauregiko Zuzendari Nagusi") egin ere. Bereala, Itali, Ilirl (ia gaur-gaurko Yugoslabi), Afrika (Tunez eta Argeli'ren sortaldea) eta Galietako "Praefectus Pretorii" ("Epaltegirik nagusieneko Lendakari"). Eta, azkenean, Konsul.

Agian-agian, maixua orrelako kargu garaietara iritxi izateari zor dizkio Paulino ikasleak, berak ere artu zituan kargu garaiak. Aundia izan bait zan irakasle-ikasleen arteko maitasuna. Aita esaten zion Paulino'k Ausonio'ri. Seme berriz arek oni.

Ausonio kristaua izan zan edo ez, iñork eskierki ez dakian gauza da. Sendi jentillaren semea, ez dakigu bataiorik artu zuan, eta artu ba'zuan ere, bere pentsaera geiago izan zan beti jentilla, kristaua **Ontan, batera** datoz edestilari danak. Baita "FundaciO Bernat Metge"rako Ausonio'ren olerkien katalaunieratzea zuzendu zuan Joaqin Balcells ere.6

---

Katalaunierazko "Eskriptors Llatins" deritzan bilduma eder ortan aztertu ditut Ausonio'ren olerkiak. Batez ere bilduma orrek Ausonio'ri ematen dizkion bi liburuetatik bigarrenaren 113 orriari datorren Ausonio'k Paulino'ri idatzi zion bertsozko eskutitza.



Ausonio maixua bezain olerkari ona izan zan Paulino ikastea, eta bait askoz ohea ere kristau-bizitza benetan bizitzea erabaki zuan ezkerok. Ta, ark bezain kargu garaiak lortu zezazkean politikaren arloan ere, nai izan ba'lu; ez bait zan alperrik bera ere, jatorriz, senatari-gaien sendi bateko semea.

Ala, Itali'n, Napoles uriburu duan Kanpani'ko jaurle izan zan 381'ean. 25 urte besterik ez zituan mutil gaztea zan orduan.

Napoles'tik oso bertan zegoan Nola izeneko uri txiki bat; eta an obiratuta, Donefelis martiriaren gorputza, erromesketa ugariaren elburua. "Orduan artu omen zuan Paulino'k zaindaritzat martiri ura, eta ari eskeiñi omen zion bere bizia": "al martire, fin da ahora, Paolino consacrba la sua vita come a suo patrono" (Bibl. Sanct. X, 137).

Ez dakigu zergaitik, Kanpani'tik Akitani'ra itzuli zan berriro. Baiñan laister, Bordele'tik Auñamendiaren egoaldera etorri zitzaigun, eta, emen, Terasia izeneko neskatil batekin ezkondu. Izan zuten seme bat, Zeltso: bereala 11 omen zitzaien semetxo<sup>7</sup>.

Aurtxo ura ilda bela, Akitani'ra itzuli ziran senar-emazteak, an bait zuan Paulino'k alor ederren erdian landa-etxe bikain bat. Pozik bizi ziran Bordele'ko jakintsu eta elertilari bikaiñen adiskidetasuna gozatuz. Jakintsu

---

<sup>7</sup> Egia esateko, Paulino Ispanietara nondik sartu zan ziur ez dakigu. Bordele'tik Acerfa itxasertza jarraitzen zuan bide bat. Aisa (Ptolomeo) Oiartzun-Pasai-Ondarrabi arteko lurralde guztiari esaten zioten erromatarrek. Ortik etorri ote zitzaigun Paulino? Berak, "Auñamendia igaroz etorri zitzaigula" diosku: "Trans iuga Pyrenes adii prereffrinus". Baiñan erroinatarrentzat Auñamendia itxasorairio iristen zan, Larnm, Aia'ko Arriak eta Jaizkibel bere altzoan artuz. Etorri zitekean. Bere itzegiteko erak ordea mendi-gairietatik etorri zala, esan nai dula dirudi, eta Ausonio'k ere orixe adierazi nai zuala iduritzen zaigu. Mendi artako elurrak aipatzen bait ditu. Paulino'k, berriz, Baskoiak aipatzen dizkigu. Eta Baskoien mendatea Ibarieta'koa zan: Astorika-Bordigala bide ospetsuari nondik igaro ematen ziona. Bai badakit "Bascones" itza ez dala itz eskierra. Naiz berez "Baskoiak" gaurko Naparrak izan, batzuetan "Baskoi" Euskaldun guztiei esaten zitzaielara bait dirudi. Akitani'tik Bordele'tik batez ere Ispanietara etortzeko, ordea, jende guztiak erabiltzen zuan bidea Astorika-Bordigala izeneko zalarik, zalantzarik gabe esan dezakegu Paulino Ibarieta-zear ibilli zitzaigula.

aien artean, bereiziki, iru gizon egin ziran Paulino'ren adiskide aundi, Giobio filosofilaria, Gastidio jaun aberatsa eta Sulpizio Sebero bordeletar edestilari dotorea. Azkeneko au batez ere, naiz oraindik jentilla izan.

Orduan gertatu zan Sulpizio Sebero'k "Vita Martini" liburuan kontatzen duan miraria. londoni Martti'k sendatu omen zuan ba Paulino begieta-ko gaitz makur batetik.

Guzti orren ondorioz, 389'garren urtearen inguruan artu zuan Paulino'k bataioa. Amando izeneko apaiz bat izan zitzaion ortarako gertutzaille eta Delfino Bordele'ko gotzaia bateatzaille.

Ez zaitzala arritu bataio aren berandutasunak, oitura bait zan Elizaren lenen mendeetan bataioa atzeratze ori.

Berebiziko aldakuntza gertatu zan bataioa artu ondorean Paulino'ren biotzean: bere kristautasuna erarik bikaiñenean bizitzeko lekaidetzara jotzea erabaki bait zuan.

Bere nai ori errezago lortu al izateko, Bordele'n eragozpen geiegi gertatuko zitzaiola ikusten zuan-da Bartzelona'ra etorri zan Terasia emazte kristau zintzoarekin. Ordurako, biak birjintasun osoan bizitzeko eskeintza Jainkoari egiña bait zuten. Lagun bat edo beste ere etorri omen zan aiekin, danak batera lekaideen bizitzara sartzeko gurariak eraginda.

Bartzelona'n ordea, laister, erriaren eskariari erantzunez, Lampius Bartzelona'ko gotzaia, gure Paulino apaiz sagaratu bearrean aurkitu zan.

Baiña, lekaide-bizitzaren zale, Felis Donea obiraturik zegoan Nola'ra joan zitzaigun Paulino Terasia bere emazte eta bere taldeko lagun guzti aiekin, an, Kanparti'ko Nola'n, lekaideen antzera alkartasunean biziera latz bati asiera eman naiez.

V mendearen lenen amar urteetako batean izan zan Nola'ko gotzai sagaratu, erriak ala eskatuta oraingoan ere, eta arrezkero Elizaren serbitzura ari izan zan beti, 431'garreen urtean eriotza iritxi zitzaion arte.

Au da Ausonio maixuaren olerkizko Eskutitz bati erantzuteko idatzi zuen olerkizko "Eskutitz" baten bidez Euskalerrriaren izena iraintzeko ainbat eta ainbat idazle jakintsuri kirtena eman dien gizona<sup>8</sup>.

---

Bordele'koa izanik, Paulino, seguruaski Euskaldunak ongi ezagutzen zituan gizona zala, esango dit agian norbaitek. Ezetz erantzungo diot. Euskaldun ugari izango zala, bai, aro artan Bordele'n, baiñan Euskaldun uu k jende

\* \* \*

Aztertu'itzagun, liburu onen azkeneko eraskiñean osorik emango ditugun bi Eskutitz ospetsu oiek:

- Oarketa bat aurrena: Bi Eskutitz oiek itz neurtuz idatziak izan ziran. Olerkiak, ordea, ederki jakiña dan lez, ez dira, iñolaz ere, edestigintzarako txit oiñarri zurrak.

- Gaiñera, bi Eskutitz oiek, biak, olerkizko jostaketa-moduan idatziak izan zirala, argi agiri dan gauza da biak irakurtzen dituanarentzat. Mamia, biek dute benazkoa, seriotasun osozkoa: Ikasle, ustez, eskergearenganako asarrea, irakaslearenak; Irakasle maitearen kristauketa, ikaslearenak. Axala da, bi eskutitzek ariña dutena. Izan ere, erretorikakeriaren garaitz-aroa izan zan Ausonio ta Paulino bizi zitzaikigun aroa.

- "Bibliotheca Sanctorum"en ustez (X, 156), Ausonio'k, Paulino bere ikasle maiteak, ondasun guziak utzita lekaide izatea erabaki zuala jakiteaz arriturik, buruz arindu zitzaiola uste izan zuan "seme" ari asmo oiek utziezazteko idatzi omen zion, (erantzunik gabe gelditu zitzaizkion aurretiko beste biren ondorean), azkenean Paulino'gandik erantzuna jaso aal izan zuan irugarren eskutitz au.

---

xee Iangillea izanen eta Paulino'k ez zituala "ikusi" ere egingo. Beste gizarte-mota bateko gizona bait zan Paulino Bordele'n bizitu zan artean. Esan dugun lez, Inperio-lur guztietako gizonik aberatsenetakoa, aberatsena bearbada, erriko jendeagandik milla leguaz urruti egon zan beti. Galietan beste bat ez bezala zan Bordele IV mendearen azken-aldera kulturaz eta diruz ospetsua. Arro goersten du alako uri dizdiratsu ura poema batean, Paulino' ren maixu eta kultura-gaietan aren egiazko aita izandako Ausonio olerkari jentillak. bataioa artuz gero bere bizia osoro Kristo'ri ematea erabaki zuan arte, aberatasun narozko ta kultura lilluragarritzko zero biguin artan bizitu zan Paulino bere kixazko lagunez inguratutik. Era artako gizandi aiek ez zuten erriko jende xearekin arremarik, are gutxiago jende-mota orrekin itzegiten. <sup>i</sup> Itzegiten al dute gaur gure gotzaiek, gure ekonomilari aberatsak, politikari altsuek gure unibertsitateetako irakasle jakintsuek ijitoekin, kalegarbitzailleekin eta kalegarbitzailleen maillako jendeekin?

- Orrela dirudi, baiñan ez Iztegi orrek uste duan bezain era gogorrean. Adimen argiegiko gizona bait zan Ausonio, Paulino bezalako <sup>g</sup>izon bati alako erabaki larri bat burutik kentzeko, asarre eta serioki idaztea alperrikako gauza dala ez oartzeko. Alderantziz, ala idatzi ezkerro, asmo arrigarri aiek Paulino'ren buru-muiñetan geiago sendotuko zituala ondotxo bait zekian.

- Orregaitik jostaketa moduan idatzi zion, satira-olertirako arras yayoa bait zan bera. Eta ekintza oietarako, Paulino ere Ausonio bezain yayoa zalako, jostaketa-era ber-berean erantzun zion ari.

- Orretxegaitik ainzuzen Paulino'ren aditzak ez daude "indicativum" eran, "optativum" edo "subiuntivum" eran baizik; euskeraz, obeki, "bal-dintz'eran": Paulino'k ez du ba esaten "Lapurren artean egon NINTZAN". "Lapurren artean egon BALDIN BA'NINTZAN ere" esaten du". Ez dira noski gauza berdiñak.

- Izan ere, Paulino, Baskoni'ko mendietan, egiazko lapurren artean egitan egon o! **milla bider arritzeko gauza!** lapur Baskoi aiek ez zitzaizkion nolanaiko gizonak gertatu:

Paulino'ri ez zioten deus kendu.

Ezta berekin zetozenei ere!

Ez Paulino'ri ez bere lagunei, ez zioten iñori gaitzik egin. Ezta arramaskatxo bat ere!

Oso neska gazte ederra ta polita omen zan Terasia Paulino'ren emaztea. Alare, bere buruko ille bakar bat ukitu ere gabe serbitzaririk leialenak beren erregiñaren aurrean bezala jardun ziran emakume guragarri bikain aren aurrean.

Bernaizkip Jainkoak orrelako gaizkille ta lapurrak ugari!!!

\* \* \*

- Ausonio'ren Eskutitzak ez du Euskaldunen aurkako izketa zakarririk bere bertsozko jolasketan. Soilki, Euskalerriko basoak "Baskoien saltus" eta Auñamendiko babestoki eIurtuak" -- "ninguidae Pyrenaei hospitia" aipatzen ditu itz-jario jostalari ugari baten artean:

Aurrena, adiskideen arteko alkarrizketaren bearra agertzeko, zeru, lur, aitz, itxaso, jainkotxiki, egazti, abere ta izadi osoarekin jostaketan ondorean, erretolika luze-luze baten ondorean onako iru bertso auek zu-

zentzen dizkio ordura arte ain adiskide maite eta maitagarri izan zitzaion ikasleari;

"Vertiste, Pauline, tuos, dulcisime, mores?  
Vasconis hoc saltus, et ninguidae Pyrenaei  
hospitia, et nostri facit hoc oblivio coeli"?

\*

Euskeraz

"Aldatu al dituzu,  
gozotasunezko nere Paulino kutun orrek,  
orain arteko zure oitura guztiak?  
Zerk eragiña daiteke zure aldaketa ori?  
Baskoien basoak?  
Añamendiko babes-toki elurtsuek?  
Ala, zuk zerorrek,  
gure zeru au aztu izateak ote"?

Ori esan ondorean Iberi'ko lurraren aurka gaitzespenak jaurtitzeari ekiten dio:

"Izan zaitez, Iberi, Kartagotarrek suntsitua": "te populent Poeni".  
"Kiskali zaitzala Anibal maltzurak" "te perfidus Hannibal urat". "Guda-tegi biurtu zaitzala berriro Sertorio erbesteratuak": "Te belli sedem repetat Sertorius exul".

Ta "Bilbilis" (Kalatayud), "Calagurris" (Kalaorra), "Ilerda" (Lerida) eta Iberi osoa astindu ondorean, baditu gaitzespenak, ondo gaitzespen pitxiak Paulino ixilik egotearen errudun izan zitekean pertsonatxoarentzat ere<sup>9</sup>.

\*

"Quis tamen ista tibi  
tan longa silentia suasit impius

---

<sup>9</sup> "Pertsonatxo" ori aipatzean, Ausonio'k Terasia aipatzen ziola uste izan zuan Paulino'k, eta ez zitzaion ori oso atsegiña gertatu, bere erantzunean adierazi zion lez.

ut nullos hic vocem vertat in usus?  
Gaudia non illum vegetent; non dulcia vatum  
carmina; non blandae modulatio flexa querelae,  
non fera, non illum pecudes, non mulceat ales,  
Non quae pastoreum memoralibus abdita lucis  
solatur nostras Echo resequita querelas!  
Tristis, egens, deserta colat; tacitus pererret  
alpini convexa yugum ceu dicitur olim  
mentis inops,  
caetus hominum et vestigia vitans,  
avia perlustrasse vagus Toca Bellerophontes".

### Euskeraz

"Nor izan da isilune luze ontara  
beartu zaitun ankerra?  
Ez bedi iñoiz itz bat esateko gauza izan.  
Ez beza bere animarik pozak alaitu;  
ezta olerkarien bertso goxoek  
edo illeta-abesti xamurren doiñuek.  
Pizti, artalde eta egaztien oiuek  
ez bezaizkio alaigarri gertatu.  
Eztare ez bezaio alaigarri izan,  
artzaiek ain maite  
dituzten oianetan izkutatzen dan Oiartzuna, guri bai,  
gure deadarrak itzuliz  
guri ain pozgarri zaiguna.  
Itun, txiro, lekaioetan bizi bedi.  
Añamendiko aitzarteetan bebil, isilik beti;  
orrela ibilli omen zan ba Bellerofonte  
lekaioetan, iñorako asmorik gabe,  
gizak-umeengandik

eta baita gizakumeen aztarnetatik ere igesi""

- Jostaketa utsa, guztia, zerorrek liburu onen azken orrietan ikusi aal izango duzun lez. Bañan jostaketazko itxura ori, oraingoan, mende artan literaturaren aurpegia izan zan geiegizko erretorika-zalekeriak damaie Ausonio'ren bertsoei. Oraingo ontan bai, itxura txolin orren azpitik egiazko asarrea bait darioe Ausonio'ren neurtitzei: Ezin zuan ba jentiltasunezko mundu atsegin baten zale amorratua zan gizon ospetsu, aberats eta orotan garaille izandako arek Paulino'k artutako biziera berririk ulertu, eztare bere ikasle maite aren isiltasun luze setatsuaeren arrazoirik usmatu.

- Ausonio maixuak erabillitako era berdin-berdiñez erantzuten dio, jostalari, Paulino ikasleak ere, 1.250 itz neurtuko olerki luze baten bidez. Bañan olerki ontan ere azala bakarrik dugu jostaketa-itxurakoa. Paulino lekaide bakartasun zalearen asmoa, asmo sendoa benetan, olerki onen bidez Ausonio maixu maiteari kristautasunaren oroz-gaindiko garrantzia erakustea izan bait zan. Ez zuan agian asmatu. Seguruaski, ain biziki gura zuana lortzeko, ots, Ausonio'ren konbertsio orokorra lortzeko, egokiago izango bait zitzaion agian, asmoz kristautasunaren edertasuna erakustea artu izan ba'lu. Batez ere lore politen maitale bait zan Ausonio olerkaria, arrazoiketa sendoen miresle baiño geiago.

Danadala, esan dugun lez Ausonio'ren era darabilki Paulino'k, aren irugarren gutunari erantzuteko.

Ala, itza-jaurti-ta-itza-bir-jaurti luzaro ibilli ondorean iristen da, noiz-bait, Ausonio'k aipatu zizkion Auñamendi'ko gaillurretara, eta bertako Euskaldunetaz mintzatzer.

Esan dezagun ordea aurrera jarraitu aurretik izugarri garrantzi aundi-koa dan gauza bat: Paulino'k ez diola esaten Ausonio bere maixu kuttunari, Auñamendi'ko baztarretan aurkitu omen zituan Euskaldun "barbaro" gaizkié lle aiek jentillak ziranik! Eta esango zion ori, eta esango zion Baskoi "barharo" gaizkille aien gaiztotasuna, ainzuzen, beraien jentiltasun aren ondorioa zala. Ori adierazten digu ba, bere gutun osoan jentiltasunaren aurka

---

<sup>IG</sup> Ausonio'k "Alpeetako arkanzarteak" aipatu ditu, baiñan bere buruan Aufimendia zan aitatu nai zuana, erromatarrek, "alpe" arkaitzezko mendi orori esaten bait zioten

darabilkian izkera gogorak, eta ori eskatzen bait zion gaiñera gutun ura idazterakoan buru-barnean zeraman asmoaren logikak: Maixu maite agurearen konbertsioa lortzeko aren begien aurrean, gizakumearen salbaziorako jentiltasunaren baliorik eza; eta kristautasunaren bearkizuna.

Ori esanik, igaro gaitezen Paulino'ren lekukotasunak, edestirako izan lezakean balioaren azterketara.

\* \* \*

Euskaldunoi-buruzko Paulino'ren lenen itz neurtuek ez dute gure Asaben aurka, ez aundirik ez txikirik, txarkeri bat ere. Itz neurtu oien bidez, Euskalerrria aipatu bearrik ez zuala, esaten dio Ausonio'r'i onek Paulino 'gan gertatutako aldakuntz arrigarria Euskalerrriko baso ta arkaitzei hotatzen bait zien.

"...Quid tu niihi vastos  
Vasconiae saltus et ninguida Pyrenaei  
obieis hospitia...?"

Euskeraz

\*

"Zer dala-ta aipatzen dizkidazu neri  
Baskoni'ko oian zabalak eta Auñamendiko  
babes-leku elurtuak"?"

\*

Ondorean, bertso-neurriz aldatuz, Españi arbuiatu zuan Ausonio'ri aurka egiteko, Españi'ko aberastasunen goratarre oparoa dagi, eta gero, Euskaldunen aurka lendabiziko purrustada izan daitekeana jaurtiz, Euskaldunok basapiztiak giñala esaten digu:

as

"Sed fuerit Fortuna iugis habitasse latronum:

---

<sup>11</sup> Ona non aurki dezazkezun itz neurtu oiek eta berealaxe aipatuko dizkizué tanak: "Carmen X. 203-255.



num Iare barbarico rigui mutatus in ipsos,  
inter quos habui, socia feritate colonos?"  
Non recipit mens pura malum  
neque levibus haerent  
inspersae fibris maculae;  
sic Vascone saltu quisquis agit  
purus sceIeris uitam integer aequus,  
nulla ab inhumano morurn contagia  
ducit hospite"

Euskeraz

"Egin dezagun, Patuak ni lapurren zuloetan  
bizitzea nai izan duala.  
Orrek, barbaritar aien sutegietan gogortuta,  
piztikeriz,  
lagun izan nituan aietako baten antzekoa  
biurtu naizela esan naiko ote luke?  
Anitua garbi batek  
ez dio gaiztakeriari aterik irikitzen.  
biotz garbiari  
ez zaio inguruko orbanik erasten.  
Ala,  
Baskoien ibarretan gaiztakeririk gabe,  
zintzo ta zuzen diarduna  
ez da bertakoen oitura ez-gizakoietaz  
kutsatzen".

(Gure kristautasunaren sorkuntza atzeratu-zaleek garrantzi aundia ematen bait diote aapaldi orri, ona emen Guadalupe Lopetegi Andereño izkuntza klasikoen irakasleak, nere eskariari erantzunez, aapaldi orri damaion gaztelerazko itzulpena):

"Pero supongamos que **la Fortuna** hubiera dispuesto que yo haya vivido en montes llenos de ladrones (azpimarraketak, nereak), acaso me he endurecido con el fuego de los hogares barbaros transformandome en uno de aquellos mismos que tuve como compañeros, asociandorne a su feroci-

dad? Un espíritu puro no acepta el real y las manchas esparcidas no se adbieren en sus ligeras fibras; asf, en las montañas vascas, todo el que vive limpio de pecado, con integridad y justicia, no se contagia de ninguna costumbre del incivilizado hused".  
andik""

Itzuli gaitezen, ordea, Paulino'ren olerkira. Onek, berriro Españi'ren gorespna iru itz neurtuz abestu ondorean eta ibeti "subjuntibu" edo "baldintza-eraz" itzegiriez! onela jarritzen bait du:

\*  
"Ac si Vasconicis mihi *uita fuisset* in oris,  
cur non more meo putius formata ferinos  
poneret in nostros migrans gens barbara ritus?"

Euskeraz:

"Baskoien lurrean bizi izan *ba'nintz* ere,  
zergaitik ez zitezkean aiek,  
nere oituren eragiñez,  
oitura piztikoiak utzita,  
gure oituretara etorri?"

\* \* \*

Eman dezaiegun azken-begiraldi bat Nola'ko Paulino Donearen aapaldi oiei:

- Eta esan dezagun, aurretik, olertiaren izateko arrazoia ez dala EGI-TASUNA. Olertiaren izateko arrazoia, POLITASUNA dala. Olerki bati ez zaiola egiazkoa izaterik eskatzen; polita, atsegiña, unkiagarria izatea eskat-

---

<sup>12</sup> Ausonio'ren gutuna (osorik), Paulino'ren erantzuna (osoa) lateraz, eta aipatu ditudan bi itzulpen oiek, gatzelerazkoa Guadalupe Igaz Andereñoak eta hizkaierazkoa Martin Olazar Euskerazaintzako Lendakariak egiñak. liburu onen azkenean aurkituko'ituzu.

zen zaiola. Orregaitik ainzuzen olertia ez dala edestigintzarako tresna ziu-rra.

Olertiak edestirako oso balio txikikoa izateaz gaiñera, askoz txikiagoa da oraindik Paulino'ren olerki orrena. Olerki ori ez bait da edestiaren barrutikoa, apologiaren barrutikoa baizik. Paulino Donearen asmoa ez da Euskaldunen bizieraz, edestiari dagokion eran ziurtasun osoz eta egitasun eskierrez mintzatzea. Ez da ori gogoan daukana. Soilki, ordurako aski zarra dan Ausonio bere maixu maitearen azken-urteak oso-osoan Kristo'rentzat irabaztea da darabilkian asmoa. Orixe bakarra da gogoan daukana. Gaiñerako guztiaz batere axolik ez zaio.

- Gaiñera, oartuko ziñan, len ere esan dugun bezala Paulino Donearen aapaldi oietan aditz nagusi guztiak baldintz'eran daudela: "Patuaren naia izan balitz", "baldin norbait Baskoien artean bizitzen ba'da zintzo", "Baskoien artean bizi izan ba'nintz ere"...

Beraz, Paulino'k ez digu lapurren artean bizi izan zanik esaten. Ez digu gertatu zana kontatzen, gertatu zitekeana baizik. "Gertatu zitekeana", ordea, ezin izan daiteke edestiaren gaia.

Paulino'k olerkizko Eskutitz ontan Euskaldunoi erasten dizkigun "adjetivo" edo "itz-laguntzaille" balioa ulertzeko, onako au gogoan artu bearrezko gauza da: Latiñezko olertia, benetan dala "itz neurtuzko" olertia: zenbaketa jakiñaren araura urrats luzeko eta urrats motzeko itzak alkarrekin egoki josiz antolatua: orrenbeste urrats motz, orrenbeste urrats luze.

Orregaitik, latiñezko olerki bateko itzei ezin zaieke garrantzi aundiegirik eman: askotan, soilki urrats-josketa orrek eskatuak izaten bait dira. Orrela izan daitezke Paulino'k eskeintzen dizki<sup>g</sup>un izengoiti pitxi loretsu auk: "Lapur", "barbaro", "basati", "piztien antzeko" ("ferinos") eta "ez-gizakoiak" ("inhumani"). Ori guztia, gaiñera, baldintz'eran esana: "baldin orrelakoen artean egon *ha'nintz ere*..."

- Baldintz' eran esana, guztia: Ikusi bait dugu Euskaldunak ez zirala lapurrak, ez zirala oiturez basapistikoiak ("ferinos"), eztare "inhumani" edo ez-gizakoiak".

---

<sup>13</sup> "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"n aurkeztu genuan idazle klasikoek euskaldunei-buruz idatzi zutena; arras aintzagarria guztia, gure Asaba zar ain onerako.

"Barbaroak" hai, baziran; "barbarus" esaten bait zitzairen Errorna'ren araura bizi ez ziranei. Paulino bezalako uri aundietako jende aberats, txukun, erti-zale, elerti-maitale ta kultura-gurtzailleei, latiñarik ez zekiten eta euskeraz bakarrik mintzatzen ziran Auñamendiko artzai, aizkolari ta ikazkiñak zearo barbaro basatiak iduritzea ez da noski gauza miresgarria. Gaur egun bertan, eta baita Euskaldunon artean ere, ez al dira erderarik ez dakiten gure baserritar onuragarriak "barbaro" ta basatitzat artuak izaten?

- Euskaldunak "inburnani" edo "ez-gizakoiak" ez zirala, zalantzarik gabe oiukatzeko aski dugu Donepaulino eskutitz ori idazteko gai izan zala pentsatze utsa. Euskaldunak ain gaizkille makur eta ez-gizakoiak izan ba'li-ra, ez bait zan Donepaulino ez eskutitz ori ez beste ezer idazteko gauza izango. Ez zan bñ aien eskuetatik bizirik irtengo.

Iru aldiz igaro zituan Paulino'k Auñamendiko gaillurrak: bein, berak bakarrik: ezkontzera etorri zanean: eta bi aldiz bere emaztearekin; ezkondu ta Bordele'ra itzuli zanean, eta Bordele'tik Bartzelona'runtz itzuli zanean, bidaldi au egiteko ere Orreagako lepotik igaro zuan bere emaztearekin: zergaitik diodan ori? Orduan biderik onena, eta bordeletarrentzat errezena ori zalako eta Paulino'k bere ezkutitz artan Ibero Ibaiaren araneko uriak aipatzen ditualako.

\* \* \*

Okerreko aldera joz, pentsa dezagun Paulino edesti-egiten ari dala, eta benetan egon zala lapurren artean baiturik. Laister mintzatuko gera puntu ontaz. Alare, esan dezagun aurretik:

ja, batere gaitzik egin ez zioten gaizkille aiek..., ibazirala gaizkille arrigarriak!

2'gn: Paulino lapur tartean bizitu ba'litz, aren salaketa ez litzakela Euskalerrriaren aurkakoa izango, soilki Euskalerrriko mendi-zulo bateko lapur-talde baten aurkakoa baizik.

- Eta oraindik okerragoko aldera joz, pentsa dezagun Paulino'k naiz olertizko erretolikaéjoku ortan egiazko edestirik egin nai ez, Euskaldunen aurka esan zituanak bere buruan egiazkotzat zeuzkala, mundu guztiak Euskalduneíburuz orrela pentsatzen zualako. Ori orrela izatekotan, munduak Euskaldunetaz zuan pentsaera agertu besterik ez zuan egingo Paulino'k.

Paulino'k ori egin zuala esango ligukenari gauzatxo auek erantzungo nizkioke nik:

1<sup>a</sup>: Izugarri salaketa gogorra dala dakarkiguna, eta orregaitik diona egiztatzera bearturik dagoala. "Affirmantis est probare": "Baiezka datorrenari dagokio diona egiztatzea".

2<sup>a</sup>: Egiztatuko ba'lu ere ez duala balio testigu edo lekuko bakar batek, zerbait erabat egiazkotzat emateko. "Uno teste, nulla sententia": "Lekuko bakarra?, erabakirik ez"!

3<sup>a</sup>: Askoz gutxiago balio duala lekuko bakar batek, beste lekuko guztiak, ikusi dugun lez, lekuko bakar orren aurka agertzen ba'dira. Beste guztiak!!! Baita Paulino bera bezala IV eta V mendean bizitu ziranak ere!

4<sup>a</sup>: Laugarren oarkizun au ez da ain indar aundikoa baiñan bai kon-tuan artzekoa: Euskaldunen aurkako iritzi gaizto ori Paulino'rena ez baiña gizarte osoaren iritzia izan aipatu zuala Ausonio'k ere; ots: Auñamendiaren akatsak aipatu zituan ezkerro, aipatuko zituala Auñamendiko jendeenak ere.

Baiña ez du Ausonio'k orrelakorik egiten, erromate osoan beste iñork ere egin ez zuan bezala.

Ausonio'k argi dakus, zearo aldatu dirala bere ikasle kutunaren "oitura gozoak" — "dulces mores" eta aldakuntza orren zioaren billa iru gauza aipatzen ditu bere arrazoiketari:

- Baskoni'ko basoa: ("Vasconiae saltus");
- Auñamendi'ko elurra: ("ninguidae Pyreneae hospitia");
- Bordele'ko zeru urdiña aztu izatea ("nostri oblivio coeli").

Baskoiak, ez ditu aipatu ere egiten. Askoz gutxiago Baskoien oitura zakar, basati, "barbaroak". Baiñan, Baskoien oiturak orrelakoak zirala, aro artako jendearen uste orokorra izan ba'litz, ia naitanaiez aipatuko zuan Ausonio'k ori, bere eskutitzean. **eskatzen bait zion bere arrazoiketako logikaren jardunkerak!!!** "Baskoni'ko basoa", Auñamendiko elurtea" eta "Bordele'ko zeru urdiñ aztua" alde batera utzita, onako onen antzekoa izanen zan bere galde nagusia:

"Baskoien oitura zakarrek kutsatuta galdu al dituzu, Paulino, zure lengo oitura gozoak"? Baiñan Ausonio'ren olerkian ez da Baskoien oitura zakarren aipurik. Ezta, ikusi dugun bezala beste idazle klasikoen idazkietan ere.

Euskaldunen aurkako salaketa zikin guztiak, Erroma jausi ondorengoak dira: V mendez gerokoak. Salatariak berriz Bisigotiarrek eta "Franks" edo Frankiarrak: Euskaldunen etsai gorrotalariak.

Ortaz ordea, bere denboran itzegingo dugu.

\* \* \*

Zer urtekoa ote da Paulino'ren eskutiz ori?

Iru aldiz igaro zuan Paulino'k Auñamendia.

Aurreneko eta bigarren ibilladiak 383'garren urtetik 384'garrenerakoak dira; bere orlerkietako 21'garren "Carmen" edo "Abesti"an esaten duan bezala, Terasia'rekin ezkontzera Ispanietara etorri, ta, bein ezkondurik, Galietara itzuli zanekoa.

Irugarrena, Bataioa artuta, 389'aren inguruan, lekaide bizitza legorrari astapena emateko asmoz, Bartzelona'ra etorri zanekoa.

Ezpairik gabe Paulino'ren eskutitza ez da ezkondu zanekoa. Zergaitik?

Lendabizi, urte batera luzatu ez zan ibillaldi ura ain motza izanik, Ausonio'k asarre-antzean agertzeko arrazoirik izango ez zualako; berandu ibiltzen bait ziran orduan eskutitzak, eta jendeak.

Eta, bigarren, Paulino, eta baita Terasia ere, lengo adiskideekin, batez ere Ausonio bere maixu jentillarekin, eta, au ere oraindik jentilla zan Sulpizio Sebero edestilariarekin, senidetason osoan Akitani'n bertan bizitu zirala-

ko  
Irugarren ibillaldiaz gero Paulino ta Terasia Bartzelona'n bizi zirane-  
koa da, beraz, Euskalerriaren izen onarentzat ain zori gaiztokoa gertatu  
bearra zitzaigun Eskutitz ura: 389'garren urteaz gerokoa.

Iritzi berekoa da "Bibliotheca Sanctorum" ere (X, 157-158):

"Questo, (389), fu l'anno che segnò (eragin zuan) una svolta decisiva nella sua vita: la sua conversione all'ascetismo, l'abbandono della Gallia per la Spagna e la rottura con il maestro pagano Ausonio.

Il comune ideale d'una esistenza agiata (atsegiña) e lieta (zorionsua), confortata dalla ricchezza, dal culto delle lettere e dalla poesia, non turbata dalle passioni politiche, ne dalle agitazioni della vita pubblica, ne dalle guerre, l'ideale del letterato colto e ricco della Gallia del sec. IV aveva tenuto uniti fino allora (ordura arte) Ausonio e Paulino.

"Per anni l'amicizia si era (izan zan) espressa con un intenso scambio di lettere (eskutitzak), nelle quali sembra (dirudi) sentir vihrare ancora (oraindik) il profondo affeto (maitasuna) di padre e di figlio (seme).

"Ma l'inaspettato e tenace silenzio di Paulino seguito alla conversione, provocab stupore prima (aurrena), e poi (eta gero) sdegno (erdeiñu) nel poeta gallo, il quale, avuto sentire della trasformazione del discepolo, guadagnato (emana) all'arcesi *tanto (ain) invis (gaizki ikusia) e odiata nei circoli pagani*, tento ripetutamente ma inutilmente di dissuadirle". (Nik azpimarratua).

\* \* \*

34'ren bat urte zituan une artan Paulino<sup>1</sup>k. Gazteagoa zan noski bere emaztea: 20'tik 30'ra urteko neskatil polit, eder, pinpirin, guragarria.

Alare, Auñamendi'ko "ferinos mores", ots, "oitura piztikoi"eko ikazkiñ, artzai ta aizkolari aiek ez zioten ezer gaiztorik egin. Alderantziz: 13asagizon "barbaro" aien arrebatxorik maiteena izan ba'litz ere, ez zan Terasia, Auñamendietan aruntz eta onuntz, ibilli zan baiño paketsuago ta lasaiago ibilliko.

Zergaitik ez ote zituan Terasia'k, beste "Carmen" batean Auñamendia-zearko bere ibillaldi aiek abestu?

Bai bait ziran Auñamendiko "lapur" Euskaldun aiek lapur arrigarriak!  
Ez zioten iñori ezer ostu.  
ez zioten iñori gaitzik egin.

\* \* \*

Agian, ordea, guk ez omen dugu ongi ulertzen Paulino'ren itz zakar oiek orduan zuten zentzua.

- " Ferinos mores", "Ferinos ritus" dituan jendea, gureztat, "basapiztien oiturak" dituan jendea da. Ez, ordea, orrela, IV mendearen azken aroko gizon-emakumeentzat: aientzat IV mendearen azkeneko urte aietan, "ferinos ritus dituan jendea" esateak "baserritarren oiturak" zituan jendea esan nai omen zuan, orduan "Ferocitas" eta "msticitas" zentzu bat berdiñeko itzak ziralako".

- "Humanitas" edo "gizakoitasuna" itzak, "uritarra izatea" esan nai omen zuan: "uri batean bizitzea". Orregaitik, "inhumanus" ez omen zan

"gizakoitasunik gabeko jendea", "uri batean bizi ez zana" baizik, "hurnanitas" eta "eivilitas" biak esan nai bereko jtzak omen ziran: "uri batean bizi izatea" adierazi nai omen zuten.

Ordurarte, itz zakar oiek, guk ematen rliegun zentzua bera ornen zuten. Orduan asi omen ziran, lengo zentzua oraindik galdu gabe, beste zentzu berri goxoa.go ori artzen.

Baleike, gainera, guzti ori egia izatea ere: Paulino'k berak, X "Carmen" ontako 219 eta 220'garren itzneurtuetan ez bait ditu "ferinos ritus" "humos ritus"en aurka jartzen, "nostros ritus"en aurka baizik, ots, "oitura zibilizatuen" aurka, "urietako jendearen aituren" aurka, "Civis" "uria bait da.

Ortaz, Erroma maldaz-beera bere ondamenaruntz zijoan garai artan urietan bizi ziranentzat "ferinos ritus"ko jendea, urietatik at [anda, baso ta mendietan bizi ziran guztiak ziran. Ez luke, beraz, Paulino'ren itz orren Añamendietako jende aiek basapiztiak ziranik esan naiko.

\* \* \*

Nolako zentzua ematen ote zien Paulino'k "ferinos" eta "inburnanos" itz itxusi bi oiei?

Ez dakigu. "Lapur" itzari beintzat ez zezaiokean zentzu bat besterik eman: beti izan duana eta beti izango duana: "Ebasle", "ooin", "berea ez duanaren maitale".

Baiñan Paulino'k beste bere bi itz zakar aiek ere, IV mendera arte izan zuten, eta laugarren mendean ere oraindik ba'zuten zentzu gogorrean erabili ba'litu, zer?

Ezer ez!

Ikusi bait dugu Paulino'k baldintza-eran itzegiten zuala

Pentsa dezagun ordea, ez zala baldintza-eran aritu. Egiatzko lapurren artean egitan egon zala egia gertatuko zer?

Ezer ez!

Ezer ez. Une artan Euskalerrria izan bait zan Europa osoko lurralderik paketsuena eta Euskaldunak Europa'ko gizakumerik gizakoienak! Ikus:

Paulino Donearen Eskutitz ori, laugarren mendearen azkenekoa da, Europa guztia, Inperioa beeruntz zijoan neurrian, lapurrez, gaizkillez eta



Galieta, III mendean gero, "bagaudak" esan zitzaien iraultzalariz beterik zegoan garaiekoa.

Gure Bordele'ra ez bide zan ain gogor iritxi aro artako gaiztakeritza. Baiñan III mendearen erdiaz gero sutan ibilli ziran Galieta zoko guztiak. Eta, geiago edo gutxiago sutan jarraitu zuten IV mendea-zear, eta baita V'aren zati batean ere.

"Bagaudak" esan zitzaien erdi-abertzale, erdi-zuzenbidezale eta erdi-gaizkille ikaragarriki biurri izan ziran iraultzalari aiei.

Entzun Grand Larousse Iztegiari:

"Ils (bagaudak) parurent pour la première fois vers 270 de l'ère chrétienne.

Ils se soulevèrent de toutes parts (des Gaules), Uvasthrent les cMteaux et les villes de ses maîtres, emportèrent Autun après une siège de sept mois, et ruinèrent complètement cette brillante métropole des Gaules, qui ne c'est jamais relevé depuis..."

Euskeraz:

"Aurreneko aldiz, Krist'osteko 270'garren urtearen inguruan agertu ziran. Galieta zoko guztietan altxatu ziran, eta porrokatu zituzten lur-jabe aberatsen gaztelu eta landa-etxe guztiak, menderatu zuten Autun, uri ori zazpi illabetez inguraturik euki ondorean, eta Galieta zoko uri aundi ta dizdiratsua izan zan ori, ez da arrezkero bere burua jasotzeko gauza gertatu; ain zearo gelditu bait zan ondaturik!"

III mendean eta IV'aren sarreran "bagauda" aien aurka borrokan ibilli bear izan zuten Aureliano, Probo, Carino, Diokleziano eta Maximiano inperatoreak. Azkeneko onek menderatu omen zituan. Baiñan ez, alata-gutziz, osoro:

"La bagaudie ne fut point cependant ariante complètement..." "Elle se manifesta par les Uvastations des bandes errant dans les forêts et les montagnes" ... "Cet état de choses durait encore au siècle..." "En 369 l'insecurité était permanente in Gaule" ... "Vers 407 la bagaudie reprit une extension nouvelle..." "Les bagaudes luttrent encore jusque vers 440 et furent définitivement écrasés par Mtius".

"Baiñan ez zan bagauden taldea osoro ezabatua "Sail txikietan zatiturik, mendiz-mendi eta basoz-baso, gaiztakerigintzan jarraitu zuan..." "Baziraun egoera orrek V mendean ere..." "407'ren inguruan, --erne!, gure Paulino Doneak zori txarreko Eskutitz ura idatzi zuan denbora-

ren inguruan zabalkuntza berria artu zuan bagaudi-taldeak..." "Gaizkille auek, 440'garren urtera arte Ibilli ziran borrokan: Aezio'k, ots, Erro-rna'k V mendean izan zuan gudalbururik yayoena -- erabat urte ortan ezereztu zituan arte".

Ikusi duzunez, ez ziran txantxetako gauzak izan Galietako txarkeri aiek. "Baiñan ez omen ziran Galietan kristautasunaren zabalkundea geldierazteko gauza izan", Griffe edestilariak dioskunez. Entzun bere izkera:

"Les annees douloureuses de la seconde moitie du **siecle**, pendant lesquelles la Gaule vit tan de ruines et de transformations, ne ralentirent pas, semble-t-il, les progres de l'expansion chretienne."

Galietako sortaldean izan ziran bagaudak bereiziki indartsuaak eta makurrak: Alpe-mendien inguruetan eta Itall'rekingo mugan, Frantzi bezain gaizki edo okerrago bait zegoan Itali bera. Frantzi'ko Alpeetan, "Augustus" bat et Augustus orrentzat "Zesar" bat izendatzeraiño iritxi ziran<sup>14</sup>. Noben-populani'n ordea, ots, Akitani euskaldunean bagaudarik izan zalako arrastorik ez dugu. Ego-Euskalerrian hai, baiñan geroago, Paulino ilda ondorean, eta ez, ainzuzen, "Saltus Vasconum" menditsuan, "Ager Vasconum" zelaiean baizik

Baduk auxe gauza arrigarria! Millaka eta millaka gaizkille oro-ondatzaille eta kiskaltzaille ikaragarri aiek ez ziran Galietan kristautasuna eragozteko gauza izan, eta, Euskalerrian, Auñamendiko lau lapurtxo **lau** lapurtxo goxo aiek bai?

Nola uste izan dezakete ari, bestalde benetako jakintsuak diran gizonek? Eskierki ez dituzte nereak bezalako begien bidez gauzak ikusten!

Ta, Itali? Zer esan Inperioaren gune zan, eta zuzenki Inperatore beraien zaintzapean zegoan Itali'z? Ikus:

"Il fenomeno del brigantaggio (gaiztakerigintza) assunse (artu zuan) vera e propria gravith solamente nella storia del mondo romano, e non

---

<sup>14</sup> Diokleziano'k asmatutako Tetrarki edo Agintaritzza Laukoitzean bi "Augustus" (bat Sortalderako, bestea Sarkalderako, eta bi "Zesar" ziran agintariak. "Augustus" bakoitza, egiazko Inperatorea eta bi "Zesar" aiek, "Augustus"-en Inperatore-kide ta laguntzailleak, eta, aiek agintaritzza uzten zuten, Augustus biurtuko ziranak.

solamente sotto l'Impero (inperiopean), ma anche (baizik eta baita) sotto la Repubblica.

"All'epoca de Cesare il pericolo era nuovamente gravissimo. Augusto organizzò una spedizione... ma la sua opera fu (izan zan) così (ain) poco fruttuosa che la Sardegna (Zerdeña), ai tempi di Tiberio, era in tali condizioni da obbligarlo a l'Imperatore a deportarvi ("vi" orrek "ara" esan nai du) una colonia di 4.000 Iberi ebrei allo scopo preciso (elburu barkartzat) di combattere i brigandi (gaizkilleak)".

"Durante tutto il impero, e benche non si fosse risparmiata (azturik utzia) dai migliori degli imperatori nessuna cura per riordinare le condizioni di sicurezza e de viabilità dell'Impero, l'Italia, le sue isole (ugarateak), l'Asia Minore, l'Egitto, e l'Africa furono sempre in lotta contra i briganti.

"Nel Basso Impero, ois, Paulino'ren garaiean, la praga ("izurria) s'accrebbe (aundiagotzen da), e sovente (sarritan) gli funzionari stessi (beraiek) partecipano a imprese (ekintza artan) o erano (ziran) complici di bande".<sup>15</sup>

Ikusi duzunez, mundu guztian zan izugarria lapur gaizkilleen arazoa. Alare, gaizkille anker aiek ez ziran mundu zabaleko lurralde guzti aietan kristautasunaren zabalkuntza eragozteko gauza izan, eta Euskalerrirako sarrera eragozteko, gure Añamendiko lau gaizkille maitagarri aiek bai? Non aztu ote zaie logika, ori uste ta ori idazten dutenei?. Ori bait dute gaiñera beraien ustez, esaten dutena esateko aurkezten diguten arrazoirik garrantzitsuena. paketsuena zala, eta munduko gizakumerik otzanenak, orduan beintzat Euskaldunak zirala esateko bai bait dugu arrazoirik aski.

Zer dalata dakarkigute b5 Paulino'ren eskutitz doakabe ori, kristautasunaren Euskalerrirako sarrera goi-erdiaroaren azkenera atzeratu nai dutenek?

Ta, Paulino'k esandako guztia egia izan ba'litz ere, zer?

Kristaudi osoan, aipatu ditugun "bagauda" ta gaiñerako gaizkille guzti aiek lez ziran kristautasunaren zabalkundea eragozteko gai izan! Eta Euskalerrian Añamendi'ko lau lapur (?) koxkor biotz goxo jeguneko aiek... bai?

Ez genuke aztu bear, gaiñera, "bagauda" aiek sortu zuten giroak eraginmen aundia izan zezakeala, bera oartzeke Donepaulino Nolatarren

---

<sup>15</sup>). Marco Attilio L.,evi, Turin'go Unibersitatean Erromateko Edestiaren irakaslea. Idazlan au Enciclopedia Itallana'n dauka.

kontzientzipean: Izugarrikeri gorriak egin zituzten bagaudek Frantzi'n; eta oraindik bagauda aien azken taldeak mendietan zebiltzen izkutaturik. Inperioa auldurik zegoan aro artan "mendi" eta "lapur" mundu guztiak errez alkartzen zituan itzak ziran. Paulino'k ez du "Aufiamendi'n (apurren artean egon naiz" esango, baiñan, Ausonio'ri olerkiz erantzutean, erretorikako edergaillu lez "Aufiamendi'n gaizkilleen artean egon ba'nitz ere" legun irtengo zaio berez, iñolako kezkarik gabe. Eta, ori ez, askok pentsatu oi duten Auñamendi'ko Euskaldunek aipu txarreko jendeak ziralako,--ikusidugu bll alderantzizkoa dala egia baizik eta une artan Inperio-Lur osoan eta Frantzi'n bereiziki, "lapur" eta "mendi" gauza bat bera ziralako.

\* \* \*

Gaiñera... gaiñera...

Arren, edestilari maiteok, arren! Izan gaitezen zugarrak!

Pentsa dezagun, une batez, Paulino ez zala olerki-jostaketan aritu.

Pentsa dezagun, une batez, Paulino'ren asmoa, bere olerkiaren bitartez egiazko edestia idaztea izan zala.

¿Ta zer?

Ezer ez!!!

Bera bakarrik bait da aro zarreko Euskaldunak zakartzen dizkiguna. Bera izan ezik, beste guztiek, bai olerkariak, bai edestilariek beste erabatera mintzatzen bait zaizkigu aro zarreko Euskaldun aiei-buruz. Beste guzti oien itzak ez bait dira Euskaldunen iraingarri. Zerbait izatekotan, alderantziz, Euskaldunen goresgarri bait dira!

LZergaitik, bada, lekuko guzti-guztien itza baliorik gabekotzat utziz, soilki lekuko bat bakarraren itza bakarrik baliozkotzat artu?

Ez litzake ori, ez noski, edestigintzarako biderik zintzoena izango, "bakar ura", lekuko lez, "beste guzti aiek" baiño balio geiagokoa dala egi ziurra izan ezik.

Gure auzi oni dagokionez ordea, "bakar ura" ez zan edestilaria, olerkaria baizik; ez zan edesti-idazten ari, abesti polit bat antolatzen ari zan; olerkari guztiek bezala, idazten zuanaren ziurtasunari baiño abesten zuanaren atsegingarritasunari jaramon geiago egiten zion. "Beste aien" artean ordea, Erroma'k izan dituan edestilaririk onenak daude: zintzoenak, zugarrenak, ospetsuenak, gaurr-egun arte elertiaren arloan idazlerik mirestue-

nak: Eta ez bat edo beste bakarrik, danak baizik: Erroma'ren edestilari klasiko guztiak. Ez ziran gaiñera bertso-kantutan ari. Alderantziz, egiatzko edesti-lan legorra idazten ari ziran.

Zergaitik ba euskal-kristautasunaren sorkuntza atzeratu nai dutenak egiatzko *edestilari* bikain *guztien* lekukotza arbuiauz, gizon santu *olerkari* naiko kaxkar *baten* lekukotza *bakarrik* ontzat artzen ote duten? Ez dakit. Agian kasualitate utsa besterik ez da izango, baiñan atzeratzaillietan geienak, gure arteko españi-zaleak izan oi dira, eta ez, gaiñera, kristaue-nak.

Aro artako olertiari-buruzko "eskolio" edo "azken-azalpen-labur baten bidez amaitu nai nuke Donepaulino'ri eskeiñi diodan atal luze au. Eta, ainzuzen, garai artako olerkaririk ospetsuena Ausonio izan bait zan, Ausonio'ren olerkia erabiliko dugu azken-erromateko olertiaren tankera ezagutzeko.

Bein baiño geiagotan esan dugu, olertia ez dala edestigintzarako oiñarri giltzarri fidagarria. Ori, ordea, VI mendearen azken-aldeko eta V'aren astapeneko olertiari-buruz da batez ere ta bene-benetan egia: ots, Ausonio'ren eta Paulino'ren aroko olertiari-buruz. Azal utseko itz txukun eta irudi politez eratutako jostaketa besterik ez bai da garai artako olertia.

Maiz aipatu dugu Ausonio, Paulino'ren maixu eta adiskide txit maitea. Ausonio izan omen zan aro artako olerkaririk txukunena, orduango olertikeraren nolakotasuna ezagutzeko adigarririk egokiena. Ona ba zer dion Ausonio'ren olertiaz Labriolle ikerlari frantziarrak:

"La poesie d'Ausone? En sornme una poesie parfaitement faite de réminiscences, de tours de force métriques, et, a l'occasion. d'erudites inconvenances...; une poesie qui est un véritable habit d'Arlequin, auquel chaque auteur classique a fourni son morceau: un désert d'idées, ou, portant, ca et la, jaillit une veine plus originale et plus rafraichissante, voilà la poésie d'Ausone. Elle est le produit adéquat d'un cerveau déformé par la plus mediocre des disciplines intellectuelles (la rhétorique), et d'un coeur resté sain et bon malgré le dessèchement de l'esprit ("P. de Labriolle: "Un episode de la fin du paganisme: la correspondance d'Ausone et de Paulin de Nole", 16-17 orrial).

Euskeraz:

"Ausonio'ren olertia? Itz batez esateko, axal-axal utseko olertia, oroi-menean gordetako nunnaitiko ariz eta, bertso-neurriak zintzo gordetzeko, askotan indarkeririk aski erabilliz josia, eta, batzuetan, jakintza-itxurako txatxukeriz ornitua...; Idazle klasiko bakoitzari zati bat kenduz landutako Arlekifi'en soñekoa, gogapen-ttantorik gabeko lekaro legorra, alatagutziz, an edo emen, bere jatorrizko lore eze ta ozkirritsu atsegingarri bat edo beste eskeñi dezaigukeana: orra or Ausonio'ren olertia zer dan: Jakintza orotan erdipurdizkoena dan erretorikak okertutako buru bateri eta aro berean irudimenaren legortasun orren azpitik on eta sendo ziraun biotz baten emaitza".

LEpaiketa gogorregia Ausonio bordeletarrari Labriolle'k dagion ori? Ez. Beste ikerlari frantziar baten ustez, "Labriolle definit d'excellente faÇon la fois la poëie et le caractere d'Ausone", ots, "Ausonio'ren olertia bezala aren nortasunkera ere, Labriolle'k arras egoki aurkezten dizkigula" bait dio R. Fabre<sup>1</sup> ("Saint Paulin de Nole et l'amitie chretienne". Paris, 1949. I59'garren or.).

Alatagutziz, bereizketa bat egin bearra dut. Ausonio maixuaren olerkiak, gogapen ederrez antzuak baldin ba'dira ere, ez bait dira alakoak Paulino ikaslearenak.

Ausonio, kristau il zala egia ba'litz ere, eta egia dala dirudi --, ordura arteko bere pentsabideak ez ziran kristauak izan, eta --egiazko erretorika jakintza ederra ta bearrezkoa bait da erretorika berak ez baiña, erromatearen azken-aroan ongi ezitako jentillen artean jakintza nagusi bihurturik zegoan erretorika-mota trakets arek agortu zion adimena. Beste bere ariketa guztien gaindik erretorikalari izan bait zan, eta erretorika aren irakasle, gure Ausonio bordeletarra: sasijainkokeri zaar igarrez legortutako erretorika zimel aren jarraille ta irakasle.

Alakoa izan zitzaigun Paulln ere, Ausonio'ren ikaslerik azkarrena lez, oso-osoan Kristo'ren serbitzura jarri zan arte. Orduezkero ederki nabari da bere olerkietan kristautasunaren beroa. Baiñan, kristautasunari ez dagokion

beste orotan, bete betean balio du Paulino'ren olerki danentzat Ausonio'ren olertiaz esandakok<sup>16</sup>.

Ez da arritzekoa. Ausonio'ren ikasle baiño askoz geiago ia-ia Auso-Mo'ren seme ere izan bait zan Paulino. Ausonio bera dugu "seme" esaten diona eta Esperio bere egiazko semearekin kidatzen duana:

"Ita te et Hesperium saluos habeam":  
"Nerekin nai zaituztet, bizkor, bai zu ta bai Esperio".

\*

Maitasun zintzoa dariote maixuaren eta ikaslearen arteko izkera txukunek. Entzun ikasleari irakasleari bertsoz mintzatzen:

\*

"Tibi disciplinas, dignitatem, litteras,  
liguae, togae, famae, decus,  
prouectus, altus institutus debent,  
patrone, praeceptor, pater.

\*

Euskeraz

Zuri jakintza oro, ta gizarteko duintasuna,  
eta elertirako gaitasuna,  
izlari ta legelari lez irabazitako izen onaren  
dizdira zabal, sendo, ondo sustraitua  
zuri zor dizut guzia,

---

<sup>16</sup> Batez ere, "Grand I.-arousse" Iztegiak (editio princeps X.11, 128'n) dioskuna egia Paulino "Anbrosio Doneak izan zala kristau egiña": "converti au Christianisme par Saint Ambroise", beraz, jentilla izan zala bera ere adin mardulera iritxi zan arte. Baiñan "Bibliotheca Sanctorum" (X, 156), Paolino nasce da ricca famiglia christiana" diosku. Zer ote egia? Ziur jakiterik ez dugu. Ederki bait dio Iztegi berak: "Le notizie biografiche de questo santo sonno scarse (urriak), non esistendo un'antica Vita". Bere eriotza bai, bere eriotzaren lekuko izan zan batek idatzi omen zuan (ib). "Grand Larousse" k bai, badiosku "Grand Larousse" k Paulino'ri-buruz gauzatxo kuttun bat: Paulino izan omen da elizetako ezkillen sortzailletzat eukia: "On a attribue" a Saint Paulin l'invention des eloches".

ene Zaindari, ene Irakasle,  
ene Aita zeran orri".

Arrazoi guztiz ari zan, beraz, Ausonio, Paulino'ri "ni izan nauzu adiskide (amicus), urikide (uicinus), eratzaille (fautor tuus), duintasun guztien iturri (honoris auctor), eta adimenaren ezitzaile (altor ingenii tui)" esaten zionean.

Ez zitzaion eztare arrazoirik peitzen, eskutitz batean Paulino'ri onako au idazten zionean: "Dit mihi et magister (esan eidazu "maixu"), dic parens (esa'idazu "aita"), die omnia blanda atque sancta caritatis nomina (ema'izkidazu maitasunarik aratzenaren izen (egun, eta jainkotiar guztiak)).

Egitan zan beraz Paulino, olerkari *lez*, Ausonio'ren umea, eta Kristautasunari dagokionarentzat izan ezik, Ausonio'ren umea dalako, balio du Paulino'ren olerkientzat Ausonio'ren olerkietan esandako guztiak. Kristautasuna osoki bizitzea erabaki zuan ezker kristautasun orrek arnas herri bero sendoa eman bait zion olerkigintzarako Paulino Doneari.

Pulamentu arras motz urria izango luke beraz, Paulino'k iraduz eta ez arfan lez -- eta soilki artarako Ausonio'k kirten eman ziolako **olerki** batean esana, IV mendeko Euskaldunen oiturei-buruzko edesti baten oiñarri izateko onartuko lukean edestilariak.

Oso garrantzitsua deritzait Ausonio'k Paulino'ri idatzitako gutun batez, P. Fabre'k (I.c.) esaten digun au:

"Le thône est Uvelopp a la maniere d'Ovide, qui est si souvent celle d'Ausone. Aussi les critiques n'ont-ils guere voulu voir autre those dans cette pièce qu'un de ces amusements ingénieux qui plaisaient tant au maitre de Paulin" (azpimarraketak, nereak).

Euskeraz:

"Gaia Obidio'ren erara edatua. Ori bait zan Ausonio'k maizenik erabiltzen zuan era. Kritikalarientzat, olerki ori, Paulino'ren maixuari ain atsegiñak zitzaizkion jostaketa irudimentsu aietako bat besterik ez da.

Irakaslearen zaletasun bera aurki dezakegu ikasleagan ere. Orregaitik diot olerki oro edestigintzarako aunitz oiñarri labaitia baldin ba'da, askoz labaiñagoa dala Ausonio'ren olertia, eta, baita, olerkari bezala Ausonio'ren ume laztana izan zitzaigun Paulino'rena ere, Paulino gai kristauegaz ari ez dan bertsoetan.



Donepaulino Bordele'ko seme eta Nola'ko gotzai olerkaria il-da gero ere, gure asaben izen ona zikindu nairik ibilli izan dira beste idazle batzuk ere edestia-zear. Oso gutxi: Bat edo beste bakarrik: Danak VI mendetik onuntzakoak. Eta danak, barbaritarrak, Frankiarrak edo bisigotak: Bai auek bai aiek Euskaldunen etsai amorratuak. Adibidez, Tajon zeritzan salduba'-ko gotzai bisigota VI mendean; Amando Donearen bizitza idatzi zigun lumalari ezezagun Frankiarra VII ean; eta Aymeric Picaud erromesa XII'-ean; Frankiarra au ere.

Mende oien azterketa egiterakoan agertuko dugu guk iru Jaun oien nortasuna. Eta argi ta garbi azaldu, iruetako bakoitzaren esanak edestirako izan dezakean balioa.

\* \* \*

A! Ta Euskera! Gure izkuntza ber-bera arresi igarokaitza gertatu izan bait da beti atzerritarrentzat.

Ala, garai artako jakintsu atzerritarrentzat ere, naiz atzerritar aiek Euskalerrian bizi, eta, agian, atzerritar soilki mentalitatez izan. Bai Ausonio, bai Paulino, Erroma'ko oparotasunik aundieneko lujo dizdiratsuan bizitzera oitutako Aristokrazikume Aunditsuak ziralarik, ez da arritzekoa, alako Jaun aundi dotorentzat gure landa, baso, ta mendietan, latiñik jakin ere gabe, euskera bezain ele ulerkaitzez itzegiten zuten artzai, ikazkiñ eta egurgille txiro arlote aiek oso-osoan "barbari", ots, "kulturik gabeko" jendeak izatea. I

Euskera ele gogorra gertatzen zitzaien latera edo elenera beste izkuntzik aintzat artzen ez zuten elertilari eta, batez ere IV mendiaz gero --beren-ustezko-dotoretasun-guren-berdiriik-gabeaz mozkorturik bizi ziran --erretolikolari aize-putz mardul aiei. IV mendiaz aurretik ere, oroi zeñen zakarrak iduritu zitzaizkion Euskal-izenak Jesukristo'ren garaieko Estrabon elendarrari.

Askoz geroago, XII mendekoa dugu Aymeric Picaud erromes Frankiarra<sup>17</sup> Ona zer idatzi zuan gure izkuntzari-buruz erromes barbaro arek:

Orreaga'n "entzundako euskera, zakurren zaunka iduritu omen zitzaion": "Si illos (aqui audires canum latrantium mernoreris". "Penitus", "dan guztia" omen da dotoretasungea", "barbara", Euskaldunen izkera. "Lingua penitus barbara" orrek "katigu bezala omen zeuzkan mendean arturik" eta ezer-ez biurturik, Auñamendiko gizakume aiek: "I barbara enim lingua penitus habentur".

Eta, ori..., Frankiar batek!, barbaro batek!, aski latera motzeko idazle illun batek esana!!! Pentsa zer izan zitekean Klasikoen, edo Klasikoen mirsle zan Paulino Donearen iritzia Orreaga'ko artzai, ikazkin eta aizkolari aien ezpafiñetatik "lingua penitus barbara" omen zalako aren zarata zakar ulerkaitza entzuterakoan.

---

<sup>17</sup> Bereala oartuko zeranez, irakurle, 8 mendez artu zion aurea Aymerik barbaritar arek gure Unamuno arkizibilizatuari, onek ere "El Kixote"ren errietara asto-gaiñean agertzen dan "vizcaino" aren ondamen guztien erruak, zeraman astoari jaurtitzen bait dizkio, asto ura, "vizcaino" ark itzegiten zuan "el vascuenz"en irudia dala esanez.

Ez dezagun ordea Unamuno geiegi zigortu, egia bait da, munduan ibiltzeko "el vaseuenz"ek ez ziola "el vizcaino"ri balio. Baiñan balio zion, are geiago bear-bearrezkoa zuan el "vizcaino" izateko; eta arrigarria gertatzen zaigu, Unamuno bezalako fillosofitari bat,-- naiz beretarrek uste bezain aundia ez, tilasafilari bai bait zan Unamuno IZATEA, munduan izatea — IBILTZEA munduan ibiltzea baiño milla aldiz garrantzi geiagokoa dala, kontuan ez erortzea: Filofofilari zarrek esaten zuten bezala, "operari sequitur esse" -- "izateari" bait darraikio "egitea".

Gaiñera, "asto" baten jabe izatea, nai danean "zaldi" baten jabe ere izaten asteko eragozpen ez dan bezala, euskera jakitea ez zitzaion "el vizeaino"ri beste izkuntza bat ikasteko eragozpena gertatzen, ERREZTASUNA baizik, bigarren izkuntza batez mintzatzerakoan izkuntzalari guztiek esan oi duten lez.

Goazen, ordea, orain, gure erromes barbaritar arengana.

## V MENDEKO GIRO ZAILLA

Kasta edo enda ezberdiñetako barbaritarrak, Europa'ra ugalde baten antzera sartuta, Europa'ko lurren jabe egin ziran mendearen giroa aztertzera goaz. Ainbeste Erri basati ezberdiñen etorrerak sortutako zurrunbillo artan jausi zan eta ezabatu zan Erroma'ko Inperio zaarra.

Kontuz ordea! ez daiteke "Erroma'ko Inperioa" zerraldo jausi zanik esan. Teodosio il zanetik (395) Erroma'ko Inperioa bi Inperiotan erdibiturik aurkitzen bait zan: Sortaldekoa, Kostantinopla uriburu zuala; eta, uriburu Erroma bera zuala, Sartaldekoa.

Erroma'ko Inperio Sarkaldetarra izan zan V mendean ezabatu zana. Bestea, Erroma'ko Inperio Sortaldetarra, bizirik eta zutik gelditu zan. Eta zutik eta bizirik jarraitu zuan beste milla urte luzez, turkiarrek 1.453'an Kostantinopla artu zuten arte.

Nazio barbaritar aiek ez ziran Erroma'ren etsaiak, miresleak baizik. Ez zan beñere aien asmoa Erroma'ko Inperio ezereztea izan.

LZergaitik etorri ziran ume ta agure ta emakume ta gizon eta bei eta zaldi ta guzti, aizkoraz, aztagaz, ezpataz eta geziz ornitutako beren gudulari sendoen babespean?

Zugaitzek sustrai bat baiño geiago izan oi duten bezala, arrazoi bat baiño geiago izan zituan Europa guzia dantzan jarri zuan gertakizun miresgarri arek ere. Iru, nabarmenenak:

- Gosea. Europa'ren ipar eta sortaldeko basoetan bizi ziran Erri germaniar aiek. Eizetik eta aberezaintzatik bereiziki, apika bait ziran nekazaritzan trebeak. Beren biziera erromatarrena baiño latzagoa izanik, aratzagoa ere ba'zalako, aurtsuagoak ziran aien sendiak. Orrek ordea jendetzaren

ugariketa dakar berekin. Eta bertako lurrek jatekorik aski ematen ez zutelako, bear-bearrezkoa zitzaien lur berriak billazera etorri".

- Atzetik zetozkien beste Erri gogorrago ta ugaritsuago batzuen erasoak: Atila buruzagiaren Undarrak bezala, Asi'ren barren-barrendik agertutako Erriak ziran aiek. Endaz, mongolitarrak.

Erroma'ren inperio-lurreko bizieraren dizdira. Erakarmen aundia izan zuan dizdira arek basati aiengan. Gure baserrietako umeeek uriko biziera, irudimenez ederragotu ta gozoagotu oi duten uriko biziera opa duten bezala irrikatzen zuten basati lander txiro aiek Inperio-barrengo biziera lilluragarria. Eta, baitare, geiago edo gutxiago, buruzagiengandik asita azkeneko artzaietaraiño, ziran baiño aundiagoak iduritzen zitzaizkien inperio-lurretako aberastasunak zituzten ames.

Ez ziran Erroma'ko Inperioa desegitera etorri. Maite zuten Erroma. Beren buruak erromatar biurtuta, Erroma'ko inperioaren mugen barruan pakean lan egitea zan, zekarten guraria. Ala, gelditzen ziran lurraldeetan ez zuten erriko jendeen lurrik edo ondasunik lapurtzen. baiñan izugarriki aberatsak ziran latifundista edo lurzabaljabeei bai, kentzen zieten aiei lur zabal aietako zati mardul, eder, bat: Bi irurden, gotiarrek: "Lex Gothorum", ots, "Gotiarren Legea" esan oi zitzaion lur-banekatarako arau aski zintzo ari.

Au zan, berriz, Buruzagiek gura oi zutena: Bakoitzak bere gudaroztea, Erroma'ren serbitzura Erroma'ko gudaroztearen talde biurtu; eta, bere burua, Erroma'ko gudalburu; eta, bakoitzak bere Erria bizitzen jarri zuten Probintziko Jaurle. Ortarako Inperatorearekin itun bat egin oi zuen, inperatorearen Agintaritzza Nagusia onezagutuz. Ala agertu oi zitzaizkigun bein

---

Seguruaski, baldarrago ibilli ziran Suebi, Alan eta Bandalitarrek Sarkaldera sartu ziranean; Bandaliharrek bereiziki. Baiñan baretu ziran auek ere azkenean. Suebitarrak, Ispani'aren Sarkaldera sartuta, bertan-goxo egin zutenean: Bandalitarrek Afrika'ren iparraldea berenganatu zutenez gero; Alandarrak beste bi Erria aiekin nasirik ezabatu ziran. Esan bearra da, alatagutziz, edes-tilari "erromatarrek" iru Erri aien eta beste Erri barbaritar guztien — etorrera aipatzerakoan izugarriki anpaturik ematen dizkigutela aien gaiztakeriak, Esan oi duten guztia egia izatekotan, jez bait zan Europa guztian arri bat bakarrik bere azpiko arriaren gaiñean geldituko!

baño geiagotan, lejiu errornatarrekin bat eginda, beste barbaritar batzuen aurka Erroma'ren alde borrokan.

Egokia iduritzen zait punttu garrantzitsu ori obeki adierazteko, Romulo Augustulo azkeneko inperatorea garaitu zuan Odoakro'ren jardunkera emen agertzea:

Odoakro, 456'ean eusko-itxasertza lapurtu zigutelako ezagunak ditugun Eruldarren buruzagia zan Itali'n 476'garren urtean. Urte ortan artu zuan Erroma'ko uria, eta Romulo Augustulo azkeneko inperatorea agintaritzatik kendu. Baiñan une artan ere, bere asmoa ez zan Inperioa ezereztan izan. Alare, Sarkaldeko Inperioa ezerezturik gelditu zala ikusten zuan. Baiña ikusten zuan, baitare, bizirik jarraitzen zuala Sortaldeko Inperioak, eta, an, Kostantinopla'n, Zenon zala Sortaldeko Inperioaren inperatorea.

Eta erromatarrek baiña erromatarragoa izan zan orduan Odoakro:

- Sarkaldeko ta Sortaldeko Inperioak berenez Inperio *bat bakarraren* adarrak zirala uste izan bait zuan;

- Eta, naiz Sarkaldeko Inperioa jausi, Sortaldekoak zutik irauten zuan arte Erroma'ko Inperioak Bizirik jarraitzen zuala;

- Eta, orduan Sarkaldean inperatorerik ez zegoalako, inperioaren bi zatiak bat egiñik gelditzen zirala berriro, eta, ezpairik gabe Zenon zala une artan, Inperio-bakarra-biurtuaren Nagusi Gurena: Sortaldeko ta Sarkaldeko Inperatorea, ots, (orduan ezagutzen zan) mundu guztiko Nagusi bakarra;

- Eta aren esanera jarri zuan bere burua".

Ori adierazten digute "Enciclopedia Britannica"tik artutako zatitxo auek ere:

(Bere gudarozteak Itali'ko errege egiñik, eta, Romulo Augustulo garaituta, Erroma beraren jabe bihurturik, aurkitzen zan Odoakro 476'ko Dagonillaren 28'an): "Orduan, Itali'ren Jaurketa bere eskuetan artzea izan zuan asmo; ibairia lurralde aren Nagusitza Gurena, une artan Kostantinopla'n bizi zan inperatoreari emanez"i: "His aim now was to keep the actual administration of Italy in his own hands recognizing the country as being under the overlordship of the emperor at Constantinople".

Esan dugun Iez, Zenon zan une artan Kostantinopla'n Inperatore.

Odoakro'k, "477'an senatore erromatarrez osotutako ordezkari bat bidali zion Zenon'i Kostantinopla'ra. Eta Zenon bera, ordezkari aien bidez, "Patricius Romanus", ots "Erroma'ko Goi-Aitor" tituloa ta Itali'ko jaurle izendatua izatea eskatzen zion": "In 477 he sent a deputation of

senators to Zenon at Constantinople askin for the rank of patrician and requesting that he be entrusted with the government of Italy".

"Odoacro'ren alde irten zan Erroma'ko Senatua, eta Erroma'ko aristokrazikuruek pozik artu zituzten oorezko aipua eta politikarako karguak aren eskuetatik": The Senate at Rome supported Odoacre, and members of the leading aristocratic families received high honours and offices from him".

Elizak ere ez zuan nekerik jasan; naiz ariotarra, oso gizon zabala bait zan Odoakro.

Dakusazunez, len bezala jarraitu zuten Erroma'ko gauzek. Senatuari Odoakro inperatore egitea bururatu izan ba'zitzaien, bizirik jarraituko zuan Sarkaldeko Inperioak.

Zergaitik ez ote zuan Senatuak orrelakorik egin? Agian, aspaldidanik Erroma'n "inperatore" itzari ustel-usaia zeriolako.

Gaiñera, beste buruzagi barbaritarrek, beraietako bat Inperatore biuré tzea, ta, inperatore biurturik beraietako bat beren danen gaiñean Agintari Nagusi jartze ori... ez zuten noski onartu nai izango. Eta gertatuko ziran borrokak, gertatuko ziran gudate gogorak. Bere ta bere eruldarren aurka izanen zituan Odoakro'k beste Erri barbaritar guztiak. Naiz azkeneko Inperatoreak oso balio urriko gizonak izan, tituluak berak, Inperatore tituloak hai, izugarrizko balioa bait zuan aro artako munduan. Izan ere, Inperatore izatea, mundu osoko erregea izatea bait zan. Orregaitik ez zuen Odoakro'k titulo ori heretzat eskatu. Askoz dizdira mottelagokoa zan "Errege" tituloa bai pozik artu zuan, eta pakean bizi izan zan Itaii'ko Errege bezala, eta pakean bizitu ziran italiarrak aren agintaritzapean.

## BARBARITARREN ETORRERARI BEGIRA

409'ko urtillaren 13'an igaro zuten Auñamendia Bandaliarrek, Suebiarrek eta Alandarrek, seguruaski Orreaga'tik barrena erromatarren "Astorica-Burdigala" bidea jarraituz<sup>19</sup>. Iru urte leenago, 406'aren azkeneko egunean, abenduaren 31'an, igaro zuten izozturik zegoan Rin ibaia eta berealaxe edatu ziran Galietako lur zabaletara. Gutxi ziran: "429'an Gainseriko erregeak Bandalitarrak eta aiekin alkartutako Alandarrak EspafiFtik at Ipar-Afrika'ra eramán zituanean, agure, emakume, aur, eta bidean arrapatutako jopu, danak zenbatuta, 80.000 pertsonék osotzen zuten zeramakian jendetza guztia": "When in 429 Gainseric led the Vandals and Alani out of Spain into North Africa, his whole horde numbered 80.000 persons including old men, women and children and runaway slaves" (Enc. Brit.).

Ez ziran, beraz, asko, geroagoko Bikingoen antzera, baiñan bai aiek bezala borrokalari bikaiñak. Oroi, nolako zentzu txarra duan oraindik "bandalikeri" itzak. Alandarrek, berriz, "gudagintza omen zuten atsegiñik aundiena": "Warfaxe was their great delight" (ib).

Iru urte egon omen ziran Bandaliarrek, Suebiarrek, eta Alandarrak Galietan Auñamendia igaro aurretik, eta "gaiztakeri aundia, ta naroa, egin

---

<sup>19</sup> Urtez-urte, oneraiño iritsi ziran Barbaritarrek V mendean Euskalerriazear izandako ibillerak aipatzera goaz. Naiz ori al dugun erarik Iaburrenean egin, agian bati baiño geiagori gertatuko zaizkio urteketa oiek aspergarri. Irakurri bitza alatagutziz, bestela ez bait ditu ulertuko kristautasunak mende artan aurkitu zituan eragozpenak. Ezta Kalagurri'ko Silbano gotzaiak eta Ilario Aitasantuak mende artan Euskalerrian Elizak izandako arazorik mardulenean erabilli zuten jardunkera.

omen zuten iru urte oien epean": "for three years they cause severe and extensive damage in Gaul" (ib).

Bi urtez egon ziran Auñamendiaren oiñetan geldi. Mendi ura igarotze-ra ausartzen ez ziralako? Ez dakigu bi urte aien epean iparr-Euskaldunen artean gaitzik egin zuten. Bañan mutiko gozoak ez zirala ikusi dugu-ta, uste izatekoa da ez zirala emen ere era gozoan ibilliko. "C'est sans doute a cette poque qu'il faut placer le martire de saint Sever et saint Girons dans la Novempopulanie": "Ezpairik gabe aro ortakoa izan bear du Bederatzlurietako Sebero ta Jiron Doneen martiritzaketa" (Narbaitz, "Le Matin", 210).

Ez dakigu, eztare, gero, Auñamendia-zear, eta geroago Baskoni'n eta Arabako lur zelaietan Bardulitar, Karistiar eta Autrigoitarrekin borrokarik izan zuten. Ez ziran beintzat emen gelditu. Ego-Euskalerra igarota aurrera jarraitu zuten. Galizi-aldera Suebitarrak eta Bandalitarren adar bat ziran Asdindarrak. Betika'ra berriz Bandalitarren beste adarrekoek, Silindarrak. Lusitani artu zuten, berriz, lenen une aietan, Alandarrek berentzat. "Españi'ko sortaldea barbaritar aien menpekotasunetik yare gelditu zan oraingoz": "The eastern portion of Spain was not occupied for any of them" (ib).

Endaz, Suebitarrak eta Bandalitarrak germaniarrak ziran. Alandarrak ez ziran germaniarrak, bada mongoliarrak zirala dionik ere **bañan** indeuropatarren sendiko izkuntza bat itzegiten omen zuten. Europa'ra, "Itxaso Beltzaren ipar-sortaldeko lur eremukoietik etorri zitzaizkigun": "from the steppe region of the Black Sea" (ib).

\* \* \*

Laister, Gotiarrak "Gothi", "the Goths", "los Godos" genituan gure sortaldeko ta iparreko mugaren gainean.

Luzaroan gure auzoko izango dira-ta itz bi esan ditzagun itzal aundikoa izan zan Erri ari-buruz. Jatorriz Suezi ta Noruega'ren egoaldekoak omen ziran. An dago oraindik Gotland izeneko lurraldea. Poloni'ra igaro omen ziran andik. Eta, Poloni'tik, Itxas Beltzaren albora. Emen zeuden IV mendean Danubio eta Dnieper ibaien arteko lur zelaiean.

Bi ibai oien artean badago beste ibai bat Dniester izeneko. Ba ibai onen bi aldeeta.n, naiz danak gotiarrak, ots, danak enda bat berekoak izan, ibai ori dala-ta bereiziko ditu, izenez, edestiak: Dnieper eta Dnieste,±en aré



tean gaurko Ukrani'n zeudenei Ostrogotak esango zaie arrezkero, eta Dniester eta Danubio'ren arteko Moldabi ta Errumani'lcoei, Bisigotak.

"Ostrogotalc" "Sortaldeko Gotak" esan nai duala uste Lzan da, eta "Bisigotak" "sartaldeko Gotak". Baiñan, azkeneko auei dagokienez, ez omen da orrela:

"The name Ostrogoths apparently means eastern Goths but Visigoths appears not to mean western Goths they shrank from calling themselves by the name of the ill-omened west where the sun sinks and die away **but** rather the `valiants' or `gallants" (Enc. Brit.).

Euskeraz:

"Ostrogot" izenak, bai, badirudi "Sortaldeko Gota" esan nai duala; ez dirudi, ordea. "Bisigot"ek "Sartaldeko Gota" esan nai duanik, "kementsua" baizik edo "bizkorra". Ez zaie ba atsegin "sartalde" itza beren buruen izentzat erabiltzea. Begi gaiztoz begiratzen bait diote sartaldeari, eguzkia an murgildu ta illik ondutzen dalako"

III mendean sartu ziran sortaldetik Erroma'ren inperio-lurretara. Are-rio gogorak zirala-ta..., etsai lez baiño adiskide lez erabiltzea obe izango zitzaiola-ta..., 384'ean I Teodosio inperatoreak, itun baten bidez, Erroma<sup>1</sup>

Urte batzuk geroago, itun ura urratu, ta Itali'runtz irten ziran Alariko buruzagi zutela 410'ean artu ta lapurtu zuten Erroma'ko uria. Urte ortan bertan il zan Alariko.

Alariko ez zan Euskalerrriaren mugetaraiño iritsi. Ondorengo: Ataulfo, Galietara etorri zan. Ostera berriz Erroma'ko Inperioarekin alkartea eginda. Onorio inperatorearen arrebarekin, Gala Plazidia printzesarekin, ezkondu zan.

"Federatti" bezala sartu ziran Bisigotak Katalauni'ra Onorio'k Galietan eman zien lurra txikia iduritu zitzaielako, 415'ean. Urte ortan bertan il zan Ataulfo.

Ataulfo artu zuan buruzagitza. Eta baita bi urte geroago, Onorio'gandik, Españi'ko beste barbaritar guztiak menderatzeko agindua ere.

Beraiek barbaritarrak izan ez ba'lira bezala ekin zioten Bisigotek Españi'ko beste barbaritarrei. Izan ere, federaketako itun aren ondorioz, Erroma'ren Inperioko gudalburuetako bat biurturik aurkitzen bait zan Walia, eta Erroma'ko lejiolari egiñik Walia'ren gudari Bisigotak.

Ez zuan Walia'k bere eginkizuna erabat bete, "bainan lur-puska aundiak irabazi zituan Erroma'rentzat. Bera, ordea, Bigarren Akitani'ra, ots, Garona ta Loira arteko lurrera itzuli zan bere Erriarekin. Probintzi ura eman bait zien, bertan bizitzeko, Onorio inperatoreak. 418'gn. urtea zan". Ikus gogoeta oiek ber-berak inglanderaz:

"But he handed Spain back to the imperial officials and marched with all his people (418) into Aquitania Secunda, which had been assigned to birra bay Honorius" (ib).

Euskalerraren albo-alboan eta seguruaski bera ere Euskaldunez beterik zegoan Tolosa izan zuten len ere Bisigotek beren lurraldearen uriburu, 412'an Galietan ezarri ziranean. Orain ere, 419'an Bigarren Akitani erreinu biurtu zutenez gero, Erreinu aren uriburu egin zuten Tolosa. Ainzuzen "Tolosa'ko Erreinaua" esan zitzaion, Erroma'rekingo federapenik urratu gabe sortutako Erreinu berriari.

Ez dirudi Erreinu berriaren sorkuntza zala-ta, Garona'ren egoaldeko lurretan giroa aldatu zuanik. Ez zuten beintzat oraindik Bisigotek Euskaldunekin Iiskarrik izan.

Teodoriko izan zuan Jaurerri berri ark lenengo Erregea. Seguruaski, Tolosa'n bertan ez erreinu aren barruan ere, Garona'ren iparreko, baso ta mendietan, Garona eta Dordoña artean, aski ugari izango ziran oraindik Euskaldunak. Baiñan lasai jarraituko zuten beren erara bizitzen, Bisigotek Errorna'rekin egindako "federapenaren" kerizpean.

Teodoriko izan zan bere Bisigotentzat lege idatziak eman zituan lenen buruzagia. Ordura arte, Euskaldunon Lege Zarra bezala agoz-agozkoa bait zan gotiarren legedia.

451 gertatu zan Erroma ta Atila'ren Undarren arteko borroka Piktabi edo Poitiers'en iguruan zeuden "Campis Catalaunicis" edo "Landa Katalauniarretan", Borrokaldi aunitz garrantzitsu artan izan zitzaigun, Erroma'é ren Inperio'ko gudalburu lez I Teodoriko Tolosa'ko Bisigoten Erregea, Aezio Erroma'ko Jaurlaritzaren lendakari ta Erroma'ko gudarozteen Buruzagi Nagusiaren esanera. eta an galdu zuan bizia.

Atila'z ez gera emen mintzatuko. Ez bait ziran bere "Huns" edo "Undar" aiek Euskalerrira alderatu. Esan dezagun alare, Idazio'k dioskunez, "300'en bat milla gudari 11 zirala, inor garaille izan ez zuan Landa Katalauniarretako borroka gogor artan": "CCC ferme millia hominurn in eo certamine cecidisse memorantur" (ib. 28).

Ildako geiegi, noski.

Oroi, ordea, edesti zarretaz esanik utzi genduana: Edesti oiek "agozko erri-literaturaren" erara idatziak dirala, eta agozko erri-literaturan, zenbakiak, matematikeen arlokoak ez baiña erretorikaren arloko izakiak dirala. Ez dutela "zenbatasun" ziurrik adierazi nai; soilki askotasuna edo gutxitasuna baizik. Askotasuna, zenbaki aundiak ba'dira; gutxitasuna, berriz, txikiak ba'dira. Ala, Idazio'k ez zuan borroka artan 229 eta 1 geiago il ziranik esan nai. Soilki, an jende asko il zala esan nai izan zuan.

I Teodoriko'ren bi seme izan ziran, bere atzetik, Tolosa'ko Erreñuan errege: H Teodoriko aurrena', eta Euriko gero, onek ere II Teodoriko bere anaia erail zuan ezker. Geiegizko "enaskeri zikirietara", "aux Ubauches", emanik omen zegoan 1A, bere anai ura (Dic. Hist. G6ogr. Eccl.).

\* \* \*

Euriko'rekin ez dira berdiñak izango Bisigoten eta Euskaldunen arteko arremanak, Errege onek 47.5'an Bisigotek Erroma'rekin zuten federapena ausi zuan ezker: 478'tik 480'ra Nobenpopulani osoa, ots, Akitani Euskalduna arrapatu bait zigun. Bi urteren epea bear izan zuan ortarako. Epe luzeegia, bi urteko epe ori, dana zelaia dan Euskalerrriaren zati ura arrapatzeko. Orrek, seguruaski, Euskaldunek aurpegi eman ziotela esan nai duala dirudi, eta, ezpata bitarte, indarra ta borroka erabilli bearrean aurkitu zala Bisigot lapur ura. Ez dugu ordea borroka orren albisterik edestiaren orrietan.

Ia Españi ta Frantzi guztia bere-egin zituanez gero, berea izan zan, Kadiz'tik Rin ibaiera, Bisigoten edestiko erreiflurik aundiena. Eta aunditasun ortan jarraitu zuan erreñu orrek ogei t'amar urtez II Alariko Euriko'ren semearen eskuetan, Klobis Frankiarren erregeak Piktabi (Poitiers)'en ondoan, VeuilWko borrokan, II Alariko ura garaitu ta erail zuan arte.

---

<sup>20</sup> Ez zan buruntza I Teodoriko'ren burutik II Teodoriko'ren burura zuzenean igaro. Bien bitartean Taismondo, I Teodoriko aren lenen seme eta beste Teodoriko onen anai zarrena izan bait zan errege 451'az gero. Ez /uzerako. Bi urte geroago erailla izan bait zan. Ainzuzen II Teodoriko bere anaia erailla!

507'an gertatu zan ori. VI mendean beraz. Eta, orregaitik, liburu onek aztertu nai duan arloaren mugatik at gelditzen zaigu, muga ori V mendearen azkenean ipiñi genduan ezkeru.

VeulWn garaituak izan ziranez gero, Bisigotak, Españira etorri ziran, Frantzi'tik igeska. Soilki, Rodano ibaietik Auñarnendira arteko itxasertz estu luzea gelditu zitzaien Frantzi'n. Septimani esaten zitzaion, Narbona uriburu zuan probintzi medar ari. Saiatu ziran baiñan ezin izan zuten Frankiarrek Bisigotei lurralde ura kendu, eta Bisigoten eskuetan jarraitu zuan Arabitarrek Bisigoten erreinua VIII mendean ezereztu zuten arte.

"Ayant soumis tout le nord de l'Espange, Euric est ainsi a la tte du plus puissant empire barbare", "Españi'ren iparralde guztia rrenderatuz gero, barbaritarren inperiorik indartsuenaren buru aurkitu zan Euriko", dio Dictionaire d'Histoire et G&)graphie Ecciclastiques" iztegiak, baiña ez da egia esan digun ori. Yare jarraitu zuten Suebitarrek Ipar-sarkaldeko zokoan eta baita Euskaldunek ere, Ego-Euskalerrian beintzat. Eta, seguruaski, baita Kantauritarrek ere. Ori, 457'an II Teodoriko'k Baiona eta Oloron artu zizkigula, eta, geroxeago, baita Euriko bere anaiak Iruña gure egoan, eta Nobenpopulani osoa gure iparraldean; ez dirudi, ordea, bisigotak uri ta lurralde aietan luzaro egon ziranik.

Orregaitik askoz zугurrago esana iduritzen zait onako beste au: "Salvo un reinecito suevo en la Gosta gallega y las rebeldes Cantabria y Vasconia el nuevo reino barbaro lo domina todo desde Cadiz al Loira" (Enc.Gen.I-lus.Pa(s Vasco).

Leobigildo izango da Suebitarren erreinua 581'ean ezabatuko duana. Borrokan ibilli zan Kantauritarren aurka ere, baiñan, bereiziki, Euskaldunon aurka. Leobigildo arte, Euskaldunak eta Españi'ko Bisigotak pakean bizitu zirala dirudi.

Leobigildo'z gero, ordea, VIII mendean Arabitarrek Espafil'ra etorrita Bisigoten erreinua zearo ezereztu zuten arte, gelditzeke ibilliko dira Bisigotek, alperrik, Euskalerrria menderatu naiez borrokan. Baiñan guzti ori ere,

V mendeaz geroko urteei dagokielako, liburu onen mugatik at gelditzen zaigu<sup>2i</sup>.

V mendean, ordea, Tolosa'ko Bisigotak baiño geiago, Suebitarrak eta Bagaudak izan ziran Euskalerrriari nekerik aski eman ziotenak.

\* \* \*

Bagaudak aipatu ditugu; Galietan eta baita Euskalerrrian ere zaratarik aski sortu zuten jendeak. Bagauda oiek, ordea, i,zer ziran? Ez da erreza erantzuna. Danetik bait zegoan, nasirik, bagauden talde borrokalarietan. Adibidez, Erroma'ren inperio-lurretako mendietan beti ugari izan ziran lapurrak eta gaizkilleak; nagusiengandik aldegindako jopuak; gudaroztetik iges egindako lejiolariak; "fundi" edo lur-lanketa aundietako morroiak; errentak eta zergak ezin ordainduz jopuen antzera bizi ziran maiztar eta nekazari txiki gaixoak...

Gero ta gogoragoak bait ziran Erroma<sup>1</sup>k eskatzen zituan zergak. Jende lander gaixoarentzat jasan-eziñak. Auek batez ere, jende lander auek zirala, dirudi, bagauden taldeetako jenderik ugarienak.

II mendean jeiki ziran aurreneko aldiz. Galietan (180-192). III mendean gero, eta Galietan ostera berriz: "La Grande Wbellion de 284-285".

Aien artean kristauak ere bazirala esan izan da. Bernardo Estornes Lasa'k adibidez (Enc.Gen.Ilus.Pa.Vasco). Ori, ordea, beste batzuen ustez, "kondaira utsa omen da; uste on txikienik ere merezi ez duana, gaiñera": "Il n'y a rien qui permette d'accorder la plus minime confiance a cette tradition" (D ic . Hist. . Eccl .).

Beste itxura batekoa izan zala dirudi V mendeko bagauden iraultza. 435'an jeiki ziran Loira eta Sena ibaien arteko lurretan... ¿nor? Aberezaintzatik eta nekazaritza bizi ziran edo obeto esateko ezin bizi ziran

---

"Leovigiid" zuan izen errege Bisigot arek. Bere aurretik errege izan zan Athanagildo'ren anaia zan; eta, iraultzan aurk a jeiki zitzaiolako berak eriotzara galdu zuan Hermenegildo bere semea. Bisigotak germaniarrak ziran, eta germaniarrek "G" oiek, Euskaldunok bezala, era goxoan agoskatzen dituzte. Oridalata "G"z idatziko ditut nik ere beti orrelako izen oiek, eta ez "J"z, naiz gaztelarrek "G" ura "J" agoskatu.

gizakume txiroak. Ori adierazten bait di <sup>s</sup>ute orduango edestilariek eman zizkieten izenek: "agricolae" (nekazariak), "agresti" (basagizonak), "aratores" (goldariak); "pastores" (artzaiak).

Beste, III mendeko, bagauda aiei ere "rusticaui" (baserritarrak) esaten die Orosio'k: "In Gallia Amandus et Aelianus collecta rusticanotum manu, quos vacaudas vocabant perniciosos tumultus excitavissent": "Galietan, Amando ta Eliano buruzagiek haguauda esaten zitzaien baserritarren talde bat bilduta, istillu gaiztoak sortu zituzten" ("Adversum Paganos, VII, 25, 2).

Itzuli gaitezen ordea V mendeko bagaudetara.

Izan ote zuten Galietako azken ba <sup>s</sup>audakeri aiek Ispani'ko Tarrakonentse probintzikoekin zer ikusirik? Aiek eta auek V mendekoak ditugu beintzat, naiz azkeneko auek aiek baiño amarren bat urtez beranduagokoak izan (441-454). Orretxegaitik ainzuzen esan izan da Galietako haguaudak Auñamendia-ren gainetik alde ontara etorri zirala eta Arazeli'n Erroma-ren aldeko gudarien aurka borrokan ibilli zirala.

Ori esateko, ordea, oso arrazoi aula dute: Arazelli ura gaur egungo Uarte-Arakil uri naparra dala uste izatea; deus besterik ez.

Bazan ordea Araziel izeneko uri bat Korella-ren alboan, eta eskierki an gertatu zan aipatutako borroka ori, eta ez Uarte-Arakill'en. Zergaitik diodan ori? Iraultza artako beste ekintza guzti-guztiak ere an, Ibero ibaiaren aran zabalean gertatu ziralako. Korella-ondotik Lerida'rairio doan aran edatsuan, eta ez Uarte Arakil aurkitzen dan Naparroa'ko Sakanean,

Emen damaizut gertakizun aien aria, Idazio'ren "Chronicon" izeneko idaztitik artuta":

441: Ez dakigu noiztik baiña iraultzan ieikirik dabiltz Ibero ¡baiaren lurraldeetan bagaudak.

Esnatu da Inperioko Jaurlaritzan, eta aien aurka, "Asturlus, dux utriusque militiae, ad Hispanias missus Tarraconensium caedit multitudinen bacaudarurn" (17): "Astorio zaldizko ta oiñezko gudarozteen buruzagi

---

22 Nik Idazio'ren idazki ori "Patrologiae Cursus Completus" bildumako 51'garren liburuan aurkitu dut, 874-891 orrien artean. (Paris, 1846). Íci; '7i, da ainzuzen Tarrakonentse'ko bagauden berri damaigun edestilari bakarra..

nagusia izan zan Tarrakonentseico bagauden aurka bidalia, eta aundia gertatu zan onek, aien artean eraildako jende-multzoa".

Ederki A. Azkarate'k (o.c. 18): "Este hecho refleja, sin ningdn gšnero de duda, el grado de importancia que debid de alcanzar a los ojos de Roma, la revuelta campesina".

Goratzarre ederra dagio Idazio'k Asturio buruzagiari, bere liburuko 26'garren zenbakian au idazten bait digu: "Asturius vir illustris ad honorem provehitur consulatus", ots, "Asturio, gizon ospetsua, Kontsuladutzako mailla omentsura jasoia izan da".

Non egin ote zuan Asturio'k, gero ain sari ederra balioko zion bagauden aurkako borroka ura? Euskalerrian? Bai seguruaski. Naiz Idazio'k zertzelada ortaz argirik eman ez, bere "Kronikoiean" daraman joerak, bagauden altzakundea Baskoien lurrean gertatu zala eta andik Ibero ibaia beera llergeten Lerida'raifio iritxi zala, adierazten bait digu argi eta garbi.

Ikus:

443'garren urtean borroka bizian diraute Baskoien egoaldeko lurretan bagaudek. Ez bait zan noski, Idazio'k aditzera eman nai izan zigun bezain aundia izan, Asturio'k bi urte lenago, 441'an, bagauden aurka lortu omen zuan garaitz ura.

Orregaitik, 443'ko urte ontan, Euskalerriko bagauden aurka ostera buruzagi berri bat, Merobaudes izeneko gudalburu nagusia bidali bearrean aurkitu zan Inperioko Jaurlaritza:

Ez zan edozein Merobaudes ori: "Natu nobilis" ("aitorren semea"), "eloquentiae merito, vel maxime in poematis studio veteris comparandus" ("izlari bikain eta, bereiziki, poemagintzan antziñako olerkari aundi aien kidekoa"), ta, gaiñera, ezaguna dugun Asturio'ren suiña. Ala, "Asturio utriusque militiae magistro gener ipsius successor mititur": "Bere suiña bidali zioten, ondorengo lez, Asturio gudarozte bikoitzaren buruzagiari".

"Merobaudes onek "urratu omen zuan bere agintaritzaren epe laburrean bagauda arazelitarren arrokeria": "Brevi tempore potestatis suae Ara-cellitanorum frangit insolentiam Bacaudarum"

Baiña, bereala ikusi aal izango dugun lez, ez bide zan ain aundia gertatu Merobaudes izlari, olerkari, ta gudalburu onen gurenda au ere. Bai ordea "norbaitzuen bekaizkeria atzarrerazteko naikoa. Inperatorearen aginduz Erroma'ra deitua izan bait zan": "Mox, nonnullorum invidia perurgente ad urbem Romam sacra praeceptione pervocatur".

449: Urte ontakoa da bagauden egiñik larriena: Tarazona'ko Doneleon gotzaiaren erailketa: Ikus nola aurkezten digun erailketa ura Idazio'k (ib.-25). Oiturazkoa duan bezala, laburki emango dizkigu eriotz orren zertzeladak:

"Basilus ob testimonium egregii ausus sui congregatis Bacaudis in ecclesia Tyriassone foederatos occidit: ubi et Leo ejusden ecclesiae episcopus, ab eisden qui cum Basilio aderant, in ea Ioco obiit vulneratus": "Basilio'k, bere ausarmen aundiaren otsak ingurura bildu zizkion bagaudekin, Tarazona'ko Elizan zeuden "federatuak" erail zituan. Bertan il zan Leon Eliz artako gotzaia ere, Basilio'rekin etorritakoek zauriturik"<sup>23</sup>.

Euskaldunak ote ziran gotzai-erailtzaille aiek? Euskaldunak izateaz gaiñera, kristauak ere bai ote ziran?

Saiatu bearko dugu galde oiei erantzuten. Oraingo, ordea, jarrai dezagun urte gogor aietako gertakizunak aurkezten.

449 ortan bertan, uztaillean, emen dugu berriro Euskalerrian Rekiario Suebitarren erregea, Euskaldunen etsaia. I Teodoriko bere aitagiarrerebari ikustaldi bat egitera joan omen zan b, Galietara". "Rechiarus mense julio ad Thodorem socerum profectus".

---

<sup>23</sup> Leon gotzaia borrokan erailla: eriotz orren zergaitia argitu nairik, lau dira edestilariak aurkeztu oi dituzten zioak: 1<sup>a</sup>: Bat-bateko borroka aren zurrunbilloak arturik, nor zan oartzeke "ala-bear-ta" iI zala: "casu perit". 2a: aita il zutela Baskoiek, jentillak ziralako. 3<sup>a</sup> Jentillak izan edo ez izan iraultzalari aiek, "latifundisten" eta Erronaa'k ipintzen zituen zerga ankerren etsaiak bazirala beintzat, eta gotzai ura gaiñerako gotzaiak bezala "lurzabaljaun" aien eta Inperioaren adiskidea zalako iI zutela. 4<sup>a</sup>: Ordurako Eliza bera oso aberatsa egiñik zegoala-ta, gotzai ura ber-bera ere lurzabaljaun aundia zalako erail zutela. Ez du iñork esan, naiz Leon Katedralean Inperioaren serbitzuko gudulari "federati" aiekin egon, bera ere borrokan ibilli zalako erailla izan zanik. Izanere, Gotzai Borrokalariek aroa geroagokoa bait da.

"Rechiarus accepta in conjugium Theodori regis filia, auspicatus initium regni, Vasconias depraedatur mense februario", "Rektario'k, emaztetzat I Teodoriko'ren alaba arturik, bere erreñua adur onez asi-ondorean, Baskonietarra sartu zan ebasle" (Idazio: Chronicon, 25). Idazio ori (395-470), A.J.ae Flaviae'ko gotzaia izan zan. Uri orri Chaves esaten zaio orain eta Portul;areko



Bai aruntzakoan bai onuntzakoan ez zuan noski gaitzik egin gabe Euskalerra osoa igaroko, Galizi'tik Tolosa'ra eta Tolosatik Tarazona'ra.

Emen, Tarazona'n, Tolosa'rako bidaldia egin ondorean, Basilio'rekin alkartu zan, eta "onekin batera Zaragoza'ren inguruak lapurtu zituan": "Zaesaraugustam regionem cum Basilio depredatur".

Biak, Basilio'k eta Rekiario'k, aurrera jarraituz, Lerida artu zuten maltzurkeriz, eta baita an jopurik ugari atxilotu ere": "Irrupta per dolum Ilerdensi urbe, acta est non parva captivitas" (Ib. 25).

Ikaratu zuan Erroma Rekiario'ren garaitza ark. Abito inperatorea, arekin pakeak egitera bearturik aurkitu zan. Ortarako bidali zion bere ordezkari lez Fronton izeneko kontea: "Per Augustum Avitum Fronto comes legatus mititur ad Suevos". "Orixe egin zuan I Teodoriko gotiarren erregeak ere Erroma'rekin federaturik zegoalako": bere izenean ere Fronton ura bera bidali Rekiario'rengana: "Et a rege Gothorum Theudorico, quia fidus Romano esset imperio".

Bazegokean noski arro eta pozik Rekiario Suebitarren erregea, bai gotiarrek eta bai erromatarrek pakea eskatzen ziotela ikusirik.

Rekiario'k ordea, "Abito'ren eta Teodoriko'ren ordezkariari jaramonik egiteke, zuzentasunaren arau guztiak urratuz, Euskalerra zear oraindik Erroma'ko Inperioaren probintzi zan Tarrakonentse'ri eraso zion, oiturazkoa zuan era zakarrean": "Omni juris ratione violata, Suevi Tarraconensem provinciam quae Romano imperio deserviehat invadunt" (ib.31).

Pakea lortzearen, egin zuan oraindik I Teodoriko'k bigarren saio bat, atzera berriz Rekiario'ri ordezkariak bidaliz. "Legati Gothorum rursus veniun ad Suevos": "Etorri ziran ostera berriz Suebitarregana Gotiarren ordezkariak". Par egin zien ordea Rekiario'k, eta, "gudarozte aundi batekin berriro Tarrakonentse'ko lurraldeetara sartu zan, lapurreta aundiak egiñez, eta Galizi'ra eramateko katiguen kopuru txit ugaritsua baituz": "Acta illic depredatione, et grandi ad Gallaeciam captivitate deducta".

---

iparraldean dago. Idazio'ren liburuak 379'a ta 470'a arteko gertakizunak damaizkigu. Idazio'k, beraz, bere denborako gauzak kontatzen dizkigu. Gaiñera gertakizun oiek jakin aal izateko, ¡liburu ori beste iturririk ez dugu!

451'ean il zan I Todoriko "Landa Katalauniarreko" borrokaltfian Erroma'ren serbitzura Atila'ren aurkako gudateuL

454. Bost urte geroago, Errorna.'k, b ere. federati" Bisigotei, bagaudak erabat ezerezteko agintzen die. II Teodoriko errege Bisigotak bere anaia, Federiko, bidaltzen du eginkizun ortara. Eta or datorkigu gudaLburu au ere bere gudariekin goitik beera Euskalerrria oso-osoan igaroz. Ederki bete zuan bere eginkizuna. DirudianeZ, ezabatu-bide zitu.an erabat, Euskalerrriko iraultzalari menderakaitz aiek. Ez da beintzat geiago aien aipurik emen entzuten.

"La represidn ejercida por los visigodos 'ex auctoritate romana' debi6 de ser tan corapleta y eficaz que ya no vuelven los bagaudas a ser mencionados en las fuentes" (A. AzlQrate I.c. 19). Idazio ber-bera ere ez zaigu arrezkero bagaudetaz mintzatuko. Bai ordea oraindik Euskalerrrian gora ta bera ibilliko diran Bisigotiarretaz. Ez bait ziran Kalagurri'ko elizbarrutian g.udarozteen. ibilketa gaiztakeri-oitiaze-ta-ondamen sortzailleak bagauden iraultza menderatu-ondorean ere amaitu.

454?: Ostera Rekiario Kalagurri'ko elizbarrutiaren ertzean dugu, Au-trigoiekin borrokan, aien lurra berenganatu nairik, dirudianeZ.

455?: Asarretu zan Erroma. "Abito inperatoreak II Todoriko errege Bisigotiar "foederatus" edo alkartuari, Auñamendia igarota, bein betirako Rekiario'ren lotsagabekeria ezabatzeko agindu zion. Bereala sartu zan Ispanietara Bisigoten gudarozte "Mox Hispanias rex Gothorum Teudoricus cum ingenti exercitu suo, et cum voluntate et ordinatione Aviti imperatoris ingreditur" (ib.43).

456: Izugarri gogorra ta odoltsua irten bide zan Suebitarren eta Bisigotiarren arteko borroka, "Astorga'tik bertan Orbigo erreKaren ibarrean": "duodecirno de Asturicense urbe milliario, ad pluviurn nomine Urbicum"<sup>25</sup>

---

<sup>25</sup> "Asturicens " eta "Urbicum", biak, adjetibo edo izenondokoak dira. Sustantibo edo berenezko eran itz oiek "Asturi" eta "Urki" edo "Urbiko" dira ("AST-URI") eta ("UR-BI-KO"), Itz oiei Euskal-itxura nabarmena ageri zaiela ezin ukatu. Erroma'k bagauden aurka bidali zuan gudaLburu ark ere Asturius zuan izena. Izen ori laterazkoa ez dalako, "Asturius" izeneko buruzagi ura ez zan noski jatorriz erromatarra, gure lurralde ontakoa edo gure lurr..!de onen ingurukoa baizik. Laterazko "ius" atzizki nongotasun adierazlea dalako, "Astué

Zearo garaituak izan ziran Suebitarrak. Iges egin zuan Rekiario aien erregeak. Arrapatu zuten ordea Bisigotiarrek eta lepoa moztu zioten, II Teodoriko'ren affinduz.

Agian amairik gabeko basa-guda batera sartuko ote zalako bildurrez ez zuan II Todoriko garailleak lurralde ura beretzat artu. AIA, VI mendean Leobigildo'k ezereztu zuan arte iraun zuan Galizi'n eta Portugal'eko ipaé rrean Suebitarren erreñuak, baiñan, ain auldurik gelditu bait zan! **EZ** zitzaigun arrezkero Euskalerrarentzat nekagarria gertatu.

Bai ordea Bisigotena. Orduan bertan II Teodortko Galizi'tik garaille Tolosa'runtz zijoala, Bayona (Lapurdum) eta Oloron (Iluro) arrapatu bait zizkien Euskaldunei. Ez ordea, itxuraz, epe luzerako.

Danadala, azkeneko bost mendeetan erromatarrekin pakean eta adiskidetan osoan bizitu ziran Euskaldunek ez dute, Erroma'ko Inperioa jausiz gero, ez goiko, ez beeko, ez eskubiko, ez ezkerreko mugetan pakerik izango.

Eta, V mendera arte idazle klasiko guztiek Euskaldunei-buruz ain txué kun eta gorespentsu mintzatu ba'dira, klasikoen aroa amaituz gero, V mende ortatik onuntz, Euskaldunen izena norkgeiagoka zikintzen asiko zaizkigu idazle bat baiño geiago.

Bedi oore ta esker ona, idazle zar klasiko aien bidetik ibilliz, IX naendean Euskalerrria goraiapatuz mintzatu zan Eulojio Done kordohatarrarentzat. Baiñan oster, XII mendean, berriz ere Euskalerrria Iotsagarriki orbanduz agertuko zaigu Aymeric Picaud erromes Frankiarra.

---

rius"ek "Asturi"ko esan nai bait du. "Urbiko" izena, berriz, Duero ibaiaren jaiotegi **dan URBION mendiak daraman izenaren senide da:** "UR-BI-KO" = "URÉBI-ON". Bestalde, "Asturi" izenari dagokionez, "URI" zer izan daitekean badakigu. Eta "ATS" aurrizki-duten izenak nai aiña idoro daitezke gure iztegiatan. ¿Zer esan nai ote du guzti orrek? ¿Euskera noizbait arãfio iritxi zala? "Aalpentasun" edo "posibilitateetako" bat izango litzake ori. LEz ote du deus esan nai? Berez, itxura berdiñekoa izatea ez bait da, maiz aski, senide izatearen adigarri. Orra or beste aalpentasun bat. Arazo ori Euskerazaintzaren ale batean sakonxeago aztertzeke asmoa badut. Itzuli gaitezen, ordea, orain, Suebitarrak eta Bisigotiarrek borrokan utzi ditugun lekura.

Eulogio, ordea, ez zan Frankiarra; ez zan, eztare, Bisigota; eta, naiz Kordoba arabitarrekoa bai, ez zan alare Arabitarra. Ez zuan, beraz, Euskaldunei, atzerritarren aurrean bururik makurtu nai ez zutela-ta, gorroto izateko arrazoirik. Arabitarrek, eta Frankiarrek, eta Bisigotek, ordea, ez diote Euskalerriari beren menpera ez makurtu nai izaterik barkatuko, eta errabi orrek eraginda ez dute Euskaldunentzat izkera zikiña besterik izango. Ederki Pierre Nabaitz'ek:

"Des deux cÔtes des Pyrénées, Basques et Gascons meneront conjointement une vie farouchement indépendante face aux Visigoths et aux Francs. Et lorsque, au VIII<sup>e</sup> siècle, les vagues musulmanes s'aventureront vers la Vasconie et l'Alava, leurs chroniqueurs vont y signaler soit des hommes `semblables a des brutes' soit de <sup>4</sup>madchus' idolâtres adorateurs du feu" ("Le Matin", 368).

Euskeraz:

"Añamendiaren bi aldeetan Baskoiak eta Gaskoiak, askatasun osoan bizituz jarraitzearen, gogorki eman zieten, batera, Frankiarrei eta Bisigotiarrei aurpegi. VIII mendean musulmanen erasoak Baskoni'ra ta Araba'ra iristen diranean, aien kronikariek, ez dute Euskalerrian `basapiztien antzeko gizakumeak' eta `madchus' edo `su-gurtzaille' jentillak besterik ikusiko"

V mendean bertan asi ziran Euskaldunentzat borrokak, ikusten asi geran lez. Jarrai dezagun orain, ordea, V mendeko borroka oien egutegia osotzen:

456: Urte ortan garaitu ta erail zuala esan dugu II Teodoriko'k Rerkario Suebitarra, eta Tolosa'ra itzultzerakoan Oloron eta Baiona lapurtu zizkigula.

---

<sup>26</sup> Oar bi, Narbaitz'ek esan digunari: Euskaldunak, iparrean eta egoan "batera", "conjointement" ibilli ziralako orrek, astiari dagokionari-buruz baka-rrik balio duela, ots, an eta emen euskaldunak borrokan aro berean ari izan ziralako. Bestela, beren askatasunaren alde borrokatzeko, Euskaldunak ez bait dira beñere alkaturik jarduteko gauza izan. Eta, bigarren, mauritarrak ez ziralako Euskaldunen aurka Bisigotiarrek, eta batez ere, Frankiarra bezain zakaré ki mintzatu. Ontaz, ordea, bere garaiean mintzatuko gera.

457: Tolosa'ra itzultzen zaizkigu, Euskalerrria-zear urte bete lenago Rekiario menderatzera II Teodoriko'rekin etorritako gudarozte mardul aren azkeneko taldeak.

462: Gelditzen ziran oraindik gudarozte aundi aren ondarrak Suehitarren lurretan, eta urte ontan beste gudalburu Bisigotiar batek ere, aiekin Galizrtik Tolosa'ra itzultzeko, Euskalerrri osoa ibilliko digu beetik gora.

4627: gudalburuaren esanera II Teodoreto'k Ispanietara Bandalitarren aurka bidali zuan gudaroztea, Euskalerrri guzia goitik beera igaroz, jakiña, Andaluzi'raiño sartu zala" diosku Idazio'k: "Gboticus exercitus duce sua Cirila a Theodorico rege ad Hispanias missus mense julio succedit ad Baeticam" (ih.44).

464: Berriro, Tolosa'tik, "Sunieriko buruzagia agintari duala, Bisigoten gudaroztearen zati bat datorkigu, II Teodoriko'ren aginduz. Andaluzi'raiño joateko" oraingoan ere. Baiñan ostera Euskalerrria zapalduz: "Theudoricus, cum duce suo Sunierico, exercitus sui aliquantaril ad Baeticam dirigit manum" (ib).

464: Andaluzi'ra bidalia izan zan Zirila izeneko gudalburu ari Galieta-  
ra itzultzeko agintzen zaio: "Cyrila revocatur ad Gallias".

Ihilketa oiek danak, Euskalerrria oinpetuz egiten ziran. Ta, hai al dakizu gudarozte aiek, igarotzen zituzten lurraldeetan, nolako ondamen izugarriak egin oi zituzten? Bizi ere, bidean arrapatzen zutenetik bizitzen bait ziran.

477-478: Euriko Bisigoten errege berriak Euskalerrri osoa igaro zuan bere gudarozte guztiarekin. "Ispania arrapatu nairik, Iruña artu zigun. Artu zituan Zalduba eta onen inguruko uriak ere". Ugari ziran an, Alagon bere-  
tik eta Arba ibaiaren ibarrekoetatik asita, uri Euskaldunak; ~~uri~~ kristauak ezpairik gabe. Euriko, berriz, arianikeri-zalea. Baiñan beste errege Bisigotiar guztiak, naiz arianikeri-zale, katolikoekin eraspentsuak izan ziran bezaé la, ez ainbeste, orain Euskalerrria sartu zitzaigun Euriko. Egin ote zuan emen okerkeriren bat? Ez dirudi, ortarako astirik naiko izan zuanik.

484: Euriko bere semea, II Alariko, da orain Bisigoten errege.

496: Bordele artzen dute Klodobeo:zen Frankiarrek. Ez ziran Euskaldunen aurka etorri, Bordele Bisigoten eskuetan bait zegoan. Baiñan arrez-  
kero gogorrak izanen dira mendeak-zear gure Arbasoen eta Frankiarren arteko borrokak.

506: Agde'ko Kontzilioa. Naiz ariotarra, gizon eraspentsua ta xaloa bait zan, errez eman zien II Alariko'k bere erreinuko gotzaiei kontzilio ura egiteko baimena. Ori izan zan egin zuan azkeneko gauza garrantzitsua, urrengo urtean, 507'an Klodobeo Frankiarraren aurka, VeuilWko landetan, borroka ta bizia galdu bait zituan. An amaitu zan Tolosa'ko Erreinu Bisigota ere. Bisigotak, Galla utzita Ispani'ra igaro-bearrean aurkitu bait ziran'.

Baiñan azkeneko gertakizun oiekin VI mendera sartuak gera, ots, Jainkoa lagun nere beste liburu batenak izango diran gaietara.

---

<sup>21</sup> Agde, itxasondoan Beziers eta Montpellier artean zegoan uri txiki bat zan. Bertako kontzilio artan, Tolosa'ko Erreinu Bisigotaren mendeko gotzaiak bildu ziran: gaia, elizgizonen sagaraketa izan zuten; eta elizbarrutien jaurketa. V1 mendearen asierakoa izanik, bere kanonek bazuten indar Euskalerrriaren iparralde osorako. Liburu onen urrengoan aztertuko ditugu

## BARBARITARREN NOLAKOTASUNA

Guk emen, Eusko-Elizari-buruzko bigarren liburu ontan, Euskalerrira iritxi ziran barbaritarrak bakarrik aipatu ditugu: Iraizean igaro ziran Bandaliarrak, Alandarrak, Galizi-aldetik erasoka Rekiario'ren erregetzakotan naiko kalte egin ziguten Suebitarrak, eta Bisigotak. Irugarren liburuan, maiz aipatu bearko ditugu berriro Bisigotiarrak. Eta baita Bikingoak eta Frankiarrak ere. Azkeneko auek, Euskalerrriak sekulan izan dituan etsairik gogorrenak.

Baiña Euskalerriraiño iritxitako leiñu oietaz gaiñera, beste leiñu ezberdin asko jausi zan Europa'ren gaiñera, V mendean gero IX mendearen azken aldera Majiarrak Ungari'ko zelaiak arrapatuta bertan bizitzen asi ziran arte.

Leiñu guzti aiek, endaz germaniarrak ziran, indeuroparrak beraz, inongolitarrak ziran Undarrak, Majiarrak, Finlanditarrak, eta, agian, Alandarrak izan ezik. Erroma'ko jendearen esaeraz, danak, "Barbari", "barbaritarrak".

Itz orrek, Erroma'ko Errepublikaren denboran, apika "atzerritar" baiño ezer geiagorik esan nai zuan. Gero ordea, bazuan itz orrek, gaur duan bezala, "kulturik-ezaren" zentzua: "Barbaroak", kulturik, gizabiderik eta ia-ia giza-bizierarik ere gabeko jende aberekoiak.

Baiña ez ziran ori "atzerritar" aiek.

Gizakume aiek ez zuten Erroma'koaren kidekoa izan zitekean elertizko kultura ez noski. Erti-mota orori dagozkion landetan, Erromatarrak baiño milla aldiz baldarragoak ziran, baiña sendi-ta-gizarte-bizitzari dagozkionetan erromatarrak baiño askoz garbiagoak. Gudateetan, adibidez, etsai garaituen artean gaiztakeri geiago egin oi zuten erromatar "zibilizatuak" germanitar "barbaroek" baiño. Erroma'ko inperio-lurren barruan ere, ez zuten jende xee landerrak uste oi dan bezain biziera lasairik izan.

Orregaitik, ez bide ziran gutxi, IV mendeaz gero batez ere, egiazko askatasun, iasaitasun eta pake-billa, barbaritarren artera iges egiten zuten erromatar landerrak. Ori dioskute beintzat garai artako edestilari ospetsu bik: Orosio'k eta Siibiano'k.

Entzun deiogun Orosio'ri. Augustin Donearen ikasle, lagun eta adiskide aundia izandako onek, Erroma'ren agintean "zergaz itorik bizi baiño Barbaritarren artean txiro yareak izan naiago izan zuten erromatarrak bat baiño geiago izan ziralara inperio-lurretako jendeen artean", esaten bait digu: "Quidam Romani qui malint inter barbaros pauperem libertatem, quam inter Romanos trihutariam sollicitudinem sustinere" (Paulus Orosius: "Ad-vesum Paganos", VII, 41)

Era berdiñean edo bearbada askoz gogorrigo mintzatzen zaigu Silbiano Martsellatarra. Izanere, jende txiroarentzat harbaritarren artean erromatarren artean baiño ankerkeri gutxiago eta askatasun geiago aurkitzen zala bait diosku, eta, orregaitik, iges egiten zuala jendeak aiengana: "Erromatarren arteko ankerkeri barbarikoia ezin jasanez, gizalege erromakoia barbaritarren artean aurkitu nairik" ainzuzen: "Quaerentes scilicet apud barbaros Romanam humanitatem, quia apud Romanos barbaram inhumanitatem ferre non possunt".

"Gaiñera naiz barbaritarrak oituraz, elez, eta, esan dezadan guztia -- baita soiñ eta soiñekoen kirats iguingarriz, aiengana iges egiten zutenentzat ain ezberdiñak gertatu, naiago zuten auek aien arteko neke guzti oiek apaltasunez eraman, erromatarren zuzungabekeri ankerraren azpian bizi baiño": "Et quamvis ah is ad quos confugiunt discrepent ritu, discrepent lingua, ipso etiam, ut ita dicam corporum atque induviarum barbaricarum foetore dissentient, malunt tamen in barbaris pati cultum dissimilem quam in Romanis injustitiam saevientem".

"Oridalata iges egiten dute barbaritar menderatzailleengana eta ez dira iges egin izateaz damutzen, naiago bait dute jopu-itxuraz aske bizi, askatasun-itxuraz jopuak izan baiño": "Itaque ad dominantes barbaros migrant et commigrasse non paenitent; malunt enim sub specie captivitatis vivere liberi quam sub specie libertatis esse captivi" ("De Gubernatione Dei", V, 2 1-22).

\* \* \*



- Ogibidez, aberetzaiñak ziran bereiziki Barbaritarrak, naiz, Bisigotak batez ere, nekazaritzan ere ikasirik egon.

- Euriko'k Bisigoten Legedia idatzi zuan arte, ez zuten lege idatzirik izan. Euskaldunak bezala oitura zarren eta agoz-agozko legeen araura bizi ziran, eta, Euskaldunak bezala, Batzarra zuten Agintari Nagusia.

Beren buruzagiei "Errege" esan oi zaie, baiñan ez ziran egiazko erregeak, Batzarrak aukeratutako eta Batzarraren izenean agintzen zuten Buruzagi utsak baizik. Bai beintzat II Teodoriko eta Euriko'ren aurreko aiek. Eta Euriko'z gero ere, Batzarra zan erregeak aukeratzen zituana batez ere Bisigoten artean.

- Erljioz, onera etorri ziranean, jentillak ziran Alandarrak: lurrean "sartu oi zuten ezpata haten gurtzailleak": "Alani worshiped a naked sword struck in the ground" (Ene.Brit.). Españi'n, Bisigoten mendera jausi ziranean, Bisigoten sinispidera makurtuz, arianitar egin omen ziran.

Bandalitarrel dagokienez onela dio Llorea'k: "Los vIndalos no Ilegaron a ninguna conversiÖri general, sino que siguieron en todas partes persiguiendo a los cristianos que encontraban" (l.c. I, 492).

Beste aburu batekoa da ordea Eneyelopaedia Britannica: The Vandals appear to have converted from paganism to Arian christianity while they were still in Spain in 409-429 and they remained ardent Arians for the rest of their history":

Euskeraz:

"Vandaliarrak, oraindik Españi'n zeudela, dirudi, biurtu zirala jentiltasunetik arianikerizko kristautasunera, 409 eta 429'garren urteen arteko epean. Ariotar gartsuak izan ziran arrezkero beren edesti guztiaren luzaroan".

Egia da beintzat Esparii'tik Afrika'ra igaro ostean, katolikoek aurka gogor eta ankerki ibilli zirala an eratu zuten erreleftiran,, 'frika'tik Itali'ra jausi egiñez gero, emen, katolikoekin eraspentsu agertu ziran.

- Suebitarrak, jentillak ziran Euskalerria ukitu zutenean. Gero, katolikoak, Galizi-aldetik Euskalerrinari erasotzen asi ziranean. Orduantxe egin bait zan katoliko, Rekiario, aien erregea.

Ariotarrak ziran, berriz, Bisigotak, Danubio ibaiaren ertzetik Alariko'rekin Itali'runtz bideratu ziranean. Ez omen da gauza erreza, oso zailla baizik, gotiarrak kristautasunera sartzerakoan zergaitik eta nork eraginda katoliko ez baiña ariotar egin ziran jakitea. Orain arte, Nikomedi'ko Euse-

bio gotzai ariotarrak gotiar guztien gotzai sagaratu zuan Ultila Bisigota izan zala uste izan da gotiarrak kristau eta ariotar egin zituana.

Baiñan ez omen daiteke ori egia izan, alde batetik Ulfila jaiio aurretik ere kristautasuna III mendean bertan aien artera sarturik omen zegoalako, eta bestetik, naiz Ulfila'ren lanak eraginmen aundia izan, bera il ondorean ere oraindik gotiarrak geienak jentillak ziralako: "Christianity appears to have been introduced to them by some of the Roman prisoners whom they carried off in their great raids on Asia Minor in the middle of the 3<sup>rd</sup> century" (Enc.Brit.).

Euskeraz:

"Kristautasuna, Gotiarrengana, auek III mendeare erdialdera Asi Txiki-ra egindako sarketa aundi aietan baiturik berekin eraman zituzten erromatar kristauek sartu zutela", dirudi.

Danadala, ariotarrak ziran Bisigotak, Onorio inperatoreak Galietan eman zien lurraldearen uriburutzta Tolosa'n ezarri zutenean.

Ordurako sendo erroturik zegoan kristautasuna Euskaldunen artean, bai Akitani'n eta bai Ibero ibaiaren lurralde zabalean.

Euskaldunen kristautasunaren arloan, onerako ala okerrerako, izan ote zuten eraginmenik barbaritar aiek?

Ez beintzat Suebitar, Alandar eta Bandalitarrek. Ez bait zuten ortarako astirik izan. Epe luzeagoz, iru mendez ain zuzen, egon ziran Bisigotak Euskalerraren alboan: iparrea, V mendean; eta, egoan, VI'az gero. VIII-ean Arabitarrak etorri ziran arte.

V mende artan Akitani menderatu ere egin zuala, dirudi, benetan ariozale sutsua izan zan Euriko erregeak.

Esan dugu, dirudianez Iparr-Euskalerra guzia arrapatu zigula Euriko arianikerizaleak: "De 472 a 477 la Novempopulani, l'Aquitaine Il'e, et une partie de la Narbonnaise, tomberen sous son pouvoir": "472'atik 477'ara, Nobenpopulani, II Akitani, eta Narbonentse'ren zati bat, aren menpera jausi ziran" (Dic.Hist.Géo.Eccl.).

Izpar ori, ordea, Sidonio Apolinar'en "Eskutitzak" izeneko liburutik jasoa du "Diefionnaire d'Histoire et de Géographie Eclésiastique" k. B a i - ñan Sidonio'k ez du uste on osorik merezi, Iztegi orrek berak dion bezala, "Eskutitz" oietan Sidonio, Euriko'ren guduketan edestilari ez eze, aren apologilari ere agertzen bait zaigu": "L'historien de ses campagnes -- dans ses "Epistolae" ainsi que son pan4yriste".

Ez dakigu beraz ziurki Akitani "beti-menderakaitza" zenbateraino izan zan Euriko'k menderatua, eta noizeraino iraun zuan Bisigoten mendean.

Frankiarrenganako bildurak eraginda, Españietarako ibilialdia VI mendean asi zuten Bisigotek 494'garren urteaz gero, II Alariko errege zutela. Eta multzoka egin zuten, berriz, Ispanietaruntzko igesketa ori, VeuiiWko borrokaldian beren gudaroztea zearo garaitua, eta beren errege ura, II Alariko, illa izan ziran ezkeru.

"Gutxi izan ziran etorri ziranak. Ez, ziurki, 200.000 baiño geiago. Nekazari, gudari ta eliz-gizon (ariozaleak, jakiña), danetatik zetorren aien artean": "The migrants, who certainly did not number more than 200.000, included peasants as well as warriors and Clergy" (ib).

Gure egoaldean ere, Leobigildo'z gero, noizbeinka Bisigotena izan zan noiz-beinka Ibero'aren ibarra. Ariozealea zan Leobigildo ere. ¿Izan ote zuan ondoriorik Bisigot ariozealeen eragiñak erlijioz katolikoak edo oraindik mendietan bereiziki jentillak ziran Euskaldunen sinispidean?

Ez.

Lendabizi, Euskaldunen eta Bisigoten arteko arremanak etsai amorratuen arteko arremanak izan ziralako.

Bigarren, Euskalerrriaren barruan bizitzen, Bisigotak sekulan jarri ez ziralakollruzarren, Bisigotak, artu zituzten lurraldeetako oitura, lege, ta sinispideak lardaskatzen inoiz ere asi ez ziralako. Danekin izan ziran eraspentsuak, katolikoekin eta juduekin, ariotar jarraitu zuten artean, gero bai, bein katoliko biurtu, asi bait ziran juduak zigortzen Toledo'ko Kontzilio ospetsuen bidez, eta azken-azkeneraino jarraitu zuten orrelP.

---

<sup>28</sup> Etenik gabea izan zan zigorketa. Katolikoek lotsarako, jaso ditzadan Jerusalem'en 1.972'an argitaratutako "Enciclopedia Judaica"tik onako itz auek: VII mendearen azken aldera zurrumuru au zabaldu omen zan Bisigoten artean: juduek Afrika'ko musulmanei Espaili'ra etortzeko eskatzen asiak zirala. Orduan Egika erregeak, kezkatu, Toledo'ko XVII kontzilioa bildu omen zuan (693) juduek etsai lez salatuz, eta aien aurka zigorrik gogorrenak eskatuz. Ondorioz, "declared as slaves and their possessions confiscated, all the Jews of Spain were given into the hands of Christian masters in variuous provinces. Their masters were charged to sez; that they did not practice Jewish rites and to take their children to be brought up from the age of seven by Christian tutors and late married to Christians. Those jews who were able to, escaped; their

Ariotarra zan Leobigildo, bañan ez zituan Ermenegildo bere semea eta onen lagunak katolikoak ziralako erail. Bere aurka jaultzan jeiki zitzaizki-olako baizik.

Errege Bisigoten artean indartsuena eta ariotarrena Euriko izan zan ezpairik gabe: garai artako idazle frantziarren EUARIX. **ote zan** errege ori katolikoak zigortzen? Baietz uste du Narbaitz'ek ("Le Matin", 382), Turona'ko Gregorio'k idatzi zuan au itxu-itxuan egiazkotzat artuz:

"Huius tempore Euarix rex Gothorum, excidens Hispanum limitem, gravem in Galliis super christianis intulit persecutionem. Truncabat passim perversitate suae non consentientis, clericus carceribus subegebat, sacerdotis vero alius dabat exilio, alius gladio trucidabat. Nam et ipsus sacrorum templorum aditus spinis iusserat obserari, scilicet ut raritas ingrediendi oblivionem facerit fidei" ("Hist. Franc". "I, 25).

Ona, euskeraz, Gregorio'k bere latera baldarrez esan diguna:

"Garai artan Euarix Gotoen erregeak (Bisigotek atsegin izan zuten "Goto" deituak izatea), Ispanietatik itzuli zanean zigorketa Jarriz eraso zituan Galietako kristauak, Bere okerkerira makurtzen ez ziranei soinkiak moztutzen zizkien ugari; espetxera jaurtitzen zituan apaizak, gotzaietatik batzuk erbestera bidali zituan, beste batzuk, berriz, erarik mingarriean erail: eta, arantzak ezarriz itxi elizetarako bideak, elizarako oitura galdueraziz fedea ere aztuerazi oteko zualaren ustez".

Salaketa gogorak une artan, edestilari Frankiarrak diotenez Euskaljerri Zar osoaren jabe zan Euriko'ren aurka.

Euskaldunen arteraiño ere iritxi ote zan errege aren zigorra?

Baietz, eta, ainzuzen, Euskaldunen aurka izan zala bereiziki gogorra, diosku Gregorio berak: "Maxime tunc Novimpopulanae (sic) geminaeque Germaniae urbes ab hac tempestate depopulatae sunt": "Batez ere Nobenpo-

---

rest were taken into servitude:

Euskeraz: "Zuten guztia kendu zitzaien juduei, eta, jopu hiurturik, ugazaba kristauen mendean ipiñiak izan ziran. Ugazaben eginkizuna: juduei beren erlijioako ekintzak eragozte; zazpi urtez gorako umeak, gurasoei kenduta, zaintzaille kristauen eskuetan ipintzea: kristauki aziak izan bear zuten ba ume aiek; eta, gero, adiñera iristean, kristauekin ezkontzera bearturik zeuden. Aal izan zuten juduek, iges egin zuten. Gaifierakoak, jopu biurturik gelditu ziran".

pulani'ko eta Germani bietako uriak izan ziran eraso aren denhorakoan jenderik gabe gelditu ziranak" (ib).

Orren goiz sartu bear izan ote zuan ba Euskaldunen Eliz gazteak martirien bidetik?

Baña... izer esan, Gregorio'ren salaketa astun orri-buruz? Egia ote da Euriko'k Euskalerrian alako ikaragarrikeriak egin zitualako ori?, eta gure Iparr-Euskalerriko uriak, arianikeririk onartu nai izan ez zutelako, ikaragarrikeri aien ondorioz, jenderik gabe utsik gelditu zirala?

Ez noski:

- Gregorio Turonatarrak, gotiarretaz ari danean, oso konfiantza laburra merezi oi du. Frankiarra bit zan bera! Frankiar amorratua! eta, Frankiarrak, gotoen etsai petralak izan ziran.

- Gregorio'k, here izugarritzko salaketa ori, oso-osoan, Sidonio Apolinar'en gutun baten bidez egiztatu nai du: "Extat hodie et pro ac causa ad Basilium Episcopum nobilis Sidoni ipsius epistola quae haec ita loquitur".

"Badugu oraindik, esan dugunaren alde, gauza oiek esaten dituan eskutitz bat, Sidonio ospetsuak Basilio gotzaiari idatzia".

- Baiñan Sidonio'ren eskutitzak ez ditu "gauza oiek" esaten. Soilki gotzaia ilda Eliz batzuk gotzairik gabe zeudela, eta, **au bai orrela** egote orren ondorioz sortzen ziran gaitz guztien errua Euriko'ren arianikeriari erantsi bear zitzaiola diosku. Gero, geiegizko erretorikakeria erabilliz, pizti, abere eta bertan jaiotako belarrez beterik omen zeuden elizetaz mintzatzen zaigu".

Arras jakingarria guretzat, Euskaldunontzat, Sidonio'ren atal ori, gotzairik gabeko Eliz aien artean Iparr-Euskalerra Zarreko eta Euskalerra aren inguruko Eliz batzuk eta Eliz oietako jendeak, aipatzen bait ditu. Ikus:

"Burdigala (Bordele, erdi-Euskalduna), Petrocorii (Petrokori, orain Perigeux'koak, II Akitani'n); Ruteni (Errute, gaur, Rodez'koak, Garona eta Dordña bitartean) Lemovices ("Lemobi'koak", "Limoges'koak", "Javols"-koak, II Akitani'n; Gabalitati ("Gabali'koak", II Akitani'n), Elusani ("Elu-

---

<sup>29</sup> Nik, Sidonio Apolinar "Bibliotheca Scriptorum Graecorum et Romanorum" izeneko Bilduman aurkitu dut. Bilduma ori Leipzig'en argitaratua da. Aipatu ditudan Sidonio'ren gogoetak I49'gn. orrian daude. Sidonio'ren VII "liburuko" VI gutunekoak dira.

sa'koak", Akitani Euskalduneko goigotzai-uria), Vasates (Basatearrak, gaur Bazas deitzan Nobenpopulanrko Erri Euskalduna), Convenae (gaur Comminges, Nobenpopulani'n. Euskalduna, *naiz* bere izena aski miresgarria izan), Auscenses ("Auszi'koak". Eromatean jende oien uriburuak Ellberri zuan izena, Nobenpopulard'ko Erri Euskalduna).

Baiñan, Sidonio bera ere ez daiteke uste osoz ontzat artua izan. Erretorikazale portitza eta erretorikalari arras yayoa da. Orrek nabarmenki murrizten dio fidagarritza.

Orregaitik agian ez ditu "Dictionnaire d'Histoire et de G&Igraphie Catholiques" bezain liburu zugur eta burutsu batek Sidonio'ren esakizun oiek aintzat artu. Euriko'ri eskeintzen dion atalean ez bait du errege aren zigorketarik aipatu ere egiten.

Beraz, nere ustez, "Ariozale sendoa izan zan errege ark izan zituari gotzai batzuekin iskanbillak. Ez da ordea zillegi errege ari katolikoen zigortzaille izan zalako salaketarik leporatzea". Orixen bera dio "Encyclopaedia Britannica"k ere: "Euric himself was a fervent Arian, though it is perhaps an exaggeration to say that he persecuted the Catholics of his kingdom".

Izan ere, Euriko egiazko zigortzaille izan eta, **ainzuzen, ariani-keri-zale** sutsua zalako, ots, katolikotasuna ezereztu ta aren ordeztu ariani-keria ezarri nai zualako asi izan ba'litz Eliza zigortzen, aurren-aurrena egingo zuan gauza gotzairik gabe gelditu ziran gotzai-aulki aietan gotzai ariotarrak ipintzea izango bait zan. Eta Euriko'k iez zuan orrelakorik egin!

Oroi dezagun gaiñera, nola "aolkulari gali-erromar yayoz inguratu zan erregetza artu zuan bezain laister", bere erreñuaren jaurketarako": "S'entoura dšs le début de son règne des collaborateurs de choix" (Dic. Hist. Gogr. Ecc.). Aolkulari aiek Erroma'ren serbitzura kargu aundiak izandako gizonak oi ziran, eta katolikoak ezpairik gabe. Orrek, Euriko gizon zugurra zala esan nai du. Sidonio Apolinar'ek berak idatzi zuan onako esaldi pinpirin au: "Modo per promotae limitem sortis ut populos sub armis, sic frenat arma sub legibus": "Zabaldu-berriko erreñuaren mugetan izkilluz erriak menderatzeko arras trebea izan zan bezala izan da

legearen mendera beartzeko zintzoa".

Bada ori, noski, errege zugur baten omenez egin daitekean goratzar-rrerik bikaiñenetakoa. Bikaiña!

Nobenpopulani'ko lau Euskal-leiñu aipatzen dizkigu Sidonio Apolinar'-ek gotzairik gabe: Elusatarrak, Konbenetarrak, Basatiarrak, eta Auszitarrak. Ema'izkiogun eskerrak: ori egitean V mende artan kristautasuna Euskalerrri Zarreko iparrean zeinēn ederki erroturik zegoan adieraztera datorkigu-ta.

Eta Euriko'ren agintean (467-485) elizbarruti aiek gotzairik gabe zeuden ezkerero, ur-te oietarako Gams'ere ez bait digu lau elizbarruti aientzat gotzairik aipatzen guzi ortan Euriko'k zer ikusirik izango zuala sinistekoa da noski.

Alare, bildurrik gabe esan daiteke Euriko'k ez zuala Euskaldunen sinispidean eraginmenik izan. Gai oietan, seguruaski, eskurik sartu izan nai ez zualako lendabizi, eta, gero, nai izan ba'zuan ere, ortarako astirik gertatu ez zitzaiolako, eta, azkenik, bere ondorengo, II Alariko, ostera katolikoekin oso eraspentsua izan zalako.

Gaiñera, V mendean eta baita VI'ean ere Bisigotak eta tokian tokiko jendeak, naiz leku berean bizi, ez ziran alkarrekin bizitu. Batabestearen alboan bakoitza bere erara baizik.

Badirudi H Teodoriko dugula, egiaz "Errege" titulua merezi duan buruzagi gotiarra, eta Tolosa'n bait zuan bere egoitza, baleike noski Euskaldun-lurraren zati bat bere mendean euki izatea. Alare, naiz errege izan, ez zuan beinere Ez-Bisigoten hizieran eskurik sartu: Ori bait zan Bisigoteen legez, Errege Bisigoten jardunkera.

"Theodorik had power only over the gothic inhabitants of his Province. The Roman civil service continued to administer the Roman population, to collect the taxes and forward them to the central government en to administer Roman law".

Euskeraz:

"Todoriko'k bere Probintziko biztanle gotiarren-gain bakarrik izan zuan almen. Erroma'ko Jaurlaritzaren ordezkariak len bezala jarraitu zuten tokian-tokiko biztanle "erromatarrak" Erroma'ko legearen araura jaurtzen, auen zergak biltzen, eta zerga oiek Erroma'ko Jaurlaritzari bidaltzen" (Enc. Brit.). Naikoa duzu ori, irakurle, zure buruari galdera bat egiteko: Esan oi dan bezain "barbaroak" al ziran Barbaro aiek?

II Todoriko orren anaia zan Euriko, Bisigoten erregerik indartsuena. Arianitar sendoa zala ikusi dugu, Badirudi bere mendean euki zuala Akitani

Euskaldun guztia. Baiñan bere anai arek bezala jarraitu bait zuan bere lurraldeen jaurketa, ez zuan arianikeria lurralde aietara sartzeko deus egin.

VI mendean, esan dugun lez, Frantzi'tik EspaUra igaro ziran Bisigotak. Baiñan ere Frantzi'n erabili zutena bezalakoa izan zan beren jardunkera: "The visigoths were followers of the arian heresy and remained subject to their own legal codes, while the hispano-romans were catholics and continued to be governed by roman law". "Intermarriage between the two races was prohibited".

Euskeraz:

"Bisigotak, Ario'k sortutako erejiaren sinispidekoak ziran, eta beren legediaren araura jarraitu zuten. Alderantziz, Ispan-erromatarrak katolikoak ziran. Auek, ordea, Erroma'ko legediaren araura jarraitu zuten". "Debekaturik egon zan bi jende-mota aien arteko ezkontza".

Ori, Leobigildo Bisigoten azken-errege oriotarra 586'ean il zan arte.

Tolerantzi eA.lo eroapen-giro orren araura ez zuten Espaiñ'n ere Bisigotek arianikeria zabaltzeko deus egin. Askoz gutxiago Euskalerrian, Leobigildo arte ez bait ziran Bisigotak Ego-Euskalerrira alderatu. Ta Leobigildo bera ere, alperrikakoa gertatu zitzaion borroka zital bat egiteko bakarrik urbildu zan gure Asaben lurraldeetara.

Leobigildo<sup>s</sup> z gero, berriz, aren semeak, Rekaredo'k, katolikotasuna Laterriko sinispide egin zuan ezkeru, ez zuan Euskalerrri'ko katolikotasunak Errege Bisigoten aldetik arianikeriaren arriskurik. Elizarekin istilluak izan zituan bat edo beste ezik, katoliko sutsuak izan bait ziran arrezkeru Errege guzti aiek.

Baiña, baita, Euskalerrriaren arerio amorratuak ere!

Guda, etenik gabeko guda izan zan errege aien eta Euskaldunen arteko giroa. Oker dabilte beraz Euskalerrriko Eliza Espaiñ'ko Eliz Katoliko Bisigotiarren adartxo bat besterik ez zala uste dutenak. Ez bait zan bi Eliz aien artean ere alako arremarik izan, naiz Iruña Bisigoten mendean aurkitzen zanean ango gotzaiak Toledo'ko kontzilioetan agertu.

Erromatekoan (397-400), priszilikeriaren auzia aztertzeu bildu zan Zalduba'ko kontzilio artaz gero, Bisigoten aroan 17 izan ziran Toledo'n ospatutako kontzilioak; 4'ra bakarrik joan ziran Iruña'ko gotzaiak.



Zer esan nai duan orrek? Arturo Kanpion'en ustez, eta arrazoi zuala derizkiot Iruña'ko gotzaiak Toledo'ko kontzilioetara, Iruña Bisigoten mendean zegoanean bakarrik joan

Bisigotiar katolikoan eta Euskaldunen artean ez zan izkilluena beste izketarik izan. Eta Naparroa luzaro heren menpean eukitzeko gai izan ez ba'ziran, Araba'n ez zuten sekulan oiñik ere jarri. Ori erakusten digu, baiño argiago, Araba'ko Arrazua-Ubarrundi'ko lurretan agertu dan, eta oraindik ikerketapean dagoan, VI eta VII mendeko illobitegi arras aundi bateko illobi ugariak. Guzti ori, ordea, VI, VII eta VIII mendeetako arazoa dalarik, liburu onen atzetik agertuko dugunean izanen da al dugun sendoenik aztertua.

\* \* \*

Bagauden erasoetaz ere mintzatu gera. Bagauden nortasunaz mintzatzea peitzen zaigu. Soilki, V mendean Arazeli Baskoiaren eta Lerida Ilergetaren arteko lurretan borrokan ibillitakoen nortasunaz mintzatuko gera. Beste aiek, Galietako aiek, Euskaldunak ez zirala bai bait dakigu.

Euskaldunak ote ziran, emen, Euskalerra'ko ego-sortaldean 441'garren urterako iraultzan jeikirik ikusi clitugun bagauda aiek? Bai, ezpairik gabe. Argi ta garbi esaten bait du Idazio'k "arzelitarrak" zirala. Aburu berekoa da "Dictionnaire d'Histoire et de Gographie Eccl6siastiques" ere: " I c (Ibero-ibarrean) les Bagaudes sont signal6 comme `Bagaudae Tarraconen-

---

<sup>30</sup> Egia da Erreiñu Bisigotiarreko gotzaiak ez zeudela kontzilio aietara joatera ain estuki bearturik. Egia, baitare, kontzilio bat baiño geiago izan zirala gotzai guztiak bertara joan ez zirala egiñak. Baiñan Iruña'ko gotzaiak, iru arrazoi bereizigaitik zeuden Toledo'ra joatera beartuak: l'goa. Iruña izkillupean arturik zegoalako, gudarozteak artara beartzen zitualako. 2'gana. Toledo'ko Kontzilioetan pertsonik garrantzitsuena erregea zalarik, erreinuko gotzai eta zaldun guztien aurrean Erregeari omen egiteko ara joatera, izkilluz menderaturiko Uri artako gotzaiak bearturik aurkitzen ziralako. 3'gna. Errege Bisigoten aintzarik aundiena Baskoiak menderatzea izaten zan, eta menderaketa ori lortu zutela mundu guziak jakitea. Ori lortzeko, berriz, ez zuten Toledo'ko kontzilio aiek baiño abots-anpatzegailu egokiagorik. Ez zieten, errege aiek, Baskoien Uri Nagusiko gotzaiari kontzilio aietara joateke gelditzerik barkatuko.

ses                    Ils semblent donc ne s'être recrutés que parmi les populations celtiques de la Tarraconaise".

Euskeraz:

"Emen, Ibero-ibarrean, Bagaudak, "Bagauda tarrakonentsiar arazelitarrak lez dira aurkeztuak. Badirudi, beraz, soilki Tarrakonentse'ko biztanle Keltiberitarren artean irten zirala".

Beste nonbait esanak gera, ez dutela idazle frantziarrek akuriamendi'z onuntzako edestian "kelta", "Iberiar" eta "Keltiberitarra" besterik aurkitzen. Erroma'ko klasikoen idazfietan ere bein baiño geiagotan irakurriko duzu Auriamendiz iparreko jendeak Keltiarrak dirala, eta Iberitarra dirala, berriz, egoaldekoak.

Arazeli ez zan ez Keltiarra, ez Iberitarra, ez Keltiberitarra, Baskoia baizik, eta Baskoia ziran bagauda aiek ere. Tarazona bai, badaiteke V mendean Tarazona erdi Keltiberitar erdi Baskoi izatea, baiñan Tarazona'tik, dakigunez beintzat, ez zan bagaudarik irten. Joan egin ziran bagaudak Tarazona'ra, eta joan ere, borrokalari joan ziran ara, ikusi dugunez.

Alare ez dugu esan nai, Euskaldunekin batera bagauden sailletan Keltiberiarrak ere ibilli ez ziranik. Baiñan, lurralde artan, V mendean, euskanduntzeke zegoan Keltiberiarrik bai ote zan? Ez dakigu. Ez ezetz ez baietz esateko, arrazoi ziurrik ez dugu. Erri oietako izkuntzak baiño geroago etorritako latina eta an betikoa zan euskera nola alkarrekin konpontzen ziran esateko ere kixazko arrazoirik ez bait dugu.

"Merobaudis... Aracellitanorum frangit insolentiam Bacaudarum": "Merobaudis'ek ezereztu zuan Bagauda arazelitarren arrokeria" ("Kronika", XVIII, 128).

"Arazelitar" esatearekin, bagauda aiek Baskoia zirala esan nai du. Baskoia bait zan Keltiberiarren alboko Arazeli ura, eta Baskoia, baita, Naparroa'ko Uarte Arakil, borroka emen izan ba'zan ere.

Gizartean zer maillakoak ote ziran Bagauda Euskaldun aiek? Nekazari txiuroak, Erroma'k ipiñi oi zizkien zergen azpian erdi itorik bizi ziran aietakoak:

"La révolte dans la Péninsule se localise dans la région de l'Ebre, en Tarraconaise. Ceci a été mis en rapport avec l'existence dans la haute et moyenne vallée de l'Ebre de grands domaines, des latifundia, exploitant une main d'oeuvre agricole très pauvre qui aurait été à la base de la révolte" (Alain Tranoy: "Hydace. Chronique", 125.)

Euskeraz:

"Iberi izeneko Ia-Ugarteko matxinada, Tarrakonentse'n, Ibero ibaiaren aranean gertatu zan. Asko bait ziran an saripeko lur-langille arras txiroen izerdia xurgatuz bizi ziran latifundio edo nekazaritza galanten jabeak. Saripeko oiek izan-bide ziran zalaparta aien sortzailleak".

Morroiak beraz, jopuak, eta maiztarrak, eta soilki lur-puska txiki baten jabe ziran nekazari txiroak. Ez, noski, mendietako eta basoetako ikazkin, aberezain eta egurgilleak. Aiek ez bait zuten, seguruaski bezero zituzten latifundilarien aurka jeikitzeke ziorik.

Ta? Bagauda Euskaldun aiek, ¿kristauak ote ziran? Bai, geienak beiné tzat. Aien artean baleike jentillik izatea. Alare, geienak, kristauak izango ziran. Lur ordokietako jendeak bait ziran danak. Eta, bereala ikusiko dugun lez, Ibero ibaiaren araneko Euskalerrria arras kristauturik bait zegoan.

Nor ote zan Basilio, zalapartalarari guzti aien buruza21a? Ego'Baskoni'ko Jauntxoren bat eskierki. An ainbeste zirala dirudian poliki-erromartu-ziran-Baskoi-aietako bat edo hat. Agian bere kidekoekin asarretutako lur aundi zabalen jabe aietako bat. Orrelako latifundi-jabeak Ibero Ibaiaren ibar yori emankor aietan ugari zirala berealaxe ikusiko bait dugu':".

Kristaua ote zan? Bai seguruaski, latifundi-jabeak oso kristauak agertuko bait zaizkigu bereala, eta Kalagurri'ko gotzaien lagunak.

Egia, bere haugadekin Tarazona'ko katedrala artu zuanean, an bagaudak Leon gotzaia iI zutela. Baiñan:

Idazio'k argi diosku eraillea ez zala Basilio bera izan, "berekin zetzen batzuk" baizik: "qui cum Basilio aderant" (XXV, 141).

- Bagauden borroka ura ez zan gotzaiaren eta bere kristauen aurka egiña izan, Erroma'rekin "federati" edo "alkartutako" izkillu-gizonen aurka baizik.

---

<sup>31</sup> Bernardo Estornes Lasa eta beste batzuen iritziz, Basilio, bagauden buru ez Erroma'ko gudaroztearen buruzagia izan zan, bagauden aurkako borrokan. Zearo atzipeturik dabilta. Ez dute arazo guzti artako edestilari bakarra dugun Idazio irakurri. Garai artako gotzai edestilari onen liburuan argi bait dago, Basilio izan zala Bagauden Buruzagia, berak bildu zituala, eta berak eramane zituala Tarazona'ko katedrala indarrez artzera.

- "Federati" aiiek, latifundilarien alde ari ziran, an, borrokan. Istillu artan Leon'era jardunkera nolakoa izan zan ez dakigu.

- Bere gogoz edo bere gogoaren aurka, borroka aren erdian aurkitzen zan beintzat Leon gotzaia. Eta borrok artan il zan. Idazio'k ez du esaten gogo gaiztoz erailla izan zanik. Eta an zer gertatu zan jakiteko Idazio beste igarlerik ez dugu!

- Gogo gaiztoz esanak, onako lerro aukerak izan dirala dirudi: "La propia muerte del Obispo caso de no haber sido fortuita no resulta sorprendente, a manos de una banda de bascones barbaros (Jose Orlandis: "Historia de España". "La España Visigótica". Madrid, 1.977, 39). Ez, Don Jose: Gotzaiaren eriotza seguruaski "fortuita" izan zala ematen du, Idazio'k esan digunez beintzat. Eta beste jakin-biderik ez dugu.

Erailleak, eskierki, "bascones" izan ziran, baiki, eta Baskoi aiiek "barbaros" ziran, errornatarrak ez ziralako, baiñan ez zuk itz orri eman nai diozun zentzuan.

Orregaitik, askoz txukunago eta zintzoago ibilli zera beste esaldi on-tan: "Que se luchara en la iglesia explica la muerte del obispo Leon". Bap. Naikoa zenuan ori besterik ez esatea.

Maiz kulturaz erromarturik egon, gure Basilio ura eta bere bagaudak — eusko-abertzaleak ote ziran? Ez. Bagauda aiiek ez ziran abertzaleak, naiz idazle batek baiño geiagok orrelako zerbait uste izan. Iraultza aren zioa ez zan abertzaletasuna, ezta erlijioaren arazoren bat ere, gizarteko egoera baizik. Aberatsen aurkako txiroen jeikitze bat izan zan ura.

Orregaitik ibilli ziran iraultzalari aiiek batez ere jende aberatsa zigortzen, Kalagurri ta Zalduba edo Zaragoza arteko latifundi-jabeen ondasunak porrokatzen. Baskoien lurra zan ura, Zalduba'ren atari ber-beretaraño. Orregaitik alkartu ziran, errege lur-irabazle baiño geiago iraultzalari biurri bezala etorri zan Rekiario errege Suebitarrarekin. Zalduba'z aruntz jarraitu zuten eginkizun berean ilerda edo Lerida arte. Ibero ibaiaren iparraldetik ibilli ba'ziran Ueszitar Euskaldunen lurakézear ibilli ziran.

Ilerda'ra sartu ere sartu zitzaizkigun, eta, Idazio'k esaten duan gutzia egia ba'da, egin zuten an gaiztakeririk aski. Euskalerrria zan, ordea, Ibero'z iparreko landa guzi ura: Ueszitarren eta Ilergetarren lurra. Oraindik Euskalduna ote zan, agian, Ilerda bera ere? Bai. Bai beintzat, ikusi dugunez, Men&dez Pidal ikerketalari ospetsuaren ustez.

Ez, noski, ez. Ez ziran matxino aiek abertzaleak. Soilki, gizartea obeagotu nairik gizartea ondatu ta zuzentasuna oiuka eskatuz gaiztakeria egin oi duten iraultzalari erdi-anarkista oietakoak ziran.

Alare, aro artako idazleak irakurtzea naikoa da, iraultza artan obenik aundiena bagauda arlote gixagaixo aiena ez zala jakiteko. Pekatua latifundijabeena bait zan, eta, bereiziki, Erroma'ko Inperioaren gizartea-antolatze-ko-era makurrarena.

Egia bait da Erroma'ko-Inperioak tajutu ta indarrez ezarritako gizarteé era pekatu aundi bat izan zala: Txiroen aurkako pekatua,

Baiñan pekatuzko gizarte-era zikin ura ez zuten iraultzalariak aldatu: Elizak baizik. Eta Elizak jarraitu bearko du eginkizun ortan, indarkeria darabilkian iraultza orok, ala Frantzi'ko irultzak, Errusi'koak, eta azkeneko onen aurretik Iraultza munduaren gaitz guztien salbatzaille bakar *lez* sagaratu zuan marsikeriak, iraultza guztiek, gaur egun arte, arazoak konpondu ez baiña arazoen konponketa urte askoko epe luzez atzeratu besterik ez bait dute egin. Ez dira ba izkilluak, gogoetak baizik, mundua konpondu dezaketen tresna bakarrak".

Gogoeta zintzoek, jakiña; gogoeta makurrak bait dira ondamen guztien iturBuru.

Nola ez aipatu, ETA'ko pistolarien jende-erailketaren bidez. eta oraindik giz'adifiera iritxi ez diran mutiko ta neskatoek kaleetan dagizkiten ondamen zoroen bitartez, eta gezurrezko ikurrin atzipetzaille Euzkadi'ren salbamena aizatuz, bonbaz, tiroz odolez eta errautsez, Euzkadi ondatzen ari zaigun M.L.N.P.V. (Movimiento de Liberacidn Nacional del Pais Vasco) komunista?

---

<sup>32</sup> Eliza irakurtzerakoan, XVII ta XVIII mendeetako "Argikuntza" aipatuko dit norbaitek. On aundia egin zuala erantzungo diot. Baiñan oroi dezala Argikuntzak bere sorkuntzan erlijioa izan zuala ernazaille, eta gero ere, Argikuntza ark, bere alde-on guztietan, izan bait zituan alde txarrak ere-, alde on guzti aietan, eliz-gizonak eta katoliko, protestante edo deista --gizakume sinisleak izan zituala ats-emailerik bikaifienetakoak. Azkenean, nere "Denbora Berrietako Eliza" irakurtzea gomendatuko diot.



## SILBANO KALAGURRI'KO GOTZAIAREN AUZIA

Ezpairik gabe, ori, Silbano'ren auzia, izan zitzaigun V mende guztian Euskalerra zarreko auzirik garrantzitsuena. Alde batetik Sarkaldeko Kristauidian iskanbil aundia sortu zualako, eta bestetik, guretzat balio geiagokoa dana Euskalerraaren egoaldeko lurretan kristautasuna zein sakonki ta zabalki errotua zegoan argi ta garbi erakusten digulako.

Auzi ori eta auziaren iturri izan zan gertakizun zaratatsua askok aztertuak izan dirala esan bearrik ez dago. Azkeneko azterketa, Koldo Larrañaga Elorza Eusko-Unibertsitateko irakasleak 1.989'an "Veleia" aldizkarian (171-191 orrietan) argitarara emana.

Ona ba emen Kalagurri'ko gotzai aren auzia:

- V mendearen aurreneko erdian Silbano izeneko elizgizon bat zan Baskoien Kalagurri'ko gotzaia.

Gotzai onek, gotzai bat sagaratu zuan 455'aren inguruan, Askanio Tarragona'ko metropolita edo goigotzaiaren baimenik gabe.

Nizea'ko Kontzilioak, ordea, gotzai-sagaraketak eliz-probintziko metropolitaren baimenik gabe egitea, bere IV kanonean debekaturik zeukan.

- Kalagurri Tarragona'ren eliz-probintzian zegoalako uri ontako goigotzaia, Askanio, zan Silbano'ren metropolita. Eta sagaraketa ura onen baimenik gabe egin zualako, okerkeri larria ta, legez, arras pekatu aundia egin zuan Silbano'k. Eta, agian, sagaraketa bera baliorik gabea ere izan zitekean, Nizea'k agindutakoa betetzen ez zualako.

- Alare, Askanio'k Silbano'ri emandako aolku zorrotz batzuen bidez amaituko zitzaigun, oraingo, arazo larri astun ura.

- Baiñan andik zazpiren bat urtera, 462'aren inguruan lez zuan ba Silbano'k, oraingoan ere Askanio'ren baimenik gabe, beste gotzai bat sagaratu!

- Aurrenekoan okerkeri larria eta, legez beintzat, oben aundia egin ba'zuan Silbano'k, aundiagoak ta larriagoak ziran bigarren aldi ontan egiten zituan okerkeri ta pekatuak.

- Bereala salatu zion bigarren sagaraketa aizun au Zalduba (Zaragoza)ko gotzaiak Askanio metropolitari.

Oraingoan, Askanio metropolitak Aulki Donera jaso zuan auzi astun eta nekagarri ura bi eskutitzen bidez, Ilario Aitasantuari Silbano gotzaiarentzat berealaxeko zigorra eskatuz.

Ilario Aitasantuak ordea, Erroma'n 465'ean egin bearra zan sinodora arte luzatu zuan erantzuna.

- Bitarte ortan iru gauza gertatu ziran emen.

Bata: Bartzelonako gotzaiaren aulkirako beste gotzai bat sagaratu zutela Askanio Metropolitak eta bere inguruko gotzaiak. Baiñan sagaraketa au ere ez zan kanon-legeak agintzen zuan bezala egiña izan.

- Bestea: Silbano'k ere, bere burua zurutuz, iftolaz ere gutun bat idatzi ziola Ilario Aitasantuari. (Aitasantuak erantzun ba'zion ere, erantzun ori galdua dugu).

- Era berean bidali ziotela beste gutun bat Ibero ibai Euskaldunaren araneke "honorati et possessores", ots, "izen-aundiko jaunek eta lur-ja-beek". (Berdin oraingoan ere. Aitasantuaren erantzunik ez dugu).

Sinodoa amaitu ondorean iritxi ziran seguruaski Silbano'ren eta bere babesleen eskutitzak Erroma'ra, bi zati ezberdin bait ditu Silbano'ren aziari-buruz, Ilario Aitasantuak bi eskutitzetan Tarragona'ko eliz-probintzira igorritako erantzunak: Aurrenekoak, Sinodoaren gaitzespena; bigarreanean, Aitasantuaren "onespena".

- Gaizki irten ziran auzi ontan Askanio eta bere inguruko gotzaiak, Aitasantuak Bartzelona'ko gotzai berriaren sagaraketan erabillitako jardun-kerak okerra oso gogorki gaitzesten zuan bitartean Silbano'ren ibillera ederki ulertzen zuala adierazten bait zuan.

Ulertzen omen zuan ba "temperan necessitate perspecta", ots, "aldi aietako beartasun erantzunez" ibilli zala Silbano, eta, orregaitik, "temperan necessitate perspecta" berak ez zuala Silbano'ren aurka "deus gogorrik erabaki nai", ura "alako bearkizunean ibilli zan ezker": "Ne quid tamen in tanta necessitate, decernamus austerum".

Soilki, "berriz orrelakorik ez egiteko" eskatu zion Silbano'ri.

Gizon zugarra Ilario Aitasantua!



Silbano'k sagaratutako gotzaiei dagokienez, berriz, ontzat artu zuan sagaraketa ura: "Eos qui episcopi facti sunt, ita volumus permanere, ut in apostolis praeceptionibus et statutis Sanctorum Patrum non reperiantur obnoxii": "jarrai bezate gotzai izaten gotzai sagaratuak izan diranak Apostolik-aroko aginduen eta Aita Doneek erabakitakoen zigorpean aurki ez daitezen"•

\* \* \*

Orra or "Silbano Kalagurritarraren Auziaren" gunea. Apaindu dezagun, zerbait, puntu bakoitza eta atera ditzagun ondorio batzuk:

Bi eskutitz idatzi zizkion Askanio Tarragona'ko goigotzai edo metropolitak Ilario Aitasantuari auzi oni-buruz. Nik, gutun oiek Enrike Florez'en "España Sagrada"n irakurri ditut (XXV, 192-193 or. Madrid, 1.770).

Gizon zakarra agertzen zaigu Tarragona'ko Askanio metropolita aurreneko gutunean; petrala benetan. "Anai maltzurra, — izen-damaio **Kalagurri**'ko gotzaiari: "Est tamen inter nos falsus frater: Sylvanus quidan Episcopus Calagurrae, in ultima parte nostrae Provinciae constitutus": "bada gure artean anai maltzurrik: Silbano deritzana; gure probintziaren azkeneko hazterrean dagoan Kalagurri'ko gotzaia". "Vanissima superstitio", "siniskerizko ezerezkeria" omen zan, Silbano'k egiña.

"Vanissima superstitio" baiñan askoz okerkeri larriagoa zan Silbano'k egin zuana. Zuzenean Nizea'ko Kontzilioak 325'garren urtean, bere IV kanonean agindutakoaren aurka ibilli bait zan. Ona kanon orrek diona:

"L'evêque doit être établi par tous les évêques de la Province; si une nécessité urgente, ou la longueur du chemin s'y oppose, trois évêques au moins doivent se réunir et procéder la sacre, munis de la permission écrite des absents. La confirmation de ce qui s'est fait revient de droit dans chaque province, au métropolitain".

---

Irakurle guztiek ez dute teologiaren izkera ezagunegia izango-ta, teologi ta edesti-liburuen ulerkera errezagotzeko, esan dezagun Elizak "Asaba" edo "Aita" izengoitia antziñaéantziñaakoak eta txit jakintsuak izan ziran Doneei ematen diela.

Nizea'ko Kontzilioak eleneraz idatzi zituan bere agiri eta erabaki guztiak. Nik ordea aztuxea daukat seminarioan bi urtez ikasitako elenera-ta, G. Fritz'ek egindako itzulpen frantziarraz baliatu naiz. Ona, euskeraz kanon orren mamia:

"Gotzaia, probintziko gotzai guztiek izan bear du ezarria. Ori egitea bear kizun larri batek edo bidearen luzetasunak eragotziko baluke, bildu bitez beintzat gutxienez iru gotzai, eta egin bezate sagaraketa, ezetorrien baiezkoa lortuz gero. Egindakoaren sendotzea, probintzi bakoitzean, legez, metropolitari dagokio".

Eta onela argitzen du G. Fritiek, azkeneko lerroak berez izan deza-kean illuntasuna:

"La confirmation appartient au métropolitain, ce qui signifie que contre la volo W du dernier, personne ne peut devenir Mque": "Sendoketa metropolitari dagokio, eta orrek esan nai du, metropolitaren oniritziarik gabe ez daitekela iñor gotzai izatera iritxi".

Au agintzen du, berriz, Kontzilio ark berak VI kanonean: "II est bien 3/ident que, si quelq'un est devenu évêque sans l'approbation du métropolitain, le concile lui ordonne de renoncer a son évêpat": "Bedi darentzat argi: iñor metropolitaren baimenik gabe gotzai egiten ba'da, kontzilioak, orrelako orri, gotzaigoa uzteko agintzen diola (Dic.Theol.Cath.XI,-410 eta 411 or.).

Bere-egin zituan agindu oiek Kostantinopla'ko I Kontzilioak ere 381'-ean.

\* \* \*

Askano'k ez zituan bi kontzilio oiek Silbano'ren aurka aipatzen.

Ezta Aitasantuak ere, ikusi dugunez. Silbano'ren sagaraketa bi aiek, naiz baliozkotzat artu, legearen aurkakoak zirala adierazteko, soilki, "in apostolicis praeceptis" eta "statutis Sanctorum Patrum" agintzen danaren aurka egin zirala esaten bait du.

Nunbait esanak gera erromatearen azkeneko aro artan aundia zala bai politikaren bai kulturaren aldetik Sortaldearen eta Sarkaldearen arteko tartea. Geografiz alkarrengandik urruti ba'zeuden ere, urrutiago zeudela oraindik sentimentuen aldetik. Ia-ia esan ere esan bait daiteke ez zutela bata bestea ez ulertzen ez maitatzen. Bien arteko zulo ori, Kostantino'k

Inperioaren buruzagitza Erroma'tik Kostantinopla'ra aldatu bezain laister asi zan irikitzen, eta aunditzen eta aunditzen joan zan mendeak zear, XI'ean erabateko zisma sortzera iritxi zan arte.

Orregaitik ez da arritzekoa gure gutun aietan Kontzilio bi aietako aipurik eza:

- Izan ere, gutun aiek idatzi ziran aroan oso berandu iristen zan Sarkaldera Sortaldeko gertakizunen berri. Kontzilio aiek IV mendekoak ziran. Mende orren asierakoa nizatarra. Askanio ta Ilario, berriz, V mendearen erdikoak.

- Aundia zan, jitez eta kulturaz, sartalde-sortaldetarren arteko ezberdintasuna. Sarkaldeko gotzaiei oso zailla gertatzen zitzairen Sortaldekoen arteko eztabaidak ulertzea. Arrazoikerizko jokuak zirala iruditzen omen zitzairen. Dogmari zegokion aldetik beintzat bai, aski azkar ezagutu omen zuten Nizea'ko kontzilio, baiñan ezin izan omen zuten filosofieraz jantzita zetorkien Nizea'ko Kontzilioaren izkera bear bezala ulertu. Ori da beintzat, gotzai aiek arianikeriari-buruz ospatu ziran sinodo ugarietan erabili zuten jardunkera baldarra zuritzeko, eliz-edestilariak esan oi dutena.

- Anitz ulerterreza zaigu, berriz, Nizea'ko Kontzilioak emandako edo kanonen auzia.

Nizea, (Kostantinopia'k ez zuan kanonei zegokionez Nizea'k emandakoa onartu besterik egin), Kristaudian Lenen Kontzilio Ekumeniarra izan zitzaigun. Orregaitik, kanonei dagokionez, bere nagusitasuna ez zan geroagoko Kontzilio Ekumeniarrena bezain ongi ulertua izan.

Ordurako bazan Sortaldean kanon pillorik ugari, emen bertako kontzilioetan eratua. Bertakoak ziralako eraspen aundia irabazia zutenak.

Nizea'koaz gero, asko ta asko izan ziran Sortaldean egin ziran kontzilioak. Aietako batzuk "ekumeniar" izenaz jantzirik agertu ziran. Danek eman zituzten kanonak. Eta Sortaldetiko ainbeste kanonen artean galduta, azturik lez gelditu-edo ziran, beraiek ere Sortaldetikoak ziran Nizea'ko kanonak.

Guzti ori orrela dalarik, Askanio ez zan kanon aietaz oroitu ere. Ezta Aitasantua ere. Eta oroitu bazan ere, naikoa iduritu zitzaion beintzat, Sarkaldean ain eraspen auziei jasorik zeukaten "apostolica praecepta" eta "Sanctorum Patrum statuta" aietan oiñarritzea.

Itxura berdiñeko oiñarriak erabilli zituan Askanio'k ere, Silbano'ren gaitzespena eskatuz, ain era zakarrean Ilario Aitasantuari idatzi zizkion bi eskutitz aietan.

Aurreneko sagaraketa, Silbano'k, "Patrum regulas, et vestra instituta despiciens, nullis petentibus populis", "Asaben arauak eta zu zeroren aginduak ezeretsiz, eta erriko jendeak eskatu gabe" egin omen zuan, erriengandiko eskari edo plebiszito ori ere bearrezkoa bait zan orduango kanonek agintzen zutenez.

Silbano'ren oben aundi ura, Askanio'k, "fraterna et pacifica admonitione" ots, "aolku senidekoi paketsu" baten bidez konpondu omen zuan; "alperrik ordea, Silbano'k bide okerretik okerragora jarraitu zualako": "profecit in peius".

Eta, besterik gabe, bigarren sagaraketaz asten zaio Aitasantuari mintzatzan. Askanio ez zan idazle yayoegia, Bere "iperbaton" edo "esarien joskera", nasia da ta illuntasun-ekarlea: Ikus:

"(Sylbanus) profecit in peius. Denique contra vetustatern canonum, contra Synodi constituta, alterius fratris nostri Paesbyterum, spiritu tantum praesumptionis accensus, in eodem loco, qui illi fuerat destinatus, cui invito et repugnanti imposuerat manus, et qui nostro jam coetui fuerat aggregatus, Episcopum fecit".

Ikus nola itzuli zuan Askanio'ren zati illun ori Manuel Risco praille agustindarrak:

"Ha ido de mal en peor. Porque movido del espfritu de presunciOn y procediendo contra los antiguos Canones, y contra los Estatutos Synodales, ha hecho obispo a un presbftero de otro hermano nuestro, poniéndole en el rnismo lugar que antes se destira5 para aquel a quien contra su propia voluntad habia consagrado y que ya estaba en nuestra Congregación" (España Sagrada, XXXIII, 130 or. Madrid 1781).

Risco'k Askanio'ren itzei emandako zentzua zuzena ba'da, au atera dezakegu bere itzulpen ortatik:

- Silbano'k bigarren gotzai bat sagaratu zuala.

Sagaraketa ortan, "Kanon zarren aurka", "contra vetustaten Kanonum" eta "Sinodoak agindutakoaren aurka", "contra Synodi constituta" ibilli zala. Ez diosku, eundaka sinodoen eta millaka kanonen artean Aitasantuari eskutitz ortan zer sinodoz eta zer kanonetaz mintzatzan zaion. Nizea ta Kostantinopla'ko Kontzilio Ekumeniko biak, ordea, ezta aip,Itu ere!

- Bigarren gotzaia, aurrena sagaratutako beste ari eman zion toki berberarako sagaratu zuala Silbano'k. Aurrenekoa iI zalako? Ez noski. Tarragona'ra, Askanio'rengana igaro zalako? Orrelako zerbait ere atera bait daiteke Askanio'ren gutunetik.

Aurreneko ura bere naimenaren aurka izan zala Silbano'k sagaratu.

Aurreneko ura Askanio'k bere Probintzian ¿gotzai izateko? onarturik zeukala.

- Bigarren au, apaiza zala, baiñan beste gotzai batena, ez Silbano'rena. Beraz, berea ez zuan apaiz bat egin zuala gotzai Silbano'k.

Izugarriak Askanio'ren salaketak Silbano'ren aurka. Bost ataleko salaketa orren atal bakoitza, ots, Silbano'k berea ez zuan apaiz bat gotzai sagaratu izatea, sagaraketa sagaratuaren gotzaiaren baimenik gabe egitea, aurreneko gotzaia zalarik? ori ere ulertu bait daiteke Askanio'ren idazlceratik naiz Risco'k orrela uste ez, aurreneko aren tokirako bigarren gotzai bat sagaratu izatea, bi sagaraketak berak bakarrik egin izatea... Guzti ori astunki debekatuta egonik, okerkeri oiek danak, eta danetako bakoitza, pekatu larriak bait ziran.

- Sagaraketa sagaratuaren naimenaren aurka egiña izateak, gaiñera, baliorik gabea biurtzen zuan sagaraketa ber-bera.

Benetan zan gizon "naixeablea", "miserrimus". Euskalerriko gotzai ura, ori guztia egin zuala egia ba'litz. "Dana, Zalduba'ko gotzaiak esan omen zion" Askanio'ri. "Caesaraugustanae urbil episcopus frater noster universa referret".

Esan dezagun ordea ez dala ziurra Risco'ren itzulpena, eta ez dituztela itzultzaille guztiek Askanio'ren itzak zentzu berdiñean ulertzen.

Lan aundia egin omen zuan, Askanio'k zionez, Zalduba'ko gotzai arek "inguruko gotzai guztien artean" "eunctis in vicinia possitis episcopus", gotzai oiek Kalagurri'ko "zismagillearekin" alkartu ez zitezen.

Gure edesti-idazketa ontarako zoritxarrez, Askanio'k ez digu izen bat ere ematen: ez Silbano'k sagaratutako gotzai bi aien izenik, ez artu bear zituzten elizbarrutien izenik. Eta aren isiltasun orren bitartez, itxirik gelditu zitzaizkigun, Euskalerrriaren egoan Eliza noraiño zegoan eraturik jakiteko biderik ziurrenetako baten atea.

Bigarren eskutitza, aurrenekoa bezala, "universi Episcopi Tarraconensis Provinciae", ots, "Tarragona'ren Eliz-Probintziko gotzai guztien" ize-

nean idazten dio Askanio metropolitak Ilario Aitasantuari. Eta Nundinario Bartzelona'ko gotzaia aren ordez Ireneo izeneko bat gotzai sagaratzeko baimena nola eman duan esan ondorean, Silbano'ri-buruz idatzi zion aurreneko gutunaren erantzunik ez jaso izateak arriturik daukala diotso, eta len-bait-len erantzun bat emateko eskatzen dio.

Esaten dio baitare, Nundinario illik Bartzelona'ko gotzai sagaratu zuten Ireneo ura, ill aurretik Nundinario'k berak aukeratua izan zala, Bartzelona'ko gotzai sagaratu izan zedin. Ori kanon-legearen aurka pekatu zan, baiñan aitzaki ugariz apainduta aurkezten dio Aitasantuari bere oben mardul ori.

Erantzun zion Ilario Aitasantuak, baiñan ez Askanio'k itxaron zuan eran. Alderantziz, a! nolako lotsa ta samiña sortarazi bear izan zion erantzun arek Tarragona'ko metropolita aunditsu ari: Izan ere, Aitasantuaren erantzun ark "distaba mucho de ser todo lo rigurosa que podfa esperarse, y querfan de hecho lo fuese Askanio y los obispos tarraconenses quienes, por el contrario, serfan duramente (azpimarraketa nerea) reprendidos por el papa por su forma de llevar el asunto sucesorio del obispo Nundinarius de Barcino. Se perdonaba a Silvano, a condición de que no volviese a reincié dir, y se confirmaba en sus cargos a los anticandnicamente consagrados" (Larrañaga I. c. 173 or).

Ilario, dirudianez, Erroma'n bildu nai zuan sinodoaren zai egon zan Askanio'ri erabateko erantzuna bidali aurretik. Iritxi zitzaizkion, tsinodoa bildu aurretik?, orain, sinodoa lanean ari zan bitartean? Euskalerriko gutun bi aiek. Bata Silbano Kalagurri'ko gotzaiarena; bestea, inguruko buruzagiena. Euskaldunak ote ziran buruzagi aiek? Baziran beintzat euskotarrak.

Egin zan, Erroma'n, sinodoa. 465'aren Abenduan. Eta sinodoak, bai: sinodoak egin zuan aurreneko gauza, Nizea'ko Kontzilio ekumeniarraren kanonak aipatzea izan zan, kanon aiek eta Aitasantuen erabakiak betetzeko aginduz. Eta, ainzuzen, Erroma'ko sinodo ark emandako arauak oiñarritzat artuz erantzun zion Ilario Aitasantuak Askanio metropolitari. Ez, noski, onen atsegin aundirako.

Onako au dugu Aitasantuak Askanio Tarragona'koarekin eta Silbano Baskoiarekin erabillitako jardunkeraren ezberdintasuna ulertu aal izateko giltza:

Bi gotzaiek, Askanio'k eta Silbano'k, biek, egin zutela kanon-legearen aurka pekatu. Silbano'k bere kasa apaiz biri gotzai-sagaraketa ematerakoan; Askanio'k, ill-aurretik gotzai batek bere ordezkotzat aukeratutakoari ildako aren tokia artzeko baimena ematean.

Bere burua zuritzeko, aitzaki ugariz jantzita esan zion Askanio'k Aitasantuari, Bartzelona'ko gotzai egin zuten Ireneo ura, Nundinario Bartzelona'ko gotzaiak berak, "bere ordezkotzat testamentuan autaturik utzi zuan ura ber-bera zala": "quem supremae voluntatis arbitrio in locum suum ut substitueretur optavit"(ib). Ikus Askarno'ren aitzaki edo "arrazoi" oiek:

Sagaraketa ori egitea eskatu ziotela Bartzelonako apaizdiak, uri artako jende xeak, eta, baita, Eliz-Probintzi'ko gotzairik onenek "optimi" -- eta "plurimi" geienek ere.

- Gotzai sagaratu-bearraren bizitza arreta aundiz aztertu zuala; era berean, kontuan euki zuala sagaraketa eskatzen zutenen zindotasuna ta ugaritasuna: "nobiliter atque numerum".

- "Gauza arras ona iduritu zitzaioa zerura joandako ain Gotzai aundi aren lekua, merezimenduz motzagoa ez zan beste Gotzai batek artu aal izatea".

Orregaitik eman amen zion Trineo'ri Nundinario'ren atzetik Bartzelonako gotzai izateko bearrezkoa zuan oniritzia.

Ez dakigu zer idatzi zion Kalagurri'ko Silbano Baskoiak Ilario Aitasantuari. Galdua dugu ba bere eskutitza. Baiñan Aitasantuak bere erantzunean aditzera damaigunez, Euskalerraren egoera makurra izan zan, bere jardun-kera zuritzeko, kalagurritarrak aurkeztu zion arrazoi bakarra. Ta ez zitzaion, ez orixe, gezurretan mintzatzen ari.

V mende aren erdialdera egon zan Silbano Kalagurri'ko gotzai-aulkian. Zabala, ta zailla, zuan bere eliz-barruti ura. Zabala eta zailla:

Zailla; ez, gaur-egungo idazle askok arrazoi murritez esan oi duan bezala, elizbarruti artako jendeak, ots gure mendietako asaba Euskaldunek

gaizkilleak ziralako, ez; une aietan gaizkilleak elizbarruti artako mugetan zeudelako baizik.

Zabala; elizbarruti ark, Euskal-leiñuetatik bost oso-osorik bere mugen barruan biltzen zitualako: Baskoni adibidez, eta. Beroni, Barduli, Karisti eta Autrigoni. Dakusazunez, bere ardurapean zeukan aro latz artan Silbano'k Kantauri-Itxasotik Oka-Mendien ego-maldaraiño Euskalerra Zarraren sarkalde osoko anitua guztien zoria. Besterik gabe, ori bakarrik, naikoa zuan bere ardietaz kezkatu-rik ibiltzeko, iñork bigaramona ziur ez zeukan aro biurri artako giroan.

Baleike gainera, Silbano'k, an bertan Tarazona'ko Leon gotzaiari gertatua, begien aurretik ezin kendurik eukitzea. Oroituko duzun bezala Leon Doneak Tarazona'ko bere katedralean galdu bait zuan bizia bagauden matxinadan,

"Denbora aietako larritasuna" izanen zuan Silbano Kalagurri'ko gotzaiak arrazoi, sagaraketa aiek egiteko. "Denbora aietako larritasuna" erabilli zuan Ilario Aitasantuak ere Silbano'k sagaratutako aiek gotzai bezala onartzeko eta Silbano berari zigorrik ez ipintzeko. Bai ote zuten "denboren larritasun" ori arrazoi naikoa?

Ikus dezagun:

Europa guztiarentzat zan larria une artako giroa: "No cabrfa olvidar en este punto lo que ha consignado la historia respecto de la situación general en el area circumpirenica durante los dos primeros tercios del siglo V: razzias y episodios de asentamiento mas o menos largo de pueblos de estirpe varia en distintas partes de Aquitania e Hispania, saqueos de varias provincias, luchas end&ticas de Mrbaros contra romanos y de unos barbaros contra otros" (K. Larrañaga, ib. 182).

Aipatu bearrak dira gudarozteen ibilketa utsak ere, aruntz eta onuntz, gora ta beera, gudarozteen ibilketak, Erroma'ko eta mota guztietako Barbaritarren gudarozteen aterrik gabeko ibilketak. Jakiña bait da ibilketa aietan eta munduan izan diran gudarozteen ibilketa guztietan gudari-iek nolako astakeriak egin oi dituzten.

Oroi dezagun, guk ere atal onen asieran V mendeko giroari-buruz esan duguna.

Eta, ainzuzen, Silbano Kalagurri'ko gotzai-aulkian zegoanean izan bait zan makurrena Euskalerra-ien egoan mende artako giroa. Izan ere aro artako beste ondamen guztiak naikoak izan ez ba'litu bezala, bagauden



iraultz odol-isurle gogorra ere, an gertatu bait zitzaien: bere elizbarrutian eta bere elizbarrutiaren albo-alboan.

\* \* \*

"Denboren larritasuna" aipatuko dute beren egintzak oiñarritzeko Silbano Kalagurri'ko gotzaiak eta Ilario Erroma'ko Aitasantuak. Bazuten noski arrazoirik aski!

Alare ez ziran, aipatu ditugun gertakizun oiekin bat batean Euskalerrriaren nekeak amaitu. Alderantziz orduan asi zan ia batera Euskalerrriaren muga guztietan eta itxasertzean bertan Euskaldunen eta barbaritarren artean. amairik gabeko gudate gogor arrigarria.

Baiñan guk emen urtez-urte agertutako gertakizun oiek izan ziran Silbano'k bere inguruan ikusi bear izan zituanak, Erroma'ko Inperioa, gorputz il ustela bait litzan, puskaka jausten ari zan garai artan.

"Onelako egoitza larri batean, lege eta arau eta oitura zar guztien gaindik, nere ardien osasuna **pentsatu zuala dirudi Kalagurri'ko Silbano gotzai Baskonitarrak.**

Zergaitik ez ote zion Askanio bere metropolitari onespelik eskatu? Ez ote zuan Askanio'gan konfiantzarik? Urte aietan Tarragona'ko Eliz-Probintzian zerbait gertatzen zala bait dirudi.

- Ez ote zuan ori egiterik izan? Baleike. Baiñan, bi aldiz? Bai. Batez ere, batzuek uste duten lez, bigarren gotzaiaren sagaraketa, aurrena sagaraturakoa il zalako egin ba'zuan beintzat; orrek bi sagaraketak oso une larrietan egiñak izan zirala esan naiko bait luke. Eta une larrietan, jakiña, ez da, mezularirik bidaltzen, ez bait dute mezulariek, borrokalari ankerrez beterik dauden bideak-zear ibiltzeko, adiontasun geiegirik izaten.

Ez ote zuan Askanio'gan konfiantzarik? Baleike, baitare. Ta itxura obeagoko uste edo ipotesia iduritzen zait au; une artan Tarragona'ko Elizprobintziaren barruan zerbait gertatzen zala ematen bait du. Ez dirudi beintzat gotzaidi osoa bere metropolitarekin bat egiñik zegoanik:

Askanio'k berak Aitasantuari esan zionez, Bartzelona'ko Nundinario'ren ondorengoa aukeratzekoan ez ziran gotzai guztiak berekin bat egiñik egon. "Optimi" "onenak" eta "Plurimi" --"geienak -- bakarrik baizik, baiñan ez "omnes", ots, "danak".

Silbano'k ere bazituan noski bere aldeko gotzaiak. Askanio'k berak Aitasantuari esan zionez, "Zalduba'ko gotzaia", "Caesaraugustanae urbis Episcopus", Silbano'ren "inguruko gotzai guztiak", "cunctis in vicinia positis episcopis" aietatik, Silbano "zismagille" edo "schismatico" arekin iñor alkartu ez zedin "ardura ta arreta", "diligentia et sollicitudo" aundiz leiatu bait zan, naiz, dirudianez, alperrik. Alperrikakoa izan zala bait dirudi gotzai zaldubatarraren lelaketa guztia. Ez du ba esaten Askanio'k, Zalduba'ko gotzaiak beste gotzai aiek Silbano'rengandik bereizi zituanik. Eta esanen zion ori Aitasantuari, egia izan ba'litz.

\* \* \*

Alderantziz, soilki, Saldubatarrak aiekin "eztabaida gogorak izan zituala" dio, "frequentissime contradixit". "contradixit" onek, gogorak izan zirala, adierazten digu, Salduba'ko gotzaiak beste aiekin izandako eztabaidak, eta oso maiz gertatu zirala gaiñera: "frequentissime". Gotzai aiek baziran noski ben-benetako Silbanotar portitzak!

Nongo gotzai ote ziran, ordea, Salduba'koarekin eztabaidan ibilli ziran aiek? Ez dakigu. Silbano'ren "auzoan zeuden gotzai-errietakoak", "in vicinia positis Episcopis" besterik ez bait digu Askanio'ren gutunak esaten.

Salduba'koa oso-osoan Askaniotarra zala badakigu. Salduba'tik ibaia beera, danak ziran ezpairik gabe Askaniotarrak, lurralde aietako gotzaiak ez bait ziran Silbano'ren "auzoan bizi ziran gotzaiak": "In vicinia positis Episcopis". Eta auen artean bakarrik, "in vicinia possitis" auekin bakarrik ari bear izan bait zuan Salduba'koak "Silbano'ren aurka lanean". Gaiñera Lerida'ko lenen gotzai ezaguna, Petrus, VI mendekoa da, 516'koa,

---

<sup>34</sup> Pentsatu ere pentsa daiteke noski, gotzai "in vicinis positis" gotzai aiek Zalduba beraren ingurukoak zirala. Ez dut uste, ordea ala izango ziranik. Zalduba'tik Ibero ibaia beera, aurreneko gotzaiuria Lerida zan, ia zuzenki Tarragona'ko metropolitaren kerizpean aurkitzen zan uria. Egia, Askanio'k berak dionez Tarragona'ren Eliz-Probintziko gotzai guztiak berekin bat ez egotea agian badaitekean gauza dala, baiñan hain aundia ote zan Silbano'ren indarra bere eskua Lerida'raifio luzatu aal izateko? Gaiñera, Lerda ez zan Zalduba'ren eta are gutxiago Kalagurri'ren "vicinia" edo auzoan zegoan uria.

eta IV mendearen harruan 11 ziran Askanio'k eta Silbano'k bazerarnakiten ordurako bakoitzak urte-sail eder bat illobian.

Aufiamendiruntz, Loarre (erromatarren Kalagurris Fibularia) ez zan beññere gotzaidun uria izan-da) Ueska zeukan urbillena, eta Ugel, baiñan VI mendekoak bi auek ere: ura 589'koa; au 527'koa.

Egoaldera, Albarrazin Balentzi'rekingo mugan, baiña arras "gaurkoe-gia", Segorbe'rekin alkarWrik, "Segobriga-Ercaviquensis" izeneko elizbarruti bat osotuz, aurreneko aldiz XIII mendean agertzen bait zaigu,

Naiko zarra, Osrna dugu, Duero Ibaiaren ertzean, bainan au ere VI mendekoa.

Ta... V mendean, Salduba'ren "in vicinia positis"ko beste gotzaigorik ez zan.

Alare, badaiteke aipatu ditugun uri guzti oiek V mendean eta baita V mendearen aurretik ere, gotzaiak izatea, dokumen-orrietara sartzeko gelditu ziran gotzaiak, baiñan, danadala, oso-oso urrun aurkitzen ziran Kalagurri'tik. Silbano "zismagHlearen" itzala ain urruti iristen zala egia ba'litz, izugarriki izanen zan larria Tarragona'ko eliz-probintziaren egoera. Sinista ezin daitekean gauza, Ilario'ren eta Askanio'ren gutunek, deus orrelakorik usmatu ere egin aal izateko, ez bait digute zirriku txikienik opaltzen.

Ez dirudi beraz, "In vicinia positis gotzai aiek" Salduba'ren inguru-koak ziranik. Edo, ote zegoan antziña artan, naiz Salduba'ren inguruan, Silbano'k Kalagurri'tik errez atzernan zezakean uri gotzaidunik? Ez Askanio'k ez Ilario'k ez digute izenik ematen. Eta orrela jardutean, gaitz aundia egin ziguten edestizaleoi, uri aiek Ibero Ibaiaren iparraldean e<sup>g</sup>ongo ziralako euskaldunak izango bait ziran danak.

\* \* \*

Eta, emen, rnozketak bat egin nai diot daramadan ariari.

V mendeko arazoak jorratzen ari gera. Beraz, erromatearen barruan gabiltz oraindik. Maiz esan dut, aro artan iristen zala euskera "Mediterran" edo "Lurrart"itxasora, eta, naiz bearbada Lerida (Ilerda), Vkh (Ausona) eta Gerona uriak elehidun biurtzen asiak izan, eskiertasun aundiz uste daitekeala beren elizbarrutiko ikazkiñ, artzai, nekazari ta eskulangillerik geien-geienak bai orduan eta bai askoz geroago ere EUSKALDUNAK IZANGO ZIRALA.

Nere ipotessi ori ain ausarki oiukatu aal izateko, Corominas eta Men&idez Pidal bezain gizon jakintsu yayoan iritziak nintuan oiñarri, eta, geiago oraindik, lurralde oietako toponimia, eta, batez ere, Ueska uriko udalak XIV mendearen erdi-erdian, 1349'an, uri artako azokan erabiltzen zan euskerari-buruz eman zuan Agindua, "Ordenantza". Ona emen Aragoi'ko erromantzez, agindu orren

Item nuyl corredor non sia usado que faga mercaderia ninguna que compre nin venda entre personas ningunas, faulando en algaravia (arabieraz) ni en abraych (juduen izkeraz) nin en banscuerw (euskeraz); et qui lo fara pague por voto xxx sol"".

Au izaten zan nere silogismoaren ardatza: 1349'an, ots, iaéia XV mendean!, Ueska'n euskeraz itzegiten ba'zan, "a fortiori", "are ta ziurkiago" itzeginen zala euskeraz I, II, III, IV edo V mendean Ueska'ko Urian bezala onako, olako, edo alako Urietan, Uri oiek gure izkuntza bizirik gordetzeko toki egokiagotan zeudelako.

Sarritan esan oi dut baitare, Ueska'n XIV mendearen erdian euskeraz egiten ba'zan, egingo zala XV'ean ere. Eta askoz geroago ere bai, landa ta mendietan. Nere arrazoia? Antziñate artan oiturak oso geldiki ta motelki aldatzen zirala.

Ueska'n XV mendean euskera bizi zala? Thozoa ni!, oso motz **gelditzen bait nintzan! Izan ere, Ueska Urian bertan, A<sup>l</sup> IAZAZPIGARREN (XVII) MENDEAN** bizirik jarraitzen bait zuan euskerak!!!

---

<sup>35</sup> Ez dot noski oroiterazi bearrik izango, Gaztela'ko erromantzea bezala, Aragoi'koa, eta baita, bearbada, Kata/auni'koa ere Euskalerrian eta euskaldunen artean jaio zirala; berdin-berdin, Gaskuifia'koa, Bearno'koa, Bigorre'koa eta Auñamendiaren iparraldeko aranetan itzegiten diran beste guztiak.

Dokumentu ori, Ueska'ko Udalaren dokumentutegian aurkitzen da, ango zaindariak gaur (1996-XI-8'an) adierazten didanez: "La ordenanza se halla en manuserito ntim. 2 de este archivo" eta "Revista de Archivos, Bibliotecas y Museos" aldizkarian (1913, 433 orrialdean) Rikardo del Ario'k argitaratu omen zuan.

Uri ortako dokumentutegiaren zaindaria idazten didanez, I349'ko debeku ura, geroago ere, XVII mendera arte bein baiña geiagotan ber-eman bait zuan Ueska'ko Udalak: "La prohibición se repite en posteriores ordenanzas hasta llegar al siglo XVII".

Gaur, 1996'ko Azaroaren S'an iritxi zaidan izpar anitz atsegin orrek nere silogismo ura erabat sendotzen duala, ez dut noski esan bearrik izango.

Emen amaitzen da une ontan egin gura nuan mozketa

\* \* \*

Jarrai dezagun orain lendik genkarren ildotik:

Ibero Ibaia-gora, Euskaldunen lurra eta Euskaldunen uriak asten zitzaizkion Salduba'ko gotzaiari bere elizbarruti ber-beraren barruan. An zeukan "Alavona Vasconum", oraingo Alagon, bere goyzai-uritik 25 kilometrora

Andik Ibero-gorako gotzaiak ez ziran Salduba'ko gotzaiaren "in vicinia positus episcopis", Silbano'ren auzokoak baizik.

Baiñan, ¿,bai ote zan V mendean Kalagurri'ren iguruan, dokumentuek azturik utzi zuten uri gotzaidunik? Orrela ba'litz, iez ziguten okerkeri makurra egin Ilario Aitasantuak eta Askanio Metropolitak uri oien izenik ez ematearekin...!

Eta, orra nola, nai gabe eta uste ere gabe, auzi kilikagarri bezain arantzatsu batera iritxi geran: Egia dirudi Tarragona'ko Eliz-Probintzia bi zati egiñik zegoala: Zatiketa ori, Salduba ardatz zutela, Eliz-Probintzi artako sortaldearen eta sarkaldearen artekoa zala: Sarkalde ura, ordea, EUSKALerria zan; eta sortaldea, ERDALerria.

Erderaren eta Euskeraren artekoa ote zan l'A zatiketa miresgarri ura? Ez dirudi. Euskaldunok ez bait diogu sekulan euskerari orrenbesterañoko garrantzirik eman. Izkuntzarik ederrena dala esan, bai; eta asko maite dugula oiur egin ere bai. Eta baita egiaz maitatu ere, aspaldi artan beintzat. Gaur ordea, maite dugula esaten jarraitu bai, baiñan bereala erderaz itzegiten asteko; batez ere, kultura nimiño baten jabe egin gerala uste izatera iristen ba'gera!

Euskaldunen eta atzerritarren artean sortutako ebakuntza izan ote zan ba zatiketa ura? Ori, errezagoa izango litzake. Baiñan bost-sei mendeko epe

Iuzea zeramaten ordurako Euskaldunek eta atzerritarrek, ots erromatarrek, alkarrekin pakean bizituz, eta "Tarrakonentsea" Erroma'ren probintzi izan zan V mendea-zear, 476'an Eruldarrek Erroma zapaldu zuten arte.

Egia da, alatagutziz, erromarkeri sutsua sortu zitzaiola Inperioaren jauste-egunetan España'ko jende "erromartuer; gero Bisigotiarrei berberaiei ere aski kutsatu zieten erromarkeria.

Ez dugu ordea arrazoi bat ere, V mende artako euskaldunen eta erdalunen arteko zatiketa bat orrelako zerbaitetan oiñarriturik egon zitekeala esaten asteko.

Beste aldetik, aski orokorki esan oi dan gauza da, arrazoi batengaitik edo besteagaitik, Inperioa ondatzen asi bezain laister asi zirala Euskaldunak ere, ala edo ola, bere nortasuna bizkortu, sendotu, eta yare agertu naiean. Ez dugu, ordea, bearrezkoa litzaigukean arrazoi sendorik naitasun ori Elizako jerarkiaren arlori ere sartu zanik pentsatu aal izateko.

Ez da gaiñera uste izatekoa, V mendeko Euskaldunak, Euskalerrian euskeraz egiten zuan Eliz Euskaldun bat eratz.earen egokitasuna ikusteko gai izan zitezkeanik. Anakroni gorri batera jaustea izango litzake orrelako zerbait oldoztea. Gaiñera, Euskaldunok ez gera ibeifiere! ez gure Erriaren, ez gure Elizaren, ez gure buru bakoitzaren Euskalduntasuna bear bezala babesteko gauza izan. Ez beintzat euskera gizarteko eginkizun ofizialetara sartzeko. Lateraz edo erromantzez idatziak daude gure dokumentu guztiak. Agian, baleike beste zerbait eskatzea ere anakroni gorria izatea.

- Priszilikeriaren auzia ote zebillen **ba** zatiketa aren azpian?  
miresleak Salduba'tik Ibaia-gorunzkoak, euskaldunak, eta Prisziliano'ren etsaiak heerunzkoak, atzerritarrak?

Prisziliano'ren erejia zertan zegoan ikustea, ez uste gauza erreza danik. Prisziliano bera, Maximiano Inperatoreak eriotzari galdua izan zan, baiñan ez zan erejiagaitik galdua izan, aztia ta magilaria omen zalako baizik. Asko izan ziran elizgizonen artean Prisziliano'ren idazkietan erejerik ikusi ez zutenak. Bai ordea beste batzuek. Prisziliano'ren idazkiak ulertzeko eran ote zegoan ba aren erejia?

Salduba'ko kontzilioa izan zan priszilikeria gaitzetsi zuana. Ez dezagun azturik utzi, 380'ean kontzilio ura bildu zuan Salduba'ko gotzaiaren ondorengo bat, Salduba'ko beste gotzai bat izan zala, bere salaketen bidez, oraingoan ere sua piztu zuana.

380'ko Salduba'ko kontzilio ark ordea, ez zuan bereiziki priszilikerian ereji teorikorik aztertu; batez ere lekaidetzari-buruzko geiegikeri larriak ikertu zituan egiazko geiegikeriak, eta benetan gañera larriak --; eta ori, geiegikeri-sorta astun ori bakarrik izan zan gaitzetsi zuana.

Priszilikeriak izugarrizko arrakasta izan zuan Euskaldunen artean. Priszilikeriak lekaidetzari ematen zion garrantziagaitik, asko izan ziran aski begi onez begiratzen zioten ereji-kutsurik gabeko elizgizon zintzoak. Luzaro iraun zuan priszilikeriak, Prisziliano ilda geroago ere, zaifiak bota zituan lurraldeetan. Orrelako Priszilikeri legun baten miresleak ote ziran ba Silbano ta bere lagunak? Askanio Tarragona'ko Metropolitak, Silbano'ri "falsus frater" ere esaten bait dio. Bestalde bada gure Gobietako V, VI, eta VII mendeetako lekaide aiek ere priszilikeriz kutsutuak bezala-edo uste izan dituanik.

Baiñan ez. Ez lekaide aiek seguruaski, ez eskierki Silbano'k, ez zuten priszilikeriarekin zer ikusirik izan. Bestela, ori bai beintzat, ori, Silbano priszilikeriz zikindutako gizona zala, ori, iñolaz ere, utsik egiteke aipatuko bait zion Askanio'k Ilario Aitasantuari, salaketa orrek bai, Silbano'ri, bein betirako ekarri bait zetzaiokean Aitasantuagandiko gaitzespena.

\* \* \*

Nongo gotzai ote ziran b Silbano'ren alde egon zitezkean gotzai aiek?

Galde orri erantzuteko, Askanio'k aipaturiko "in vicinia positus" gotzai aiek, ots, "auzoko gotzai" aiek noren auzokoak ziran jakin bear dugu lendabizi: Salduba'ko gotzai salatariaren auzokoak? Silbano'ren auzokoak?

Ikusi dugu zailki izan zitezkeala Salduba'koaren auzokoak. Silbano'ren auzokoak ote ziran ba?

Pentsa dezagun baietz. Lanerako bide bat irikitzearren, pentsa dezagun orain, Askanio'ren idazkerak adieraztera eman nai duala dirudianaren aurka, gotzai aiek Kalagurri'ko Silbano'ren auzokoak zirala: "in vicinia Calagurris positus episcopis" zirala.

Eta ona "ipotesi" edo "beinbitarteko iritzi" ori ontzat artzearen ondorioak:

Erdiaroan Salduba'tik onuntz izan diran eta izan dirala uste izan dan gotzai-urriak onako auek dira, Kalagurri bera aipatzeke: Ueska, Jaka,

Iruña, Tarazona, Kaskante, Naxera, Armenti, Balpuesta, Oka, ta Galtzarako Donedomingo.

Ueska'ko lenen gotzaia, ordea, gotzai ezaguna VI mendekoa da, 589'koa: "Gatbinus Oseensis". Orrek, jakiña, ez du esan nai leenago gotzairik izan ez zuanik, eta sinistekoa da izanen zuala, III mendean bertan, Iondoni Bixintxo jaio zanean ain zuzen, an kristautasuna sarturik zegoan ezkerero. Gaiñera, 527'an ere agertzen zaigu Toledo'ko kontzilio batean Ueska'ko gotzai baten lenen aipu ziurra-ta, baiki izanen zuan Ueska'k gotzairik Silhano'ren garaiean mende-erdi bat leenago ere; baiñan baiezko ziur bat ematerik ez dugu.

Armenti ta Balpuesta, IX mendekoak. 804'ean, Jon da, Baldegobi edo Gobiaran'en, Balpuesta'ko gotzaia. 871'ko dokumentu batek Bibere izeneko jaun bat Araba'ko gotzaia zala diosku. Ez dakigu non bizitu zan. Berealaxekoa da, 877'koa, Armenti'n aurrena bizitu zana: Albaro.

- Naxera'ko lenengo gotzaiak, X mendekoak dira. Oso ziurra ez dan Benedikto bat (938), eta Tude .miro (947-952). Askoz eta askoz geroagokoa da berriz, soilki titulo utsez gotzai-uri izan dan eta beti gaurregun arte — Kalagurri'koarekin alkartu oi dan Gaitzara'ko Donedomingo, Santo Domingo de la Calzada: "Eeelesia Calagurritana et Calceatensis": "Kalagurri-Galtzara-tar Eliza".

- Beranduagokoak dira, berriz, Jaka'ko gotzaiak: XI mendean 1.076'tik 1.077'a bitartean ezarri bait zuan Aragoi'ko errege Santxo Erramirorena'k Gartzia bere anaia Jaka'ko gotzai-aulkian.

ziurki ezagutzen dugun lenen gotzaia VI mendekoa da. 589'ko Liliolo.

Aipatu ditugun uri guztietatik iru besterik ez dira, beraz, V mendean gotzaia izan zezaketen uriak: Kaskante, Oka, eta Tarazona,

Kaskante aro ortan gotzai-uri zitekeala uste izan duanik bada; arrazoi zuzenik emateke, ordea.

Oka bai, gotzaidun uria izan zan, dokumentu zarretan Auka idatzirik ikusiko duzun Oka, Euskalerrri Zarraren ego-egoko muga. Baiñan emen ere, bere lenen gotzaia VI mendekoa izan genduan: 589'ko "Asterius".

Tarazona, baiki, egiaz izan zitzaigun uri gotzaiduna, il berria bait zuan, ainzuzen bagauden eskuetan eta 449'garren urtean, Doneleon bertako gotzaia. Baiñan urte batzuek geroago, Silbano'k bere sagaraketak egin zituanean, laister esango dugun arrazoiagaitik, Tarazona gotzair 'k gabe



aurkitzen zala ematen du. Danadala Doneleon'en urrengo gotzai ezaguna, VI mendekoa da: Pablo: 516'koa. Dokumentuen arloan, jakiña, Bizitzaren arloan Tarazona ez bait zan gotzairik gabe orrenbesteko denboraz egon.

Ez dakigu beraz nongo gotzaiak ziran beren gotzai-uria Salduba'tik onuntz zeukaten gotzai aiek. Ez dio ajolik. Bai bait dakigu Salduba'tik onuntz, Jalon ibaiaren landetatik onuntz, guzia Euskalerra zala! eta, lanerako ontzat artu dugun ipotesiaren araura, Euskalerra ortan gotzaiak bazirala.

Gotzaiak!

Ez, gotzai bat edo beste. Argi-argi esaten dio ba Askanio metropolitak Ilario Aitasantuari Silbano'ren "auzoan jarriak izan ziran gotzai guztiekin" "cunctis in vicinia positis Episcopis" ibilli zala Salduba'ko gotzaia eztahaidan.

Ikertu'itzagun itz oiek:

":larriak" eta "episkopi", askatasun edo plural-einean idatzirik daude. Bat haiño geiago ziran, beraz, Silbano'ren auzoko gotzai aiek. "Cunctis" itza, berriz, ugaritasun-adierazlea da. Gutxienez bi baziran, beraz, gotzai aiek. Erne!, baiña, eta adi! "Cunctis" itzak altzoan daraman ugaritasun-adierazketa, soilki bi edo iruri legokiena baiño aundiagoa da ezpairik gabe.

Zenbat ote ziran ba Euskalerra Zabal aren ego-egoko lurretan gure gotzai aiek? Tamalez, ez digu Askanio'k esaten ez zenbat ziran ez nongoak ziran. Alare, ezpairik ez duan zerhait ematen digu adieraztera: Gotzai aiek ez zirala Silbano'ren eliz-barrutikoak. Orrek deus arrigarririk ez duala? Egia. "Gozzaiuri bakoitzean gotzai bat" agindurik bait zegoan ordurako. Ez du beraz arrigarririk ezer; baiñan bai zerbait arras eskergarria: Elizak Euskalerrian bere jerarkia sendo eraturik zeukala erakusten bait digu. Ori, V mendearen erdirako! Noiz asi ote zan ba egoaldeko euskal-lurralde aren ebangelizaketa? Urte-pil10 luze mardulez leenagotik naitanaiez.

Orrela eta orren ziurki mintzatzeko dokumenturik ez dugula? Metropolita batek bere eliz-probintzian gertatzen ari diran gauzetaz eta gertatzen ari diran une ber-berean Aitasantuari idatzitako gutun bi eta Aitasantu ark metropolita ari erantzunez idatzitako beste bi... Lez aI dira naiko dokumentu?

Bai, baiñan esaten ari naizen guzti onek Euskalerrriaren ego-egorako bakarrik balio duala? Egia. Ez ordea aztu nola zegoan kristautasuna Euskalerrriaren iparraldean, Akitani'ko lur aberatsetan.

Baiñan egia ote da gure ipotesia? Ala dirudi. Askanio idazle traketsa zan, eta ez da erreza aztertzen ari geran esaldiaren bidez zer ezan nai zuan. Gramatikaren araura, "in vicinia positus" gotzai aiek Salduba'ren auzokoak zirala dirudi, azkena aipatu duan gotzaia Salduba'ko dalako: Baiñan gotzai ura aipatzen duan esaria ondorengo esaritik bi puntuz berezia dagoalako, eta ondorengo escri ori zuzen-zutenean Silbano'ri dagokiolako, logikaren araura Kalagurri'ren auzokoak ziran gotzai aiek danak.

Logikaren araura baitare, Silbano'ren auzokoak zirala dirudi Askanio'ren eskutizari, A. Risko'k egin zion itzulpenear:

"De este hecho temerario (Silbano'ren sagaraketaz alegia) nos hizo relacibn nuestro hermano el Obispo de Cesaraugusta, quien tambien puso todo su conato en la enmienda de este desorden, oponiendose freqilente-mente a todos los Obispos comarcanos (Comarcanos, Lnorenak?, ¿bereak?, ¿"suyos"?, L, salatariarenak?, ala ¿ "arenakl, ¿ "de él"? "Silbano'renak"?) fin de que no se juntasen con el Cismatico ("Silbano'rekin); pero este malaniente obstinado, no se avergonzd de hacer el solo todo lo que era ilicito, y lo que no podemos decir sin verguenza" " (E.S. op.c. XXIII, 130).

Ikusi duzunez, aapaldi osoaren etorriak "Obispos comarcanos" aiek Silbano'ren "comarcanos" zirala uste izatera garamatza.

Risco eta Florez, Anaidi bereko prailleak ziran: Agustindarrak. 1770 idatzi zuan onek; eta, onen ondorean, berealaxe berriz arek: soilki amaika unetxo geroago: 1781'an. Bide egokia dugu beraz Risco, Florez'en oldozkera ikertzeko.

Nik ez dizut euskeratuko, itzultzailleak beti, naiz berak ala nai ez, itzultzen duanari beragandiko zentzu bereizi bat ematen bait dio, baiñan zuk zerorrek Askanio'k idatzitakoari egiazko zentzu zuzena billatzen saiatu nai ba'duzu, ona, irakurle, Salduba'ko gotzaiak nola Silbano'ren ariketa

---

" No podemos decir sin verguenza". Ez zazula uste Silbano lizunkeritan ibilli zanik. Askanio'ren lotsa, Silbano'k legearen aurka egindako sagaraketengaitik da.

baidarraz albiste-eman zion esan ondorean, Metropolita ark Aitasantuari idazten diona:

"Hinc factum est, ut de eius misserrirna temeritate ad nos CaesarAugustanae urbis Episcopus frater noster universa referret, cujus diligentia et sollicitudo admodum prospexerat, si in aliquo profuisset: siquidem cunctis in vicinia positis Episcopis, ne se schismatico adjungrent, frequentissime contradixit: sed obstinatione damnabili totum quod erat illicitum, et quod nobis pudor est dicere, non erubuit solus ille committere"

Onako zerzelada auxe dugu siñalagarri Risco'ren itzulpenean: Silbano'ren auzoko gotzai aiek zearo Silbanotarrak zirala. Aiei *aurka* egiñez, ("oportiendo"), eta *sarritan! gaiñera* ("frequentemente") aurka egiñez, ibilli bear izan bait zuan Salduba'koak, aiek Silbano'rekin alkartu ez zitezen: fin de que no se juntasen con el Cismico".

Zertarako alkartu ote zitezkean gotzai aiek danak Sibano'rekin? "Honorati" ta "possesores" aiek bezala, Silbano babestuz Aitasantuari idazteko? Bai, seguruaski.

"Honorati" ta "possesores" aiek Ibero Ibaiaren egoaldekoak ziran danak. Ibero Ibaiaren iparraldean ez ote zan kristautasunik? Askanio Metropolitanaren eta Ilario Aitasantuaren gutun oiek erantzunik ez digute ematen, baiñan baiezko erantzuna damaigula dirudi Araba'ko mendietako lekaidetzak.

- Zenbat gotzai sagaratu ote zituan Silbano'k? Galde ori egin aal izate utsak ere, Euskal-kristautasunaren zabalkunde arrigarria dakarkigu begien aurrera. Gotzaiak sagaratu bear izateak gotzai aien ardurapean egon bear zuten kristauen ugaritasuna iragartzen bait du. Ez du ordea orrek esan nai V mendeko Euskaldunik geienak Euskalerra osoan kristauak ziranik. Ezta askoz gutxiagorik ere. Kristauek geiengoa izate ori apika bait zan oraindik, V mende artan, Itali'n bertan ere gertatzen. Ez beintzat, iñolaz ere!, urietatik at alor, baso ta mendietako jendeen artean.

Damaiogun erantzun, ordea, egin dugun galdeari. Ilario Aitasantuak bi gutun idatzi zizkion Askanio'ri. Aurrenekoan esaten dionagaitik, bat eta bi baiño geiago izan zirala dirudi Silbano'k sagaratutako gotzaiak: "Nonnullis civitatibus ordinatos claruit sacerdotes", "uri batzuetako gotzaiak sagaratu zituan", bait dio Aitasantuak, eta itz oiek, berenez, bai beintzat lauki ta

apalki irakurtzen ba'dira      sagaraketa aiek bi ilario geixago izan zirala ematen bait du".

Baiñan, "nonnulli", "batzuk", aski itz illuna dalako eta Askanio'k bi gotzai bakarrik aitatzen ditualako, edestilaririk geienak bi izan zirala, uste dute, Silbano'k kanon-legearen aurka sagaratutako gotzaiak. Alare, izan da Aitasantuaren itz illun orrek atzipetu duanik.

Norako sagaratu ote zituan Silbano'k gotzai aiek?

Ezberdiñak dira, edestilariengandik jasoko dituzun erantzunak. Auka'-rako, ots, Oka'rako, esango dizute askok; izen aundikoek gañera: Lueiano Serrano'k , C. Sanchez Albornoze'ek eta M. Risco'k adibidez. Entzun azkeneko onen itzak XVIII mendeko idazkeraz: "Yo me inclino mucho que el origen de esta nueva Silla Episcopal venta desde Silvano, y a que Auca fue el pueblo donde este Prelado, atendiendo a la grande extension de su Diocesis y al cuidado de sus ovejas, puso el Obispo quien consagró sin avisar al Metropolitano Porque a la verdad de ninguna otra sede podemos creer haberse fundado en territorio de la Diocesis de Calahorra, que la erigida (dokumentuz ezagutua esan nai du) en Auca en el siglo inmediato al de Silvano ni tampoco podia ocurrir necesidad mas urgente que en el trecho que hay desde Auca acia el Oceano, que era el mas distante de Calahorra, y mas cercano a las Provincias que ocupaban ya los barbaros inficionados con la heregia de Arrio" (España Sagrada. XXX, 157).

Iru-lau oarpen Risco agustindarraren esaldi borobil orri:

- "Barbaro" Germaniarrak (Suebitarrek seguruaski) Autri<sup>g</sup>oien mугan ipintzen dizkigula, eta, "Barbaro" aien aurrean, yare Euskalerrria; eta ori eskertzekoa dala;

- Kristautasunak Euskalerrrian artzen ari zan zabalketa ederki adierazten digula, naiz, seguruaski, aurreraegi joan. ¿Benetan uste ote zuan Manuel Risco'k Ibero ibaiaren arantetik iparreruntz kristautasuna itxasertzeraño iristen zala V mendean? Egia: iristen zala esateko arrazoirik bat bakarrik ere

---

"Sacerdotes" da Aitasantuak idatzi zuan itza. Baiñan itz orrek "gotzai" esan nai zuan aro artan. "Apaiza" adierazi nai zutenean, "presbiter", ots, "bereter", esaten zuten. Ask-anio'ren eta Ilario'ren gutun auetan ere, bein baiño geiagotan dagerkigu "Sacerdos" itza, eta beti, gotzai esan nai du.

ez dugu. Baiñan ez zala iristen esateko ere ez. Egoaldeko Autrigoiak bezain Autrigoi ziran beintzat Iparraldeko aiek ere. Eta egoaldekoak bezain Euskaldunak. Bai ote ziran egoaldekoak bezain kristauak? Ez dakigu. Bainan gotzai berriaren uria, Oka, itxasotik ain urruti egoteak ez dio baiezkoiari laguntza aundirik ematen. Alare, ez aztu, elizbarruti berriaren uriburua Oka izan zitekealako ori, uste utsa besterik ez dala.

- Autrigoen inguruko barbaritarrak ariotarrak zirala, dio. Sarkaldeko Euskaldunen Inguruko atzerritar aiek, orduan, Suebitarrak ziran. Ariotarrak. Baiñan, ainzuzen, garai artan egin zan katoliko Rekiario Suebitarren erregea. Orrek, ordea, ez zuan errege ark euskaldunen aurka zerabilkian guduketarik amaitu, bizkortu baizik.

- Arras zuzena dala logikaren aldetik Riseo'ren arrazoiketa: Silbano'k iñon elizbarruti berri bat irasi ba'lu, eskierki an, Autrigoein artean irasiko zuan elizbarruti berri ura. Baiñan,

A): Silbano'k elizbarruti berririk sortu zuan ez dakigu.

B): Autrigoen lurraldean elizbarruti berri bat irastekotan gotzaia Oka'n bizitzen jartzea zentzurik gabeko <sup>s</sup>auza zan, Autrigoni'ren muga berebean bait zegoan Oka. Askoz toki egokiagoa zuan gotzai berriak Bureba'ren erdian dagoan "Virovesea" (Bribieska), eta ordurako kristautasuna itxasertzeraiño iritxirik ba'zegoan, askoz eta askoz egokiagoa Araba-aldeko uri erromartu aietako bat, Iruña adibidez, erromatarren izenez "Veleia", eta, izen orrekin, ain ezaguna dan uria.

Baiñan, esan dezagun berriro Silbano'k elizbarruti berririk sortu zuan ez dakigu!!!

Gotzai sagaratu-berriak, aurrenekoa lendabizi, jakiña, eta ura il ondo-rean bigarrena, biak Tarazona'rako izan zirala esango dizutenak badira. Tarazona V mende artan gotzai-uria zala eskierki dakigun gauza da, Idazio edestilaria lekuko dugula, baiñan gotzai aiek Tarazona'rako izan ziran ez dakigu. Gaiñera, ez zan Tarazona'n gotzairik izan, ez beintzat gotzai ezagunik V mende guztian, Silbano'ren auzia asi baiño lentxeago, 449'an, Leon bagaudek erailla izan zanez gero.

Kaskante Baskoia aipatuko dizu besteren batek, ala J.M Jimeno Jurfo'k, edo Bribieska autrigoitarra, edo Levia (Libia) berondarra: "Metidos a eonjeturas, cabrfa tambi&I pensar que lo fuese (Silbano'k gotzai-uri egin-dako erria) una de las dos mis occidentales -- Levia o Virovesca **sobre** todo si se da como buena la hipotesis de los que interpretan las ordenacio-

nes de Silvano como un expediente del de Calagurris por aliviarse la carga de una didcesis demasiado extensa, cuya parte mas occidental, constituida por el solar de los Autrigones, habrfa, en consecuencia, en.comendado al obispo por irregularmente institufdo" (K. Larrañaga, o.c. 175).

Egoki erabillia zalantzazko izketa ori, erri oietan sekulan gotzairik izan danik ez bait dakigu.

Silbano'ren gotzaiantzat egoitza egokia asmatu naiean saiatzekotan, aipa daitezke beste erri batzuk ere.

Eta ez arrazoirik gabe, "Nomina Hispanarum Sedium" izeneko idazti batek Amaia, Auca, Segia eta Alisana, gotzai uriak izanak dirala esaten bait digu.

Idazti ori gotzai-uri-zerrenda bat Kordoba'koa. Mozarabitarra beraz. 850'aren inguruan idatzia, baiñan IV eta V mendeko albistek ere jasotzen omen dituana. Nik, "Corpus Christianorum" izeneko bildumaren 175'garren iiburuan aztertu dut.(Ikus liburu onen asierako bibliografia).

Auka, aipatu berri-dugun Oka ber-bera da, gaur-egungo Villafranca de Oca'ren inguruan zegoana. Autrigoien uria. Segia, gaur-egungo Ejea aragoitarra zan, uri Baskoia. Berondarrena zan, berriz, Alisana edo Alizance, orain Alesanko esaten zaiona.

Alisance au Silbano'ren elizbarrutian zegoan. Segia, seguruaski, Tarazona'koa zan. Bi uri oietarako sagaratu ote zituan Silbano'k bi gotzai aiek? Ez da sinistekoa. Segia Tarazona'tik eta Alesanee Kalagurri'tik ain bertan zeuden uri bi aiek, gotzai-uri biurtu izateak ez bait du zentzurik.

Alderantziz ez litzake zentzugabekeria izango Oka eta Amaya elizbarruti-buru biurtu zituala uste izatea. Biak zeuzkan bâ anitz urruti. Urrutiegi, bearbada.

Oka, Euskalerrriaren ego-ego-mugan. Baiñan aala zegoan VI mendean ere, eta ez zizaion ori eragozpen gertatu gotzaidun uri izateko. 589'an Asterius zeritzan bat ango gotzaia zala bai bait dakigu. Ori, agoz-agozko albiste-bideak Askanio orren aurretik aipatzen dituan Tliodorus eta Stephanus, dokumentutik ez dugulako kontuan artzeke! Biotako bat Silbano'k sagaratu aietakoa ote dugu?

Oka baiño urrutiago zeukan, Silbano'k Amaya. Palentzi'rekin muga egiten duan Pisuerga ibaietik ogeiren bat kilometrora. Arainio iristen ote ziran Autrigoitarrak? ala, Kalagurri'ren elizbarrutia, Autrigoien mugetatik aruntz Kantabritarrenak zirala uste dan lurren barreneraiño iristen oLe zan?

Orren urrutira sartu ote zan mendi-kate malkartsu latzen -gaindik eta baso illun ertsiak-zear, V mendearen erdirako, Kristo'ren Berri Ona Autri-  
goi Euskaldunen lurraldea-zear?

"Nomina" k, bi uri aiek, bai Amaia eta bai Auka "Tarrakonensis" eliz-probintziko gotzai-urriak zirala diosku. Eta ori bera omen diote erdiaro garaieko bi "Divisio" edo "Españi'ko Jerarkiaren Eraketari-buruzko idazkiek", Claudio S6ichez Albornoz'ek esaten digunez (K. Larrañaga, ib. 176 ss).

Dokumentu oiek danek, gotzai-uri asko aipatzen dituzte, baiñan ez dute gotzai-uri aietako bakoitza noiz sortua izan zan esaten. Batzuk, Tarragona adibidez, Silhano'ren ekintza baiño askoz leenago izan ziran sortuak, beste batzuk, Iruña adibidez, geroago, eta geroago oraindik beste batzuk. Ez dakigu beraz V mendean Auka, Amaia, Segia, ta Alisana gotzai uri ziran. Ez dakigu ezta, Oka'z landa, beste uri oiek danak sekulan gotzai-uri izan ziran, aipatutako dokumentu oiek ez bait dute bear aiñako sinisgarritasunik merezi. Ontaz, ordea, V mendeko Elizbarrutiak aztertzerakoan mintzatuko gera.

Orra Silbano'k bi gotzai aiek norako sagaratu zituan jakin gabe gelditu gera!

\* \* \*

Baiñan Ispanietako jerarkiaren jardunkerari zegokionaren aldetik, egia ote da ezaguera sendorik gabe ibilli zala Ilario Aitasantua? Ori egiztatzea Sotomayor Muro eta Garcia Villoslada'ri dagokie, affirmantis est probare --; baiñan ez dute orrelakorik egin. AIda ortatik ere, Aitasantu berarengandik artuta emen azaldu ditudan esarrietan oiñak ipiñiz, ez zala ain pulamenturik gabea, esango nuke nik, Ilario'k Ispanietako gauzetaz" izan zuan ezaguera".

---

" Ispanietatik at ere izan zituan Ilario Aitasantuak, gotzaien autaketei-buruzko auziak. 463 edo 464'koa da, Bartzelona'rako Ireneo autatua izatearen berri ematen zion Askanio'ren gutuna. 465'an izan zan Erroma'ko sinodoa. 462'an Rustiko Narboria'ko metropolitak, Ermes sagaratu zuan Beziers'eko gotzai. Ez zuan erriak gotzai ura artu nai izan. Orduan, Rustiko'k, bera iI

Egia da izugarri gogorra izan zala Askarno"ri eman zion erantzuna, ez bait dirudi Ireneo" Bartzelonako gotzai izendatze ura artaraiñeko pekatu aundia izan zanik. Naiz Ireneo Nundinario'k aurretik Bartzelona'rako aurkeztua izan, uri artako erriak, eta aitorrensemek, eta, baita, eliz-probintzi-ko gotzairik "onenek ta geienek" ere, itxuraz yareki ta pozik onartu zuten ezkeru.

Egia, alare, bi oben egin zituala Askanio'k kanon-legeen aurka: III-aurrean gotzai batek aukeratua izan zan Ireneo Bartzelona`ko gotzaitzat onartu, eta beste eIz barn.iLi baterako sagaratua izan zan Ireneo ari Bartzelona'ra aldatzen utzi.

Bi obenak jaurti zizkion Ilario'k aurpegira. Baiñan ori egitean zuan gogorkeri latza Lez ote da, ainzuzen, Ispanietako gauzak Sotomayor Muro'k eta Garcfa Villosiada'k uste baiño okerrago zeudelako siñale zorrotza?

Ez ote da, ainzuzen, gogorkeri ori, Ispanietako gauzak Sotomayor Muro'k eta Garcia Villoslada\*k uste baiño okerrago zeudelako siñale zorrotza?

\* \* \*

Zearo beste era batera jardun zan, esan dugunez, Ilario Aitasantua Silbano Kalagurri'ko Gotzai Baskoiarekin. Iru esaldiz erabaki zuan aren auzia Askanio'ri idatzi zizkion bi gutunetan.

Silberio'k berak Aitasantuari idatzi zion ez dakigu. Baietz uste izatekoa da. Silberio'ren alde aitorrenseme eta lur-jabe sail eder batek idatzi ziola, bai, orren berri Ilario'k berak ematen digulako, Ez dakigu ordea, jaun oiei

---

osterako bere ondorengo Narbona'ko metropoilta izendatu zuan Ermes. Dakusazunez Bartzeiona'ko auzi ber-bera. 463'an Biena Galitarreko metropolita, Manuerto Donea, izango da, oartzeko seguruaski. Ilario'k Galtetarako agindu berria zuanaren aurka gotzai bat sagaratuko duana. Urte ber-beroren inguruan, Embrun'go Injenuo eta Aix'ko Auxanio ibilliko dira orrelako beste auzi batean naasirik. Korapillo oiek danak legunkt, ta maixuki, askatu zituan Ilario'k. Bartzelona'koa askatu zuan bezala. Iriorentzat eskomikapenik gabe. Bartzelona'ko auzian ere Askanio'rentzako gutuna bakarrik izan **zan** gogorra.



eta, Silbano'k aurretik idatzi ziola egia oni ere Ilario'k erantzun zien edo ez. Bai seguruaski. Baiñan gutun auek danak galduak dira Silbano'ren adiskide aiek Ilario'ri idatzitako ura bezala.

Orregaitik, Ilario'ren Silbano'rekingo jardunkera, soilki Askanio'ri idatzitako gutunetan esaten duanetik jakin dezakegu:

- Aitasantuaren aurreneko epai-itza, Silbano berari dagokiona da: barkapen orokorrezkoa. Askanio'k Silbano'rentzat zigorra eskatzen zion. Onela erantzuten dio Aitasantuak: "Temporum necessitate perspecta, hac ratione decernimus ad veniam pertinere quod gestum est".

Euskeraz: "Oraingo giro onen bearbizunak ikusirik, eta ori arrazoitzat arturik, barkatu bearra dala, derizkiot, gertatutako guztia".

- "Erriengandiko eskaririk gabe", "nullis petentibus populis", egin zituala Silbano'k bere sagaraketak, esaten zion Askanio'k. Naiz zuzenean ez, Askanio'ren salaketari erantzunez, "errien eskariei geiegizko garrantzirik ez zaiela eman bear", idazten dio Aitasantuak: "nec tantum putetis petitiones valere populorum".

- Bigarren epai-itza Silbano'k sagaratutako gotzaiei dagokie, eta pake-tasun orokorrezkoa da. Silbano'k sagaratutako gotzaiak Silbano'rengandik artu zituzten tokietan uzten bait ditu, aien sagarageta berbera onartzuz. "Ne quid tamen in tanta necessitate decernamus austerum, eos qui Episcopi facti sunt, ita volumus permanere: "Orrelako bearbizun gorrietan epaitza gogorrik on iduritzen ez zaidalako, gotzai jarraitzea nai dugu gotzai egiñak izan diran oiek".'

Adimen argiko epailari burutsua, eta biotz zabaleko Artzai ona agertzen zaigu erabaki oietan Ilario Aitasantua. Silbano'rekin ain gozoa izan zana, zergaitik Askanio'rekin ain bestelakoa?

---

Adimen argiko gizona zalatik, ez da arritzekoa-ta, ederki ulertu-bide zituari Ilario Aitasantuak Silbano<sup>1</sup>ren arrazoiak, eta ontzat artu aren jardunkera. Kontuz orde! Ez zan sagarageta aiek kanon-legearen aurka egin izatea ontzat artu zuana, baldintza aietan legearen gaidik egiiiak izatea baizik. Ori, oso garbi utzi zuan bere bi gutunetan, kanon-legearen ain maitale izan zan Ilario'k. Ala agindu zion Silbano'ri ere: "Ut nullus sine consensu Episcopi Metropolitan Episcopus ordinetur": "Ez bedi iñor Metropolitanaren oniritzirik gabe Gotzai sagaratua izan"

Oroi, Silbano'ren aurka gogorra izan zala neurri oroz gaindik, Askanio'k bidali zion eskutitza.

Ikus, zerorrek epaitu aal ditza<sup>g</sup>un Silbano'ren aurka Askanio'k erabili zituan esariak:

"Falsus frater", "gezurrezko anaia"; "divinationes sibi indebitas usurpando", "Berari ez dagozkion jainkoagandiko aalmenak erabil-zalea"; "eius vanissimarn superstitionem", "bere arrokeri utsezko jainkokeria"; "Patrum regulas et vestra instituta despiciens", "Asaben aolkuak eta zure erabakiak irainduz"; "profecit in peius", "okerretik okerragora joan da"; "contra vetustaten Canonum", "Kanonen antziñatasunari zor zaion eraspenaren aurka"; "contra Synodi constituta"; "Sinodoak erabakitakoen aurka"; "Alterius fratris nostri praesbyterum invito et repugnanti imposuerat manus", "beste gotzai baten apaiza, naiz onek nai ez eta ezezkoa ematen ari, sagaratu zuan gotzai"; "eius miserrima temeritate", "bere zori gaiztoko ausardia"; "spiritu tantum praesumptionis accensus"; "soilki ausardikerizko aizez beterik"; "schismatico", "zismagillea". "praesumptionibus quae unitatem dividunt, quae schisma faciunt", "batasuna ausi ta zisma dagiten gejegikeriak", "rebellionis spiriturn", "iraultzarako gogoia".

Eta, azkenean guzti ori txapel dotorez jantzirik uzteko, onako loretxo pertxenta pinpirin auxe: "Sed obstinatione damnabili totum quod erat illicitum, et quod nobis pudor est dicere, non erubuit solus ille committere", "Bakarra izan da, setakeri gaitzesgarriz, legearen aurkakoa dan guztia eta esatea lotsa damaidana egiten".

Askanio'ren geiegizko gogorkeri zakar orrek asarretu egin ote zuan Ilario? Eta asarre orrek eraginda irten ote zitzaion bera oartzeke ain gogorra Askanio'ri egin zion eskutitza?

Ez da sinistekoa, Ilario ain gizaseme zentzuzko zugur eta neurritsua izanik. "His letters show him as a wise and zealous administrator correcting abuses and solving disputes submitted tu him from southern Gaul and Spain": "Bere eskutitzek, Gali'aren egoaldetik eta Espalli'tik iritxi zitzaiz-

kion liskarrak zuzen askatzeko, antolatzaile jakintsu ta arduratsua izan zala erakusten digute" (Enc. Brit.)<sup>41</sup>.

\* \* \*

Beste arazo batzuk ere jorratu izaten dituzte edestilariek, Silbano Kalagurri'ko gotzaiaren auzi au dala-ta, "honorati" ta "possessores" aiei-buruz bereiziki: Adibidez Jaun aiek nor eta nolakoak ote ziran; Silbano'ren alde irtetzerakoan aien egiazko asmoak zer ote ziran; Jaun aiek bere ekonomi eta politikarako Elizaz baliatzen asiak ote ziran; ordurako aski urduri egon omen zitezkean Baskoiak istillu aietan zer ikusirik izan ote zuten; Baskoiak urduritzen zituan zioa nolakoa ote zan: ekonomiaren alorretikoa? (Adibidez "funda" aundietako jabeen lur geiagoren gosea? Erroma'k ezarritako zerga izugarrien geiegikeria? Politikazkoa? Beren eusko-nortasuna sendotu ta agertu nai izatea?; haguauden misterioa zertan egon zitezkean... eta baita "Tarraconensis" eta "Gallaecia" Laterriko ta Elizako probintziek heren arteko muga non izan zezaketen.

Gai jakingarri atsegiñak benetan, baiñan Silbano'ren auzi utsetik erantzun ziurrik izan ez dezaketenak. Eta, orregaitik, guk emen ukituko ez ditugunak. Zuk, ordea, arazo oietaz zerbait geiago jakin-gurarik baldin ba'duzu, jo ezazu esan dizudan Koldo Larrañaga Elorza'ren idazlanera.

Guri aski izango zaigu orain, Silbano Kalagurri'ko gotzai Baskoiak V mendearen erdirako sortarazi zuan iskanbillak erakutsi dizkigun atal auek gogoan ongi gordetzea:

- Euskalerrian "funda" edo nekazaitxe aundiak bazirala. Ori erromateko arkeologiak ere erakusten di<sup>g</sup>un gauza da. Erromatarrengandik ikasia bait genduan lur-lankera berri ori.

- Guk uste baiño geiago erromartu zala Euskalerria.

- Euskalerria Ibero ibaiaren lur zabaletan zearo kristaturik eta bertako Eliza ederki "erakundeturik" ots "instituturik" zegoala V mendearen erdirako: "Relacionando este testimonio (Silbano'ren auzitik datorkiguna)

---

<sup>41</sup> "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques" iztegiak ere (IV,876) naiko luze dakar Sibano'ren auziaren berri, A. Lambert beneditarak idatzia. Baña bere iritzi batzuk ez zaizkit aski ziurrak iduritzen.

con anteriores o coetkiesos, expresivos asimismo de una presencia cristiana en el Barea, se produce tal acumulaci3n de evidencias, que no parece en absoluto excesivo hablar de la existencia a la saz3n de una Iglesia de consolidada textura en el valle del medio y alto Ebro" (K. Larrañaga, ib. 174). Ederki. Baiñan Bureba'rako ere balio du or esan digun orrek. An bait zegoan Ilario Aitasantuak aipatzen duan Bribieska

Berea, (K. Larrafiaga'rena), da, len zatika aipatu dugun onako esaldi au ere: "En torno al 457 lo que en primer lugar Ilarna la atencidn al exarninar la correspondencia entre el Papa Hilario y los obispos tarraconenses, es el nivel de implantaci3n que revela la Iglesia Cristiana del valle del Ebro. No se trata sdlo de que haya obispo en Calagurris hacia mediados del siglo V, sabiendo como sabemos por testimonio de Prudencio que le hay ya desde los primeros años del siglo" (I.c 174)42.

- Nekazaitxe aundietako jabeak kristauak zirala noski. Euskaldun ere bai ote ziran? Zergaitik ez? euskeraz mintzatzen ote ziran? Gaur-egun, euskaldunok, bein kulturaz jantzi, edo, maiz aski, naiz kulturaz jantzi ez gizartearen mailladian zerbait igotzen ba'gera, eroak bezala erderaz itzegitera jotzen bait dugu lotsagarriki. Ez dirudi, ordea, antziñako aiek ortan gure antzekoak ziranik, ez bait zuan bestela euskerak iraun duan aiña irauterik izango: Ueska urian, XIv mendearen erdira arte bai beintzat.

- Ibero ibaiak ezetzen duan egoalde artan eta Bureba-aldean, ots, Baskoien, Berondarren eta Autrigoiien lurretan Uriak bazirala, eta uri aiek kristauak zirala. Eta jendez aski aundiak ere bazirala

- Urietatik at kristau ote zan jendea? Lurralde aietan, "funda"etako langilleak izan ezik, ez zan seguruaski Urietatik at jenderik biziko ez da gaur beintzat bizi eta fundietako langille aiek kristauak izango zirala uste izatekoa da, jabeak kristauak ziran ezkeru.

---

<sup>42</sup> "Otros testimonios anteriores o coetneos" aipatzen ditu Larrailaga'k. Prudentzio olerkariagandik asita "Nomina Hispanarum Sedium" izeneko zerrenda arteko, lekukotza edo testigantza oiek aipatu ditugu, eta, beraien balio ezberdiñaz, mintzatu gera. V mendean egoaldeko Baskoi, Berondar eta Autrigoiien kristautasuna egiztatzeko ez dugu oien bearrik, naikoa bait zai gu Silbano'ren auzia bera.

Kristautasun orokor orren alde dagoala dirudi, ez Askanio metropolitak ez Ilario Aitasantuak, gotzaien zuzentasunaren faltak jentillen artean sortu zezakean oztopobide edo eskandalorik ez aipatzea. Askanio'k beintzat salatuko bait zuan ori Silbano'ren aurka.

- Zelaietik egora Mendi-Kate-Iberitarreko baso ta ibarretako jendea, ta iparreruntz Kantauri Mendikatearen ostean bizi ziran artzai ta nekazari txikiak kristauak ote ziran? Mendi Iberitarretan zeuden Garai (Soria) eta Oka uria. Aurrenekoaz deus ez dakigu. Oka IV mendean ere gotzai-uri izan zala uste dutenak badira, baiñan ez dute kixazko arrazoirik ematen.

Alare, Bordele'tik Astorga'rako bidean, edo bide ortatik oso bertan aurkitzen zalako, ez daiteke ezetzik borobilki deadarkatu. Mendi Iberiarretako zokoetan bizi zan basa-jendeari-buruz, berriz, batere albisterik ez dugu. Alare, VI mendean agertuko zaizkigu an anakoreta edo bakarti Euskaldun kristauak.

Kantauri Mendi-Katearen iparreko basajendeetaz oso kontuz mintzatu bearrak gera, VI mendean anakoretaz arrigarriki bete-beterik agertzen bai zaigu lurralde ura, eta bakarti aiek, logikaren araura pentsatu nai badugu beintzat, V mendean ere an aurkitzen ziralta, logikaren araura esan bait dezakegu. Ez litzake arritzekoa izango lurralde aietako jendeak, agian danak, ordurako kristauak izatea, ezaguna bait da bakarti zar aietan misio-gintzarako leia zeñen sakonki erroturik zegoan. Ortaz mintzatuak gera. baiñan ez da gaitz izango esana berriro emen oroitzea.

- Eta iparralderago. Autrigoi, Karistiar eta Bardulitarren itxasaldeko lurretan? Silbano'ren artaldeko lurra eta ardi ta bildotsak bait ziran aiek ere. Erantzunik ez dugu. Dokumentu utsetan oiñarritzekotan an jenderik bizi zanik ere ez dakigula esan bearko genduke. Soilki Aitzorrotz'eko krismoia ura! Ezer gutxi, bera, beste gairik gabe iritzi bat tajutu aal izateko.

- Ibero ibaiaren lurretako Uri, erriska, "funda" eta basoetako jende aiek V mendean Euskaldunak ote ziran? Mendi ta basoetakoak, bai. Uri ta errietakoak? Baitare. Badugu ori zalantzarik gabe oles egiteko arrazoi sendo bat. Euskera galtzeko, uri ta erri oiek baiña askoz arrisku aundiagoan aurkitzen zan XIV mendean Ueska: Aragoi'ko lur zelaiean sarturik Auñamenditik aski urruti eta Euskalerraren biotzetik urrutiago; Katalauni'ren lurralde aberats eta ordurako erromartuaren naiko alboan; Eta, egoaldera, Uri aundi, oparo, eta indartsu bat, Zaragoza, Aragoi'ko Erreñu garai artan indartsuaren uriburua antxe bertan zuala.

- Alatagutziz, XIV mendearen erdian Ueska edo Oska Uriko karriketean euskera mintzatzen zala badakigu. B'1, "a forziori", "zio bizkorragoaren eragiñez", Silberio'ren elizbarrutiko uri, erri, ta lurralde egoar aietan itze-gingo zan euskeraz V mendearen erdian. Logika oraindik logika ba'da beintzat.

- Silbano, bere kontzientziaren araura, garbi ta zintzo ibilli zala ez-baiean jartzerik ez dago. Ori uste izan zuan Ilario Aitasantuak ere. Gauza bera uste izan bear dugu Askanio'ren jardunkeraz ere, berak bere burua zuritzeko esaten duan gutzia egia ba'da beintzat. Doneilario Aitasantuaren zuzentasunaz, berriz, ez dugu kezka ibiltzeko eskubiderik.

\* \* \*

*Besterik gabe, bukaturik legoke emen KALAGURRI Baskoieko gotzai zar aren auzia. Baiñan auzi ark gure edestiaren barneko izkutuetara sartu aal izateko ain garrantzi aundikoa dalako, zillegi bezait, naiz agian geiegizko hirresarketen arriskupera jausi, auzi aren punttu batzuetara iaburki bederen begiak itzultzea. Izan ere, gure inguruko erri beraientzat ez bait da balio ederrik gabea. Sarkaldeko kristautasunaren egoera az-tertzearren luzatzen da ha "Dictionnaire d'Histoire et de Gèographie Eech<sup>s</sup>siastiques" iztegia, auzi ortaz mintzatzerakoan eta Espatii'ko Erronatar probintzien mugak ziurtatzeko hein baiño geiagotan aipatu dugun K. Larrañaga.*

*Danadala, irakurleak ez du aurrera igaro bearrik, irakurri duana naikoa bait du gure Silbano 'k sortutako zarataren gunea ezagutzeko.*

\* \* \*

Egia esan, auzi oiek danak, ots, gotzai aiek, Silbano'k elizbarruti zarretarako sagaratu zituan, ala aiek sagaratzekoan elizbarruti berriak sortu zituan berea zatituz, eta bi gotzaiek bi elizbarruti ezberdiñetarako izan ziran sagaratuak, ala aurrenekoa il zalarik bigarrena aren aulkirako sagaratu zuan, guretzat batere ajolik ez duten arazoak dira, baiñan edestilariek -- ezer argirik ateratzeke beren artean eztabaidatzen dituztenak (Ikus Larraé ñaga, 174).

Bada, Ilario Aitasantuaren gutunetan, garrantzi geiagoko xeetasunik.

Alare, ez nuke aurrera jarraitu nai, emen bertan zerbaitxo bat esan gabe:

Izan ere, Silbano'k gotzai aiek sagaratzekoan eliz-barruti berriak sortu zituala egia ba'litz, ori Euskalerrriaren lurralde ura gotzai geiagoren eta eliz-barruti geiagoren bearrean aurkitzen zalaren adigarri izango litzai-guke. Ordurarteko gotzaiak naikoak ez zirala Kristo'ren eusko-artaldea egoki zaintzeko, adierazi naiko luke. Artzai eta artegi geiago bear zala zainketa zintzo baterako. Eta orrek, Euskalerrrian kristautasunaren garaitza zenbateraiñokoa billakatzen ari zan erakutsiko liguke.

"Ba'litz", ordea, ez da edestigintzarako oiñarri ziurra. Ez dakigu gaiñera Silbano'k zenbat gotzai egin zituan: Bi, uste izan zuan Zakarias Garcia Villada'k aurreneko idazketa batean: "Silvano, obispo de Calahorra, se atrevib a consagrar anticanbnicamente a dos obispos, de lo que protesta-ron Askanio, metropolitano de Tarragona, y sus sufraganeos (Hist. Ecl. Esp. I, 1<sup>o</sup> zatia, Madrid 1.929; 299). Iru urte geroago, ordea, Aitasantua- ren "nonnullis" arek kezkatuta-edo, seguruaski bi baiño geiago izan zirala-ko ustez, onako au idatzi zuan: "El prelado de Zaragoza escribib a Askanio a fin de que pusiera coto a las irregularidades de Silvano, Obispo de Ca- lahorra, que conferfa la dignidad episcopal anticanÓnicamente a ciertos sujetos, a quienes destinaba luego a lugarillos insignificantes" (ib. 2'gn zatia. Madrid 1932; 200 or.).

Oartu al zera nolako gogo txarrez idatzirik dagoan ori? Z. Garefa Villada'k ez du esaten "ciertos sujetos" aiek gero Aitasantuak gotzai lez onartuak izan ziranik. Ez du esaten, Aitasantuak, Silbano'k aurkeztu ziz- kion arrazoiak ere onartu zituanik. Askoz gutxiago esaten digu, Askanio'k egiña gaitzetsi eta ezereztu zuala Aitasantuak. Ezta, zeinien gogor erabilli zuan, Aitasantuak      Askanio bera.

Edestilari izentsu aren jardunkera trakets ori, ¿kontzientzipetiko eragin illunen baten ondorioz ote? Baskoia izaki Silbano! Españiarra, berriz, itzal aundiko Zakarias Garcia Villada edestilari ifiakitarra. Barkatu, orrela pen- tsatzean atzipetzen ba'naiz.

Danadala, ezin isillean laga dezakegu beintzat, Silbano'ren arazo au aztertzerakoan zirriku guztietatik azaltzen zaigula Ego-Euskalerrrian ain sendo eratutako Eliz bizi aren argi dizdiratsua. Arrazoi du K. Larrailaga'k: "Lo que en primer lugar llama la atencibn al examinar la correspondencia

entre el papa Hilario y los obispos tarraconenses, es el nivel de implantación que revela la Iglesia cristiana del valle del Ebro" (ib. 174).

Egia dio, eta gaizki gelditu aal izateko bildurrik gabe esan zezakean, "el alto nivel de implantación de la Iglesia Cristiana" dala, Ilario Aitasantuak bere idazkian ikustera damaiguna (ib.174).

\* \* \*

Goazen orain Ilario Aitasantuarengana. Bi izan ziran Askanio'ri idatzi zizkion gutunak.

Lenengoan, Tarragona'tik bidalitako bi eskutitzak artu zituala esaten dio, baiñan, baita, artu duala beste bat ere: Ainzuzen Silbano'ren alde, Tarazona'ko, Kaskante'ko, Kalagurri'ko, Bareia'ko, Trizio'ko, Leiba'ko eta Bribieska'ko "uritar oment"suek eta lur-jabeek" igorri ziotena: "Honoratorum et possessorum Turiasonensium, Cascantensium, Calagurritanorum, Varegensium, Tritiensium, Liviensiuin, et Veroviscencium civitatis".

- "Honorati" ta "Possessores" oiek zer ote ziran? Uri aietan karguzuten gizonak? Epaille, alkate, ertzain-buru eta orrelako jendeak? Erroma'ren lejiotetan graduak irabazita, beren sort-errietara itzulitako euskaldunak? "Honorati" itzak "ospetsuak" esan nai bait du: itzal aundiko jendea.

Ta "possessores aiek? Nor ote ziran? "Possessor", "zerbaiten jabe" da. Erromatarrek "fundi" esan oi zieten nekazaitxe aundien jabeak ote ziran? Bai, seguruaski<sup>43</sup>.

III mendearen asieraz gero "ruralizatio" edo "Iandaratzte" bizkorra sortu zan Erroma'ko Inperioaren altzoan. Aberatsek, urietatik igesi, landetan irasi zituzten nekazaritza aundietara jo zuten, morroiez eta jopuz ingué raturik.

---

"Nekazaitxe", jatorriz, "nekazariéetxe" da. Baiñan Naparroa Garaiean ugari erabillia dalako, "nekazaitxe", orrela, laburturik, itz Euskalduna bezala, euskal-itz polita bezala, artu bear gendukeala derizkiot.



Euskalerrian ere sortu ziran orrelako "fundi" eder oietatik ugari, "ana" ta "ona" atzizkiz amaitzen diran toki-izenak, "Antoñana" k adibidez --, agian ori adierazten digutela bait dirudi.

Euskalerriko oiek, ordea... inongo jendeek irasita? Ez ote ziran euskaldunak Ilario Aitasantuak aipatzen dituan Euskalerraren egoaldeko "possessores" aiek. Zergaitik ez?

Fundi-jabeak zirala ontzat artzen ba'dugu ere, aien "fundiak" Euskalerrian zeudela ere onartu bearke dugu beintzat. Agian gaitzago eginen zaigu, Euskaldunak guk uste baiño geiago erromartu zirala ere onartzea. Baiñan egia da. Oso laister bere-egin zituzten gure asaba aiek erromatarren oiturak, eta aien biziera, eta, neurri aundiz, baita aien erlijioa ere. Gaiñera, Erroma'ren lejoetan gudari ibilli ondorean itzultzen ziran mutil Euskaldunak paketsu bizitzeko eta zekarren diruari zitu egokia ateratzeko, bide aunitz eroso gertatzen zitzaizen fundi aietako baten irasketa.

Bestalde, naiz izkuntzari dagion arloan bertan ere, Euskaldunek erromatarrei itz asko ta asko kendu, ez du orrek, alatagutziz, esan nai "anaz", "o<sup>P</sup>az" edo "enaz" amaitzen diran toki-izenak naitanaiez *beti* erromatarrek izan bear dutenik, ederki izan bait daitezke izen Euskaldunak, "ana" ta "ena" atzizki Euskaldunak ere badiralako".

---

"Badakit "anus-ana-anum", "ano-anaé"ano" ablatibu eran, bere iru kuné tzeetan latiñaren atzizkia dala; norentasuna adierazten duan atzizkia. Baiñan badakit, baitare "ana" eta "ano" euskeraren atzizki ere badirala. Eta norentasun adierazlea au ere latiñezko ura bezala. Zein dan bietatik eguneroko izketan zarragoa, euskerazkoa ala laterazkoa, ez dakit. Ez nik, ez beste iñork. Berdiñak izateak ez Nait du esan nai bata bestearengandik sortuak diranik. Euskeraz gaiñera egiazko atzizkia ez da "ana", "arena" baizik: "ana" eta "ena" eta "ano" laburpenak besterik ez dira. Galde egiozu aur bati, "txapel ori norena da"? Ez dizu "aitonarena" erantzungo. "Aitonana" baizik. Eta ume bezala mintzatzen ba'zaizu, "attunana" erantzungo dizu. Ez al ditugu guztiok orrelako laburpenak une oro egiten? "Beribil ori alkateana da" eta "gurdi ori Mikelena", adibidez. Gaiñera "ona" eta "ana" atzizkiak ez dira beti norentasun adierazleak. "Ona", izen geienetan, ugaritasun adierazlea da. "Arrona" izenean adibidez. "Ana", berriz, "Subijana", "Ormijana" edo "Urbillana", "Durana", "Maturana", "Mandojana" eta orrelako izen ugari zer izan daitezkean jakitea askotan oso gauza zailla da.

Uriak berriz, Ilario Aitasantuak aipatzen dituan Uri aietatik aurrenekoa, Tarazona, jatorriz Baskoia zan, naiz, agian, gero erdi Baskoi erdi Keltiber biurtu. Kaskante, Baskoia zan; Trizio, Bareia ta Leiba, Berondarrak. Eta Bribieska, Autrigoia.

Guretzat askoz kilikagarriagoa dana: ¿zer ote ziran uri aiek Elizaren jerarkian? Parrokiak? Gotzai-uriak?

Mota guztietako arrazoiak jaso ditzazkezu:

Batzuek, danak gotzai uriak zirala esango dizute. Ori uste zuala, dirudi, Garcia Villada'k ere, Silbano'k sagaratutako "nonnulli" gotzai aiek aipatzean ikusi dugunez. Oroituko zera ba nola esan digun, Silbano'k gotzai aiek "a lugarillos insignificantes" bidaltzen zituala: Ilario Aitasantuaren gutunean agertzen diran erri aietara, alegia.

Beste batzuek, berriz, au esango dizute: Kalagurri eta Tarazona gotzai-uri zirala eskier dakigun gauza dala; baiñan bi oiek izan ezik, beste guztiak parroki utsak izanen zirala. Ta auena duzu seguruaski arrazoaia. Ordurako, Eliza bizkor orok, parrokiak ornitu bait zuan, kristauturik zeukan bere lurraldearen zatia. Eta, ikusi dugun lez, Eliza bizkorra zan Kalagurri'ko Eliza, eta ederki kristauturik zuan bere barrutiaren egoaldea.

Ta... bere barruti orren iparraldea? Erantzun ziurrik ez dut, naiz Aitzorroz'ko krismoi ura oroimenean ondo erroturik gorde, eta Araba'ren mendi-zokoetako lekaide bakartiar aiek azturik ez euki.

\* \* \*

Ezberdiña izan zan Ilario Aitasantuaren Epaitza. Askanio metropolitarragindako lenen gutunean, au dasaio:

- Ez daitekeala kanon-legeek agintzen dutena urratuz deus egin. Orregaitik, Tarragona'ko eliz-probintzian Askanio'k jakin gabe eta Askanio'ren baimenik gabe ez dezakela iñork gotzairik sagaratu;

- Gotzai bati zillegi ez zaiola, bere Eliza (elizbarrutia) utzita beste batera aldatzea.

Irene&k, (ots, Askanio'k kanon-legeen aurka Bartzelona'ko gotzai izendatutako arek) Bartzeiona utzi, ta bere lengo Elizara joan bear duala. (Ez dago, dakusazunez, Askanio'k Bartzelona'n egindakoarentzat barkape-

nik); Aren ordeaz, Bartzelona'rako beste gotzai bat sagaratu bear dala, "de clero propio", "bertako elizgizonen artetik artua".

- "Nec Episcopalis honor hereditarium jus putetur", ots, "iñor, gotzaitzaren duintasuna ondare-legez, au da, erentzi-legez, artu daitekeala uste ez dezan. Ala utzi bait zuan Nundinarius Bartzelona'ko gotzai zanak bera ilda bere Aulkian Ireneo ipintzeko eskaria).

- Artu dituzten Elizetatik kenduak izan bear dutela kanon-legearen aurka sagaratutako gotzaiak. (Ez ordeaz Silbano'k sagaratuak, laister ikusiko dugunez).

- "Jakín beza Ireneo'k Bartzelona utzita bere lengo Elizara itzultzen ez ba'da, eskornikatua izango dala": "Removendurn se ab Episcopale consortio esse cognoseat".

Askoz gogorragoa da bigarren gutunean Aitasantuaren izkera:

Adibidez, aurreneko gutunean esanik utzi zion gotzai-sagaraketaren auzietan "erritarren eskaria" ez dala baliorik geiena duan baldintza, "nec tantum putetis valere petitiones populorum"; Askanio'k bere aurrenekoan Silbano'ren sagaraketak "errien eskaririk gabe", "nullis petentibus populis" egiñak izan zirala esaten bait zion.

Askanio'k, bigarren gutunean, bere burua zuritzeko, "Bartzelona'ko erriak", "plebs ejusden civitatis", guziak ala eskatzen ziolako ezarri zuala Ilario Bartzeiona'n, idatzi zion Aitasantuari. Ona, Ilario'renBa erantzuna:

"Arriturik nago; oso arriturik gaiñera. Bartzelonatarren eskariak eragozteaz zure eginbearra. Eginkizun ori betetzeko, ordeaz, ez zenun ezer egin. Alderantziz, gaizki egin duzuten ori nik ontzat artzeko eskatuz idatzi didazu".

Ona Aitasantu beraren itzak: Et rñiramur admodum dilectionem tuam Barcinonensium petitiones non solum nulla auctoritate retudisse, verum etiarn directis ad nos litteris, consurnmationem pravi desiderii postulasse".

Gero, Askanio'k, bere jardunkera babesteko, beste arrazoi askoren artean, aitoren semeen eta eliz-probintziko gotzai geienen eta onenen

---

"dilectionem tuam": legorki "zuk" ez baiña "zure maitasunak", ots, "zure karitateak" = "dilectionem tuam", dio Aitasantuak txukunki. Bazuten Eliz-Buruzagiek orrela mintzatzeko oitura.

baietza ta izenpeketak, aipatzen zizkion Aitasantuari. Onek, legor, itz auen bidez eratzuten dio: "Ezjakifien kopuruak ez du errurik arintzeko balio": "tanquam culpae minuentur excessus cum multitudinen imperitorum".

Eta bereala, Askanio'k bere burua babesteko bigarren eskutitz artan darabilkian arrazoiketak burua babesteko baiño zikintzeko geiago balio izan diola adierazi naiez-edo, onako auxe esaten dio Aitasantuak, herekin -- Askanio'rekin bat egin zuten gotzaiei-buruz: "Zure jerarki-maillari ta zure duintasunari dagokien lez, zuk, beste gotzai oiei, ez, jarraitu, irakatsi baizik, egin bear zenien"; irakatsi; alegia, nola jardun bear duten irakatsi.

Legiztiaren aldetik oso zorrotza, eta elertiaren aldetik txit dotorea da Aitasantuaren esaldi ori lateraz: "Pro loco et honore tibi debito, ceteri Sacerdotes docendi fuerant, non sequendi".

Negar egin zuan ezpairik gabe, Askanio Ispanietako uririk nagusia zan Tarrako'ko Goigotzai Metropolitanak, Erroma'ko Aitasantuak bidaltzen zizkion itz oiek in?,kurtzean.

Españi'ko edestilariak beintzat, batez ere apaiz eta prailleek, ez dizkio- te Ilario'ri, San Ilario'ri, itz oiek barkatu. Entzun edestilari auen artean ospetsuenetako batek, Ricardo García Villosiada'k, zuzendutako "Historia de la Iglesia Española"n Manuel Sotomayor Muro'k diona: (kaka artean nere sartuko dut nik):

"Ante un sfnodio romano compuesto por 48 obispos y celebrado el 19 de noviembre del año 465, el papa Hilario da una visidn sombrfa de la situacidn del episcopado hispano. Habla Hilario del nacimiento de nuevas e inauditas semillas de perversidad: de muchos obispos que al sentirse morir designan sus propios sucesores, como si el episcopado fuese algo hereditaria". (Ez. Aitasantuak ez du, ori egiten duten gotzaiak "asko" diranik esaten; "nonnulli" baizik: "batzuk". Gaiñera, "perversidad" eta "de muchos"en arteko bi punttuak itzultzaille españiarrak ipiñiak dira. Aitasantuak or "denique", "azkenik" edo "arrezkero" bat ipintzen du. Ez dira berdin). Entzun Aitasantuari:

"Nova et inaudita (sicut ad nos missis de Hispaniis Epistolis, sub Gerta relatione pervenit) in quibusdam locis perversitatum semina subinde nascuntur. Denique nonnulli episcopatum ., non divinum manos sed hereditaé rium putant ense compendium": ("Ispanietatik iritxi zaizkidan eskutitz ziu- rrek jakiñerazi didatenez, an, iñoiz entzun gabeko gaiztakeriaren azi berriak

sortzen ari dira. Arrezkero, <sup>2</sup>otzaitza, Jainkoagandiko doaia ez haiña ondarrez jaso leikean zitua oi da batzuen ustez").

"Athrtunadamente para las Iglesias hisOnicas de aquella poca, Hilarrio exagera notablemente: en la actualidad sus frases serfan ealificadas, sin ninguna duda, como sensacionalistas. Sus afirmaciones se apoyan en una carta de Askanio, obispo de Tarragona, que es también de los denuls obispos de 1a Tarraconense, carta que se cita y se lee en el sinodo romano y que habla solamente de un caso de designación de sucesor" ("Exagera notablemente". Bai ote? Ez dakit Nondik daki ori edestilari españiar onek? Nondik daki Aitasantuaren oiñarria, ainzuzen soilki Askanio'ren eskutitza izan zanik? Aitasantuak, gaiñera, eskutitz hatean ez baiña bat baiño geiagotan oiñarritzen dala bait dio; "missis de Hispaniis Epistolis": "Ispanietatik bidali zaizkion eskutitzetan").

Eta ori naikoa ez ba'litz, "gotzai asko, "pierique", dirala, dio, iltzear daudelarik, beren ondorengoa aukeratzen dutenak". "Ori egitean, legezko autaketaren zai egon gabe, erriari dagokiona autaketaren zai egon gabe), gotzaigoa, ildakoak, zerbaitegaitik zezaiokean zorra ordaintzearren aukeratutako norbaitei ematen zaio".

Beraz, argi eta garbi, erriaren naia izan bearrean, ilzorikoaren naimenkeria gertatzen zala, dio Aitasantuak, gotzai herriaren autale. Entzun, ordea, Aitasantu berari:

"Nam, plerique sacerdotes in mortis confinio constituti, in locum suum feruntur alios designatis nominibus subrogare; ut scilicet non legitima expectetur electio, sed defUntl eratificatio pro populi habeatur assensu".

Zergaitik ez ote dute Sotomayor Muro'k eta Garcia Viloslada'k Ilario Aitasantuaren itzaldiko atal ori argitaratu?

Aitasantuaren itzak berenez duten balioa gordetzen ba'dute ez dirudi pekatu ura Askanio'rena bakarrik zanik. Alatagutziz, esan hearra dugu, onako galde au izugarri kezkarria gertatzen zaigula, Erroma'ko Sinodo aren azkeneko itzak irakurri ondorean.

Ona itz oiek: "Ut auten diotse Aitasantuak sinodokidei -- quod ad nos perlatum est, ad vestram etiam possit perevenire notitiam, Hispanorum Fratrum et coepiscoporum nostrorum scripta legantur. Paulus notarius recitavit".

Euskeraz: "Neri bidalia zuek ere jakin dezazuten, irakurri bitez, gure anai gotzaikide ispaniarren gutunak. Paul bereterrak irakurri zituan".

Eta, ona orain emen nere galdea; Ilario Aitasantuak irakurtzea agindu eta Paul bereterrak irakurri zituan gutun aiek zein ziran?: Askanio'renak bakarrik? Ala, Askanio'renetaz gaiñera Euskalerriko "honoratorum eta possessorum" "aitorrenseme ta lur-jabeenak" ere bai ote? Agian Silbano'k idatzi-bide ziona ere bai? Guzti oietaz gaiñera Aitasantuak aipatutako "plerique Sacerdotes" aienak ere bai? "Plerique" aiek Askanio'rekin batera onen bi eskutitzak izenpetu zituzten Katalauni'ko gotzai askaniotar aiek ote ziran?

Ez dirudi. Ez bait da ori, itxuraz beintzat, Aitasantuaren itzen zentzua.

- Nor ote ziran ba "plerique sacerdotes" aiek? Ispaniarrak izan bear zuten naitanaiez, sinodoan ispaniarren eskutitzak bakarrik irakurri ziralako: "hispanorum fratrum coepiscoporum scripta legantur".

Bai ote zan Salduba'tik Ibero Ibaia-gora, gaur ezagutzen ez dugun gotzai ta gotzai-uririk?. Bai, erantzungo dizut, "In vicinia positus episcopis", ots, "inguruko gotzai" aiek gogora erakarriz. Zenbat ote ziran? Ez dakit. Baiñan bai beintzat bat bi eta iru baiño geiago, ori bait da Askanio'ren esaldi guziaren zentzua. Zer uri ote ziran uri gotzaidun aiek. Ez dakigu. Baiñan bazirala bai. Askanio ta Askanio'ren esaldi ura ontzat artu zuan Aitasantua bera gezurtizat utzi nai ez ba'digu beintzat.

- Ezaguna dugu Askanio'ren "pekatua", Aitasantuak aurpegira botatzen diona: "Se trata del santo obispo de Barcelona Nundinario. Antes de morir habia expresado su deseo (ori besterik ez ote zan?) de que le sucediese en la sede Ireneo, quien ya antes habia sido creado obispo, con aprobaci6n del metropolitano de Tarragona, de un municipio de la di6cesis de Barcelona ("municipio" ori nondik atera duan Sotornayor Muro'k ez dakit. Aitasantuak "Ecclesia", elizbarruti, esaten dio "municipio" orri).

"Ascanio y los obispos tarraconenses explican a Hilario que Ireneo era digno del cargo y que ellos hablan aprobado la elecci6n teniendo en cuenta el juicio de Nundinario, digno de toda consideraci6n, y la opini6n de todo el clero, el pueblo y principales de Barcelona, que lo habian apoyado". ("los obispos tarraconenses" orrek elizbarruti ortako "gotzai danak" esan nai du, Askanio'k berak esan zuanez ordea badakigu danak ez baiña "optimi et plurimi", "onenak eta geienak" bakarrik izan zirala Askanio'ren gutun ura izenpetu zutenak).

"La respuesta de Hilario fue tan tajante y desorbitada como lo era su generalizado juicio sobre la situaci6n en Espa~a: reprende a los tarr:..n-

ses y sobre todo a Ascanio, por haber aprobado la eleccidn; manda que Ireneo vuelva a su antiguo municipio (Aitasantuak bere Elizara, "ad propriam Ecclesiam" esaten du) bajo pena de deposiciin del episcopado' y que se ordene en Barcelona un nuevo obispo tomado de su propio clero `para que el honor del episcopado no se piense que es un derecho hereditario'. Recuerda tambi&I que en cada Iglesia no debe haber mas que un obispo" (1.c, I,d 380).

Aitasantua España'ko gizarte-giroaz ari ba'zan mintzatzen Cdesorbitado el generalizado juicio sobre ia situacidn en España"? Ikusi dugu nola zegoan "Ispani"ko giroa Silbano ta Askanio'ren denboran. Urtez urte eman dugu orduango gertakizun larrien berri. Ori zuk eta nik orain bezala eza gutzen zuan Ilario Aitasantuak, batez ere Silberio'ren adiskide aien eskutitza jaso zuan ezker. "Desorbitado" ta "generalizado", ots, "sakontasunik gabea" al zan aren Ispaniei-buruzko ezaguera? Ez beintzat alderdi ortatik47:

---

<sup>46</sup> "Deposicithi " ez baña "eskomika" itzuli dut nik goraxeago, nere ustez kanoniztiaren araura Aitasantuak erabillitako "removendum ab Episeopale consortium" arek ori esan nai dualako. Orrela itzuli du "Dictionaire de The'ologie Catholique" k ere: "sera excommunie".


Silbano'k bezala, denbora larriak ondo ezagunak zituan Ilario Aitasantuak ere. I Leon Aitasantuaren goidiakono bezala bizitu zuan Atila'k zekarren arrisku ikaragarria, eta ikusi zuan nola Leon Aitasantuak, bere itzen bitartez, ari Erroma'ko sarrera eragotzi zion, Leon'en ordezkari lez 449'an monofisitek bilcluerazitako "Efeso'ko Lapurkeria" esan oi zaion kontzilioan izan zan. Andik, ordea, il egin nai izan zuten ereje monofisita amorratu batzuegandik igesi, Donibane Ehangelariaren illobian izkutaturik gorde aal izan zuan bizia. I Leon "Aundia" 461'etik 468'ra izan zan Aitasantu. Europa guztia-zear zebiltzan barbaritarrak. Itali'n, Inperio'ko gudalburu nagusi lez, Suehitar ariozale bat, Rizimier, zan egiazko Jaun eta Jabea, Aren babespean Eliz bat eratu zuten, gotzai ta guzti, ariotarrek Erroma her-berean. Orduan, beste ereje batzuek ere, "mazedoniarrek", Antemio inperatoreak baimena emanda, eliz bat eraiki naiean asi ziran. Igande batez, ordea, ekiten dio jende guztiaren aurrean Ilario'k inperatoreari! eta makurtu zuan inperatoreak burua. Ez zan geiago, Erroma'n erejeen elizik eraiki. Bildurrik gabeko gizona, fedearen babesle tinkoa, pakezalea, eskomikapena erabiltzearen zaletasunik gabea... ala

piskoholoro edo 6-orzid,;(,en

5'11-BItvo'leri

nro/2.11 lQu t ' ( ' ) rrr ur W ( ' )

nt a 1 14r- r-z-1' G Lmi k 2.2' Zan



fCkarit'o Piet;-r,f,oe'(-«k

i° r-c.", ta.fqn tu4 Ic 6,tz dy)4

Z e(i-Q .Lert. ':a

-->1142,94 f.a.r.t

6-r <<

6 .


2tPr

13+ , P 2.

e

konpondu zuan, paketsu, oraindik goidiakono zala, Leon'en izenean, "Pazko-Egunaren Auzia". Pazkoa noiz ospatu, zearo asarreturik bait zebiltzan Çortaldeko ta Sartaldeko kristauak.





Or. Luralde oren erdian zegoan

fiGreleyi

Q.



## V MENDEAN EUSKALERRIKO ETA EUSKALERRIAREN INGURUKO ELIZBARRUTIAK

V mendeko Euskalerra Zar eta oraindik aski edatsu artan Kristautasuna nola ari izan zitzaigun zabaltzen ezagutzea da gari liburu onen zioa. Ori, beste edozerk baiño obeki orduango Euskalerra aren lurraldeetan eta lurralde aien inguru urbilletan eraikirik zeuden elizbarrutien ibillerak erakutsi dezaiguke.

Asmo orren bidetik, Euskalerra aren barrungo eta inguruko gotzai-uri axtiak ikertu nai nituzke atal ontan. Azkeneko auetatik batzuk V mendean oraindik Euskaldunak edo elebidunak izan bait zitezkean oraindik, eta beste batzuek, naiz, bearbada, euskera karriketan galdurik euki, beren elizbarrutietako mugen barruan Euskaldun baserritarrik ugari zan bait zezaketen oraindik; edota, antziñako Euskalerra Zabal aren aiñ alboan zeudelarik, euskaldunen artean eragiñik aski beintzat izan zezaketelako.

Ez zan h oraindik V mendean, naiz mende artako gizarte-giroa ain traketsa izan, erromateko Eiizek beren elizkideen bitartez uritik-urira aposé toladutzan lan egiteko izan zuten kementasunik legortu. Gaiñera, ordurako, IV mendeaz gero asia zuan ainzuzen Elizak urietatik kanpoko landa-jendearen ebangelizaketa sakona!

Orregaitik, Euskalerraaren inguruko Elizetan -kristautasuna sendo ta bizkor agertzen ba'zaigu, sinistekoa da Eliz artako bizkortasunaren eraginmena bere inguruetako Euskaldunengana iritxiko zala.

Beraz, ezin utzi dezakegu aipatzeke gure inguruko Eliz aien kristaukera.

Orain-oraintxe ikusi dugu Eliza bee-egoaldeko Euskalerraian zeiñen ederki ta zahalki edaturik zegoan ango Baskoien, Berondarren eta Autrigoien artean.

Baiñan ain kristauturik ikusi dugun tokialde ortatik at, asko luzatzen zan iparrera ta sortaldera V mendeko Euskalerrria:

Egotik Iparrera, Estrabon'ek IDUMEDA izendatu zuan eta gaur Iberi-tarra esaten zaion Soria'ren ertzeko mendi-katetik Garona ibai bulartsuaren ibar oparoetaraiño. Naiz soilki mendiz eta basoz, iristen ote zan Dordoña'-ren lurretaraiño?

Sarkaldetik Sortaldera, Autrigoen eta Kantabritarren arteko muga-aldean itxasora sartzen dan Ajo (dokumentuetan Axo, ots, Atxo) izeneko aitzetik, (Bizkaieraz "atxetik") Mediterran edo Lurrarte itxasoaren ingururaino, edota, mendiz-mendi, oraindik baita agian itxaso onen uretaraiño ere.

"Hemos de suponer, basndonos en datos ciertos que el euskera Ilegaba hasta las cercanías de la costa del Mediterraneo por el Pirineo. Estos datos se basan en los estudios recientes sobre el substrato pirenaico y la certidumbre de haber pasado los montañeses catalanes del vascuence al catalthl sin haber aprendido el latin ("Ene.Gen.IIus. Pais vasco", XII, 343-344).

Nola ote zegoan kristautasuna Euskalerrri Zarraren zabaltasun artako lurraldeetan?

Akitani'ko landa ordokietan adibidez, edo Ueszarren, Ilergeten eta Zerretiarren mendi garaietako aran estuetan, eta Autrigoi, Karistiar eta bardulitarren lurralde-barrenetan? Adibidez, erromateaz gero ainbeste esamesen gai izan dan "Saltus Basconum" edo "Baskoien Mendi-Basoetan ote zebilkgun Kristautasuna?

Ori logikoiki usmatu aal izateko, ez bait dugu oraingoan ere dokumentu askorik aurkituko so dagiogun V mendeko eusko-gotzaidiari, Euskalerrri aren alboko gotzai-urietatik asita.

Iru ziran gotzai-uri oietatik, aundienak, eta ziurraski gure asabengan eraginmenik aundiena izan zutenak: Bordele, Tolosa, eta Salduba. Azkene-ko au, bearbada, iruetan galantena eta eraginmentsuena.

Iruetako gotzaiek naitanaiez izan zituzten beren zaintzapean Euskaldun-talde mardulak. Eta iru uri aietako arresien barruan ere ugari izanen zituzten euskeraz mintzatzen ziran elizkideak. Bordele'n eta Tolosa'n, azoka-egunetan, nere ustez gaur Donosti'ko karrika zarretan aiña euskera entzuingo zan noski, eta Salduba'n ere bai beintzat gaur-egungo Iruña zarrean aiña.

Salduba ez zan beñere Euskalduna izan, naiz sarkaldetik eta iparraldetik euskera bere ofletaraitio iritxi.

Baiñan euskaldunak izan ziran ezpairik gabe beren sorkuntzako garaietan, baita askoz geroago ere, Tolosa ta Bordele. Zer esanik ez Auñamendiaren malda bietako uriak.

"Por lo que se sabe y se barrunta en la historia que sigue (siglos V al IX), muchas ciudades conservaron el euskera probablemente en estado de biligüismo con el latín, pues de otro modo no se explica que persistiera en Huesca hasta por lo menos bien entrado el siglo XIV" (id.ib)

Goazen ba, bai Ispanietan bai Galietan, Euskaldunen artekoa Kristautasunaren zabalkuntzan zer ikusirik izan zezaketen V mendeko gotzai-urien azterketari asiera ematera:



## GALIETAN

### BORDELE

Bai egoaldetik, seta baita agian orduan iparraldetik ere?, seguruaski oraindik Euskaldunik aski bazuan lurraldearen erdian zegoan V mendean Uri indartsu ura, Nobenpopulani izeneko probintziaren eta Euskeraz-Mintzaten-Zan-Lurraldearen mugak ez bait ziran berdiñak: Garona ibaiaz aruntz Bordele'ko elizbarrutia zanaren iparraldeko errientzat, VII mendean ipintzen du Gerhard Rohifs'ek erromantzera igaroko diran lenen bereiztasun batzuen sorkuntza. Berdin Bordele'k Garona'ren ego-ibarrean zuan auzoarentzat ere ("Atlas Linguistique de la Franee", Carte I).

Bordele'ren iparraldean ez ezë, Garona ibaieko ipar-aranaren luzaro guztian VII mendean ipintzen du Rohifs'ek sorketa ura. VIII'ean, berriz, Garona'ren sortaldeko zatian, Tolosa uri nagusitik goruntz eta beeruntz, eta Tolosa beraren alboetan.

Une artan, ots, sorketa ori gertatzerakoan, ¿zer ote zan erri aietako jendeen izkera? Latíña? Bai kulturaz jantzitakoen artean. Baiñan nekazari ta langille jendearen artean? Euskera, nere ustez beintzat, naiz ori eskierki aitortu aal izan ez.

Euskaldun-sail eder baten artzai izan zitzaizkigun, dirudianez, Bordele'ko goigotzaiak. Aietako bosten aipua damaigute dokumentuek, naiz bostetako bat, Seberino Donea, guregana kondairazko ganduz aski lausoturik iritxi.

Ona gure Erriaren zati bateko Artzaiak izandako beste lau aien izenak:

404'aren inguruan AMANDUS Donea. Bere aurreneko aldiz. Amando bi bider izan bait zan, kondairak dionez, Bordele'ko Goigotzaia. Ez dakigu jaiotzez nongoa izan zan. Bordele bertakoa eskierraski, aren aurretik Bordele'ko gotzaia izan zan Delfin Doneak bere jauregian azi ta ezi eta azkenean

apaiz sagaratu ere bait zuan. Bordeletar izateaz gaiñera, Euskalduna ere bai ote zan? Erantzunik gabe gelditu bearko duan galdea.

Ez zan beintzat nolanaiko gizona. "Il suo fervore apostolico si manifestò contro i pagani e gli influssi dei priscillianisti di origine peninsulare" ("Bibl.Sanet").

Baziran beraz jentillak Bordele'n eta Bordele'n inguruko lurretan. Eta non ez, V mende artan. Baita Erroiaa'n bertan eta Erroma'ren inguruetan ere. Zer esanik ez Itairren beste lurraldeetan. Oroi, Donebenito'k bere auzoko jentillak kristautzearren egin zituan saioak.

Priszilikeriaren eraginmena izan zala diosku Iztegi orrek **Donamando**'k borrokatu zuan bigarren etsaia. Gogorragoa da Dictionaire D'histoire et de G,ographie Ecelgiastiques"ek damaigun garai artako priszilikeri bordeletarraren ikuspegia: "Saint Amand s'aplica avec un grand zele d&ruire le paganisme et l'herésie priscillianiste, qui Usolaient alors

de Bordeaux": "Arreta aundiz saiatu zan, orduan Bordele'ko Eliza zearo pozoiturik zeukaten jentilkeria ta priszilikeria borrokatzen".

Ezbaiean ipiñi ez daitekean gauza dugu noski, priszilikeriak oso arrera ona izan zuala Bordele'n eta asko zabaldu zala bordeletarren artean. Ez zan noski txantxetako gauza izan Bordele'n, eta, bereiziki, lendik dakigun lez Akitani Euskaldun guztiko Metropoli zan Elusa'n Prisziliano'ren erejia.

Donamando gizagaixoak beintzat, ereji aren aurkako bere borroka zail neketsuan, ziur "uste zuan zearo porrot egin zuala, Jainkoak dan ororentzat duan Ardura Doneak laguntzaille Doneseberin bidali zionean": "Saint Arnand &sesprait d'en venir a bout, lorsque la Providence lui envoya un aide en la personne de Saint Severin" (ib).

Priszilikeria nolako arintasunez zabaldu zan, eta Euskalerrira nolako sakontasunez sartu zan begiraketa labur batez ikusi aal izateko gogora ditzagun onako urtegarren auek:

Prisziliano, 375'aren inguruan asi zan "gorputzarentzat atsegiña zitekean orori uko egitea erakusten zuan bere dotriña zabaltzen", "to propagate a doctrine of absolute renunciation of all sense pleasure" (Ene. Brit.), 380'ean izan zan aren aurkako Kontzilioa Zaragoza'n Euskalerr; Zarraren egoaldeko muga-mugan. 384'ean Bordele'koa --aren aurka egiña au ere Euskalerrri Zarreko iparraldearen muga-mugan.

(Ar ezazu zintzo eta gorde ezazu sendo zure oroimenean, esan-berri dugun ori, erromateko Euskaldunen adimen-zabaltasuna noraiñokoa izan



zan igartzeko eta aztutzeke gordetzeko: Bi uri aiek Euskaldunetz beterik bait zeuden IV mendean ezpairik gabe, eta oraindik Euskaldun ziran lur-puska zabalak bait zituzten biek beren Elizbarrutien altzoan. Eta Elusa, berriz, priszilikeriari arrerik onena egin zion Uria, zearo bait zan euskalduna!)

Gure Arbasoak, adimenez itxiak eta gogoz berenkoi setatsuak ez baiña gogamenez zabalak eta adimenez irikiak, baita irikiegiak ere izan ziralako adigarri bikaiña guzti ori!

Ainzuzen gure Asabak zabalegiak zirala adierazten digu priszilikeriaren aurkako bi kontzilio ospetsu aiek Bordele'n eta Sa l duba'n, ainzuzen Euskalerriaren goiko eta beeko mugetan ospatuak izate utsak ere. Goitik-beera Euskalerrri guztira priszilikeria uste dugun baiña geiago barreiatu zalako, dirudianez).

385'ean galdu zuan Prisziliano'k bizia, Treberis'ko epai-maiak eriotzez zigortua izan ondorean.

Ogeitamar urte geroago Bordele, "priszilikeriz erabat pozoiturik aurkitzen zala, aitzintxe iragarri dugu ("Dic.Hist.Géog.Eecl,"), eta Donamando gotzaia bere saiaketa guztiak alperrikakoak zirala ikusirik ereji ura menderatzeko itxaropen oro galdurik zeukala.

Ain galdurik ere! Bear-bearrezkoa izan bait zitzaion ereji aren aurkako borroka jarraitzeko, Donseberino gotzaia, aingeruen aginduz gaiñera, Treberis utzita, Bordele'rairio laguntzaille lez al zuan azkarren etorri izatea.

Eta etorri zitzaionean, pozik, aren eskuetan utzi zituan ereji-mota menderakaitz aren aurkako ekintza oro eta ardura guztiak. Oridalata agertzen zaigu epe luze batez dokumentuetan Seberino Bordele'ko gotzai bakarra lez, naiz oraindik Amando'k bizirik jarraitu, eta, Seberino il ondorean ostera, bigarren aldiz, Bordele'ko elizbarrutiaren jaurtza bere eskuetan artu.

Ori, Bordele'n! „Zer gertatzen ote zan priszilikeriaren kutsuz askoz zikinduagoa aurkitzen zan Elusa'ko urian, Akitani Euskaldun guztiko Metropoli Euskaldunearan?

A! Len ere esanak gera, bañan esan dezagun berriro, Prisziliano'ren dotriñak Euskaldunen artean jaso-bide zuan arrera on orrek zerbait esan nai digula:

- Ordurako ongi, asko eta len-leenagotik zabaldurik zegoala kristautasuna Euskaldun aien artean.

- Erromateko Euskaldun aiek gogo-arazoetaz asko arduratzen ziran gizakumeak zirala.

- Kanpotik zetorzkien gogoeta berriei-buruz, txit gizakume irikiak zirala; baita, agian, irikiegiak ere. Ez beintzat, sinisteezai nai izan diguten bezala, kanpotikoa zitekean orori bizkarra eman ez bizi ziran adimen ertsiko basapizti jakintza berri orenen etsaiak.

\* \* \*

Amando gotzai bordeletarrak Nola'ko Paulin Donearekin izandako adiskidetasuna ez da batere arritzekoa. Bordeletarra bait zan au ere. Gaiñera, Amando izan bait zuan kristautasuna erakutsi zienetako bat: "Saint Amand partage avec Saint Delphin la gloire de la conversion du futur 6,eque de Nole": "Berea du, Donamand'ek, Donedelfin'ekin batera, Nola'ko gotzaia izanen zana kristautu izateari dagokion aintza".

Ez da uste berekoa, Paulino bere emazteak kristautu zuala dion Llorca espainiarra: "Se dirigid a Barcelona, donde se desposb con una noble cristiana llamada Tarasia, (°agian Alcala de Henares'koa", Espasa Iztegiak dionez). Convertido por ella al cristianismo, su noble corazdn y su espiritu de poeta se sintieron profundamente atrafdos por la belleza de la moral cristiana" (1.e. 576).

Dakusazunez, "Dictionnaire d'Histoire et de Ge-ographie Ecclesiastiques"en iritziz eta baita Llorca'ren iritziz ere -- jentilla izan zan lenengaztarroan Nola'ko Paulin Donea. Sendi kristau bateko semea, ordea, beste batzuen iritziz, eta jaio bezain laister izan omen zan bere gurasoek Nola'ko Felis Doneari eskeiña. Soilki garai artako oitura orrelakoa zalako bataiatu omen zan berandu:

Ez dabil, oker "GER" iztegia onako au esaterakoan: "Los datos del comienzo de 1a vida cristiana de Paulino de Nola parecen contradictorios: por una parte su familia lo habrfa ofrecido a San Felix, por otra sabemos que fue bautizado por el obispo Delfino".

Nere ustez, Iparratnerika'ko "The Catholie Encyclopedia"k ongien aurkezten digu Paulino'ren bataioko auzia: "He married a Spanish lady, a Christian named Therasia. To her, to bishop Delphinus of Bordeaux and his suceessor the presbyter Amandus, and to St. Martin de Tours, who had cure,d him of some disease of the eye, he owed his conversion".

Euskeraz:

"Terasia izeneko andre kristau españiar batekin ezkondu zan. Andre oni, Delfino Bordele'ko Gotzaiari, gero onen ondorengo gotzaia izanen zan Amando Done apaizari, eta begietako gaitz bat sendatu zion Turona'ko Martin Doneari zor die Nola'ko Paulino'k kristau biurtu izatea".

Xeetasun bati-buruz beintzat, edestilari guztiak agertzen zaizkigu bat egiñik: bere aberastasun oparoari-buruz, aizuzen: "Il appartenait a l'une des familles les plus consiUrables de l'Empire, qui possMait d'irnmnses domaines, non seulement en Gaule, en Bordelais, mais aussi en Italie, en Carnpanie" (Griffe, I.e. 374).

Euskeraz:

"Bere sendia, Inperioko sendirik ospetsuenetakoa zan, eta, bai Galieta-ko Bordele-aldean eta bai Itali'ko Kanpani'n, izugarriak ziran bere aberastasanak".

Itali'ren egoaldean aurkitzen da Napoles uriburu duan Kanpani; Kanpani'n dago Nola izeneko uria; Noia'n, berriz, orduan alako jaiera aundia zitzaion Felix martiri donearen illobia. Iñor gutxik izan zion, ordea, Paulino Done bordeletarrak izan zion bezain aundia. Bordele'n, jaiotzerakoan, bere gurasoek, Bordele'tik, Done ari eskeiñia izan zalako? Orrek, egia izatekotan guraso aiek ere Felix Doneari eraspén eta zaletasun aundia ziotela esan naiko luke, ta Paulino sendi kristau baten semea izan zala diotenen alde etorriko litzake.

Are geiago, "hataioa artu aurretik ere", "avant inme d'etre baptisC naiz 26 urteko mutil gaztea izan, Kanpani'ko Jaurle zalarik, "il frquenta le tombeau de saint "Donefelis'en illobira erromes joaten zala gogora ekartzen ba'dugu" (ib).

Naiz luzetxoegia, bedi esan dugun guzti ori, Bordele erdi-Euskaldunean jaio zalako erdi-gurea lez ar dezakegun Done olerkari aren omenez esana. Naiz, Bordele'n jaiotako gure Done ori, bere olerkietako hatean Euskalerrria asko maite izan ez duten guztiei Baskoien gizabideaz oker mintza aal izateko zirriku bat iriki.

Itzuli gaitezen ordea Amando Donearen ekintzetara.

Done Seberino Bordele'ra iritxi zanez gero, ez da Amando'ren izenik aipatzen, ostera berriz Seberino ilda, Bordele'ko gotzai berr-agertzen zai-  
gun arte.

Urte oietan zer gertatu zan ez dakigu. Bere gotzaigoa utzi ta bakartasunera izkutatu ote zan Amando? Eta, orregaitik, epe ortan Seberino izan ote zan Bordele'ko gotzai bakarra? Ala, Amando izan ote zan epe ortan ere Bordele'ko gotzai bakarra, Seberino soilki gotzai laguntzaille lez artu zualako? Ez da erantzunik.

410'aren inguruan, Severinus Donea agertzen zaigu dokumentuetan Bordele'ko gotzai. Orain-oraintxe itzegin dugu Amando'ri priszilitarren aurka laguntzera etorri omen zitzaion gotzai ortaz. Ala ere, ez da erreza bere nortasuna jakitea: "11 problema dell'identificazione di questo personaggio dibide gli storici che propongono residenza di due o tre omonimi nello stesso periodo (Bibl.Sanct.)".

Bi edo iru oietako bat Treberis'koa omen zan, andik Akitani'ra, ots, Bordele'ra, aingeruen aginduz etorria, Benantzio Fortunato'k dionez,

Turona'ko Gregorio'ren ustez, ordea, Koloni'koa zan aingeru abeslarien ikuspena jzan zuan Silberio, eta Donemartin il zan une ber-berean gertatu omen zitzaion ori.

Treberis'ko ura, Akitani'ra, "per castigare il suo populo indocile" izan omen zan aingeruek bidalia. Ori esaten omen du Benantzio Fortunato'k (Bibl Sanc.).

"Populo indocile" (azpimarraketa, nere): orra or Euskalerrira ain nabarmenki sartutako priszilikeriaren aipamen izkutua! Uste oi dan baiño larriagoa izan zan noski eusko-priszilikeriaren arazoa. Ain larria ere! Zeruko aingeruek beraiek gure asaben Eliza gaitz artatik sendatzeko eskua sartu bearrean aurkitu bait ziran.

Bai; badakit, aingeruen ariketa ori segur-seguruaski kondaira besterik ez dala. Baiñan oraingoan bai, oraingoan kondaira edestiaren ispillu dugu. Olertizko kondaira pinpirin orrek Euskaldun aietako askoren buru-biotzetan erejiak oraindik irmo itsatsirik jarraitzen zuala adierazten bait digu.

Egia da Donamand eta Doneseberin "contra i pagani e i priscillianisti" jardun zirala borrokan. Bañan jentillak bazter guztietan zueden orduan oé raindik ugari, eta, orregaitik, Bordele'ko jentillediaren ondarrak ez zuan iñor ainbeste kezkatuko; ez beintzat aingeruak ere borroka artan sartzera bearturik aurkitu zirala esatera iritxi izateraiño. Jentilkeria ez baiña Priszilikeriaren sasoi bizkorra zan jendea, eta aingeruak (!) éékezkatzen zituana.

420'ren inguruan Amando Donea bigarren aldiz Bordele'ko gotzai dakusgu. 432'aren inguruan il zan arte.

433'tik 474'ra Gallitinus. Edestian izen utsez ezaguna dan gotzaia  
485'an Cyprianus. Eta gotzai onekin sartzen gera VI mendera. 511'ga-  
rren urtean il bait zan. Ez bide zuan onek ere deus aundirik egin, edestiak  
ez bait dio izena besterik jaso.



## TOLOSA

V mendean, oraindik eskierraski Euskaldunez betetako eta Euskaldunez inguratutako uria zan. Garrantzi aundiko uria gaiñera azoka bezala, eta ospetsua kulturaz, eta biztanle erromatar aberats eta jakintsu ugari zituana.

Bizkor aurkitzen zan an Eliza.

400'garren urtean Silbio dakusgu Tolosa'ko gotzai-aulkian. Santu bezala aipatzen du Gams beneditarrak (I.C.637), baiñan ez da "Bibliotheca Sanctorum"en agertzen. Iondoni Satordi'ren (Saturnino Donearen) jauretxea eraikitzen asi zalako da edestian ezaguna.

405'an Eksuperio Donea dugu Tolosa'ko Elizaren Artzai gurena. Berak amaitu zuan bere aurreko Silbio<sup>1</sup>k Iondoni Satordi'ren omenez asitako jauretxea, eta berak ezarri zituan an, Baskoien lurraldean -- Iruña'ko urian bereiziki -- ain eraspen aundia izan zaion Done aren erlikiak.

Antziñate artan, une oro agertzen da Tolosa'ren edestian Iondoni Satordi'ren aipua. Mende askoren epean, eta baita gaur ere, Done orren kerizpean bizitu izan zaigu uri eder artako Kristaudia.

Ez noski arrazoirik gabe. Bera izan bait zan Tolosa'ko lenen ebangelaria ta aurreneko gotzaia. Iruña'n ere, esan-berri dugunez, ez daude Iondoni Satordi'z azturik. Oroituko zeranez, kondaira baten esaketaz, bera izan bait genduan, Iruria'ra etorrita, Euskalerriko lenen mixiolaria.

Guzti ori, egia ote dan? Eman diogu galde orri gure erantzuna. Baleike egia izatea, Iruila'k arreman aundiak izan bait ditu edesti guztia-zear Iparrarekin, joan dan mendean, zoritxarrez Egora begira jarri zan arte. Izan daiteke, beraz, egia; baiñan egia dala esateko batere oiñarri sendorik ez dugu.

V mendean, Tolosa'ko gotzai-aulkian, adimen argiko eta txit oitura garbiko gizona izan zitzaigun Doneeksuperio. Bere "jakite zabala eta bere aingeruen kideko biziera garbia", "une remarquable *brudition* et une anOli-

que puret de moeurs" (ib) goratzen dituzte Turona'ko Gregorio'k eta Benantzio Fortunato'k.

Adiskidetasunez edo bearkizunez, orduango gizonik ospetsuenetako batzuekin alkaturik egon zan: I Inozentzio Aitasantuarekin adibidez, edo Jeronimo Donearekin, eta Nola'ko Paulino Donearekin".

Bazekian Aitasantuari idazten. Orduan oso gotzai gutxik egin zuan eta gaur ere oso gutxik egiten duan gauza. Zosimo Aitasantuari idatzi zion, argi ikusten ez zuan arazo batentzat argitasuna eskatuz. Baita Zosimo'k erantzun ere.

Garai artan, Donaugin'ekin batera, Donejeronimo zan ziurki idazlerik onena eta jakintsuena Kristaudi guzian; eta baita Kristauditik at ere. Estilista bezala Donejeronimo batez ere. eraspén aundia omen zion Donejeronimo'k.

Egia noski. Tolosa'ko gotzai aren omenez idatzi bait zuan "Zakarias'en Azalpena": "Commentarius in Zachariam", arek Sorkaldeko lekaide bakartientzat Sisinio izeneko lekaide aietako baten bitartez bidali zion limosnaren truke. Arrigarriagoa dana, Eksuperio Donearen ekintzari erasten dio Donejeronimo'k, Tolosa bandalitarren erasoetatik salbatu izatea: "gli atrebuiscé la salvezza di Tolosa dei barbari nel 407 e nel 408" (ib).

Iritxi dira gure denbora ontarrafio Jeronimo'k idatzi zizkion iru gutun ere.

Eraberean, Paulin nolatararak, Doneeksuperi au aipatzen du Bordele'ko Donamand arekin batera, Galietako gotzairik onenetakoak zirala esanez.

Ikus, Turona'ko Gregorio'k bakarrik gorde digun gutun orren itxura: "Si enim hodie videas dignos Domini sacerdotes, vel Exuperium Tholosae,

---

" Gregorio Donea, VI mendean Tours'eko gotzai edestilaria, ezaguna dugu. Benantzio Fortunato (Venantius Honorius Clementianus Fortunatus) (530-609), italiarra, olerkaria, edestilaria, apaiza, eta, batzuen ustez, baita gotzaia ere izan zan: Piktabi (Poitiers)'ko gotzaia, ainzuzen. 569'an etorri zan Galietara, eta, bertan, oraintxe aipatu dugun Turona'ko Donezregorio gotzai edestilariaren adiskide aundia egin zan. Edestilari bezala, Benantzio Fortunato'k, Donernartifi'en eta beste Done batzuen "Bizitzak" idatzi zituan. Olerkari bezala abestirik dotoreena, danok ezagutzen dugun "Vexilla Regis Prodeunt" izanen du politena.



vel Amando Burdigale, vel Diogenianum Albigae, vel Alithium Cadurcis  
...utcumque se habent saeculi mala videbis profectu dignissimus totius fidei  
reiectionisque custodes"

Euskeraz:

(Gaur Clermont Ferrand deritzan Arberna'ko Benerando gotzaiaren goratzarrea egiterakoan idatzi zituan itz oiek Paulino'k; alegia, gizon "txit bikain" edo "dignissimus" aren kidekoak zirala idatziz), "edonon agertzen ziran orduango gaitzei aurpegi emanaz sinismenaren eta erlijioaren babesle zintzo ikusi daitezkean Tolosa'ko Eksuperio, Bordele'ko Amando, Albiga

---

' Bi uri-izen ager zaizkigu or. "Genitibu" edo "norengo-eran". l'Albigae" eta "Cadureis". Izen oiek "nominatibu" edo "izenkoi-eran" "Albiga" eta "Kadurtzi" dira. Ez dugu izen oien Euskal-doiñua azpimarratu bearrik, batez ere, atzerritarrek, beren jitearen araura agoskera errezteko noski, euskeraren "R" izkia oso errezki "L" biurtzen dutela, eta, ondorioz, idatzi ere "jatorrizko "R" aren ordeaz, beren "L" ori idazten dutela oroitzen ba'dugu. Arbina bat bazan Araba'ko Legutiano'n. Gaur Albina esaten zaio Araba'ko erdeldunen agoz. Neronek ikusi nuan XV mendeko dokumentu batean Arbina ura XVIII mendean Albina biurturik, ortarako idazkera zarreko Arbina aren "R" a tinta ezberdiñez bein da berriro goruntza luzaturik zeukala, "L" biurtu zedin. Ederki bereizten zan ordea bi tinta aien ezberdintasuna, bigarrenaren azpitik gaiñera, au aulagoa izanik, argi naharitzen zan jatorrizko "R" zar ura. Altagutziz, badituzu Araha'n bakarrik, "ARB" daramaten 89 toki-izen. Eta "Alb" aurrizkiz asten diranak, berriz, 62. "GA", "AGA" atzizki toki-adierazleak dira. ("Cardueis" uriaz, onen ondorengo oarpenean mintzatuko gera). Kadurtzi'ri dagokionez, berriz atzizkia, "TZI", bete-betean Euskalduna dugu. Ez dakit ordea zer izan daitekean bere aurrizkia. Alare, "KARDUR" aurrizkia daramaten izenak badira Araba'n bakarrik 6 toki-izen. Beste lau karduz asten diranak. 203, berriz, erderazko "earro"tik datozenak aipatu gabe, "kar"edo "karr" daramatenak.

(Alby)'ko Diojeniano, Kadurtzi (orain Cahors deritzan) uriko Alistio gotzai jainkozalea<sup>50</sup>.

Lau gotzai geiago ere aipatzen ditu, baiñan nik jaso dizkiodan lau gotzai-uri aietatik bi, Bordele ta Tolosa Euskalerraren ertzari josirik zeuden.

Beste biak Kadurtzi Garona ta Dordofia'ren artean oraingo Cahors eta Albiga, agian Arbiga, gaurko Tolosa'tik ipar-sortaldera dagoan uria, ez ziran bearbada V mende artan Euskaldunak izango, baiñan oraindik ederki Euskaldunak izan zitezkean alor eta basoetatik urbil aurkitzen ziran.

Zerdalata, Euskalerriko Elizaren Edesti batean gotzai oiek danak dantzari jarri ditudan? Euskalerriak, bere iparreko eta ipar-sortaldeko ertz osoa gotzai done bikaiñez inguraturik eukitze utsez, nolako zorion aundia gertatu zitzaion jabetu gaitezen.

Paulino'k aipatutako "saeculi mala" edo "asti artako gaitzak" Bandalitarren erasoak dirala esan oi dute ia edestilari guztiek.

Baiña Bandalitarrek ez ziran orduan zuzenki erlijioz arduratzen. Oso asti laburrez egon ziran gaitzera galietan.

Paulino'k ordea "gaitzak" aipatzerakoan, sinispidearen zuzentasuna bera arriskuan ipintzen zuan gaitz bat zeukala, dirudi, gogoan, *siniste zintzoaren* babesle ta zaindari lez goresten bait ditu gotzai aiek.

Bere Bordele'ko, eta batez ere Elusa'ko, eta agian Akitani osoko prizilikeria ote zan gogoan zeukana? Arrigarriki, ez du Elusa'ko goigotzai-

---

<sup>50</sup> Nik Gregorio Turonatarren idazkiak "Scriptores Rerum Merovingicarum" (Hannover, 1.9f50) bilduman aurkitu ditut. Aipatu ditudan Paulino'ren itz oiek, Bilduma ortako II liburuaren 62 orrian daude. "Cadurcis" izeneko uriaz mintzatzekotan gelditu gera onen aurreko oarpenean, eta izen ori nominatibu-eran, "Cadurcis" edo "Cadurci" dala esan dugu; Euskal-senaren araura, Kadurzitz, edo, egokiago, KADURTZI. 111, Kadurtzi orren atzizkia, "TZI", bete-betean Euskalduna dala begien aurrean dago. Ez dakit ordea zer izan daitekean bere aurrizkia. Alare, "kadur" aurrizkia daramaten toki-izenak badira bi, Araba'n bakarrik. Beste 4, karduz asten diranak. Ta, 203, berriz, erde-razko "carro"tik datozenak aipatu gabe, "kar"edo "karr" aurrizkia darumate-nak.

rik aipatzen, naiz Elusa Ipar-Euskalerra zar guzti artako Metropoli izan, eta, gainera, prisizilkeriz geien zikindu zan gotzai-uria.

Zergaitik ez ote zuan aipatu? Elusa'ko gotzaia, zintzotasunez eta bikaintasunez, beste aien kidekoa iduritu ez zitzaioleko?, ala, une artan, Pulino'k idazten zuan une artan, Elusa'ko urian gotzairik ez zalako?

Azkeneko au izain<sup>51</sup> dugu eskierki egiazko arrazoia, V mende guztian ez bait zaigu Elusa'ko gotzai-aulkian gotzai bat-bakarrik agertzen, Euriko Errege Bisigotarraren denborarako Gams'ek damaigun gotzai "anonimus" edo "izenge" ura izan ezik.

Baiñan Euriko (467-485) V mendeko bigarren erdian bizitu zan. Paulino'k, ordea, V mendearen asieran idatzi zuan bere eskutitz ura. Zer pentsa?:

Elusa'n orduan gotzairik ez zala?

Nai gotzai bat izan bai, Paulinoik gotzai ura ezagutzen ez zuala?

Nork jakin! Ez da beintzat sinistekoa, 314'ean "Arelate (Arles)"ko kontzilioan egon zan Mamertino'z" gero ("Mamertinus. astit. conc. Arel.") 506'an "Agate (Agde)"ko kontziliara joan zan Klaro" izeneko ura ere ("Clarus adf. conc. Agathensi"), ia bi mendez, 1192 urtez! Nobenpopulani'ko probintzi arras zalaren uriburu ta izen bereko Eliz-probintziaren metropoli-urriak "Euriko'ren garaieko Izenge" ("Anonimus temp. Eurici Visigothi") ura beste gotzairik izan ez zuanik.

- Orregaitik erantzun zuzena au dala dirudi: Galietako gotzairik geien-geienak aipaturik utzi zituan bezala, aipaturik utzi zuala Paulino'k Elusa'ko goigotzaia ere. Zana zala, ez du auziño koxkor orrek itz bat geiago merezi.

Ona orain emen gotzai Tolosarren zerrenda;

---

<sup>51</sup> "Iza'in", erriaren ezpainetan "izain" gure "izango"ren kideko dan "izanen" ipartarraren laburpena dugu. Euskaldunon artean oiturazkoa dan bezala bi agotsizkiren arteko "N" izkia janez eta ondorioz bi agotsizkiren artean gelditzen zaigun "E" ori "I" biurtuz sortzen dana. Nik, ain politak diran esakizun oiek ikustera eta entzutera Euskaldun guztiak oitu daitezen ezarri dut emen, gure iparraldeko esakizun ori.

477'garren urtean Maximus ipintzen du Garns'ek Tolosa'ko gotzai-aulkian: baiña orrela, bi zalantz-ikur eta guzti. "Dictionnaire d'Archéologie et de Liturgie" k dionez berriz, Sidonio Apolinar bakarrik da Maximus ori Tolosa'ko gotzaitzat eman ziguna; "mais sans preuve", "baiñan diona egiztatzeko".

488'aren inguruan izan omen zan Heraclianus Tolosa'ko gotzai aukeratu. Bere izena, ordea, 506'eanean dagerkigu lenengo aldiz: VI mendean, beraz: nere liburu onen esparrutik at.

\* \* \*

10 dezagun berriro Mediterran-Itxasora. An, gaurko Frantzi'k eta Españi'k muga egiten duten lekutik ez urruti, Gerona'tik bertan, Ter ibaia-  
ren agoan, an daukagu zai Ellberri izeneko uria. Uri ontatik aurrera lau  
urrats emanda Galietan gaude berriro. Zuzendu dezagun gure ihilkera,  
Itxaso aren ertzean noizbait Euskaldunak izandako urietara. Agian, baleike  
V mendean uri aiek Euskaldunak ez izatea. Baziran, ordea, oraindik, Euro-  
pa'ko kristautasunaren pentsaera, igikunde ta oitura berrientzat Euskale-  
rrirako bide.

Asi dezagun gure ikerketa oraingo Euskalerritik urrutiena zegoan  
Uritik:

## NARBONA:

Uri zarra itxasoaren ertzean. Arritzekoa da ain garrantzi aundi-aundiko  
uri batek bere lenen gotzai ezaguna 417'garren urtean izatea: Ilario: Urte  
ortan Zosimo Aitasantuarengandik eskutitz bat artu zuana, eta, geroxeago,  
I Bonifazio'gandik beste bat.

Bi Aitasantu oien gutun bi oiek izan ez ba'lira ez genuan sekulan Naré  
bona'n 417'an gotzai bat izan zanik ere jakingo. Dokumentuen falta berri-  
ro! Askoz leenagotik ere izan bait ziran ezpairik gabe gotzaiak Narbona'n.  
Ori da beintzat logikak sinisterazten diguna.

Bi gotzai geiago aipatzen zaizkio Narbona'ri V mendean, baiñan oiek  
ere ez oso ziurrak:

Bata, Griffe'k (op.c.I,176) ziurtzat ematen digun Rustiko: "445'an Narbona'ko katedrala, seguruaski I Kostantino'ren garaiekoa izanen zan elizatxo zar sutan erretako baten tokian eraiki zuana": "Nous savons que la cathédrale de Narbonne qui fut reconstruite en 445 par l'évêque Rustique remplaca, au même endroit, une église qui avait été brûlée et dont la fondation remontait vraisemblablement à l'époque de Constantin".

Gams'ek (o.c. Narbonensis itzean) dioskunez, santua izan omen zan gotzai ori: Donerrustiko; eta "Bonossio izeneko gotzai txit santu baten semea, eta Aratori izeneko beste gotzai baten iloba, ama, Aratori orren arreba bat izan zualako": "Bonossi episcopi sanctissimi filius et Aratori item episcopi ex sorore ipsius matre nepos.

- Bestea, 462'gn. urteko Ermes ura, geiegizko kondaira-laiñoz inguratuturik agertzen zaigun gotzaia da.

Ziur, V mendean ez zitzaigun, ez noski, Euskalduna izango Narbona'ko Uria, baiñan izugarrizko Euskal-usaia gorde du bere izenak: Narbona. Noizbeinka Nabo ere esan oi zaio erromatekoan. **garai artan erro-**matarrentzat Galietako kairik onena ta antziña artan "Gallia Narbonensis" izeneko probintziaren buru izan zalarik, eta Añamendiaren ipar-sortaldeko Euskalerrri guzia Elizako legez Inperioko legez bezala probintziaren barruan aurkitzen zalarik, "vraisemblablement", ("sinistekoa danez"), aundia izan zan eskualde artako gure Asaben artean Narbona'ko Elizak izan zuan eraginmena. Baiñan mintzatuak gera, Euskalerrira kristautasunari bide emateko Narbona'k izan zezakean garrantzi ortaz. Ikus, "Euskal Kristautasunaren Sorkuntza".

---

<sup>52</sup> NARB-O, NARB-ONA. Zer ote da NARB? Ez dakit. Baiñan eusko-geografi-izenak edo eusko abizenak jasotzen dituan iztegi hatera hegiratzen ha'duzute, arriturik geldituko zerate NARB ori zenbat izenetan agertzen zaituzten ikustean. ONA eta O, berriz, gauza hera dira: atzizki ugaritasun adierazleak.



## MEDITERRAN-ITSASOAREN ERTZEKO ILIBERRI

Gaur, Frantzi'ko erderaz, ELNE; Mediterran edo Lurrarteko Itxasoaren alboan, aipatu dugun "Gallia Narbonnesis" artan zegoan uria, antziñako garai aietan naiko garrantzitsua.

Bere izena, ILIBERRI, Euskalduna izango dugu noski, eta bere izen zar ori dala-ta aipatzen dut nik emen, bere lenen gotzai ezaguna, Domnus, 571'koa izan zalarik, ez bait dut, V mendean amaitu nai dutan liburu ontan uri orren izenik geiago aitatu. Ainzuzen emen aipatzen ba'dut, aipatu ere, geienbat bere izena dala-ta aipatu bait dut, agian V mendean oraindik zerretiarren artean elizkide euskaldunak izan zezazkean gotzai-uria zala, adierazten bait digu izen orrek.

Entzun "Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecclésiastiques" Iztegiari: "Certains historiens ont localisé à cet endroit la ville plus ou moins téandaire de PyrŠn, dont plusieurs auteurs (Herodote, Meia, Pline) clbrent la renorrunÑ. A l'époque historique il y avait la une cité de peuplement iNrique, qui échangea son nom pour celle d'Helena, Elné, au IV'e siècle".

Euskeraz:

"Edestilari batzuen ustez an-nonbait egon omen zan kondaira utsezkoa ote dan edo ez ote dan Pirene izeneko uria, idazle askok, (Erodoto'k, Me-la'k eta Plinio'k adibidez), ain ospetsutzat eman zigutena. Edestiak ere an uri bat izan zala esaten digu; Iberitarrak omen ziran ango biztanleak; eta, uriaren izena, ILLIBERRIS. Gero, Elena esan omen zitzaion, eta Elena'ren aldakuntza lez, Elna, eta azkenean, IV mendean,

---

Orra or berriro izen kilikagarri bat: Iliberri, Iliberri au Auñamend;aren iparraldean; eta mendi beraren egoaldean Eliberri. Eliberri, Akitani euskaldunaren erdian ere. Eta an urruti, gaur Granada dagoan lekuan, gero Elbira





ELIBERÍ

ousa  
loulou zeí

Mbiga (Aitn)


flen

i<sub>w</sub>u rev a

i3 t TE;6

Ca(casona  
(Cmcase nnnliP

4l Cpnnsrannis  
(S. irioij



\* (ijrÇiol)

tfi

Vir,t15 Ai SOn e nS i S  
Vich)



E(bara  
I mrasa)

Garcina (Barcelone)


**Tarraco (Tarragone)**

;a ZTDS:r4- (-(-0 -r-t-o sa,-)

04 -;)

f'

*o r r ? o r YL iv k\_ -e t t d e A - . € , ^ e l . ( ; e 4 ' 1 . i - 6 4 , I L . 1 B E i i , 4 1 ( A k Å ' l - d , n ; , - - - e , , 4 , - - - , , ? i k c y - ( 4 .. 2 . \_ k i - c o . 1 - 1 1 . 1 - x , e , r a \* ( - - - e , L \_ 1 [ r - i - r t 2 Q . 1 ) - j k d ' : - , d , r / ' . o ' n , 4 4 » . - 7 u r ; , c ) l 4 . / . - , ( i - c t h , - 4 - ' 1 - a . 7 ) , 1 3 e \_ f 4 e k , v i - . . . : . \_ u r r t - k*



l. a ribu vasca Ausci o Auski.

*14t4s'ci*

*esalt*

lc.

6-E:VV/Ii(

## KARKASONA

Kristo jaio baiño 35'en bat urte leenago billakatu omen zan Errorna'-ren koloni, "Julia Carcaso" eman zioten izen. Baiña kolonizaketa orren aurretik bazan an uri bat; Euskalduna seguruaski. "Carcaso Volcarum Tectosagum" deitu zion Plinio'k bere "Historia Naturalis" edo "Izadi-Edestian" (Dic.Hist.Gogr.Ecci).

"Voicarum Tectosagum", Euskalerra Zarreko bi Euskal-leiñuei atzerri-tarrak iPiñitako izenak dira, "Caristii", "Varduli" ta beste orrelakoen antzera. Lizen Iberitarrak?, i,Keltiarrak? Aurreneko bi aiek "jenitibu" edo "noren" eran datoz: "Bolkatmen Tektosatarren". Ez dute noski Euskal-itxura aundirik. Ez Bolka'k ez Tektosa'k. Bai ordea "Karkasona"k!.

---

esango zitzaion beste Iliberri bat ere bazala badakigu, Iberitarrak zirala, diosku aipatutako Iztegiak, Auñamendiaren iparraldeko Iliberri artako biztanleak. Frantziarrentzat, Auñamendiaren egoaldeko guztia, "iberitarra" izan oi da. Oraingo ontan, ordea, Andaluzi'ko Iliberri ura gogoan artuz, izen ori, Iliberri, iberitarra dala esan bear ote dugu? Ez dut uste. Kutzak irikitzeke zurgurragoa da ongi ezagutzen dan giltza erabiltzea, ezagutzen ez dan batekin saiaketan ibiltzea Euskera, ederki ezagutzen dugun eta bizirik daukagun giltza da; Iberiera, alderantziz, aspaldi illa dalarik, oso gutxi, eta oso gaizki ezagutzen dugu. Orregaitik, dauden tokian daudelako, Auñamendiaren alde bietako Iliberri eta Eliberri oiek Euskaldunak dirala esango nuke nik, eta Andaluzi'ko ura, aidetasunik batere gabe beste bi aiekin itxura utsa besterik ez duan itza dala. Asi Txiki aldean ere ,eta non ez? bai bait dira itxura ber-bera duten toki-izenak.

Izenak salatzen dio Karkasona'ri bere Euskalduntasuna, naiz agian bere egiazko izena Karkaso izan; esanik utzi dugunez "ONA" ta "O" biak atzizki toki eta ugaritasuna adierazle bat bera bait dira. Karkar berriz, Naparroa'ko uri bat dugu, eta, Karkastillo, beste bat. Karkamo Araba'n Gobiaran'go erri bat. Karranta, Araba'ko Errioxa'n larre baten izena, eta Karrantza Bizkai'ko Aran batena. KAR' ez asten diran toki-izenak, "Carretil" bezala ziurki

VI mendearen, 570'aren iguruan sortu omen zan Karkasona'ko elizbarrutia, Elna'koarekin batera, Españi'ko errege bisigoten aginduz Narbona'koa zatitu zanean. Uri oiek Septimani'koak ziralako, Españi'ko bisigoten mendean jarraitu zuten Arabitarrek Bisigoten lekua artu zuten arte. Ala joaten ziran uri oietako gotzaiak Toledo'ko Kontzilioetara.

Narbona'ko Elizbarrutia iru puska eginda, bi elizbarruti berri aiek VI mendearen erdi aldera sortu bear izateak, guri, aurretik, V mendean gutxienez, an kristautasuna sarturik zegoala adierazten digu. Eta ori egiztatzera datorkigu mende oiek baiño leenago, IV mendearen lenen erdian, 333'an ainzuzen argitaratu zan "Itinerarium" edo "Bide-Liburu" bat, Bodele'tik Jerusalemferako erromesentzat xeetasunak emanaz. "Itinerarium" ortan "Castellum Garcasone", "Karkasona'ko Gaztelua" aipatzen bait da atsedentoki lez.

Ez da erabateko arrazoia, baiñan badirudi erromesentzat liburu ori idatzi zuanak ez zuala atsedentoki egoki lez Karkasona gomendatuko, an kristaudi bat, lekaidetxe bat agian, izan ez **Ez du balio, Karkasona** aipatze ori, beste tokirik ezaren ondorioa izan daitekeala esateak. Erromesak edozein tokitan lo egitera oiturik bait zeuden; eta, gaiñera, orrelako idazkietan erromesei gomendatzen zitzaizkien atsedentokiak, edo lekaidetxeak edo eliz baten ondoko babesak izaten bait ziran.

## ALBIGA

Gaurko izenez,

Dordoña eta Garona ibaiaren artean dago,

---

erderazkoak diranak eta "Kareaga" bezala "kare" itzarekin zer ikusirik dutenak zenbatzeke badira Araba'n bakarrik 139 (Lz. Gereñu, 1.c.).

<sup>ss</sup> Euskeraren "R" izkia errez eta sarritan biurtzen dute "L" idazle erdaldunek. Gazteiz'en alboko mendi ta errekatxo baten izena, ARBINA da, eta orrela agertzen da idatzia, amarrenbat aldiz XV mendeko dokumentu batean. Gero, XVIII mendean egindako kopi batean, beste tinta ta luma batzuen bidez "R" ori "L" biurtuta, Arbina'ren ordez ALBINA agertzen zaigu. Aldaketa ori, tintaren mota berberak adierazten digunez XIX mendean izan zan egiña, baiña bere margo urdijilagoaren azpitik ederki nabari da lengo "R"

garai batean Euskalduna izandako lekuan, naiz an euskera V mendean eskierki galdurik egon.

Baiñan goiz biurtu zan gotzaiari-ta izan zezakean eraginpenik aski alboko Euskaldunen artean.

IV mendean, bertako gotzai lez, "Klaro Donea aipatzen da, baiña ez dugu Done orri-buruz ezer ziurrik aurkitu": "S. Clarus memoratur de quo nihil certi invenitur" (Gams).

Gero, IV mendean, Anthinius, "discipulus S. Clari" izan omen zana, ipintzen digu Gams'ek Albiga'ko gotzai.

V mende aren asiera ber-berean, <sup>h</sup>eirea 406, Diogenianus zan ango gotzaia, Gregorio Turonatarak Akitani'ko gotzairik onenen artean aipatzen duana" (id). II Akitani da, Gregorio'k damaigun ori: Garona eta Loira ibaien artean zegoana.

Urrengo gotzaia, Anernio, 451 'koa da. Utsune bat dator gero, VI mendeko 506'garren urtera arte: Ainbat aldiz begien aurrera irten zaizkigun utsune ugarietako bat; soilki dokumentuetako utsuneak; dokumentuek ezer aipatzen ez diguten asti oietan, ez bait zan gotzai-aulkietan utsunerik izan.

---

beltza. ARBELDA ("arbel-da pizarral") dugu, bere lekaidetxeak ospetsu egindako Aibelda'ren egiazko izena, eta ARI3AINA, Araba'ko gure Goba bikain ugari bere larrean dituan erriskarena. Galietako Albi eta Albiga oiek ere, ARGÍ eta ARBIGA dira.



## TARBE

Orain, TARBES deritza. Bigorre izeneko lurraldearen uriburua dugu, len, TARBE, TARBA, TARBA BIGORRIONUM, eta CASTRUM BIGORRAE ere esan oi zitzaion uri polit au; Bere izen guzti oiek, baztar guztietatik euskera nabarmentzen dutela ez dut, noski, esan bearrik izango.

Gaurko Tarbes'en elizbarrutian da <sup>o</sup>LURDES (Lur-de?, Lur-dets?), eta, antxen, Bernardete Subiru edo Zubiru (Zubi-buru?) neskatoari Miren Neskutsa agertu zitzaiolako oroipen-eliz bikaiña.

Naiz Tarbe'ko uria ain "Basconum Saltus" edo Eusko-Basorik gogorrenetatik ain-ain urbil egon, oso goiz iritxi zan uri artako euskaidunengana Kristo'ren Berri Ona. Bai, beintzat, "vraisemblablement" ("uste daitekeenez") IV mendearen erdialderuntz. Garai ortakoa da ba kondairek ango lenen gotzaitzat damaiguten Justino Donea

Tamalez, ordea, Done ori gotzai izatera iritxi zanik ez dakigu. Ederki Gams beneditarrak: "Sanctus Justinus quem episcopum fuisse non patet".

Tamalez baitare, ez dakigu zenbateraiño izan daitekean egiazkoa Doneé justino'ren kondaira bera. Naiz, agian, ango gotzai izatera iritxi ez, badirudi beintzat lurralde artan ibilli zala. Baiñan eskiertasunik ez dugu.

IV mendean Synagrius jartzen digu Gams'ek Tarbe'ko gotzai-aulkian, 396'garren urtean Nernaus'sen (Nimes'en) bildu zan kontzilio zarraren "denboran Synagrio Tarbe'ko gotzaia zala" bait diosku ("Synagrius tempore Synod. Nemausensis Tarbensis ep."), ainbat aldiz aipatu dugun bere ("Series Episcoporum Ecclesiae Catholicae" izeneko liburu oparoan.

Aitortu bearra dut ordea ez dakidala Gams'ek albiste ori nondik atera zuan, Nimes'ko Kontzilioak gotzai kontziliokideen nongotasunik ez bait zigun eman.

Dakusazunez, irakurle, Tarbe'ko elizbarrutiaren asierari-buruz eskier esan dezakegunik ezer ez dugu. Ez da arritzekoa, Euskalerritik at ere orixe bera gertatzen bait zan. Ederki Griff'e'k (op.c. III, 117):

"Si, au cours du V<sup>e</sup> siecle, notre doeuumentation historique s'enrichit notablement, elle ne nous permet pas cependant d'etre fixes sur la situation ecclesiastique de toutes les cites. (...) Comme au IV<sup>e</sup> siecle, nous ignorons tout des éveches de de la province de Rouen en dehors de l'eglise metropoé

Itaine. Notre ignorance est également grand en ce que concerne nombre de cités de la Novempopulanie: Dax, Lectoure, Lescar, Aire, Tarbes, et Oloron. Il est de même pour plusieurs cités de la région alpestre".

Euskeraz:

(Esan dezagun aurretik, Akitani euskalduneko zerrenda ortan V mendean gotzai jakiñik ez zuten uriak bakarrik aurkitzen dirala):

"Edestiari-buruzko gure dokumentuen sorta V mendearen aroan aski aberastu ba'zan ere, ez alare naikoa orduango gure uri guztien gotzaitasuna ziurtasunik emateko. Berdiña gure jakintzarik-eza Bederatziurieta'ko uri askori-buruz: Akize, Laktora, Leskar, Atura, Tarbe, ta Oloron'i-buruz, adibidez. Alpemendien lurraldeko uri askori-buruz ere, berdin-berdin gertatzen zaigu".

Barka bezaigu Griffé jakintsuak, Tarbe'k 506'koa du bere lenen gotzai ziurki ezaguna: "Agate (Agde)'ko kontzilioan ordezkari baten bitartez esku artu zuan Aper izenekoa: "Aper, repressente au concile d'Agde" (Gams. ib).

Era berean, Griffé'k aipatu dizkigun Akitani euskalduneko uri oiek danak ere, 506'ean bazuten bakoitzak bere gotzaia: Akize'k Gratianus; Leskar'ek, Galacterius; Laktora'k, Vigilius; Atura'k, Marcellus; eta Oloron'ek, Gratus.

506'ean! VI mendearen asieran! V mendea amaitu berria zan une berean, uri oiek danak ziran gotzaidunak!!!

Orrek zer esan nai duan? Milla aldiz azaldu dugun bezala, au da orrek ziur esan nai diguna; auxe da, eskier, zalantzaz ibilli aal izateko zirriku guztiak itziz esan nai diguna:

IV mendearen asieran Akitani'ko uri danak gotzai-uri izatera iritxirik ba'zeuden, kristautasuna bikainki erroturik zegoala V mendeko Akitanian.

Erne ibilli zirala, beraz, V mendeko eta agian baita lenxeagoko kristautasun-zabaltzailleak beren sinispenaren zabalketan.

## "LAKTORA"

Lectoure esaten diote gaur frantziarrek, baiñan izen asko izan ditu: "Lactora", "Lactbra", "Lactoracum", "Lectorium" eta, dirudianez zarrena "Lactora". Agino eta Elusa'ren artean, Akitani euskaldunaren barru-barruan zegoan.



Zegoan tokian zegoalako, naitanaiez euskalduna izana dugu uri kokkor ori. Alatagutziz, idaztiekin ematen dizkioten izen oiek ez diguete, here euskalduntasuna ezagutzeko geiegi laguntzen. Nola deitzen ote zioten euskaldunek beren uritxo txiki polit ari?"

Izena bezin illuna da uri aren erromateko edestia. Kriseosteko 238'an izan zan "koloni" izendatua, eta arrezkero edestitik at geldituko zaigu erdiaroa ongi sarturik, berriro Armailak'eko konteen uri nagusi lez agertuko zaigun arte".

Ezezaguna zaigu bere kristautasunaren sorkuntza. Euterio Donea'z esan daitekean guzia kondaira utsa besterik ez bait da. Izan ere, "Bibliotheca Sanctorum"ek aurkezten digun Doneuterio bakarra, VI mendekoa izan bait zan, eta Itali'n dagoan Salerno'ko gotzaia, gizon ondo ezagutua, Agapito Aitasantuak 536'ean bere ordezkari lez Kostantinopla'ko Kontziliaora bidali bait zuan.

---

Bere 7 izen oietatik, Lactar, Leikture, Lactora, Latora, Lastra, Labra, Lektoriensis ez dakit zein aukeratu, danak bait dute oker aditu eta okerrago idatzitako euskal-izen baten itxura. Oroi zein latz, gogor eta zakarrak idurité zen zitzaizkien erromateko idazle atzerritar aiei Euskalerrian entzuten zituzten toki-izenak. Bitez guzti orren lekuko, liburu onen lenen atalean Estrabon'i jaso genizkion itzak. Orregaitik, H. Leciercq'ek (Dic. Arch. Chre't. IX, 2681) Euskalerrri Zarreko uria zan Comminges'en etimologiari-buruz diona esan genezake uri onen etimologiaz ere: alegia, bazuala leendik euskaldun izen bat; izen ori erromatarrek Latora entzun zutela eta arrezkero idatzi ere orrela idatzi zutelako, LAKTORA gelditu zitzaiola *izen*, eta *izen* ortatik sortu zitzaizkiola ondorengo beste guztiak. Danadala, Araba'n, LATORA Gebara'ko alor baten izena da. Latora orren antzekoa zerbait ote zan erromatarrek Latora biurtu zutena? Rabena'ko Anonimus edo Izengeak, LAKURA izendatu zuan, eta orrek bai, LAK-URA orrek badu euskal-itxura.

"AK ", Akitani'ko lurretan eta baita Añamendi'ren egoaldeko Aragoi euskaldunean ere sarri-sarri agertzen zaigun atzizkia dugu. Ez ote da euskararen "KO" atzizkia bera? Adibidez, ARTZAKO, ARTZAKE, ARTZAK? Orrela izatekotan "Artzak", gazteleraz, "Del Pedregal" izango genuke.

Emen ere, lenengo gotzai ziurra, 506' garren urtekoa da:  
Aski goiztarra guretzat, Akitani'ko Laktora'n V mendean Aitagurea esaten zuten kristauak asko zirala jakiteko.

43 urteko utsune baten atzetik, "Aletius" dator 549'an; eta onen atzetik, 114 urteko utsune batez gero, "Rosolanus" 663'an. Ez gaitezen utsune luze oietaz arritu. ¡Ain dira ba urriak gure Eliz zarrari-buruzko dokumentuak...!

## ELUSA

Frantziarren Eauze: antziña artan Nobenpopulani Probintziaren uriburu. Eta izen bereko Eliz-Probintziko Metropoli edo Goigotzai-Uria. Aski luzaro mintzatuak gera uri ontaz, IV mendea aztertu dugunean.

Esanik utzi dugu, bi gotzai damaizkigula Gams'ek Elusa'n, IV mende guztirako, eta bat bakarra V menderako, au, izenik gabea gaiñera, "Anonimus", baiñan Euriko errege Bisigotiarren denborakoa izan zala jakiñeraziz. 467'tik 485'era izan zan Euriko Tolosan bisigotiarren errege.

Urrengo gotzaia VI mendekoa da, Clarus, izenekoa, 506'ean Agde'ko kontzilio artara joan zitzaiguna.

Beraz, 485'tik 506'era, goigotzairik gabe egon zan Elusa'ko Eliz-Probintzia 25 urtez, Ez da errez sinistu daitekean gauza, garrantzi aundiko Eliz-Uri bait zan aro zar artan Elusa. ;Ain garrantzi aundikoa ere! V mendean, eta geroago berdin, Errege Frankiar Merobingitarrak agintzen egon ziran epe guzian, ots, VIII mendera ongi sartu arte, Loira, Rodano, Me,dierran Itxasoa, Auñamendia ta Atlantik Itxaszabalen artean, ots, ia-ia gaurregungo Frantzi'ren erdian, lau bakarrik izan bait ziran metropoli edo goigotzai-uriak:

Bituriges (Bourges), Loira-ibaiean; Narhona, Mediterran-Itxasoan; Elusa; Akitani Zarrean; Bordele, Garona ibaiean (I31e.Hist.G&.).Eccl, XV-III, 10 eta 15, mapak).

Badute noski zertzelada oiek zer adierazi nairik: V mende artan Euskal-erriaren iparralde zabal guztian oso ederki edaturik eta erroturik zegoala kristautasuna. Batez ere Bordele eta Elusa ain hata bestearen urbil zeudela gogora ba'dakarkigu. Ez ziran ba ain bata bestearen urbil zeuden bi uri

aiek Metropoli kristauak izango Ipar-Euskalerra Zabal artan Aitagurea errezatzen zuten euskaldunak oso-oso ugari izan ez ba'ziran'.

"Dictionnalre d'Archeologie Chrffiertne" k dionez, Elusa'k metropoli jarraitu zuan, IX mendean Bikingoek errea izan zan arte. Baietz: Euskalerran goiz-goiztik ederki sustraitutako kristautasun bat adierazten digula guzti orrek!

---

<sup>58</sup> Egia esan, ez dakigu noiz Bordele'ko gotzaigoa goigotzaigo billakatu zan. Baiñan Bigarren Akitani'ko Burua izateaz gaiñera ain uri ederra ta bizkorrera zalako, aundia izan zan beti bere eraginmena. Goigotzaiuri askorena baiño aundiagoa.



## AKITANI'KO ELIBERRI

Geroago erromatarrek AUX, AUSZIA, Civitas AUSCIORUM esan zioten eta frantziarrek AUCH esaten dioten uri akitaniarra, Alare, ELIBERRIS izan zuan bere egiazko izena. "Bkie au temps de la domintion celtique et dsigne sous le nom d'Elimberris ou Eliberris (ville neuve), cette ville était, au temps de la conque de la Gaule par Cesar, la place pricipale des Ausci ou Auscii, qui, au dire de Pomponius Mela, formaient la peuplade la plus importante des Aquitains (Dic.Hist.Geogr. Eccl.).

Euskeraz:

"Keltiarren agintaritzakoan eraikia eta Elimberris edo Eliberris izendatutako uri au zan, Zesar'ek Galiak artu zituanean, Auszitarren uririk garrantzitsuena (De Bello Gal. III, 27); eta Auszitar auek ziran, berriz, Pomponio Mela'k dionez (De Situ Orbis. III, 27) Akitaniarren artean Erririk jendetsuena".

"Dans l'organisation nouvelle donnee a l'Aquitaine par Auguste, elle aurait reçu le nom d'Augusta. Si cette appellation, attestee par ie seul Ptolomee (II,7), n'est pas le resultat d'une erreur de lecture ("Augousta" pour "Auskia"), il ne prévalut point dans l'usage: celui d'Elimberris est seul connu soit de l'auteur de la tarte de Peutinger, soit du redacteur de l'Itineraire d'Antolin" (ib.).

Euskeraz:

"Augusto'k Akitani'ri emandako erakunde berrian, Augusta esan omen zitzaion uri oni. Baiñan bai omen daiteke Ptolorneo'k bakarrik (Geogr. 11,7) ematen dion izen ori, Auskia okerki Augusta irakurri izatearen ondorio bat izatea. Ez zuan beintzat, izen orrek, arrakasta aundirik izan. Elimberris bait da "Peutinger'en Gutuna" deritzaion gutunaren idazleak eta "Antonino'ren Bide-Liburu" idatzi zuanak,-uri orri ezagutzen dioten izen bakarra".

Naikoa dugu noski guzti ori, Akitani'ko uri zar aren eta uri zar ura uriburu zuten Auszitarren euskalduntasuna aski egiztaturik uzteko.

Nobenpopuiani'ren erdi-erdian zegoalarik. Elebiduna, izango zan noski uria bera V mendean. Euskalduna, ordea, bere elizbarrutia.

Frantziarrentzat Auñamendiaren bi egietan Keltiarra ta Iberitarra beste jenderik ez bait da sekulan izan, ala, "Htie au temps de la domination celtique et d'igne sous le nom d'Elimberis ou Eliberris (ville neuve)", ots, "Keltiarren agintaritzapean eraikia eta Elimberis edo Eliberris izendatua" omen dugu uri akitaniar ura, eta "Eliberris" izen orrek "Uri Berri" esan nai duala, diosku Dictionnaire d'Histoire et Gëographie Ecelésiastiques"ek.

Oartu zera noski edestilari frantziarren itxutasunaz. Iztegi ospetsu eder orrek bazekian "Eliberris" itzak "Uri Berri" esan nai duala, baiñan ez daki itz oiek euskaldunak diranik, eta ala leporatzen die Keltiarrei "Uri Berri" aren jabetasuna.

Julio Zesar'en garaiean (Bel.Gal. 27) Eliberri au omen zan Auszitarren leiñu euskaldunaren uri nagusia, eta Auszitarrek omen ziran, berriz, Pomponio Mela'ren ustez, Akitani'ko leiñurik garrantzitsuena osotzen zutenak: ("De.S itu. Orb .III,2).

Kondairak bazterrean utzirik, ezer gutxi dakigu Eliberri'ko Elizaren sorkuntzari-buruz. Batzuek, Eliberri'ko Eliz au, Elusa'ko Eliz ura ber-bera dala uste oi dute, Elusa'tik Eliberri'ra VII mendearen erdialdera aldatua. Beste batzuek, eta oien artean, orain eskuetan darabilkigun Iztegi frantziarrek, aldaketa ori IX mendean izan zala diote, eta ordurarte bi Elizak bereizirik bizi izan zirala, bakoitza bere aldetik.

Danadala, Eliberri'ko kristautasunaren lenen aipua 400'garen urtearen inguruan bizitu zan "Orientius" edo Orentzio Doneari zor omen zaio.

Orentzio ori dugu, Jerarkiari dagokionez, Eliberri'ko lenen gotzai ezaguna. Eta bere ondorean, mende bat geroago, 506'ean Agde'ko kontzilioan izan zitzaigun Nicezio zeritzan bat datorkigu.

Ona zer esaten digun "Dictionnaire d'Histoire et de Gographie siastiques"ek Orentzio Doneari-buruz: "Le premier nom que fe Christianisme et le épiscopologe auscitain puissent revendiquer peu pres stirement est celui d'Orientius ou Saint Orens qui vecut vers 400 et fut tres probablement l'auteur du poine "Commonitorium":

Euskeraz:

"400'garren urtearen inguruan bizitutako Oriens Donearen izena da Eliberri'ko kristautasunak eta bertako gotzai-zerrendak aurkeztu dazaketen

lenen izena, ia osoro eskierra dan izena. Bera dugu, aski ziurki, "Commo-nituriurn" edo "Oroigailua" izeneko poemaren egillea. Itz neurtuz eraturtako sermoi baten antzeko zerbait da Orentzio'ren olerti-lan ori". Bertan, kris-tau-bizitzari dagozkion gai batzuetaz gaiñera, Galietan barbaritarrek eginda-ko ondamenak oroituerazten dizkigu xeetasun aundiz eta irudimenkeri geitxoz. Poema ortakoa du, jende barbaritarrak "Gali osoa sutan jarri zuala adierazteko" idatzi zuan onako itz neurtu poxpoliñ au: Jende arek,

"Uno fumavit Galia tota rogo":

"Sute bakar batez Gali guzia kiskali"!

I Teodosio Tolosa'ko Errege Bisigotaren adiskide izan zitzaigun Oron-zio Donea, naiz errege ura arianikeri zalea izan. Eunen bat urte geroago idatzi zuan norbaitek Done aren bizitza, eta, naiz erriko jendeak esandakoa jasoz idatzia, aski uste on ederra merezi duan liburua omen da "Bibliotheca Sanctorum"en ustez.

Urrengo Gotzai ziurra, Eliberri'n, 516'ean Agde'ko kontziliaora joan zan Nicetius izanen dugu. Gams'ek ere aipatzen du gotzai au, eta urte artan bertan "Clarus" zala, dio, Elus;a'ko goigotzaia, eta au ere joan zala, Elusa'-ko goigotzai lez, Agde'ko kontziliaora".

Bi gotzai auek, eta auek bezala VI mendearen asieran Agde'ko Kontzi-liaora 516'ean joan ziran Euskalerra Zabaleko beste gotzaiek, ordurako, ots, VI mendearen astapenerako, V mendea-zear euskaldunen artean Eliza era-kunde sendo egiñik aurkitzen zala, eta euskaldunen artean Aitagurea naro erreztatzen zala adierazten digute. Euskeraz erreztatzen ote zuten?

Galde kezkarri orrentzat erantzun ziurrik ez dugu. Pentsa daitekean bezala, erantzun sendo bat eman aal izateko, dokumentuen alorrean ezin bait daiteke itz bakar bat aurkitu.

---

<sup>5)</sup> Orientius Donearen aurretik lau gotzai ipintzen dizkigu Gams'ek Elin-berri'ko Aulkian: (Citerius, Afronius, Aprunculus, Ursinianus) eta beste iru Orientius Donearen eta Agde'ko Kontziliaora joan zan Nizenius'en artean: (Armentarius, Minervius, Justinus), baiña ez da oso gauza ziurra Elinbern'ko gotzai izan ziralako ori.





\*

## BEGORRA

Oraingo frantzeraz BIGORRE. Tarbes izan da beti, lurralde orren gotzai-uria, baiñan dokumentu zarretan Tarbes'ke elizbarrutia lurraldearen izenez izan da ezagutua: Ecclesia "Begorrensis"

Bere lenen gotzaitzat Justino izeneko baten aipua egin oi da; baiñan "Justinus n'a pas d'attestation suffisante", "Justin orrek ez du bear aiñako sinisgarritasunik". Ori bera dio Gams'ek ere: "Justinus, quern episcopum fuisse non patet": "Justino gotzai izan zan, argi ez dagoan gauza da".

394'aren, inguruan, "tempore synodus nemausiensis", "Nimes'ko sino-doren garaiekoa", "Syagrius" izeneko gotzai bat jartzen du Gams'ek Tarbes'ko Elizbarrutian. Ez dakit nondik jakinda. 364'eane edo, agian, ogeitamabi urte geroago, 396'eane ospatutako sinodo arek, bertan bildu ziran 21 gotzaien zerrenda ematean, zerrenda artako bakoitza nongo gotzaia zan ez bait du esaten.

Bein berriro Agde'ko kontzilioak aurkezten digu urrengo gotzaiari-buruzko albiste bakarra: An izan bait zan 506'eane "Ager" Jauna, lurralde euskaldun artako gotzaia.

Ez da asko jakitea. Baiñan bada zerbait ala ere. Bai beintzat gaur "Auiñamendi Garaia", "Haut Pyrène", esan oi zaion "departamentu" artan, Lurdes'en inguruko aran ikusgarri aietako euskaldunek V menderako aitagurea esaten zala jakiteko. Aitagurea..., euskeraz? Aztertu bearko dugun galdea!

## BETERRA

Frantzeraz, BEZIERS. Itxasotik 20'ren bat kilometrora, ORB izeneko ibaiaren ertzean dago!. BETERRA izan zuan ezagutzen zaion izenik za-

---

Nik ez dizut ziñ-egiñez esango ibai orren izena, ORB, euskalduna danik; baiñan zuk ere ezin ukatu izango didazu, euskal-itxura biribilekoa ez danik; "Orb" edo "Urb" daramaten tokiizen eta abizenak gure euskerak eundaka bait ditu! ORBE tokiizen eta abizen ber-beretik asita!, edozein iztegitan egiztatu dezakezun lez.

rena". Izan ote zan noizbait Euskalduna? Ez dakit, baiñan an nonbait ibilliko zan antziñate zarreneko euskeraren muga".

Danadala, kristautasunarentzat Euskalerrirako zubi izan zitekealako, merezi du gure oroipen labur bat.

Badu Eliz zar guztiek bezala kondaira mofloflo bat: Afrodisio Donea Ejito'ko "Preeetus" edo "Jaurle Nagusia" omen zan. Kepa Doneak berak Antioki'n Bataiatua, eta Paul Doneak ber-berak Erroma'tik Galietako Beterra'ra mixiolari bidalia.

V mendean bi gotzai izan zituan Beterra'k: Bat, Idazio'ren Kronikak aipatzen digun Paulino: "In Gallicana regione, in ciuitate Biterris, multa signa effecta terriflea Paulini episcopi eiusden eiuitatis epistola enarrat ubique direeta": "Galietako Biterris urian izandako gertakizun izugarrian berri damaigu Paul;no bertako gotzaiak gutun iriki batean" (XXV, 73). Ez dakigu zer izan zitezkean Beterra'n, Idazio'ren idazkeraz BITERRI'n --, gertatutako izugarrikeri aiek.

400 urtearen inguruan izan zan Paulino Beterra'ko gotzai eta 419'an il zan.

Urrengo gotzaia 451'koa da: Dynamius. Gizon au gotzaia izan zala badakigu, bere izenpena 450'eane Arelate (Arles)'en inguruko gotzaiak I Leon Aitasantuari idatzi zioten gutun batean agertzen dalako. Baiñan "ez omen da gauza ziurra Beterra'ko gotzaia izan zanik": "Nun episcopus Biterrensis fuerit in clubio est" (Gams).

Urrengo gotzaia, VI mendekoa da ia eun urte gerokoa: 541'ko Juliano.

---

"Beterrae", esan zioten erromatarrek: Itz ori ordea, adjetibu edo izenondoko bat da eta "Beterratarrek edo "Betertarrak" esan nai du. Beterra ote zan ba Uri aren izena? Soilki, BETER? Edota, agian, BETERRI?

Beterra'n ipiñi zuten egoitza VII Iejioko gudariak, eta "Beterra Septimanorum" izen-eman zioten, "Septimanorum" edo "Zazpigarrenakoen" ori, lendik Beterra zeritzan uri ari beren lejiorearen zenbakia omendu nairik erantsi zioten izengoiti utsa da. Ona "BET" aurrizkiduten euskal-izen batzuk: Betelu, Aralarpean Euskalerrriaren biotzean; Oroz-Betelu, an, Naparroa'n. Beteluri Bilbao'ren lau Artiga aietako bat. Araba'n "BET" daramaten izenak badira 20. "BIT" dararnakitenak, 16. Eta "ERR" dutenak, zenbatzez aspertzeko aiña, aipatutako Lz. Gereflu'ren liburuan bakarrik.

Esan dugunetik jaso ditzagun zitu bi:

- Beterra'ko uria 419'tik 451'ra, 32 urtez, eta, gero, ia eun urtez gotzairik gabe egon zala iñork sinista ez dezakean ezalada. Antziñate artako Eliz-dokumentu-falta betikoa!

Beterra'ko lenen gotzai ezaguna V mendearen lenen urtekoa izateak, an, IV mende guztian ere kristautasuna arras mardula zalako adigarri ziurra dugula.

Izanere, ori zearo zigurtzera datorkigu, an, Beterra'n, IV mendearen erdi-erdian ainzuzen, Saturnino Arles'ko Metropolitak bere gotzaiekin batzar bat egin zuala jakitea.

¿356'en egin zan batzar aren elburua? Kostantzio inperatorearengandik Doneilario Piktari (Poitiers)'ko gotzai txit ospetsuaren erbesteraketa lortzea.

¿Eskari arrigarri orren zioa? Arles'ko Saturnino Galietako ariozaleen buruzagia zala, eta Doneilario berriz, Galietan ez ezik Sarkaide osoan ere arianikeriaren etsarik aundiena.

Beterra'ko gotzaia urte ortan aipatu-berri dugun Dynamius ura izan, edo, (orrela izatekotan ark 50 urtez gotzaitzan egon bearke zualako) beste edozein bat izan, ezpairik gabekoa dugu beintzat, gotzai ura arianikerizalea izanen zala. Bestela ez Nait zan Arles'ko Saturnino, bere gotzai arianizaleekin batera, batzar ura egiteko Beterra'ra joango.

Eta, joan ere..., ¿zertarako, gaiñera, joan!: Kristaudi guzian, Alexandri'ko Atanasio'rekin batera, arianikeriak izan zuan etsarik aundienaren erbesteraketa eskatzeko!: ilario, Piktari ko gotzai Donearen erbesteraketa eskatzeko ainzuzen!

Lortu zuten gura zutena Beterra'n bildu ziran gotzaiek: Kostantzio inperatoreak Asi Txiki'ko Frigi'ra erbesteratu bait zuan Ilario Donea.

Baiñan 358'an Beterra'ko gotzaia ariozalea izan zitekeala gogoratzean, kezka mingarri bat erne zaigu gure baitan, eta galde kilikagarri bat ezpaitan loratu: Naiz Beterra, bearbada orduan Euskalduna izan ez, iritxi ote zan Beterra'tik urruti ez zeuden ipar-sortaldeko Euskaldunen artera arianikeriaren itzala?

Galdera ez da zentzurik gabea. Alde batetik, Galietako ego-sortalde artan, Arelate'ren inguruan arianikeria, Inperatorearen hildurpeko gotzai ustelen artean, asko zabalduta zalako.

Antxe zeuden onako gotzaidun uriok: Nemusu (Nimes), Beterra, Narbona, eta, egoalderaxeago, laister gotzaidun-uri agertuko zaigun Iliberri.

Ta, naiz uri aiek V mende artaraz gero, bearbada euskaldunak izan ez, aien inguruetan bai, aien inguruetako aran, ibar eta mendietan ederki iraun zezakean euskerak bizirik.

Bestaldetik, "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" izeneko liburuan idatzi dugun lez, antziñako euskaldun aiek arras adimen zabaleko gizakumeak eta berria zitzaiekeen oren maitale sutsuak izan ziran, priszilikeriari egin zioten arrera on aundiak adieraztera eman digun bezala.

4Arrera on bera egin ote zioten arianikeriari?

Ez ba.

Orrelako zerbait gertatu izan zalako aztarnarik... lez bait zaigu iñondik agertzen! Gaiñera arianikeriak Euskalerriarekin izandako eztabaidak, geroagokoak dira: Euriko, errege bisigotiar arianikerizale aski portitzaren denborakoak, eta geroxeago II Alariko'ren denborakoak.

Euriko'ren denboran ordea, iskamillak Tolosa'ko Erreiñu Bisigotaren Errege aundi ark berak sortu zituan, gure inguruko gotzai katoliko batzuk beren gotzai-aulkitik jaurti ta erbesteratu zituala egia ba'da beintzat. Ta, danadala, egia dirudi, utsik gelditzen ziran gotzai-aulkiei-buruz zakarkeriren bat edo beste izan zuala, aulki aietarako gotzai berriak eragozi nairik.

Aren semea izandako II Alariko'ren denboran ere, Errege au bera izan zitzaigun urduritasun oren sortzaillea. Eta ez noski, Tolosa'ko Erreiñu Bisigotaren azkeneko Erregea izan zan gizaseme txukun ura jite txarreko agintaria zalako, baiziketa bere erreinuko gotzaiek artarako ziorik aski eman ziotelako baizik, edo, beintzat ori uste izan zualako berak.

Ona zergaitik. Loira ibaia zuan Tolosa'ko Erreiñu Bisigotak iparraldean muga. Ibai aren bestaldeko ibarrean asten zan, berriz, ipar eta sortalderuntz, Frankiarren Erreiñu zabal indartsua, Erreiñu Germaniar guztien artean gogorrena, bizkorrena, jendetsuena ta borrokalaria. Eta ez noski Bisigoten adiskide maitetsuegia.

Ta... orra II Teodorroko Tolosa'n Bisigoten Errege zala egin zan Kristau Katolikoa Paris'en Klobis Frankiarren Erregea, Klotis bere emazte printzes Borgoñatar gaztearen aolkua jarraituz.

Ta...jakiña, ez da arritzekoa-ta, naiz II Alariko gizaseme xaloa ta katolikoekin arras eraspentsua izan..., arianitarra bait zan alatagutzitza..., eta katolikoak, berriz, bait ziran iparraldeko mugan Klobis eta Klotis 3ne-

klotis Frankiarren Errege-Erregiñak..., ba '...errege-erregiñ aiei laztanki begira jarri omen ziran 11 Alariko'ren Erreiñuko gotzai katoliko guztiak..., eta orrek ernegatu omen zuan Erregea.

Alare, ez zuan 1.1 Alariko'k katolikoek aurka zigorketarik piztu. Egia da, ez zitzaioala ortarako beta aundirik ere gertatu. Laister izan bait zan V-borroka-landan Klobis'ek garaitua... eta borrokan erailla.

Arrezkero, Esparti'ra etorri bear izan zuten bisigotiarrek igesi, eta eraiki zuten Toledo uriburu zutela beren Erreiñu berria.

507'an gertatu zan VeuilWko borrokarekin, ordea, VI mendera sartu gera-ta, "Euskal-Kristautasunaren Sendokuntza" izendatuko dugun beste liburu baterako utziko ditugu VI mendeko eta VI mendeaz gero XII'a arteko euskal-kristautasunaren arazo ta gertakizun garrantzitsu guztiak.

\* \* \*

ARIANIKERIA,- Euskalerriko arianikeriaz--, naiko luze mintzatu giñan "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" izen-zeraman liburua-baita IV mendea aztertu genduanean. V mendea aztertzen ari geran liburu ontan ez dugu arianikeririk geiago aipatuko-ta, buka dezagun arazo au galde kezka-garri oni erantzun baten billa saiatuz:

Zergaitik mende bat berean, IV mendean ainzuzen, gure Asaben artean priszilikeriak alako arrera maitetsu zabala, eta Arianikeriak ez.

- Priszilikeriak, bai, dirudianez gure Asaba zar aiek basa-bakartasunetako lekaidetza gogorrari izan zioten zaletasun aundiarekin Prisziliano'ren dotriña oso-osoan bat zetorrelako. Gure Asaben zaletasun ura egiztatzeko, aski izango dut, IV mende artan bertan Salduba'ko kontzilioak eman zituan erabakiak eta V mende beréberaz gero ain bizkor eta oparoa agertzen zai-gun "Euskal-Kapadozi"ko lekaidetza txit oparoa gogora erakartzea".

- Arianikeriak, ez, Irutasun Doneko Bigarren Pertsonaren zertasunari-buruzko ereji ura, Sarkaldekua ez baiña batez ere Sorkaldekua izan zalako. Filotsoti-arloetan Sortaldea baiña milla aldiz antzuko aurkitzen zan Sartaldean, " Fisis ", "Ipostasis", "Omousios", "Omoiusios", " Anomoios "

---

Ikus, priszilikeriaz "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan esanik utzi genduan guzia.

eta oien antzeko itz ulerkaitzek, ezin izan zezaketen, iskanbillik sortzeko, bear aiñako eraginmenik.

Beste erabateko erejia zan, ordea, priszilikeria. Ez, Kristautasunaren filosofiari lotua, kristautasunaren bizi-keraz arduratua baizik. Eta ori bai. Kristautasunaren filosofia lantzeko Sarkaldeko Elizak gaitasunik aundiegirik izan ez bazuan ere, izan zuan berebiziko ardura, kristautasuna zintzoki ta erarik santuenean bizitzeko.

Gaiñera, Sortaldea ez bezala, jentilla zan oraindik, geienbat, Sarkaldea. Eta Sarkalde osoaren barruan, gure Euskalerra zarra. Naiko izan zuten, beraz, Turona'ko londoni Martti'k eta Sarkaldeko beste Gotzaiek jentilledi ura kristautzea, eginkizun sagaratu ori baztarrean utzita, apika ulertu ere egiten zituzten eztabaida Sortaldetar aietaz ere arduratu nai izateko.

Orra or, nere ustez, zergaitik Euskalerra artan arrera onik Euskalerra Zar artan priszilikeriak bai, eta arianikeriak ez.

## LUTEBA

Beterra'ren iparraldera, uri ortatik bertan dago Luteba (edo Lutebe). Frantzeraz, izen, LOD VE darama.

Dakusazunez, batak aurrizkiz eta besteak atzizkiz, bi uri oiek daramate, bietan ere euskalduna izan daitekean "BE" "BA" aurrizki-atzizkia.

Ez zan garrantzi aundiko elizbarrutia izan uria bera ere arras txikia zalarik. Baiñan, IV mendearen azkenaldera eta V'aren asieran beste uritxo asko bezala, "ä l'exeës" (Griffe, op.c.II.1-27), uri geiegi bezala, bera ere "eivitas" egiña izan bait zan, Elizak ere, Inperioaren erakundeketari jarraitzeko arturik zeukan oitura jarraituz, gotzai-uri biurtu zuan.

"Ala sortu zitzaizkigun Akitani'n, eta sortu ziran, orobat, Galietako beste bazterretan ainbat eta ainbat alperrikako gotzaigo" (id.ib.).

Ori, ¿egia ote? Landak kristautzen gotor ari zan une artan, Griffe'k gaitzesten dituan uri txikietako gotzaigo aiek ¿ez ote zituan Elizak bearrezkoak?

Egia da beintzat, Turona'ko londoni Martti'ren eredia jarraituz, base-ritarrenganako ardura bizia erakutsi zigutela urte aietako gotzaiek.

## KADURKO

Antziñako izenez DIBONA CADURCORUM, gero, Civitas CADURCORUM, eta gaur, frantzeraz, CAHORS. Au ere Dordoña ta Garona artean dago, ta bere elizbarrutia Garona'rairio iristen da. Baleike, naiz uria bera ez, V mendean, bere lurraldea oraindik aski neurri politaz Euskalduna izatea

Julio Zesar'ek dionez (Bel.Ga1.I,8) ospetsuak izan ziran Erroma'ren aurkako guduan'.

Esan dugun lez, oso goiz, gotzai-uri genduan Kadurko. III mendearen erdian, 250'an, bertako gotzaia bait zan Genulfo Donea. Ia 100 urteko ut-sune baten ondorean, 339'an, Eksuperio dakusgu gotzai-aulki artan. 370'-ean, berriz, Florentzio.

Beste utsune bat dator ostera, ez dakigu noiz artekoa: Urrengo gotzaia, Alito, ez bait dakigu noizkoa izan zan. Dokumentuei sinistekotan, ez zan V mende guztian Kadurko'n gotzairik izan. Ain goiz gotzaidun agertu zaigun uri baterako sinistu ezin daitekean gauza.

Utsune orren ostean, dokumentuek damaiguten lenen gotzaia, VI mendekoa da: 506'garren urteko Boezio.

## LESKAR

Antziñako erromatarren izkeran Civitas BENEARNENSIVM ("Notitia Provinciarum", "Itinerarium Antonini"), garai batean Bearno'ko uri-buru izana. Paube'tik sarkalderuntz 7 kilometrora dago.

---

"Cadureorum" itzak "Kadurkotarrena" esan nai du. KADURKO ba'zan uri aren izena, ez zitzaion Euskal tankerarik peitzen. "KA" aurrizkia edozein itzaren laburpena izan daiteke. URKO atzizkia Euskalduna dala esan bearrik ez da izango noski. Badugu Bizkai ta Gipuzkoa arteko muga egiñez izen ortako mendi bat: URKO. Aundia da "KA" aurrizkia daramaten itzen sorta, baiñan geienetan, Araba'ko KA-BURU-A'n bezala, zailla gertatzen zaigu bere etimologia. "Kaburua", Sabando erri mendikoi politean alor baten izena zan 1733'an, eta orrela da gaur ere. (Ikus Gerefui'ko Loperena`tar G. 'ren liburu aipatua).

ospatutako Orange edo Arausi'ko kontzilioan Leskar'ko gotzai lez egon zan Julian Done bat aipatzen bait du: "Sanctus Julianus cujus subscriptio inter patres Arausicani concilii conspicua est": "Donejulian: kontzilio Arausitarrean izandako Asaben artean ikusi daiteke bere izenpena".

Tamalez, izpar ori ez daiteke izan egiazkoa, Arausio (Orange)'ko kontzilioan egon zan gotzaiaren izena Juliano ez baiña Julio bait zan, eta Julio ori, gaiñera, Leskar'koa ez baiña Apt'eko, erromatarren Apta'ko , gotzaia bait zan: ego-sortaldera Abirion'dik 45 kilometrorra zegoan urikoa.

Beinberriro Agate (Agcle)'ko Kontzilioa izango da, 506'ean, Leskar'ko lenen gotzai ziurraren izena emanen diguna: "Galactorius". Au izan du uri ark bere lenen gotzai ziurra ez eze, bere zaindari Donea ere. Ezer ziurrik ez dakigu Done orren bizitzaz, baiñan guri, Bearno'n ere, Bigorre'n bezala, Aitagurea V mendean esaten zala oiudagigu. Aitagurea... Euskeraz?

Utsune lodiak ostera Donegalakterio orren atzetik: 75 urteren ondorean Sabino bat agertzen zaigu 585'ean Bearnotarren Artzai. Onen atzetik, 88 urteko utsuneaz gero, Salbio 673'an. Zorionez, dokumentu orotik at ere, bere ibillera aurrera eraman oi du edesti isilla-zear gure Euskalerriko gizar-teak.

## ATURA

Gaur-egun AIRE frantzeraz. Erromatarrek "Civitas Aturensium", ots, "Atura'koen uria" esan zioten. Atura izena, oiñak bustiz i<sup>g</sup>arotzen zaion Aturi ibaiaren izenetik sortua du. Eta ADURA ere esan bait zitzaion (Sidonio Apolinar eta Gregorio Turonatarrak adibidez), ortik etorri zaio berriz ibaiari gaur daraman izena: Adur.

Eman zitzaion uriari beste izen bat ere: Vicus Julii; baiñan une labur batez bakarrik, Krist'osteko 69'aren inguruan, Julitarren dinastia, ots, errege-sendia, amaitzera zijoanean. Gotzaiei ordea atsegiña izan-bide zitzaien izen ori-ta, "episcopi vicoiulienses" idatziz izenpetu oi zituzten dokumentu guztiak X mendera arte.

Oroi, erromatekoan uri bakoitza, probintzi aundiaren barruan, probintzi txiki baten antzera tajaturik egoten zala: uri-buru bat; eta uri-buru orren inguruan, lurralde pusketa eder bat. Ba, Akize'ko uriari kendu zitzaizkion lur-zatiekin, TH mendean izan zan Atura inperio-legez Uri



tua. Noiz izan zan gotzai-uri biurtua, ez dakigu. Egia esan, "ez dakigu deus, uri ortako kristautasunaren astapenaz": "On ne sait rien des origines chraiennes de cette citC (A. Delgert: "Dic. Hist.Geo.Eccl").

Astapen orrekin loturik agertzen zaizkigun iru martiri Gibons, Sebero eta bereiziki Kiteri neskatiilla ezur-ta-aragizko jende izanen ziran baike, baiñan baita edestigintzarako egokitasun aundirik gabeko jendea ere, kondairaren illunpeetatik antzaldaturik agertzen bait zaizkigu.

Izan zan V mendean, Auberni'n Erromaren izenean agintzen zuan Seronet izeneko buruzagi bat, egiazko gaizkille maltzurra, Sidonio Apolinar'ek ("*Epistolae*", VII,9) izkera dotorez idatzi zuanez. Sartu omen zan ba buruzagi trakets ura Atura'ko uriaren barrura.

Ez zuten noski atsegin eder askorik izango aturitarrek, deabru ura uri-barruan izan zitzaizen artean. Jendeak naiago izaten omen zuan 1A mendietan goseak bizi, aren menpean ibilli baiño: "Implet cotidie silvas fugientibus", eta ez omen zan apaizekin txukunago jarduten. Basoak igeslariz bezala betetzen omen zituan ba aldareen serbitzariz espeteak: "Altaria reis carceres clericis" (id.ib).

Ongi ezaguna da, garai artako idazle guztiek bezala eta bearbada beste iñork baiño geiago Sidonio Apolinar'ek iperbolerao izan zuan leia. Alatagutiz, ez zan noski guragarria izanen, Atura'ko kristau eta apaizen zori gogorra?

Bai ote zan ordea V mendeko Atura'n kristaurik? Bai ote zan apaizik?

Bai! Eskierki bai!

506'aren inguruan bai bait zuan gotzai bat, Marcellus, dokumentu utsen argiz edestiari begiratzekotan, Atura'ko lenen gotzaia, eta orrek, VI mendearen asieran gotzai bat izate orrek, ordurako, gutxienez V mendearen asieraz gero Atura'n kristautasuna dotore sustraiturik zegoala adierazten digu.

Aburu berekoa dut Griffe edestilari frantziarra. Zail omen da V mendean ugari agertzen diran urietako kristautasunaz ezer askorik jakitea: "Baiñan, bereala, uri aiek, ia danak, gotzai-aulkiz orniturik agertzen zaizkigun ezkeru, uste izatekoa dugu V mendearen lenen erdian ere gotzai-uri izanen zirala". Entzun bere mintzaera:

"Mais comme toutes ces citas apparaissent dans la suite pourvues d'un sige piscopal, il y a lieu de croire qu'elles en &aient deja dotes dans la premiere partie du V'e siècle (op.c. II, 118)

Entzun duzu? Uri aiek V mendearen lenen erdian kristauak zirala uste izan daitekela!

Baiñan arriturik bezala dasaigu A. Delguert berak "Dictionaire d'Histoire et de Gographie Catholiques" ortan "III mendera arte (jusqu'au III'e sicle") Atura'n jentillak izan zirala". III mendean, txo? Baita askoz geroago ere Sarkalde guztian bezala. Ez adi ortaz arritu!

## BASATE

Bazas esan oi zaio Frantzi'ko erderaz. Garona'ren ibarretik aski bertan, Akitani Zarraren iparrean dago; ez, Bordete'tik urruti. Erromatarrek "Vasates" esaten zieten uri arako biztanlei: "Vasates", ots, "BASATE'-

Zarra benetan, uri ontako kristautasuna Turona'ko Gregorio'k VI mendean idatzi ziguna egia ba'liz: I mendiaz gero gordetzen zala an, ontzi batean, Iondoniane Batailariaren odola ("Gloria Martirurn", o.c.II). Basate'ko emakume bat, Palestina'n omen zegoan ba Erodes erregeak londoniane'ri lepoa moztu zionean. Emakume arek, lortu omen zuan nolabait, martiriaren odola, eta bere urira, ots, Basate'ra ekarri. Gero, Jondoniane Batailariaren omenez eraikia izan zan Katedralean gorde omen zan odol sagaratu ura.

Ipuikeri utsa, guztia? Ez. Ez, noski, guztia. Oroi, erri-literatura diralarik, kondaira danek badutela, beren gertakizunak al duten garairik antziñekoenean ipintzeko guraria. Ezpairik gabe olertikeri utsa da Joncloniane'ren odol-biltzeari dagokion ori guztia; baiñan, alatagutziz, ederki izan dezake kondaira orrek egiazkoa bere gunea. Griffen'ustez (op,c. III,37), "bai bait daiteke egia izatea, alako erlikiren bat Basate'ra iritxi izatea IV mendearen amai-aldera edo V'aren astapenean, ainzuzen Palestina'rako erroresketak indar aundia artu zuan aroan".

---

"BASO'koak" ote? "A"ori "0" biurtzen bat da, itz bikoiztatuetan, Adibidez: "basajaun", "basapizti", "basauntza" eta "basate" bertan eta beste ainbeste ta ainbeste itz ezagunetan.

dearen amai-aldera edo V'aren astapenean, ainzuzen Palestina'rako erro-  
mesketak indar aundia artu zuan aroan".

Ikus bere itzak: "Il est vraisemblable qu'une relique de ee genre soit  
parvenue a Bazas vers la fin IV'e sicle ou au dbut-du V'e, lorsque les  
plerinages de Palestine connurent une grande vogue"

Noiz, ordea izan ote zuan katedral bat une aietan oraindik seguruaski  
euskalduna zan Basate izeneko uri akitaniar arek? Bai beintzat V mendean  
ezpairik gabe. Ori adierazten bait dute eskierki, bai Gams'ek Turona'ko  
Gregorio'ri jarraituz 437'garren urtean Basate'ko gotzai-aulkian ipintzen  
digun Anonymus edo "izen ezezaguneko" gotzai arek, bai, Garns berak,  
506'tik 511'ra aulki artan bertan gotzai jartzen digun Sekstilio'k.

Bestalde, VI mendearen sarreran bertan 506'ean Basate'k gotzai  
ziurki ezagun bat izateak, zalantzarako biderik gabe adierazten digu V  
mendean ederki lan egin zutela ango misiolariak kristautasunaren zabalke-  
tan.

Urte ortan, gaiñera, 506'ean, Eusko-Elizarentzat garrantzirik  
aundinetako zerbait gertatu zan Galietan: Agate edo Agrie'ko Kontzilioa.  
Agdes, orduango izen zarrez AGATE antziñako Euskalerra Zar edatsu aren  
muga-mugan zegoan, bera ere, agian, oraindik muga aien barruan ez  
ba'zegoan. Kontzilio artan izan zan, ordezkari baten bidez, Basate'ko  
gotzaia, eta an egon ziran Ipar-Euskalerra Zarreko beste gotzaiak ere, eta  
aien artean Elusa'ko Metropolita. Agate'ko kontzilioak V mendean  
Eusko-Eliza nola zegoan erakusten digu, eta ortik datorkio bere garrantzia.  
Ikus nere arrazoiketa-bidea:

Nik badakit 506'garren urtea ez dala V mendekoa; VI mendekoa  
dala.

- Baiñan VI mendearen asiera-asierakoa da-ta, esate baterako, V  
geiago oraindik V mendekoa VI mendekoa baiño.

Arrigarria benetan, une artan gure Asaba ipartarren lurraldean  
ainbeste gotzai izatea. Gure Asaba aien ingurukoak ere kontatuz, —  
ainzuzen ingurukoak ziralako, eraginmenik aski izan bait zezaketen  
Euskalerrian ona Kontzilio artan bildu ziran gure ta gure inguru  
urbilleko gotzaien urien izenak: Arelare (Arles), Bordele, Elusa (Eauze),  
Bituri (Bourges), Tolosa, Agata, Erruteni (Rodez), Arbiga (Albi), Kadurtzi  
(Cahors), Eliberri (Auch), i,Konbene? (Comminges), Bearno (Bearra),

Petrokori (Nrigueux), Narbona, Bigorre, Gabali (Wraudan), Bazate, (Bazan) Arberno (Clermon), Atura (Aire), eta Basate.

- Gotzai-uri oiek, geienak, Euskalerra Zarraren barruan zeuden. Naikoa, eta naikoa baiño geiago ere bai, VI menderako gure Asaba zar aien artean Eliza Erakunde billakaturik zegoala oles-egin aal izateko.

- Gotzai-uri oiek danek, bai beintzat geienen V mendean irabazi zuten beren gotzaia.

- Orrek, ordea, BOSGARREN MENDEAN, iparreko Euskalerra Zarra sendo kristauturik zegoala esan nai du.

- Ia 200 urte leenago, ean, IV mendearan asieran beraz, beste kontzilio bat ospatu zan. Arelate'n, (gaurko Arles'en). Euskalerra Zarretik, gotzai bat bakarrrik egon zan Kontzilio artan: Elusa'ke Goigotzaia. Eta inguru urbilleko gotzaietatik, bi: Bordele'koa ta Gabali'koa. Begira egiozu orain laburki Agate'ko kontzilioan izandakoen zerrendari, eta une batean jabetuko zera nolako aurrerapena egin zuan gure Asaben arten kristautasunak bi kontzilio aien artean.

Aurrerapen ori, agian Kalagurri'ko Emeter eta Zeledon "zenturioi" Done bien..., Agino'ko Done Fides edo Sinismen izeneko nesktatik Donearen..., eta kondiraren bidez iritxi zaizkigun beste Martirien odolari eskerrak gertatu zitzaigun. IV eta V mendeetan. gertatu zitzaigun. -- Tertulia'noren ustez "kistau-azi bait da martiri-odola--.

## AGINO

Garona ibaiaren puntturik iparrekoenean aurkitzen da, Akitani euskaldunaren muga-mugan. Baleiki, orregaitik, euskera an V mendean galdurik egotea. Baiña bere inguretan bai, euskaldun jarraituko zuan noski landetako jende erdi-artzai erdi-nekazariak.

AGINNUM izendatu zuten erromatarrek; AGEN esaten diote frantziarrak.

Ez gera Agino'z luze mintzatuko, eginkizun ortaz arduratu bait giñan "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan.

Egin genuan, 358'tik 392'era ango gotzai izan zan Donefebadio'ren goratarrea. Esan genuan Arimini (Rimini), Galieta'ko Balentzi, eta Hispanietako Salduba'ko kontzilioetan izan zala, azkeneko bi oietan lendakari

lez, ainzuzen. Agian, kontziliokide guztien artean adiñez zarrena bera zalako. Ori bait zan orduan oitura.

Arianikeriaren etsai beroa,-- idatzi ere idatzi bait zuan ereji aren aurkako liburu bat Piktatio'ko (Poitiers)'ko Ilario Donea Inperatoreak erbesteratua izan zanez gero, bera, Febadio, izan genduan Galietan arianikeriaren aurkako borrokaren buruzagia.

V mendeko dokumentuek ez digute Agino'rako gotzai bat besterik ematen: Dulzidio. Ez ote zuan ba Agino'k V mende osoan gotzai bat besterik izan?

Garai artan, Tolosa uriburu zutela, Bisigotak genituan Galietako egoalde guzian nagusi. Arianikeri-zaleak ziran, Baiña biguiñak katolikoekin, Euriko izan ezik.

Errege au, bai Tolosa'ko erreinuan bai geroago Toledo'koan, bisigotek izan zuten erregerik aundiena, besteak baiño ariozaleagoa izan zan, eta ez zion beñiere katolikotasunari begi gozoz begiratu.

Ez daiteke Eliz-zigortzaillea izan zanik esan, baiñan bere agintaritzakoan uri batzuk gotzairik gabe egon omen ziran, gotzai bat illik aren ondorengo aukeratzen uzten ez zualako.

,Orregaitik egon ote zan Agino ainbeste denboraz gotzairik gabe?

Dulzidio ordea, V mendearen asierakoa zan: 405'eko dokumentu batean aipatzen da ba Agino'ko gotzai lez. Euriko, berriz, mende orren bigarren erdikoa: 24 urtez 460 ta 484 bitartean izan bait zan errege. Gaiñera, "Dictionnaire d'Histoire et de Geographie Ecclesiastiques" ez dio orrelako zakarkeririk leporatzen.

Bestalde, antziñate artako elizbarruti guztietan agertzen zaizkigu orrela utsune galantak. Zergaitik? Dokumentuek gotzai askoren izenak jaso ez zituztelako, edo izen oiek jaso zituzten dokumentuak galdu egin zaizkiguiko.

Dulzidio'ren urrengo gotzaia, Bebiano, VI mendekoa da: VI menderen erdikoa: 549'koa. 166 urteko da, beraz, Agino'ko gotzai-zerrendako utsunea.



## AKIZE

Dax, frantzeraz. Bere antziñako izenak, VIBIO, TARBELLA, CIVITAS AQUARUM TARBELLITARUM, eta, bereiziki, AQUAE AUGUSTAE, eta izen ortatik sortutako ACQS.

Gaurr-egun ematen zaion euskerazko izena ere, AKIZE, laterazko "AQUIS"en aldakuntza dan "AQCS" itzetik sortua ote du? Ez dut uste. Bere atzizkia "TZE", "TZA", zearo bait da euskalduna. Eta "AK/"z asten diran itzak ere bai bait ditugu: AKITANI bera adibidez.

Gaurr-egun, Akize, "Landes" edo Landeta'ko elizbarrutiaren gotzai-uria dugu. ¿Noizkoa ote zan bere aurreneko Gotzaia? Gams'ek, noizkoa izan daitekean esateke, martiri ildako Donebixente bat damaigu, lenen gotzai lez, Akize' rako

Ez da erreza Donebixente ori nor izan zan jakitea: LAgino'n martiri il omen zan Donebixente'ren bikoiztatze bat? Bañan badira au ere, Salduba'ko Donebixente martiri Ueszitarraren bikoizketa bat, ots, aren eredura asmatutako martiri bat izan zala diotenak, eta "ez arrazoirik gabe" Griffe'ren ustez: "non sans quelque vraisemblance" (o.c.I.121.

Bestalde, Agino'koaren "Passio"-liburuak baditu bereiztasun nabariak. Baiñan "Passio Vincentii" orrek "zenbatera aiñako sinipena merezi duan jakitea, ez da gauza erreza": Il est tres difficile de savoir quelle valeur il convient d'accorder a cet recit" (id.ib.).

Akize'ko lenen gotzaia, 506'koa da, Graziano izenez. Seguruaski V mende ortakoa da, VI'aren lenenelenen urteetakoa ez ba'da Akize'ko bigarren gotzai dokumentuz ezagutua: Ilidio.

Emen ere beste ainbat Elizbarruti aztertzerakoan esan duguna birresan bearko dugu: Zabalkuntza-aro naroa izan zala V mendea kristautasunarentzat Landetako euskaldunen artean ere,

Danadala, oso goiztarra izan zan Akize'n kristautasuna "Dictionnaire d'Histoire et de Gographie Catholiques"en ustez; "le christianisme semble s'are introduit a DAX vers le fin du siclee", ots, Akize'ra kristautasuna irugarren mendearen azkenaldera sartu zala" bait diosku.

## OLORON

Bearno<sup>t</sup>ko erria dugu. Antziñatean, **ILLURO**, **ILLURON**, **ILLURONA**, **ELORONA** esan zaio.

Noiz iritxi zitzaion Kristo'ren berri ona jakiteko, bide egokirik ez dugu.

Erromateko Donejulian leskartarrari-buruz kontatzen dan guztia beintzat ori besterik ez da: Kondaira. "Une rapsodie qu'on ne saurait prendre au sérieux": "gogoan artzea ere merezi ez duan olerki bat" (Dic.Hist.Geo.Eccle).

Ustela da, Oloron'en, IV mendean gotzai bat izan zala esateko erabili oi dan arrazoa: "mende ortan izan zala Uri egiña, eta Elizak Inperioaren erakundetza jarraitu zualako, Inperioak Uri egin zuanean Gotzai-Uri egingo zuala Elizak ere".

Ederki erantzuten dio uste orri H. Leclercq edestilariak oraintxe aipatu dugun iztegi ortan (XII, 2'gn. zatia, 2063):

"C'est s'avancer beaucoup et mettre de côté toute prudence que d'écrire qu'on sait que avait adopté les divisions civiles et établi des sièges épiscopaux dans toutes les cites.

"Resterait a savoir eta démontrer que **a opéré sur tous les points simultanément**. Il est permis d'en douter: ici, plus tÖt, la, plus tard. Rien ne permet d'affirmer que la eité d'Oloron ait reco ii cette date préciso un eveque".


Euskeraz:

"Zugurtasun oro bazterrean utziz aurreraegi joatea da noski itz auek idaztea: `gauza jakiña dala Elizak Inperioaren gizarte-geografi-erabaki guzé tiak ontzat artzen zituala eta ark legez Uri izendatzen zuan uri bakoitzean Elizak gotzai bat ipintzen zuala'.

---

<sup>66</sup> Bere aurreneko aipua, IV mendeko Antonino'ren "Itinerarium" edo "Bideliburua"n aurkitzen da: "Illuronem". Gerxeago, IV mendearen azkenaldera, "Notitia Provinciarum Imperii" liburuak, "Civitas Ellorontium" esaten dio: "Elorotarren uria". Danak euskaldun-itxura osoko izenak.





7254. — Plan de la basilique de *Lugdunum Convenarum*.  
 D'aprBs *Comptes rendus de l'Acad. des Insér.*, 1914, p. 62.

Il est probable que cette basilique primitive-était cette du siècle. De nombreuses monnaies ont été trouvées sur l'emplacement des fouilles, cinq d'entre elles étaient en état de fournir des indications chronologiques; elles appartiennent à des princes dont les règnes se placent entre 306 et 383. Une inscription funéraire, conservée aujourd'hui à Valcabrière (voir ce nom) et trouvée à 800 ou 900 mètres des fouilles dont nous parlons, témoigne que *Lugdunum Convenarum* reçut l'évangile dès le IV<sup>e</sup> siècle. Elle porte l'inscription suivante datée de 347 :

VAL · SEVERA · EGIT · ANNOS · XXX · RECESSIT · III.  
NON · IVL · RVFINO ET EVSEB'IO CONSS  
PAC PATROCLVS PRAESBYTER SIBI IN PACE \*

Puisqu'on signale le prêtre Patrocle à *Lugdunum Convenarum* en 347, il devait s'y trouver des fidèles, une église, un baptistère, une communauté. On ne s'aventure guère en pensant que la basilique fouillée il y a peu d'années avait remplacé un oratoire, un martyrium, une basilique plus ancienne, dont il ne servirait de rien de conjecturer les dispositions et la date.

Celle dont les vestiges subsistent aura probablement disparu en 585; nous avons vu par le texte de Grégoire de Tours que rien ne fut épargné : elle pouvait remonter à un siècle et demi environ, vers 439, à l'époque où la domination des Wisigoths donna une période de sécurité et de prospérité.

La basilique, dont le chevet et les premières et dernières travées furent dégagées en 1913, se composait d'un vaisseau long et d'une abside rectangulaire terminée en forme de trapèze (Dik <sup>1, 66 111</sup> Ec.)

*Frart rz6r-La' e k<*

"1"2-21

*ptlx f*

deusek ez digu eskubiderik ematen Oloron'go uria, Inperio-Uri egiña izan zan une berean Gotzaiuri-ere egiña izan zala oiukatzeke".

Leelercq'ek arrazoi osoa du; baiñan bear bezala azpimarratu gabe uzten du, Elizak geienetan Inperio-Uri berriak Gotzai-Uri biurtzen zituala.

Batez ere IV eta V mende aietan. Izan ere, orduan, Inperatoreak kristauak ziralako pake <sup>g</sup>ozoan bizi zeralarik, uri aundietatik irtenda, nekazari-artzai-eta-basajendeen ebangelizaketara sendo sartu zan ezkeru, landak-zear gotzaiak ugaritzea, arras bait zitzaion onurakorra! Nola ez ba Uri berri guztietan, naiz uri txikiak izan, ez, beste aideren batetik eragozpenik ez ba'zuan, nola ez aietako bakoitzean, inguruetako landa-jendeen ardura-dun, gotzai berri bat ezarri?

Lotsarikge esan genezake, Leclercq Jaunak baimenik ematen ba'dugu, gure arrazoiketa orrek ederki balio duala Oloron uri izendatu-berriarentzat ere.

Guri, ordea, au da iiburu ontarako bereiziki arduragarri zaiguna: VI mendearen asieran bertan, 506'garren urtean, Oloron'ek gotzai bat bazuala. Orrek, V mendeko Oloron'go kristauak beren erlijioaren zabalketagintzan zintzo ibilli zirala esan nai bait digu, eta zitu ederra lortu zutela beren eginkizun ortatik. Euskalerrri Zarreko txoko polit artan, V mendean, kristauak ugari izan ez ba'lira ez bait zuan Elizak Oloron'go urirako gotzai bat *izendatuko*.

Gozzai aren izena, Gratus.

## KONBENERRIA

Izen ori, nik, Bizkai'ko "enkartatuen" lurraldearen izena, ENCARTERRIA, eredutzat artuz, erromatarrek "Civitas Convenarum" edo "Itunpetuen Uria" esan zioten eta gaur frantziarrek "Cornminges" esan oi dioten uri zaar ari damiodan izena da.

Luze itzegiñak gera uri zar ospetsu ontaz "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan. Uri ospetsua benetan edestiauurreari dagokionez, an bait daude "aurifiatar aroari" izen eman zioten Aurigñac eta Lespuge'ko leizak, eta aundia bait da bere magdaleniar garaieko aberastasuna ere; ospetsua era berean lenen kristautasunari dagokionez ere; angoak dira ba Galietan ezagutzen diran basilikarik zarrena eta parrokirik zarrena. Euskalerrrikoak! Eta bere izen da guzi ezagutzen dugun Galietako parrokorik

zarrena ere bai! Patroklo izeneko apaiza! Euskalerrikoa! Euskalduna ere bai? Bai, seguruaski. Ori, ordea, eskier jakiterik ez dugu.

Liburu ontan ordea, uri aren V mendeko kristau-bizitza da aztertu bearra duguna.

Esan dezagun, asteko, mende orren asieran, bandalitarren erasoja jasan bearrean aurkitu zala Konbenerria (408-409), baiñan aguro jaso zuala berriro burua.

IV mendearen erdikoa ("du milieu du IV'e omen da "Galietako basilikarik zarren-zarren ori": "!a basilique ehr&ienne la plus vielle de la France". (Dic.Hist.GëogEcel."Comminges" itzean). 1 Kostantino'ren eta onen semeen garaiekoak omen dira bertan aurkittitako diru-txanponak.

Bai noski. IV mendea amaitzerako bukaturik bait zegoan, V'aren asieran, 408'an ainzuzen, Bandaliarrek ondatu zuten basilika ura.

Laister izan zan ordea bir-berritua, v mendekoak dira ba, an aurkituak izan diran illobiak.

Antziñatik izan da, Bandaliarrek uri artan martiri erailla bezala omendua, Gaudenzio Donea. Ez dugu, ordea, Done oniéburuzko dokumentu ziurrik.

Dakusazunez, V mendean ongi erroturik genuan Konbenerrian kristautasuna. Bildur aundirik gabe esan genezake, V mendea ez baiña IV'a eta baita agian III'a ere! izan zala lurralde euskaldun artan Kristauézabaikuntzaren aroa. Aipatu dugun "Notitia" izeneko idazkiak IV mendearen azken aldean "civitas Convenarum" uri gotzaiduna zala bait diosku. Gauza bera adierazi nai digula dirudi Donejeronimo'k Bijilantzio erejiari-buruz Riparius bere adiskideari idatzi zion eskutitzak. Bijilantzio, lurralde auetako apaiz erejea ongi ezaguna dugu Beraz Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza'n mintzatuak bait gera.

Alare, dokumentuen araura, 506'koa dugu bere aurreneko gotzaia, Suavis, izenez; eta, urrengoa, Praesidius, 533'koa.

## KONTSORA

Sar gaitezen orduango Euskalerrri Zar eta Zabal artako mendirik garaienen azpiko aranetara, eta ikus dezagun nola ari zitzaigun zabaltzen aran aietan Kristo'ren ebangelioa.

Akitani'ren ego-sortaldean, Auñamendiren maldan zegoan erromatarrek "Civitas Consoratorum" izendatu zuten uri euskaldun ura. Elebiduna, agian, uria bera, baiñan euskalduna bere inguru gutzia. Gaur, frantziarrek, Couserans esaten diote.

Auñamendiaren barruan dagola esan daiteke. Eta, orregaitik, baita, seguruaski luzaro jarraitu zuala euskaldun ere. Oroi Auñamendiaren beste aldean euskerak bizirik iraun zuala XIV mendearen erdira arte Aragoi'ko zelaiean dagoan Ueska'ko uriaren barnean, eta baita XV'a sartuta ere Uesé ka'ren iparreko mendietan.

IV mendearen bigarren erdian erri asko izan legez Uri izendatuak. Eta naiz beti ez, bai geienetan Inperioaren erakundetza bere-egiteko oitura bait zuan Elizak, Gotzai-Uri biurtu zituan.

"C'est également vers cette époque qu'ont été constituées les deux églises épiscopales des Consoranni et des Convenae (Griffe, o.c. I. 184). Euskeraz:

"Dirudianez garai ontan-edo izan ziran gotzai-uri egiñak Kontsorandarraren eta Konbenerritarren uri biak ere". Bata bestearen ondoan zeuden bi elizbarruti menditar berri oiek.

Kontsoratarrek 451'garren urtean, ots, V mendearen erdi-erdian, gotzai bat bazutela eskier jakin aal izateak, an kristautasunaren zabalkuntza askoz leenago asi zala esan nai du: V mendea baiño leenago! Noiz? IV mendean beintzat bai, zalantzarik gabe.

Turona'ko Gregorio'k, V I mendean, Valerio izan zala diosku, Kontsora'ko lenen gotzai aren izena ("Glor. Conf. 84).

Eta, dirudianez, V mendean ere ez ziran nagi ibilli gure arbasoak kristautasunaren zabalketan, dokumentuek damaiguten Kontsorandarraren urrengo gotzaia, Gficerio, 506'garren urterako uri artako jende aien artzaintzan asia bait zan. Noiztik? Seguruaski V mende ber-beraren azkeneko urteetatik

Une ontan, irakurle, oartxo bat egin nai nizuke:

Gaurko Euzkadi'ren baso ta mendien kristauketa oso berandura arte -- batzuek XI mendera arte atzeratu nai dutenek ipiñi oi duten arrazoietakoa bat, "Saltus Baskonum"en malkartasun igarokaitza izan oi da.

Zuri, ordea, ez al zaizu iruditzen, Auñamendiaren erdi-erdian milla bider malkartsuagoak, latzagoak eta igarokaitzagoak dirala Konbenetarren eta

Kontsorandarren mendiak? IV mendeaz gero, eta IV mendean bertan, kristautasuna ain bizkorra ta ain dotorea agertzen zaigun "Saltus Convenarum" ura, eta aren alboko "Konsoranorum" Saltus"a?

Mendi-kate aietako maillo ta mendietara gureetara beiño errezago iristen dala?

Ez da egia.

Euzkadi'ko "saltus" edo baso-mendietarako sarrera ez da "saltus" artarakoa beiño zaillagoa. Alderantziz, bai iparretik bai egotik, milla bider errezagoa baizik,

Bideak ere, erromateko bideak, ugariagoak ziran emen an beiño.

Emen zegoan, gaiñera, erromatarrek sarkaldean izan zuten bidezabalik ederrena, garrantzitsuena... eta jendeémota orok ibilliena: Asturika-Burdigala bidea.

## ISPANIETAN

### SALDUBA

Gaur egungo Zaragoza, idazki zaarretako Caesaraugusta, anei bider esan dugun bezala bere iparraldetik eta sarkaldetik Baskoni eta Ueszitanrko leiñu Euskaldunei ia-ia erantsia, eta bere arresien barnean eskierki Euskaldunez betea".

Iparraldeko mugetan, kristautasunari dagokionez V mendean ain adur ona izan ba'zuan Euskalerriak, ez zuan okerragoa izan ego-sortaldekoan. Salduba'n ere gotzai bikain bat egon bait zan IV mendearen azken-aldian: Balerio, Balerio Donea, ainzuzen Prisziliano'ren aurka 380'ko kontzilio ura bildu zuana.

iZergaitik ainbeste larritu ote zan, eta Prisziliano'ren aurka kontzilio bat, zer eta kontzilio bat egitea erabaki ote zuan Salduba'ko gotzaiak, naiz oraindik ispanietako beste gotzaiak orrenbesteranio kezkatu ez? Ori, Prisziliano durudianez galizaiarra zala! Eta bere gaitza, dokumentuek dioskunez, Salduba'tik txit urruti, an, eta Lusitani'n eta Betika'n eta Abila'-ren inguruko Gazteleerrian egin zuala!

---

Ez dakit len esan dedan, baiñan Erromatarrek bertara iritxi aurretik, Zalduba zan Zaragoza'ren izena. Izen ori "S"z idatzia ikusiko duzu dokumentuetan, aurreneko idazleak orrela idatzi zualako. Baiñan ongi ezaguna da, atzerritarrek euskerazko "Z"ren doiñu bereizia idazteko suma oi zuten zailtasuna, eta "S" erabiltzera jotzen zutela. Nere ustez, belarri euskaldunari erreza goa, goxoagoa, eta egokiagoa gertatzen zaiolako, Zalduba zan bere egiazko izena. Bañan naiz Zalduba izan naiz Salduba izan, arrigarria da izen bi oien euskaldun-itxura. Bai "ZAL" hai "SAL" aurrizki lez daramaten izenak pillaka bait ditu gaur bertan euskerak. Nik bi erak erabiliko ditut.

Geroxeago, Euskalerrriaren beste ertzean, Bordele'n eginen da Prisziliano'ren aurkako bigarren eta azkeneko! Kontzilioa. Andik Inperatorearen epaitegira joan nai izan zualako, epaitegi artan eriotzara galdua izan bait zan.

Guzti orrek, noski, zerbait esan nai digu: Naiz dokumentuek isilik, -o! Euskalerrriari-buruzko dokumentuen isiltasun betikoa Euskalerrri Zarrean izugarriki zabaldu zala Prisziliano'ren erejia<sup>68</sup>.

Aztertu genuan "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"n priszilikeriaren arazoa, eta aurkeztu genituan Salduba'ko kontzilioan Donehalerio gotzaiak artutako erabakiak.

Balerio "oni, agian, opaldu omen zizkion Prudentzio'k bere olerkiak", "force cui inscripsit Prudentius poemata sua" (Gams). Azalduko dugun lez, ez da ori guztien iritzia.

V mendean ez dago ezer ziurrik Salduba'ko Elizaren edestiaren arloan. IV mendearen azkeneko aldean, ots, 388'an ikusi dugun Balerio orren atzetik ezerez!, VI mendearen asieran, 516'ean, agertzen zaigun Bixente'rengana iristen geran arte. V mende osoa jutsik!.

Izen batzuk aipatzen dira, bai; baiñan opusdeitarren zuzendaritzapean idatzitako GER iztegiaren iritziz, Pedro, Simplizio, Baleriano, Luzio, eta Isidoro, bostak, "invención de los falsos cronicones" bait dira.

Alare, ez ain utsik; V mende orren erdian Gams'ek gotzai "Izenge" edo "Anonymus" bat ipintzen bait du Salduba'ko gotzai-aulkian.

Guzti orrek, ordea, zer esan nai ote du? 380'ko Balerio'z gero 516'ko Bixente'ren izena agertzen zaigun arteraño, ia-ia mende t'erdiz, Salduba bezain uri bikain eder aundi bat... ¿"Anonymus" ura beste gotzairik gabe egon zala? Aspaldidanik, III mendea berberaz gero, ain kristauz ugaritsu, Iondoni Bixintxo bezalako martiri yorien kerizpean ain sinismen sendoko, eta eliz-gizon jakintsu ta arduetsuen bidez sinismenaren araztasunaz ain leiaturik agertu zaigun Eliz miresgarri ura ainbesteko epe luzez, "Izenge" ura izan ezik, Gotzai bakar bat ere gabe egon zala? Ori esan nai ote du?

---

68 Oraingoan, orregaitio, naiz Españi'koek ez, Frantzi'ko dokumentuek priszilikeriak Iparreuskalerrri Zarrean izandako arrakastaz jakitun egiten



Ori, ordea, logika ororen aurka dijoalako, iñolaz ere sinistu ez daitekean gauza da.

Zer ote da mende artan Salduba'n gertatua? Naiz an gotzaiak izan, gotzai aiek danak "izenik gabeak" ez ezê "izaterik gabeak" ere badirala guretzat, "anonymi" ta "inexistentes", beren izenik dokumentuek jaso ez digutelako.

Baiñan zerbait arras garrantzitsu gogoerazi bear digu guri "izengekeri" edo "anonimikeri" orrek:

Salduba'n, dokumentuei dagokienez, ¿non eta Salduba'n!, Zaragoza'n!, erromatekoan ere ain ospetsua zan Zesaraugusta'n! edestia ia mende t'erdiko utsunean murgildurik agertzen ba'zaigu, ez dugula "Saltus Baskonum" edo "Eusko-Basalurretan" dokumenturik ez aurkitzeaz arritzeko arrazoirik.

- Ez dugula iñoiz aztu bear, dokumentuek ez digutela Erri oso baten edesti osorik ematen, eta bearrezkoa dutela edestilariek, dokumenturik eskuratzen ez dutenean, logika zintzoaren bidetik ibilli bearra. Baita dokumentu berberaien balioaz era ziurrez jabetu aal izateko ere. L o g i k a r i k gabeko edestia ez bait da egiazko edestia. Ezta, ez bait da olerkizko kondaira polit atsegin baten kideko zerbait ere. Alderantziz, Erri baten aurkako kalumni edo gezurgaizto utsa besterik ez bait da, maiz aski beintzat.

Esan bear digu ordea zerbait, ataltxo au bukatu aurretik, V mendeko gotzai-aulki Saldubatarrari-buruz. Auxe alegia:

Naiz GER iztegi opusdeitarra V mendean Salduba'n gotzai bat izan zala oartu ez, eta Gams'ek bere "Anonymus" ura nor izan zan jakin ez, guk, zuk eta nik, irakurle, ori badakigula:

Eskier dakigula, gaiñera! Salduba'ko gotzai "Izenge" ura, Kalagurri'ko Silbano gotzaia Askanio Tarragona'ko goigotzai metropolitari salatu zion "episcopus caesaraugustanus" ura bait da.

Tamalez, Askanio'k salaketa ori Aulki Doneko auzitegira bidaltzerakoan Aitasantuari idatzi zion gutunean ez du gotzai salatari aren izenik ematen. Eta Askanio bait da gotzai artaz mintzatzen dan bakarra, aren izenik jakin gabe gelditu bearko digu betirako.

Dakusazunez, GER opusdeitarra baiño zuzenago ibilli zan Garns beneditarra. "Circa 458" izan zala dio, Salduba'ko gotzai, bere "Anonymus" ura. Orra Urte orren ingurukoa ("circa") da Silbano'ren auzia ere.

Beraz, gotzai "Anonymus" ori, Askanio'ren aurrean Silbano salatu zuan gotzai Salduhatar ura da. GER zuzendu zuten opusdeitarrek, Pius Bonifacius Gams beneditarrak 1873'an idatzi ta argitaratutako "Series Episcoporum Ecclesiae Catholicae"rik ez zuten noski ezagutzen, naiz liburu ori, azkeneko aldiz 1931'an berr-argitaratua izan.

Baiñan Gams'ek ere ez zekian bere "Anonymus" ura nor izan zan, bestela, naiz arras laburki, emango bait zuan, oitura duan lez, Silbano'k Askanio'rekin izandako arazoen berri, Beti egiten du ha ori, aipatzen dituan gotzaien ziurtasuna egiztatzeko.

Euskalerrriaren ertzean aurkitzen zan Salduba artatik irtenda, sar gaitetzen Ibero ibaia erromatarren zubia igaroz Euskalerrriko ego-zelaietara. Ueszitarren lurralde osoa ibilliz, jo dezagun urrutira, Ilergeten uri nagusira, eta geldi gaitezen emen Ilerda zarrean.

## ILERDA

Katalaunieraz LLEIDE, gazteleraz LERIDA. ¿Euskalduna ote zan V mendean Ilergeten urinagusia? Bai, beintzat, agian, ele bikoia. Mendietatik eta basoetatik Lerida bezain urruti, Euskalduna bait zan oraindik Ueska, eta Euskaldun jarraituko bait zuan mendeak-zear luzaro, XV mendearen asiera arte<sup>69</sup>. Eta aburu berekoa da Menéndez Pidal, Españi'k izan duan jakintsurik bikaiñenetako bat:

"Para Menéndez Pidal la Ínea Lerida, Barbastro, Huesca, marca el límite Euskaldun en época romana. En esa situación llegaron las invasiones germánicas, sobre todo las oleadas del 409 en adelante. Por lo que se sabe y se barrunta en la historia que sigue siglos V al IX muchas ciudades conservaron el euskera probablemente en estado de **con el** latín, pues de otro modo no se explica que persistiera en Huesca hasta muy entrado el siglo XIV" (Enc.Gen.Ilus.País Vasco". "Euskara" itzean).

Menéndez Pidal'ek Lerida'rekin batera Barbastro'n eta Ueska'n ipintzen digu Euskeraren egoaldeko muga. Baiñan Menéndez Pidal'ek ondotoxozekian Ueska V mendean eta askoz geroago ere Euskeraren mugaren barruan aurkitzen zala. Orregaitik, "a pari", "kidetasun berdiñez", logikarik xumeenaren arauz, Lerida ere Ueska bezala euskeraren mugen barruan zegoala aitortzera bearturik aurkitzen gera.

---

<sup>69</sup> Ueska Uriko udalak bere azokako euskerari-buruz emandako erabakia XIV mendearen erdikoa dala badakit. Baiñan baitare, badakit antziña artan denboraren aldakera geldia eta orren ondoriozko gertakizunen eta gauzen iraunpen luzea kontuan artuz berrogei t'amar urteen epe motxean ez zala Ueska'ko azoka artan euskerarik ezabatu. Orregaitik diot, gutxienez XV mendera arte Euskerak Uri artako azokan bizirik iraun zigula. Urian XV'a arte iraun ba'zuan arte iraun ote zuan inguruko baso ta mendietan?

IBai ote zuan V mendean gotzairik, euskeraz edo agian ele biz -- euskeraz eta lateraz itzegiten zuan Lerida zar arek? Bai, nere ustez.

Petrus, Kepa, deritza lenen ezagutzen dugun Ilerda'ko gotzaiak. Sebi-lla'ko Isidoro Doneak damaigu gotzai zar aren berri. Tamalez ez digu bizitu zan denborako albisterik ematen. Alare, aren goratzarrea egiñez, onako au beintzat esaten digu: "Petrus Ilerdensis episcopus, edidit diversis solemnitatibus congruentes Oraciones et Missas eleganti sensu et aperto sermone" (De Viris Illustribus XIII).

Euskeraz:

"Jai-egun berezietarako, zentzu dotore eta izkera errezeko Otoitzak eta Mezak argitaratu zituan Kepa gotzai ilerdatar onek".

Gams'ek ere aipatzen ditu Isidoro Donearen itz oiek, baiñan ez onek ez arek ez digute esaten "Petrus Ilerdensis Episcopus" ura noiz bizitu zan. Seguruaski IV mendearen azkenaldekoa izanen zan, urrengo gotzaia, Ilerda'n, VI mendearen asierakoa bait da: Orontzio' 516'koa ainzuzen! 516'ean aipatzen da aurreneko aldiz Orontzio onen izena. Gorputz zegoan, berriz, andik urte batera: 517'an. Eta gotzai bat urte bat bakarrik bizitzea ez bait da sarritan gertatzen dan gauza, badirudi askoz leenago izanen zala Orestes gotzai sagaratua.

Orrek, gure Kepa Otoitz eta Meza idazle ura V mendekoa izanen zala adierazi nai digu; bestela, Isidoro Doneak aipatzea merezi izan zuan otoitz eta meza liburu bat idatzi aal izateko, bear aifia betarik ez bait zuan izango.

Otoitz eta meza aiek latinez idatziak ditugu, Ez bait zan bestela Isidoro idazti aiek "dotoreak eta ulerterrezak" ziranik oartuko. Ez ote zuan bere elizbarrutian oraindik ain ugari zituan Euskaldunentzat ezer euskeraz idatzi?

Ez.

Gure izkuntza beti izan da, bai atzerritarrak eta bai kulturaz jantzitako Euskaldun beraiek duintasunik gabeko eletzat, ots, idazketarako erabilli ere ez daitekean izkuntza basatitzat eukia.

Lerida Euskaldun zan arokoak dira, beraz, 1927 aurkitu ziran kristau-aztarnak: "Los restos de una necropolis paleocristiana aparecidos en en 1.927 y los de una basflica de finales del siglo IV certifican la existencia de una Iglesia cristiana muy temprana en el valle del Segre" (GER).

Ezpairik gabe, euskaldunak ziran otoigintzarako IV mendeko basilika artara biltzen ziran "paleochristiani" edo "kristau zar" aiek. i,Egiten ote zuten otoitzik euskeraz?

Bai noski bere etxeetako sukaldeetan, ez ordea basilika zar aren barrungo liturgi-ekintzetan, IV mendean Latiña, Elizarentzat, *ele sagaratu* billakaturik bait zegoan! I Kostantino'z gero latiña inperatore kristauen ele biurturik zegoan ezker, batez ere. (Ortaz, ordea, "Eusko-Kristautasunaren Sorkuntza" liburuan mintzatu nintzan astiro ta luze).

\* \* \*

Auñamendi Euskaldunaren egoaldeko egian aurrera jarraitzen ba'dugu, Zerretiarren lurraldeetara sartuko gera, eta, aruntzago joanez, Mediterran-Itxasoaren ertzera iritxiko gera bidean aurkitzen ditugunekin euskeraz mintzatzuz.

Ez gaitezen arritu: Euskaldunak izandako lurretan gabiltz-eta.

Eta berdin, ibillaldia iparraldeko maldaz egiten ba'dugu: "La toponimia vasca conservada en Plena Edad Media y actualmente a lo largo de todo el Pirineo basifica y cimenta los datos proporcionados por historiadores y lingüistas" (Enc.Gen.Ilus.País Vasco. "Euskara" itzean).

Auñamendiaren egoaldeko lurretan iru gotzai-uri aurkituko ditugu: Urjel, Vich, eta Geroa". Eta beste bi, gotzai-uri lez aspaldidanik ezabaturik daudenak: Rosas eta Anpurias:

---

<sup>70</sup> Gerona'ren "G" ori, ez dugu, gure egoaldeko erdalduen erara, "J" agoskatu bear; "G" baizik euskeraz ari geranean egin oi dugun bezala. Krist'osteko II mendean Ptolomeo'k ere uri orri "Girona" eman bait zion izen. Bordele'tik aurrera itxasora-bidean Garona'k eta Dordofia'k bat egiñik edatzen duten ibai zabalak ere Gironda deritza. Biak Euskalerra Zarraren ertza bietan daudelarik, "GIRON-A" k eta "GIRON-(d)-A" k baduteta dirudi alkarrekin aidentasunik aski. Frantzeraren txastamenari, itzegiterakoan, atsegiñago bait zaio emeki agoskatu daiteken "Gironde", "Gironde" legorra baiño. Danadala, Ptolorneo'k, beste iñork baiño leenago uri aren izena ematerakoan Girona idatzi zuan, eta, arek, elendarra zalako, eta eleneraz idatzi zualako "G" orri doiñu goxoa ematen zion.

Ez bezalzkrit, arren, irakurleak arritu: Ampurias" eta Rosas (antziña artan "Rodope") Mediterran-Itxasoaren ertzean daude, oso iparrean, Gero-na'ko probintzian biak, bata eta bestea itxas-kolkotxo bat beraren ertzetan. Guri, berriz, an, noizbait, euskeraz itzegin zala uste izateko ez zaigu peit-zen arrazoirik: "Hemos de suponer, basandonos en datos ciertos que el euskera Ilegaba hasta las cercanias del Mar Mediterraneo" (ib). Ez zegoan beintzat andik urruti itxaso beraren alboan ILLIBERRIS izeneko uria: Iliber-ri, ablatibu-eran Iliberri, laister gotzai-uri agertuko zaiguna'.

Iñoiz itxasertz artan euskera bizirik egon ba'zan ere, ez dakigu noiz il-zan Anpurias eta Rosas urietan. i Bizirik ote zegoan Krist'aurreko VI men-dez Anpurias'era eta V'ez Rosas'era elendarrak iritxi ziranean? Zer Euskal-ki itzegin ote zan an? Sortaldekoa? ots, Zuberoera? Ala Euskalerrriaren erdikoa, gaurr-egungo giputz-naparrera?

Seguruaski euskera illik zegoan V mendean, Lurrarteko edo Mediter-ran-Itxasoaren ertzeko uri aien barruan. Alare aipa ditzagun erren; len,

---

<sup>71</sup> Naiz lenen ikustaldi batean izen onek euskeratik urrun dagoala iduritu, askoz hertago agertuko zaigu "Ampurias" itzaren ernhorra "anpuri" dala kontu-ratzen bagera. Izen orren agiangoo euskalduntasuna sendotzera datozkigu onako tokiizen eta abizen euskaldun auek: Anpuru (Gipuzkoa'n eta Anburu bizkai'n ("P" eta "b" errez alkar-aldatzen bait dira), Anburtz (Naparroa'n), Anpu-rueta (Araba'ko Zigoiti'n), Anpu-ero (Bizakai'ko abizena), Anbulu-lodi, Anbulodi-hu(ru), (biok Oiartzun'en), Anpudi, Anpron QAnpuru, Anburu-on?), Anbusassieta (Gipuzkoa'n)... Ez da erreza izango aurritzia zer izan daitekean eskier jakitea: ("anpolo", "anpulo", Naparroa'ko euskeraz "gerezi"; "anbulu", Kerexeta ta Azkue'ren iritiz gaztelerazko "garn6n")... baiñan naiz aurritzkiaren zentzua aski illuna izan, iez al dit beintzat iñor ukatuko ondo eus-kaldun usaiekoo dala ANPURI'k daraman "URI" atzizkia.

<sup>72</sup> Agertu zitzaigun beste Iliberri bat Andaluzi'n, Eibira'ko kontzilioaz mintzatzerakoan. Erri ark itxuraz izen Euskalduna izateak ez duala bera ere Euskalduna zanik esan nai, idatzi nuan orduan, her dintasuna utsa ez bait da besterik gabe, zerbait egiazkotzat artzeko oiñarri naikoo. Besterik esan bea-rrean aurkitzen naiz orain. Oraingo Eliberris au, zegoan tokian zegoalako, zegoan toki ori bera naiko adigarri bait du, geiagoren bearrik gabe, bert', eus-kalduntasuna egiztatzeko.



Prisiineros gaius y trufeo. ;:reu y Ie:ilrii de Ciange.)

spalyt,:i4.

s.(4dik ier 4,4 Ke(r/ t

iren

((frlocei11,1)'

ott La d4 a'

n1 , \_ k . r

1),W/1 7L r

72-41-e-n

f-a,/



Pompeio's head (from the Villa of the Papyri, Herculaneum)

Po NP 10



Sertorio's head (from the Villa of the Papyri, Herculaneum)

SECTOR--t0

Gudie artan  
 ere zalitu-  
 rik ibilli  
 ziran, euskal-  
 dunak ez ezē  
 Baskoiak be-  
 raiek ere:  
 Pompeio'ren  
 alde Iruñā-  
 koak; Sertorio-  
 ren alde ka-  
 pagutikoak.

Euskaldunen  
 jatorizko obin  
 betikoa:

- Apola ez zal-  
 kigun atzeriko  
 arazoetan sartzea.
- Betei batzuek  
 besteen aurka  
 alkatzen artean  
 borrokan ibili  
 beara.



seguruaski, uri aietan euskera bizirik egon zalako; eta, oraindik Krist'osteko IV eta V mendeetan ere, naiz urietan ez, mendi-aldeetako lurretan bizirik egon zitekealako.

Izanere, Estrabon'ek (Geogr.11I,4,9), "AMPURITANI", ots, "ANPURITARRAK" esaten die Anpurias'ko biztanleei, eta "Ampuritani" edo "Anpuritarren" lurraldeak bere mugen barruan artzen zuala, bait diosku, Auñamendi'ren sortaldea, "Ponpeio'k eraikitako *trofeoak* dauden tokira arte".

So egiegun beintzat, guk, bi uri aietako kristautasunari, landa, baso ta rñendietako Euskaldunentzat kristautasun-iturri izan zitezkealako, eta, agian, izan ere baiki izan ziralako:

---

<sup>73</sup>. "Trofeo" gualburu garailleek gurendaren oroigarri eraiki oi zituzten monumentuei esan oi zieten erromatarrek. Asieran, "tropheum" ura, basoko zugaitz-ondo bizi bat izaten zan. Ondo aren enborrari buruzagi garaituen izkiliuak, garaillearen irudia, eta garaitzaren berri ematen zuan idazki bat josten zizkioten. Geroago, Erroma'ko Errepublikaren garaiean, eta orduangoa zan Ponpeio arrizko zutoiz bat eraiki oi zuten. Ponpeio'k Krist'aurreko 71'an zan Sertorio'ren gudua amaitu zuanean jaso zituan "trophea" aiek. Euskalerrian izan zan geienbat Sertorio ta Ponpeio'ren arteko gudua, eta, Kristo jaio aurretik euskera, dirudianez, Mediterran-Itxasoraiio iristen zalako, eraiki ere Euskalerrian eraiki zituan Ponpeio'k bere gurendaren oroigailu aiek. "Itxasotik urbil, "Itali'tik Tarrako'ra datorren bidezabalaren alboan" zeudela ere,Epis(seopus esaten bait digu Estrabon'ek. (Sertorio'z azken agertutako gaztea-liburua onako auxe duzu, "Felix Garda Mora: "Un episodio de la Hispania Republicana: La guerra de Sertorio". Universidad de Granada. 1991).



## LURRARTEKO ITXASOAREN ALBOKOAK

Iru izan geneituan Mediterran edo Lurrarteko itxasotik ubil zeuden gatzai-uriak: Rodope, Anpuri eta Gerona.

### RODOPE

Gaur egungo Rosas. Uste danez, antziña elendarrek itxas-kolko txiki artan iratsi zuten Koloni-Uri zar aren toki ber-berean, edo beintzat toki aren alboan omen dago'. V mendean gotzai-uria izan zala dirudi, "si

---

<sup>74</sup> "RO D O -PE "ren aurrizkia, "RODO", Rosas'ko uria Rodas'ko elendarrrek irasi omen zutelako baliteke aien oroigailu bat izatea. Tolorneo'k Rhodopolis izendatu zuan elendarren Koloni ura. Dokumentuetan bi izenekin agertzen zaigu: RHODE eta RHODOPE. Atzizkia, "PE" argi-argi Euskalduna daiteke. Badugu Araba'n "R0110éPE"ren tayu ber-bereko toki-izen bat: "RODO-BA". Ugari dira, berriz, "roda" edo "rode" edo "rodi" edo "rodo" aurrezki lez daramatenak (Lz. de Gereitu, l.e.). Eta euskerak gaurr-egun beintzat "R" orren aurretik "A" edo "E" agoskatzeko oitura duan bezala, antziñate artan ere oitura bera ha'zuan, "arro"z eta "erroz" asten diran toki-izenak anitz ugari ditugu. Bereiziki, Euskaldun aiek Rodope'ri ARRODOPE esaten ba'zioten, oroi dezagun ARRODOBI izeneko alor bat bazala 1.617'an Araba'ko Gamarra'n; eta erriak, batez ere karistiarrek, eta karistiarrak ziran gamarratarak "E" errez "I" biurtzen dutelako, hadaitekeala Gamarra'ko aloraren izena, berez, "Arrodobi" ez baiña ARRODOBE izatea. ARRODOPE, beraz; ain sarri esan oi dugun bezala, atzizki bat bera bait dira, "Pe", "Be" eta "Ba". XVIII mendean "Arrodobi-gana", Gobeo'ko larre bat genuan. "ERRO"z asten diran toki-izenak, berriz, nai dituzun aiña aurkituko dituzu edozein iztegitan.

como parece" Sizili'ko Sirak-usa'n "como obispo hispano de Rotdom" obituraturik dagoan Ausentzio, Rodas'ko gotzaia izan ba'zan.

Baiñan V mendearen aurretik ere bazan kristautasunik Rodope artan: "Hallazgos paleocristianos y ruinas de una basílica en la misma Rodas lo confirman" (Dic. Hist. Ecl. Esp.)<sup>75</sup>.

## ANPLJRI

Bai omen ditu uri onek erromateko kristau-aztarnak: "restos importantes de epoca griega, romana y paleoeristiana". "Ezagutzen zaizkion zazpi gotzaiak VI eta VII mendekoak ditu, baiña aurrenekoa. VI mendearen asierakoa, 516'ean Tarragona'ko kontzilia, eta 517'an Gerona'kora joan zan Paul".

Orrek, uri artan kristautasuna askoz leenagokoa zala esan nai du; hai, gutxienez, V mendekoa, eta baita IV'ekoa ere, arkeologiak erakusten digunez: "La arqueología prueba que hubo allí una cristiandad desde el siglo IV" (ib). VI mendean ere "di(Scesis floreciente" izan omen zan ura <sup>76</sup>. Eta, jakia, VI mendean ain elizbarruti "floreciente" izan zala jakitea arrazoi

---

<sup>75</sup> "Ampurias", "Rosas" itxuraz izen elendarrak dirala? Bai. Ez ote dira, ordea, euskal-izen eleneratuak? Euskeraz itzegiten zan ba itxas-ertz aietan, elendarrak Krist'aurreko IV mendean ara iritxi ziranean. **Erromata**—rrek ere ez al zuten ba orixe bera egin Euskalerrira urbildu ziranean?, ots, euskal-izenak lateratu? "Rosas"en etimologia Rodas izeneko uzartearen izenetik eta Ampurias'ena "emporio" izen elenderratik atera nai izatea, etimologi errezegien eta ustelegien billa ibiltzea dala derizkiot.

<sup>76</sup> Anpurias'en euskal-tokiizenik kidekoena Araba'ko ANPURUETA izango litzake. Anpurias'ko gotzai, kontzilioetako dokumentuetan, "Episcopi Impuritani, Empuritani eta Impolitani" esaten zaie. Orra or, itzaren asiera lau era ezberdinez emana: Ampu, Impu, Empu, eta Impo. "U", maizenik "O"ren goxokuntza izaten bait da, baditugu Araba'n "Ango" izeneko larre bat sarkaldeko mendietan, "Apor" esaten zaion soro bat an bertan, eta, Barrundi'ko Larrea deritzan, errian "Anporzubi" deritzan alor bat. Aurrizkiz "Inpu" duala, berriz, "Inpuruntza", Araba'ko "Arana" izeneko aranean beste alor baten izena dugu.

aski sendoa dugu, V mendean ere aski "loretsua" izanen zala esateko, eta, naiz agian ain loretsua ez, IV'ean ere an kristautasunik bazala beintzat oiug egin aal izateko. Are geiago, esan dugun lez arkeologia ber-bera gure alde agertzen zaigun ezkeru.

## GERONA.

Zarra da uri onen edestia, inguru artan ibilli bait ziran Iberitarrak, Greziarrak, Erromatarrak, Bisigotak, Arabitarrak eta Frankiarrak.

Baiñan bizi ziran an jendeak, meatz-aroan Iberitarrak ara iritxi aurretik ere. Endaz,jende zaar aiek, i,zer ote ziran? Euskaldunak ezpairik gabe, batez ere Erromar-Inperioa jausi zanean, euskera oraindik Mediterran-Itxasora iristen zala egia ba'da.

Entzun Iberitarrak berGara iritxi ziran arraz Opusdeitarren GER iztegiak diona: "En el periodo iWrico habitaban en las actuales tierras gerundenses unas tribus que eran llamadas Indiketes o Indigetes en el litoral, los Ceretanos o Keretanos en el norte, y los Ausetanos en la parte central".

Or aitatu dizkiguten leiñu oietako bat, Zerretiarrena edo Zeretiarrena (erromatarrek "r" ori batzuetan bakarra eta beste batzuetan bikoitza erabiltzen bait zuten) Euskalduna zan. Eta, "a pari", zeuden tokian zeudelako, Iberitarren aurretiko beste leiñu aiek ere Euskaldunak ziran noski. Oroi mendeak eta mendeak geroago ere, erromatearen amaierakoan auñamendiarren bi maldetako aranak-zear euskera iristen zala itxasorañio, azkeneko urte auetan esan oi danez.

Ikus dezagun oarpen baten bitartez bi leiñu oien izenek zer esaten diguten".

---

<sup>77</sup> "Indigetes": Itxasertzekoan leiñua. Badu izen orrek, Euskaldunak zirala badakigun "Ilergetes" aiekin aidetasunik aski. Baita itxasertzeko auei "Indiketes" esaten ba'diegu ere. Ilergetei ere, "Ilerketes" esan bait zitzaien." Mandonio'rekin batera Indibil izan zan erromatarren aurka Ilergeten buruzagietako bat. Ez dakit "Indi"bilen eta "INDI"getes'n "INDI" aurrezki orrek zer esan nai duan, baiñan badira Araba'n bertan "INDI"z asten diran sei toki izen. INDI bera, Entzi-menditik ez urruti, Araba'n, Adana deritzan erriskaren baso bat da. Gaurko Gerona probintziaren erdian bizi omen ziran Ausetani edo Ausetiarrek ere badute izenaren aldetik itxura-apur bat Euskalerrriaren sartaldeko "Autrigo-

Kristautasunaren aldetik ere zarra da gaztelerazko Gerona, katalaunierazko Girona, eta Latiñezko, Gerunda, 3herunda eta, "curiali modo", "Genmden". Azkeneko esakera ori, gotzai-jauregietan erabilli oi zana, adjetibu edo izenondoko baten laburpena da: "gerunclensis"en laburpena. Tolomeo'k Girona izendatu zuala, esanik utzi dugu.

Zarra dala ere esan dugu, lurralde artako kristautasuna. An aurkitu diran sei sarkofago edo ar-zerraido kristauak dira zartasun orren lekuko; sarkofago oiek "III edo IV mendekoak bait dira": "clatant du **ou IV'e** siMes" ("Dic.Hist.Gog.Chrt").

Ez dabil beraz oker GER Iztegia, onako au dionean: "Gerona fue cristiana hacia el siglo tres. En el siglo IV (304) varios cristianos gerundenses sufrieron martirio (36 de nombre conocido). Fue famoso San Fëlix, cantado por Prudencio. Y, luego, el Obispo Narciso".

Zuzenki esana, lur ura III mendean kristautu zala. 6 sarkofago aiek, eta IV mendean asiera-asieran, 304'ean, ango martiri ugari aien bitartez Elizak dagerren sendotasuna bait da argumenturik ziurrena, Eliz ura 304 artan zarra zala eta urte askoz leenagotik sakonki erroturik zegoaia, bildurrik gabe aitortu aal izateko.

Egia, martiri aietan Donefelis dala ospetsuena. Baiñan bai berak, eta bai bere martiri lagunek, eta, baita uri artako Elizak berak ere, Prudentzio'k abestuek izatetik datorkie izan duten ospea. Aundia izan bait zan antziñate artan eta erdiaro guzian Prudentzio'ren eraginpena.

"Los documentos escritos prueban que Gerona era obispado en 400" (ib). Ori, ordea, ez da ain gauza ziurra. Gams'ek bi gotzai ipintzen ditu V mendeko Gerona'ren gotzai-aulkian: 304'garren urtean il omen zan Pontzio Donea eta 307'an il omen zan Narziso Donea. Baiñan oiek ere ez dira batere ziurrak.

Sei dira Elizaren donetegian Pontzio izeneko Doneak: sei oietatik, ordea, ez da erreza Gerona'ko gotzai nor izan zitekean jakitea. Eta, Pontzio

---

nes" aiekin, aiei ere askotan "Austrigones" esaten bait zitzaien. Oroi dezagun, aurrizki orri-buruz, Araba'n bakarrik "AUS" daramakiten izenak 14 badirala, eta beste 7, berriz, aurrizki ori "AUZ" dutenak. Oroi dezagun baitare, AUSA izan zala Ausetani<sup>1</sup>ko uri burua, eta izen ori, izugarritzko euskal-itxura duan izena dugula.

izeneko Done bat ango gotzai izan zitekealako guzti ori ere kondaira utsa besterik ez bait da, ez du auziak saiaketa geiagorik egitea merezi.

Narziso, lore politez orniturik agertzen digu kondairak. Beti-beti Felis izeneko diakono bat alboan duala gaiñera. Martiri il nai omen zuan. Ta, ori gertatzera zijoakion une berean, Jainkoak, oraindik jentilla zan Augusta urira joateko agindu omen zion. Eta ara joan zan bere Felis diakonoarekin.

24 ziran orduan izen ortako uriak; Narziso'rena, gaur Ausburgo esaten zaiona.

Bein an, Jainkoak aginduta, Afra izeneko emakume baten lizunkeritegian jarri omen ziran bizitzen Narziso Gotzaia eta Felis bere diakonoa. Baiñan, Narziso'ren eta Felis'en itzak entzun ezker, Afra, eta lizunkeritegi artako neska guztiak, sasijainkoei uko eginda kristau egin omen ziran, eta uri artako kristautasunaren apostolu biurtu.

Edestiaren lekaro legorra-zear daramagun ibillera astuna arintzearren, ikus dezagun nola damaigun gertakizun xalo ori "Bibliotheca Sanetorum'ek:

"Si recO (joan zan) quindi (bada) ad Augusta insierne al (bera ta) suo diacono Felize e vi (an) prese (artu zuan) alloggio (ostatu), come gli era stato detto dal Signore stesso, in casa della meretrice Afra. Questa, e le donne che si trovavano preso di lei, furono le prime convertite e diventarono (biurtu ziran) fervide propagatrici della fede, e Narcisso consaerò vescovo della nuova komunitk Dionigi zio (osaba) di Afra".

Afra, bere neska "langilleak" eta bere osaba gotzai sagaratu-berria, danak il omen ziran martiri, eta Done bezala aurkezten dizkigu kondairak.

Bedi ori kondairako Felis Doneari-buruz esana. Baiña kondairazko soiñeko politatik erazten ba'dugu, egiazko ezeréta-aragi duan gizaseme biurtzen zaigu Donefelis. Edota, beintzat, izan zan Gerona'n izen ortako beste Done bat, Done orren egiztasunaren lekuko, norr-eta IV mendean bizitu zan Kalagurri'ko Prudentzio olerkari nagusia ber-bera agertzen bait zaigu.

Ikus, "Peristephanon" poemaren IV abestian Kristaudiko uri garrantzitsuenetako martirietaz ari dala, nola goersten dituan Gerona'k eta Kalagurri'k Kristo'ri eskeintzen dizkioten iru martiriak: Felis, arek; Emeter eta Zeledon, onek:

"Parva FELICIS decus exhibebit  
artubus sanctis locuplex Gerunda,

nostra gestabit Calagurris ambos  
quos venerarnur".

Euskeraz:

\*

"Erliki santuz aberats, Gerona txikerrak  
FELIS'en edertasuna eskeiñiko dio;  
omentzen ditugu biak, berriz,  
gure Kalagurri'k".

Aapaldi ori 29'garren bertsoan asten da. Geroxeago, 153'garrenean asten danean goraipatzen du berriro Felis, baiñan Felis au beste bat da, Salduba'n martiri 11 ziranetako bat, ala bait dira aapaldi ortako beste iruak ere: Publio, Fronton, eta Zeziliano:

\*

"Publium pangat chorus et revolvat  
quale Frontonis fuerit tropaeum,  
quid bonus Felis tulerit, quid acer  
Caecilianus".

Euskeraz

"Abest ta birrabest beza abesbatzak Publio;  
esan nolakoa izan zan Fronton'en garaitza;  
abestu Felis zintzo ta Zezilian bikaiñaren  
nekaldia"

Done oiek danak IV mendearen asiera-asierakoak dira; III'aren azkene-koak Zeledon eta Emeter. Galerio ta Diokleziano'ren agintaritzakoak. Laugarren mendearen asieran eta IV'aren amaieran, oso bertan zeuzkan Salduba'k euskaldunak eta baita Gerona'k ere Auñamendi-aldeko landa, erri ta basoetan... Zentzuzkoa dirudianez, ugari izanzen ziran bi uri aietan, uri aundi ta garrantzitsua zan Salduha'n bereiziki, alboko landetatik etorritako euskaldunak. Euskalduna ote zan Done oietakoren bat? Erantzuteke laga bearko dugun galdea.



V mende osoan ez zaigu dokumentuetan Gerona'ko gotzai bat-bakarrik agertzen. Esan dezagun berriro bein baiño geiagotan esana duguna: orrek ez duala an gotzairik izan ez zanik esan nai, baizik-eta dokumentuek ez dutela aien izenik jaso. III mendearen azkenaldera ain bizkor ikusi dugun Gerona'ko Eliza, 307'tik 517'raitio, bi mende ta geiagoz gotzairik gabe egon zala ez bait da sinistu daitekean gauza.

Gerona'ren agiango Euskalduntasunari-buruz, ikus orripeko oartxo txiki au".

---

JER-ONA. Atzizkia, "ONA", ederki izan daiteke Euskalduna. Ta, i, aurrizkia? ¿Euskalduna ote da "JER"? Araba'koak dira beintzat aurrizki ori dararmaten toki-izen auek: Jer-enga, ez Gerunda'tik ain ezberdin, XI mendean, "Kukulla'ko burni-barren larrukian" gaurko Gereilu'ren izena. Jer-nika, aspaldi ezerezitutako erria, burni-barren zerrenda artan agertzen dana. Jer-riau, 1.713'ko dokumentu batean, Musitu'ko alor bat. Jer-osabela, 1.575'ean Sabando'n, Naparroa'ko mugatik ez urruti. Eta, azkenik, Legutiano'n, "Jer"- "On". Ta, JERON ori nominatibu-erara aldatzen ba'dugu, JERONA biurtuko zaigu. Orra or Jerona bat Araba, Gipuzkoa ta Bizkai alkartzen diran lurraldean. Ta, Katalauni'ko uri aren izena "Jerona" ez baiña "Gerona" agoskatzen ba'duzu, berrogei ta amabots dira Araba bakarrean aurrizki ortaz asten d;ran toki-izenak (l.e.).



## ISPANI LEGORREKOAK

### AUSONA

Ausona, bere izen zarrez. Katalaunieraz VICH. Izen ori laterazko "vicus" ("uritxo") itzetik datorkio, antziña VICUS AUSONENSIS ere esan bait zitzaion. Orain ere, katalauniarrek VIK esan oi diote "Ch" "K" agoskatzen dutelako. Erdiaroan "viceses" esan oi zitzaien lateraz angotzaiei.

Goiztarra izan omen zitzaigun angokristautasuna: "Su origen cabe buscarlo en los siglos de intensa propagación del cristianismo a través de AUSA ciudad capital del territorio" (Dic.Hist.EcI.Espafia.). Zoritxarrez ez digu esaten Iztegi orrek zer mende aipatu nai izan dituan "de intensa propagación del cristianismo" orrekin: III'a? IV'a?

V'ean beintzat kristaua zan noski Ausona'ko "uri txikia", VI mendearen aurreneko urteetakoa bait da, 516'ean bertako gotzai agertzen zaigun Zinidio.

Euskalduna ote zan Ausona? Bearbada V mendean ez baiñan bai agian leenago. Eta orduan ere, bere inguruan ez zan urruti ibilliko gure izkuntza. Oroi, garai artarako, Lerida eta Barbastro Euskal-mugaren barruan ipintzen dituala Menéndez Pidal izkuntzalari ta edestilari zurrak.

Gaiñera egia da "Ene.Gen.Ilus. del País Vasco"k erromatearen amaiaz ari dala dioskun au: "Por lo que se sabe y se barrunta en la historia que sigue (siglos V al IX) muchas ciudades conservaron el euskera, probablemente en estado de bilingüismo con el latín, pues de otro modo no se explica que persistiera en Huesca hasta por lo menos bien entrado el siglo XIV"

Gu, ordea, ez gera emen XIV mendean ari. Ezta IX'garrenaz edo X'garrenaz ere. V'az ari gera. Eta irakurri-berri dugun albiste orrek mende aietarako balio ba'du, askoz geiago balio bearko du V menderako. Ez bezait beraz iñork ausardizat artu, onako au bildurrik gabe aldarrikatzen

ba'dut: V mendeko Ausona gotzai-uri zar ura ederki izan zitekeala, agian, lateraz eta baita oraindik euskeraz ere itzegiten zuan uria'.

## URGEL

Zerretiarren, beste batzuen ustez Ilergetarren -- lurraldean zegoan Uri bizkorra: "The city, one of the most ancient of Spain, belonged to Ilergetas, and is called Orgia or Orgelia in the Iberian coins": "Ispani'n zarrenetakoa, Ilergetarrena zan uri au. Orgia edo Orgelia esaten zaio txindi Iberitarretan" (The Cath. Ene.).

Gams'en ustez 527'aren aurretik ere gotzai-uria omen genuan Urgel. Eta ango gotzai ori Justo Donea izan omen zan.

Egia dio. Ikus nola aurkezten digun gotzai ori Sebilla'ko Isidor Doneak:

"Justus Urgellitanae Ecclesiae Hispaniarum Episcopus **edidit** libellum expositionis in Cantica Canticorum, totum valde breviter atque aperte, per allegoriam sensum discutiens": "Justo, Ispanietan, Urgereko gotzaia izan zan. `Abestietan Ederrena'ri-buruz idazkiño bat argitaratu zigun, liburu aren zentzua irudien bidez laburki era ulerterrezean agertuz" ("De Viris Illustribus", XXXIV).

Donejusto onen aurretik ote zan Urgeren gotzairik? Ez dakigu.

Bera, **Donejusto** beste iru gotzaien anaia izan omen zan, "ex eadem matre progenitis unus", "ama bat berak sortutakoetatik bat" (id). Idazleak izan ziran beste iru anai oiek ere: Ala, Balentzi'ko Justiniano'k, kristautasunaren atalik nagusienei-buruz "Rustiko'ri Erantzunak" izen-zeraman liburu bat idatzi omen zuan: Egara (Tarrasa)'ko Nefridio'k eta Ueska'ko Elpidio'k ere idatzi omen zuten zerbait, "baiñan, berak -- Doneisidorr'ek --liburu aiek ezezagunak zitualako, naiago izan omen zuan beraietaz deus esateke gelditu": "e quibus, quia incogniti sumus, magis reticenda fatemur".

---

Ausona, ots AUSA-ONA zan katalauniarren Vich uriaren izena. Izen orren atzizkiak ez digu lanik ematen. Eta aurrizkiak ere. "Ausa", "Auza", Gipuzkoa'ko Aralarr'en mendi baten izena da. Araba'n baditugu "AUS" aurrizki duten I4 toki-izen. Eta 7, "AUZ" daramatenak.

O!, idazle lez, Doneisidor aundiaren zintzotasun bikaiña!

Ezer aundirik ez dakigu eskualde aietako euskaldunei-buruz, baiñan badakigu beintzat ziur, 527'garren urtean Urgel Bisigoten mendean zegoa-la; urte ortan, Toledo'ko II kontzilioan, an izan bait zan gure Donejusto, Urgel'eko gotzai lez.

Urgel izenaren etimologiaz onako au diosku GER Iztegiak: "Se ha pretendido entre otras hipótesis que Urjel procede de Orjía, capital de los Cerretanos". Baleike. Baiñan zearo egia dana, auxe da. Izen ori bete-betean Euskalduna dala. GER'ek berak aipatzen du "UR" itza, "que significa agua", oso ugaria dala mendialde aietako lurretan.

Ez du iñork ere ezbaiean jarriko V mende artan Zerretiarren artean eta Urgel'en bertan, atzerritarrak izan ezik beste danak Euskaldunak ziranik. Ikusi dugun lez, opusdeitarrek zuzendutako GER Iztegia bera ere, orrelako zerbaitez oartu-bide da: "Urgel" itza "de *ur*" omen dator ba, eta "palabra muy abundante en aquellas tierras y que significa agua" omen dugu'.

Egia da beste onako au ere: VI mendearen asieran Urgel'ek gotzai bat izatea, kristautasuna V mendean Zerretiarren artera zabal eta sakon sarturik zegoalaren adigarri dugula, esan dugun lez gotzai ori, Justo Donea, 527'an, ots, VI mendera sartu bezain laister uri artako gotzai-aulkian jarririk agertzen bait zaigu.

Zerretiarrek, ordea, menditarrak ziran, basagizonak. Eta aien mendi eta basoak "Saltus Baskonum"eko baso ta mendiak baiña askoz-eta askoz

---

<sup>80</sup> "UR" "ura" dala ontzat artzen ba'dugu, Í:,zer ote da "GEL"?. "Geldia"-ren laburpena? Ez dakigu, baiñan ba'leike..., Euskaldun zar aiek "G" ori "J" ez baiña "G" agoskatzen ba'zuten. Baiñan ori ere ez dakigu. Iberitarren txanponetako "Orgia" eta Orgelia"k ez digute neke geiegirik emango, "OR" eta "UR" -- naiz norbaiteri arrigarri gertatu gauza bera izan hait daitezke. Adibidez, Araba'n, "Orgazi", Berrostegieta'ko meatz-urezko iturri baten izena da. Eta, baita, ainbeste senda-iturri duan Aberasturi'n, urgazidun zokope baten izena ere. "Orgutxi", berriz, Opakua'ri, iturri bat dugu; "Oruutxa", Ozaeta'n, lurralde eze bat, Danadala, URGEL izenak, gaur lur Busgostarretan aurkitzen dan URBEL ibaiaren izenarekin aidetasunik baduala dirudi. Ibaixxo orren uren ondoan dago BIBAR erria, eta erri ortan jaio zan "Mio Cid Campeador Rodrigo de Vivar", "Bibar'ko Nere Jaun Rui Gudularia"

garaiagoak eta aundiagoak ziran, eta ez zeuden bidezabalez ain ederki ornituak.

Kontuz ibilli bitez, beraz, gaurr-egungo Euskalerra txiki ontaz ari diralarik, Caro Baroja'k bezala, BI EUSKALERRI bereizten dituztenak: "Saltus", "Mendia", eta "Ager", "Zelaia", bereizketa orren bidez Euskalerra Zelaiera kristautasuna aski goiz sartu ba'zan ere Euskalerra Menditsura oso-oso berandu sartu zala esateko. Oso berandu!!! Gipuzkoa'ko mendietara ez XIII mendera arte!

Zerretiarren lurraldea, guzti-guztia, amairik gabeko "saltus" bat besterik ez zan. Eta, esan dugunez, askoz gogorragoa ta gaitzagoa zan "Saltus Zerretanorum", emengo "Saltus Baskonum" au baiño, eta bidez askoz okerrago ornitua.

Beraz, V mendean ain kristauturik ba'zegoan "Saltus Zerretanorum" ura, ez da arrazoirik, ezta bat bakarrik ere, gure "Saltus Baskonum" au gutxiago kristauturik egongo zala uste izateko.

Ango eta emengo biztanleen jiteari dagokienez, gaiñera, Baskoiak bezain Euskaldunak bait ziran Zerretiarrek, ez ordea ain kulturaz jantziak, Zerretiarren "Saltus" ura, bere zailtasunaren ondorioz, iñorako bidea ez zan bezala, baztar guztietarako bidea bait zan, iparretik egora, Baskoien "Saltus" au.

## TURIASSO'

---

"El año 1935, afirmaba el P. Garcia Villada en su discurso de ingreso en la Academia de la Historia, que Guipuzcoa y Vizcaya no conocfan todavía el cristianismo durante el siglo XI". (Esaldí ori A. Azkarate Garai-Olaun'i zor diot. L.c. 29). Urte batzuk leenago, Gipuzkoa Gaztela'ko erregearekin alkartu zanean ere, ;ots, XIII mendean!, Gipuzkoa'ra kristautasunik ez zala iritxi, esan zigun Garcia Villada berak. Ez dut ulertzen, ain ospe aundia izan zuan edestilari iñakitar arek orrelakorik nola esan zezakean. Eskuetan daukazun onen urrengo liburuan aztertuko dut erdiaroko eusko-kristautasunaren egoera.

<sup>sz</sup> Euskaldunak bi izen oiek? Antza badute. Araba'n bada TURISO izeneko erri bat. Turiasso'ren senide? Gaiñera, Araba soillean badira 75 toki-izen TUR aurrizkiz asten diranak. Danetan, TUR ori, jatorriz, "I" galdu duan " <sup>T</sup>ur <sup>m</sup> <sup>i</sup>r bat besterik ez da. Ona adibidez izen oietako batzuk: "Turmendi", Iturrnendi da;

Turiassona ere esan zitzaion. TARAZONA, du gaur bere izena.

Gotzaidun uri zarra, "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"n esan genuan bezala; IV mendearen lenen erdian bai bait zuan gotzai bat: ainzuzen, 449'an bagaudek "zaurituta il zan Eliz artako Leon gotzaia": "449, Leo ejus ecclesiae episcopus obiit vulneratus", Idazio'k, urte orri dagozkion albisteak ematerakoan idatzi zigunez",

Izan omen zuan Tarazona'k V mende artan beste gotzai bat ere, elizbarruti ortako "Breviarium" edo "Otoizfiburuak" dioskunez: Gaudioso Donea. Ez digu, ordea, esaten, zer garaitz izan zan bertako gotzai.

Donebraulio Salduba'ko gotzai ospetsuak, "Donemillian'en Bizitza" izeneko liburua (Esp.Sagr.XXXIII,152) idazterakoan, "Didimo ere Tarazona'ko gotzai izan zala diosku eta, garai artan bere elizbarrutian omen zeukan Donemillian eliz-gizon sagaratu naiean ibilli zala": "Etiarn qui tunc pontificatum gerebat in Tyrasona (sic) ministerium, insequitur hominern ordini ecclesiastico eum volens inserere, ejus quippe erat in dioecesi".

Dakusazunez, Braulio'k ere ez digu esaten V mendearen barruan, zer atziz izan zan Didimo, Tarazona'ko gotzai.

Gams'ek bai, Gams beneditarrak oroiterazten digu, nola, 465'aren inguruan Tarazona'ko jendea Silbano Kalagurri'ko gotzaiaren alde jarri zan": "Turlasonenses excusant episcopum Silvanum de Calahorra".

Guzti orrek argi erakusten digu Kristautasuna zeñien oparo ta edatsu zegoan zabaldurik kristautasuna V mendeko Tarazona'n.

V mendeko tarazonatar aiek Euskaldunak ote ziran ala Keltibeltarrak? Turiasso, naiz nabarmenki izenez euskalduna izan, Keltibertarren lurraldeko uria zala bait diosku Tolome". Baiñan erromateko edestilariek itxuki

---

"Turbe", Iturbe; "Tu rriaga", Iturriaga; "Turisagarado", Iturrisagaratu; "Turriion", Iturriion; "Turritxo", Iturritxo, "Turraran", Iturraran, eta onela beste guztietan ere. Eta erromatarrek errez nasten bait zituzten "R" eta "RR", eta "SS" oiek "TS" dirala bait dirudi, gure TURISSO ura ederki izan daiteke ITL̄RRIATSO, ots, oraingo euskeran, "iturtitso". Ta, "TSO" ta "ONA" atzizki toki eta ugaritasun adierazle bat bera bait dira, era berean, itz bat bera dira TURIASSO ta TURIASSONA: "Toki Iturritsua" adierazten duan itza.

onartzekoak ez dira; geienak, bestek esaten ziena liburuetara sartuz, urrutitik ari izan bait ziran idazten.

Beste nonbait esan dugun lez, Euskalerriari dagokionez Tito Libio izanen dugu sinesgarriena, baiñan onek ere, gero beti Baskoia aitortuko zigun Kalagurri Keltibertar egin-edo zigun aurrena. Krist'aurreko 188'garren urtean, Kalagurri'ren alboan garaitu omen zituan ba Errorna'k Keltibertarrak, auek 12.000 gudari galdu zituzten borrokaldi batean. Kalagurri, ordea, Baskoi eta Berondar euskaldunez inguraturik zegoan! Ta, 12.000 ildako oiek... Gez ote dira ildako geiegi? Zenbaki borobil orri ez ote zaizkio bat edo bi 00 sobra? Bedi erdi-izkirimiri-eraz esana, pez ote zaizkio... irurak sobra?

## KALAGURRI

Bi arrazoi diralaéta, ez gera txoko ontan Euskalerra zarreko uririk garrantzitsuenetako bat izan zan Kalagurrrz mintzatuko:

Lendabizi, ori, Kalagurrrz mintzatu--, astiro gaiñera eta patxadaz, "Euskal-Kristautasunaren Sorkuntza"n egin dugulako.

Bigarren, liburu ontan bertan ere Silbano gotzaiatz itzegiterakoan, Kalagurri'ko ta bere inguruetakoko kristautasuna ongi aztertutik utzi dugulako.

Bitez naikoak onako zertzelada auek:

Ustegarri zaigula, III mendearen azkenerako Kalagurri'ko karriketara kristautasuna sartutik egotea.

- Ia ziurki etsitzen dugula aitorgarri, Kalagurri IV mendean gotzaidunuria izatea.

- Ziurki olesgarri sinisten dugula, Kalaguri'n eta bere elizbarrutiaren egoalde osoan V mendearen erdirako kristautasuna sendo errotutik egotea.



## LEKAIDEAK

Gotzaiak eta Parrokiak, Elizaren jerarkia dira. Baiñan gotzai, parroko, bereter ta diakonoetaz gaiñera, bada Elizan beste elizkide "sagaratuen" talde bereizi bat: lekaide ta lekaimeen talde donea.

Sarkaldean, IV mendean, Urietatik at, jentilla zan jenderik geiena: "Villa" beraietan poliki-poliki ari izan zan kristautasuna sartzen, bere jabe aberatsak kristau biurtzen ari ziran neurrian. "Vicus" nagusienetan, bai, asia zan parroki-eraiketa. Ala diosku Sulpizio Sebero'k bein da berriro Jondoni Marti Turona'koak bere elizbarrutiko parrokiak ikustatzeko oitura hazuala diosku, eta geiago dana, "ori beste gotzaiak ere bazuten oitura jarraituz egiten zuala": "sicut episcopis ecclesias suas visitare moris est" (Epistola I. Gutun ontan maiz aipatzen ditu Turona'ko gotzai ark parroki-tara egindako ikustaldiak).

Alatagutziz, IV mendea ezabatzerakoan, "erdia **geiago**, **plus** qu'a moitie" (E.Griffe, op.c,365) kristau izatera iritxi ziran uri herberaietan ere asko ziran oraindik jentil jarraitzen zuten biztanleak; eta. urietatik at, gizon eta emakume, biztanle guztiak.

"Le christianisme n'entarna gure la population rurale": "Apika kristautasuna landetako jendeetara urbiltzen ere asi zan" (id. ib). Egia; irmo jarraitzen bait zuten landetan ekandu jentillek: Ala idatzi aal izan zuan Sulpizio Sebero'k Galietako baserritar guztien oitura zala, erokeri kupidagarri baten eragiñez, oial zuriz estalitako sasijainkoen irudiak landak-zear ibildeun-egiñez erabiltzea": "Quia esset haec Gallorum rusticis consuetudo, simulacra daemonum candido tecta velamine misera per agros suos circumferre dementia" (Vita Martini, 12).

Alatagutziz, aro illun artan, arrigarriki, orra non agertzen zaigun jainkoagandiko mistika-aizea Eliz osoaren altzoan gizon-emakumeen gogobiotzak astintzen. Ez da ez gezurra, P. de Labriolle'k, Fliche eta Martin cloistarrek zuzendutako "Elizaren Edestian (op.c. III, 372) dioskuna: Ats

Gurena'gandiko aize orrek, alegia, "gizarte erromatarreko gizakumerik onenetakoak, (ots, gizartean garaienetaoak), jo ta irabazi zituala", "le mysticisme domine et penetre les tWments les meilleurs de la sori te romaine". Egia. Baiñan egia baitare mistikaren aizea gizarte artako jende landerren artean ere indartsu ibilli zala. Kristau landerrak izan bait ziran orduan sortutako lekaide aietatik geien-geienak: idazten ez zekiten gizaseme eta gizaalabak!

Gure arbasoengana ere iritxi ote zan mistikaren aize bizkor ura? Izan ote zuan Euskalerra Zar edatsu artako Elizak mistikaren aize ark iratzarri ta zuzpertutako elizkiderik? Bai.

IV mendean, seguruaski. V mendeaz gero, ziur. Ugari gaiñera, gizasemei dagokienez, VI eta VII mendeetan. Baita VII'az gero ere. Baiñan, bereiziki, bi mende zaarren aietako lekaide goiztar aiek ditugu aipagarrienak.

\* \* \*

Izan ere, VI eta VII mende oietako bakarti otoi-ta-penitentzigilleek Araba'ko mendietan utzi zizkiguten leize-zuloak bait dira Euskalerriko lekaidetzaren oroigailurik bikaiñena. Euskalerrikoa esan dut? Gutxi esan dut, Latxaga'ren ustez "le Complexe Rupestre le plus important d'Europe", ots, "Europa'ko leize-talderik ospetsuena osotzen bait dute" (Latxaga, op.e. izenburupean).

Ez zitzaigun oker ibilli Latxaga, leize oiek aurkitzen diran lurralde arabar menditsuari "la Cappadoce du Pays Basque", "Eusko-Kapaclozia" esan zionean ere (ib). Kapadozi, orain turkitarra dan Anatoli'ren erdian dago. Eta Ejito'ren egoaldeko Tebaida'rekin batera, Kapadozi izan zan basamortuko lekaidetzaren paradisuak aundienetako bat, eta an aurkitzen da orrelako leizetegirik zarrena, oparoena !.a goresgarriena. Ez zetzaikeen Latxaga jakintsuak Euskalerriko leize arabar auei, Kapadozi'ko beste aiekin kidatzea baiño omen aundiagorik egin.

Dirudianez gure Gobi aietako ildumagille aiek gizonezkoak ziran: Lekaideak. Ez ote zan antziñako gure Euskalerra artan lekaimerik izan? Bai. Eskierki bai.

Izan ere, Elizaren lenen-lenen egunetatik zetorren emakume kristauen artean neskustasunari-buruzko igikunde ori. Bera dugu ainzuzen kriStalI-

tasunak gizartean sortutako ziturik arrigarrienetako bat: Israel'Ico emakumeen artean, zer esanik ez emakume jentillen artean lotsagarria oi zan neskustasuna; ezkontza, eta ezkontzaren barruan seme ugarien ama izatea bait zan aien elburu nagusia.

Elizarentzat ordea, duintasunez, ezkontzaren gaiñetik egonen da neskustasuna. Ondorioz, eraspen bereiziz omenduko dituzte kristauek birjintasuna Jainkoari opalduz betirako neskuts bizitzeko erabakia artzen duten emakumeak.

Neskutsa izan bait zan Josu'ren Ama!

Lenen mendeetako emakume kristauen neskustasunarako joera ori dugu lekaimetzaren azia, eta indar aundikoa zala dirudi 300'garren urtearen inguruan Ispanietako neskaitillen artean.

IV mendean anakoritzak indar berria artu zuanean ere, gizonezkoek bezain ildumaketarik gogorrenei ere ekin zieten bildurrik gabe gure lekaime aiek.

IV mendera arte beren sendien barruan geienek, edo beste batzuek taldetxo bat osotuz etxe batera bilduta bizi oi zuten beren neskustasuna neskaitil aiek.

IV'az gero leizeetako bakartasunean, edo txaboletan betirako ertsirik, bizierarik latzenetan aurki aal izango ditugu. Laister izango dituzte egiazko lekaimetxeak ere.

Euskalerrian ere bai? Galde orri erantzun aurretik, itzuli gaitezen gure "Kapadozi"ra.

Araba'ko leize-zulo aiei "Gobak" edo "Gobiak" esaten die jendeak oraindik, karistiar zarren euskera erabilliz: "las Gobas" alde batzuetan; "las Gobias", beste batzuetan. Ainzuzen, azkeneko itz ortatik izan bear du sortua Araba'ko aranik sarkaldekoenaren izena: "Val-De-Gobía", "Gobi-Aran.

"Gaba" oietan, gizarteko bizitzatik urruti, bakartasun osoan, etenik gabeko otoiketean eta penitentzigintza gogor, latz, arrigarrian bizitu ziran gizonezko aiek euskaldunak zirala, zalantzarik gabe uste izan dut nik beti. Baiñan bereiziki VI eta VII mendean agertzen bait zaizkigu ugarienik, liburu onen atzetik idaztea asmo duten beste liburuan aztertuko ditut, bai gizon bakartasunzale aiek eskeintzen diguten fenomeno edo gertari pozgarri ori, bai fenomeno pozgarri ortatik gure edestirako sortzen zaizkigun ondorio alaigarriak.

V mendearekin batera amaitu bear duan liburu ontan, VI mendea baiño lenago ere anakoretitza Euskalerrian gauza ezaguna izan ote zan ikertzea dugu oraingo gure lana: Al dugun zintzoen beteko dugun eginkizuna.

"Gora noa" esan nai duten "ana j Sre(i)" itz elendarretatik omen dator "anajoretas" itza, laterazko "anachoreta". "gora noa", mendietako bakar-tasunera, gizartetik urrun Jainkoarekin bakarrik bakarki bizitzera; "urrundu", "bazterreratu", "izkutatu", ere esan nai bait du "anakoreo" aditz elendarrak. Orregaitik esan zaio "solitarius", "bakartia", era ortan jardun oi duan jainko-billatzaillari.

Kristautasunetik at ere, an-emen, mundua zabal, edestiaren asiera berberatik izan da ezaguna gizakume "bakarti" jainkozalea. Indietan, adibidez, Israel zarrean, Grezi'ko eta Erroma'ko pitagoritar jentillen artean...

Izan ote zan orrelako zerbaite edestiarreko jendeen artean ere? Izan ote zan Euskalerriko Urtzi-gurtzailleren artean?

Kristautasunaren altzoan, III mendekoak dira ziurki ezagutzen ditugun bakartirik zarrenak. Eta ongi ezagutuak ditugunen artean zaarrenak, ejitotar bi: Paul eta Anton Doneak.

Anton abata Donea da bietan ospetsuena, agian Aleksandri'ko Atanasio Doneak aren bizitza Jeronimo Doneak Paul'ena baiño urte batzuk leenago idatzi zualako.

270'ean Izkutatu zan Anton, Ejito'ren egoaldean, Tebaida'ko lekarora. Baiñan ordurako baziran lekaideak Tebaida'n, Anton berak dioskunez, aurkitu omen zituan b arri ta ondarrezko lekaro latz artan oso-oso zarrak ziran lekaideak. Ilduma edo penitentzigintzan zaartutako lekaide agureak!

Paul Donea ere zarragoa da Anton baiño. 250'ean joan bait zitzaigun Tebas uriaren inguruko lekaro legorretara. Beraz, Anton Donea baiño 20 urtez leenago.

IV mendea asterako Ejito, Ejito'ren egoaldeko Tebaida, Palestina, Siri, Mesopotami, Anatoli ta Sortaideko beste lur aiek bakartziz beterik aurkitzen ziran, eta orrela jarraitu zuten urrengo mendeetan ere. Musulmanen esku zeken ankerra berbera ere ez zan naikoa izan kristauen bakartasun-zaletasuna era bat ezerezteko. Ezta ain egoan eta an soilla aurkitzen zan Abisini'n ere. Alderantziz, zaletasun ori kristauengandik musulman Ala-maitale zintzoengana igaro zan. Eta arrezkero izan zituan eta baditu oraindik Islarn'ek egiazko bakarti jatorrak.

Ez ziran danak berdiñak bakarti kristau aiek, eta ez zan eztare berdiña eraman oi zuten biziera. "Pour la plupart, ils tenaient a ne point s'elaigner les uns des autres. Cela leur permettait de se r&mir les samedis et les di-nanches pour entendre la messe, communier, assister a une confrence ou même prendre leur repas en commun" (Dic.Th&d.Cath."Anachorètes").

Euskeraz:

"Ez ziran geienak beintzat bata bestearengandik urruti gelditzen. Erre-zagoa gertatzen bait zitzaien orrela, danak bat egiñik, larunbatetan eta igandeetan meza entzutea ta jaunartzea, itzaldi bat entzun aal izatea, edota, danak otordu baterako alkarrekin biltzea".

Albiste ori, ez da oso-osoa egiazkoa. Ejito'ko bakartientzat balio lezake. Ez beste lurralde batzuetakoentzat. Siri'koek adibidez, ugari, bakar-tasun gorrira jotzen bait zuten. Orrelako bakarti aien liturgi-bizitza ez oi zan maiz aski oso-osoa zuzen ibiltzen-da, ez zitzaien beñere Elizaren aldeti-ko kezkarik peitu.

Euskalerrian, Araba'ko lekaidetzaren gaillurrean beintzat, Ejito'ko aiek bezala, edo bearbada geiago, bata bestearengandik urbil ibiltzea izan zuten atsegin "Gobi"etako bakartiek. Aien aurretikoetaz deus ez dakigu. ¿Izan ote zan, ordea, aien aurrekorik Euskalerrian? Baietz, nere ustez beintzat baietz, erantzungo diot nik laister galde zail orri.

Kristaudi osoan, bai gizonetzkoek, bai emakumezkoek, oldoztu daitez-kean era izugarri guztiak asmatu zituzten penitentzigitzarik zorrotzenezan jarduteko.

Batzuek txabola batera sartzen ziran bizitza guztirako. Orma bat jasoz isten zitzaian, kanpotik, barrura sartzeko erabilli zuten zuloa. Berengana urbiltzeko burnizko zirien bidez kolpeka orman zulo berri bat iriki bearra izaten zan. Leiatil txiki batetik eman oi zitzaian bizitzeko bear zuten pitiña. "Reclusi", "Ertsiak", esan oi zitzaian orrelako gizon eta emakumeei.

Beste batzuek txabolaren ordez, zubil edo "zilindro" baten eran, iruren bat metroko esi borobil bat jaso oi zuten arriz, txabolatu aiek bezala beti barruan bizitzeko; baiñan arrizko zubia arek ez bait zuan gaiñean sapairik, giroak eskeintzen zizkien otz eta bero, goitik-beerako eguzki-izpi kiskalgar-ri eta negu garrietako izotz, euri, eta elurte eriogarri guztiak gaiñean artuz. Osin legortuak ere bereala biurtu ziran bakartiren baten bizi-toki. Auei ere, beste aiei bezala, "noiz beinka kristauen karitateak eman oi ziz-

kien bizitzeko gai urriak": "On leer passait de temp a outre ce dont ils avaient besoin" (Dictionnaire de Theologie Catholique: "Anachoretas").

Izan ote zan iñoiz Euskalerrian orrelako bakartirik? Ez dut aztarnarik aurkitu.

Beste asko, izadiak berak tajututako leizeetan, edota aitzurrez irikitako zuloetan bizitu ziran. Azkeneko auetakoak izan zitzaizkigun gure "Gobi"etako bakartiak.

Aipa ditzadan, irazean ba'da ere, larre gorrian edo lekaroetako ondartzat gorriagoan, beti toki batean, zintzoago esateko, toki artako puntu batean, andik beñere irtetzeke, batzuek gainera puntu artan beti zutik — bizitu ziranak, edo metroko zutabe baten gaillurrean, gain artan gizaseme batek etziteko bearrezkoa duan lekurik gabe, beren bizitza igaro zutenak, edo, arrokeria menderatu nairik, jendeak erotzat edo iñozo ergeltzat artu zitzaizkan, parregarrikeriak egiñez ibilli oi ziran aiek..."

Ikara damaiguten izugarrikeri oiek, geienak, batez ere sortaldeko bakartienak izan ziran, eta beti so-egin zien Elizak alako bildur pixka batez.

Euskalerrian dagokionez beintzat, gure bakartien artean orrenbesteko lazkartasunaren berririk ez dugu.

Zartailluak, ziiizioak, kateak, eta gainera ilduma edo penitentziagailu guztiak bai, Sortaldean aña izan ziran erabilliak Sarkaldean ere.

Sarkaldera, Atanasio Doneak ekarri zuan bakartasunerako joera IV mendearen erdi-aldera. Arianikeriaren etsairik bizkorrena bera zalako, 335'eant Treberis'en eta 340'eant Erroma'n egon zan, Kostantino'k aurrena eta onen semeak gero, Kostanzio'k, erbesteraturik.

Bakartien miresle ta maitale aundia zan-da, izugarrizko bakartasun-naia sortu zuan bere itzaldian bitartez Sartalde ontan. Laister izan zan gainera latiñera itzulia bere "Antonio'ren Bizitza".

Euskalerrian ere Sarkaldeko zati bat zalako, eta zati aundia gainera antziñate artan ipiztuko al zan emen ere, Atanasio'ren ekintzen ondo-

---

Ikus nere "Elizak eta Laterriak Bat Egin Zuten Denborako Elizan lekaidetzaren azterketari emandako atala, 122'gn, orrialdetik aurrera. Izpar ugariagorik nai ba'duzu Salamanka'n I.985'eant argitaratutako, Ignacio Petia'ren, liburu au gaztiazten dizut: "La Desconcertante Vida de los Monje, IV-VI".

rioz, Sarkaide guztian piztu zan eremu-zaletasun ura! ;Egia ote da, ordea, sortu zala? ;Noiz, gaiñera, aurreneko aldiz? Eta... sortu ere, ;Atanasio Deunak Itali'n eta Galietan egindako zabalkundearen ondorioz ote?

Ezin galde oiei erantzun, aurretik gure iparrean eta gure egoan orduantxe gertatzen ari zanari so-aldi bat eman gabe.

\* \* \*

Egoaldetik datozkigu aurreneko albisteak; 300'garren urtearen inguruan Eliberri'n, ots, Granada'ko Elbira'n, ospatu zan kontzilio zar artatik ainzuzen: Urte artan mutiko gaztea zan oraindik Ejito'ko Aleksandri'n Atanasio Donea. Ikusi dugun lez, kontzilio artan egon zan norbaitzuen ustez Loarre uri uezsitar euskalduneko gotzaia izan omen zan "Ianuaris episcopus de Fihularia", "Jenaro Fibulari'ko gotzai" ura.

Kontzilio artako gotzaiek ez zuten zuzenean e-z bakartizarik ez lekaidetzarik aipatzen. Soilki Jainkoari omendutako neskatillen birjintasunaz mintzatu zitzaizkigun. Esan dugun bezala, Elizaren lenen-lenen unetatikoa dugu gure neskatillen neskustasunerako joera. Tamalez, ordea, ez du orrek egia danik ematen..

Geroago, mendeak-zear, gure Euskalerrri ontan asko ta asko izan diran bezala, bai ote zan garai artako Euskalerrri artan ere, neskustasuna Jainkoari eskeintzen zion neska gazterik? Bai, IV mendearen astapenean emen kristaurik baldin ba'zan. Neskustasuna, I mendeaz gero Liburu Done beraietatik bait zetorkien neskatzai biziki gomendatua. Gaiñera, IV mende aren beraren bigarren erdian, gure neska gazteek neskustasunari zioten zaletasun anitz aundia izan zala esateko arrazoi sendorik bai bait dugu. Zaletasun ori, gure neskatoen biotzetan ain goiztarra izanik, emen bertan sortua dala ez dugu esan bearrik izango, lenen mendeko kristaudi osoan neskustasunagaé nako eraspina Eliz orokorraren ezaugarrietako bat dalarik: non kristautasuna, an neskustasuna.

Eliherri'ko kontzilioak gogorki zigortzen zituan bere amairugarren kanonean, "Jainkoari neskustasuna eskeiñiz gero, eskeintza ori urratuta, aragikerira jausitako emakumezkoak", ots, "Virgines quae se Deo dicaverunt, si pactum perdiderint virginitatis et eidem libidini servierint".

Orrelako oiei, damutzen ba'ziran, komunioa eman zezaiekeala, dio kontzilioak, baiñan soilki eriotzako orduan; eta soilki "pekatura bein baka-

rrik" "semel" jausi ba'ziran; eta geroago "bigarren aldiz erortzeke, beren bizi guzia ilduma edo penitentzi egiñez igaro ba'zuten": "omni tempore vitae suae egerint poenitentiam et abstineant se a coitu" (XIII kanona; J. Vives, op. c. 4)".

Gogorra, neska gaixo aiei ipiñi zitzaien zigorra. Orrelakoak, izan ere, izan bait ziran, II mendeko montanisten gogorkeriaz gero, mende aietako Elizaren oiturak. Gaiñera, Eliberri'ko kontzilio ura bereiziki izan zan gogorra. Gogorkeriaren maldaz beera, erejiaren zulora jausi ez ote zan ere oldoztu izan bait da!

Ez zuan orrelako jausketarik egin. Baiña, aren kanonak irakurtzean laister sortzen da gure baitan kezka bat: geroxeagoko priszilikeriaren gogorkeri petrala ez ote zan kontzilio artako gogortasunaren jarraipen bat izan?

Danadala, guri auxe zaigu orain axola: **IV** mendearen asieran, Atanaé sio Donea Sarkaldera eldu baiño askoz lenago, ugari zirala gure egoaldeko mugatik aruntzako lurretan Jainkoari beti neskuts bizitzeko eskeintza egiten zioten neskatzak. "Claro esta que estas vírgenes pudieron entregarse a Dios sin necesidad de retirarse a la soledad y de hacer vida propiamente monastica; pero no se excluye la interpretación de vida anacorética o cenobítica" (Llorca, op, e. 619).

Nik, nere aldetik, auxe esango nuke: oraintxe bertan, Zalduba edo Zaragoza'ko kontzilioa aztertzerakoan ikusiko dugun lez, nekatx aiek, alkartasunean bizi edo ez, "ordena" edo "Elizak-berak-onartutako-alkarte" bat beintzat osotzen zutela.

Ataltxo ontan lekaidetzaz mintzatzen ari galararik, Eliberri'ko kontzilioa aztertzetik erabat irten baiño len, ez dezagun aipatzeke laga kontzilio

---

Ona emen Kanon ori, Vives berak (1.c.) gazteleratua: "Les vfrgenes consagradas a Dios, si quebrantaren el voto de virginidad, y continuaren vié viendo en la misma liviandad, sin reparar en el delito que comenten, no recibirn la comuniÓN ni aun al fin de su vida (nee in finem eis dandam esse comunionem). Pero si las tales mujeres, seducidas, o hahiendo sucumbido un vez a la debilidad de la carne, hicieran despue's penitencia todo el tiempo de su vida y se abstuvieren del acto carnal, recibirŠn la comuniÓN al fin de **11** vida, porque apareee haber tropezado m is bien ocasionamente".



artan egon zan gotzaietako bat: Osio Kordoba'ko gotzai ospetsua: IV mendeko gizonik ospetsuenetakoa, ezpairik gabe. Agian bera ere bakartia izan bait zan gotzai baiño len: "debi6 ser un asceta, y sabemos que tenía una hermana que había consagrado a Dios su virginidad" ("Dic.Hist.EcI.Esp": "Monacato").

Iztegi orrek ez diosku nondik jaso duan Osio ildumagille bakartia izan zalako albiste ori. Baiñan dioskuna egia ba'litz, ori izango litzake, gure egoan, Ispanietan, bakartiak baziralako lenen albiste.

Bai ote ziran garai artako Euskalerrian ere?

\* \* \*

Egoaldetik, lekaidetzari-buruz, urrengo izpar ziuerra, beste kontzilio batetik datorkigu: IV mende orren azkenean, 380'ean Zalduba'n ospatu zitzaigun kontziliotik.

Kontzilio onek bai, argi utzi zigun kontzilio onek, gure ego urbillean ere arras ugari zirala bakartiak eta jainkoari birjintasuna eskeiñi zioten neskatzak. aGure alboko egoan bakarrik? SEta gure barnean ez? ¿Ez ote ziran zaletasun oiek gure albo-egotik gure geron ego-barrura sartu?

- Ez dezagun aztu kontzilio ori priszilikeria gaitzesteko bildu zala, eta priszilikeria, ainzuzen, batez ere bakartitza ta lekaide-lekaimetza gogorre-gien zale izan zitzaigula, eta, erejian baiño geiago, era ortako ildumagintza latzegiari, eta ortan ziarduten gizon-ernakumeei, jerarkiaren kaltez ematen zien geiegizko garrantzian egon zala bere obenik aundiena.

- Ez dezagun aztu, ordurako gure Akitani euskaldunean erruz zabaldu-rik zegoala priszilikeri zakar ori.

Ez dezagun aztu, eztare, Zalduba'k sarkaldeko atarietan Baskoiak eta iparrekoetan Ueszitarrak zituala, euskaldunak, beraz, bere atarietan, eskier-ki arresien barruan ere bizi zitzaizkionetatik gaiñera.

Ezpairik gabe, priszilikeriaren aurka jarduteko Euskalerrriaren muga--mugan zeuden bi uri oiek Zalduba ta Bordele aukeratu izate utsak Euskalerrrian priszilikeria sendo sarturik zegoalaren adigarri dugula dirudi, ¿erzalata, bestela, bereiziki Galizi, Betika, ta Lusitanrkoa zan gaitzari sendagaia emateko Euskalerrriaren bi mugetan zeuden uri bi aiek aukeratu? Sendagaia, zauria dagoan tokian ipintzen da.

- Ez dezagun aztu, orregaitik ainzuzen egin zala Zalduba'n priszilikeriaren aurka lenengo kontzilioa, eta bera ere euskaldunez aski inguratuturik, eta priszilikieriz anitz kutsuturik zegoan Bordele'n azkenekoa. Eta Zalduba'ko kontzilio artara deituak izan zirala Delfin Bordele'ko goigotzaia eta Febadio orduango Iparr-Euskalerra Zarrean zegoan Agino'ko gotzai Donea; eta azkeneko au izan zala Zalduba'n kontziliokideetan zarrena ere bera bait zan kontzilio artako Lendakaria.

- Ez dezagun aztu Iparr-Euskalerrira Ego-Euskalerritik gora iritxi zala priszilikeria; eta an alako arrakasta lortu ba'zuan, emen ere zerbait lortu izatea, ez litzakela gauza arrigarriegia izango.

- Ez dezagun aztu, berealaxe ikusi bearrak geran auxe: Zalduba'ko kontzilioak emakumeen betirako-neskustasunari-buruz neurri zorrotzak artu zituala; eta sasilekaideen aurka zigor latzak erabilli; eta guzti orrek bi gauza adierazten dizkigula:

Lenengoa: IV mende artan asko zirala seguruaski gure artea "lekai-meak" eta "lekaideak".

Bigarrena: neskuts aiek eta bakarti aiek oso begi on maitekorrez ikasiak zirala kristauen artean.

Eta, irugarren, gure egoaldean eta gure Akitani euskaldunean ere kristau jendeak bazuala anakoretzaren balioari-buruz usmo zuzena, orrela izan ez ba'litz ez bait ziran bokaziorik gabeko emakumeak neskutsen "sailera" sartuko, ez, gizonezkoak ere, itxurazko bakartitzara okertuko.

Ori erakusten digu Kontzilioak sasi-lekaime-lekaideen aurka erabillitako jardunkera gogorrak ere: Ez bait daiteke sagar ustelik izan sagarrik ez dan otarrean.

Guzi ori gogoan artuz, gure Aberri Zar Edatsu artan beren bizia ildumagintzaren bidez Jainkoari eskeintzen zioten neskatxak eta mutillak asko izan zirala uste izango lukeana, ez litzakela oker ibilliko. Eztare, beren ildumagintzan priszilikeriaren bidetik aurreraegi joan zanik euskaldunen artean izan zala uste izango lukeana.

Begi ema'ioGUN orain Febadio Agino'ko gotzaiaren zuzendaritzapean kontzilio zaldubatarrak auzi auei-buruz erabaki zuanari:

Ez du emakumezkoentzako usteon aundiegirik: "viorum alienorum", ots beren senarrak ez diran gizonezkoen billeretara joatea debekatzen bait die. Baitare, era berean galeraetzen die, "studio vel discendi vel docendi causa", ots, "ikasteko ta erakusteko asmoz" soilki emakumezk eta

soilki emakumezkoentzat eraturako batzarretara joatea. Zergaitik? "Paul Apostoluak orrela agindu omen zualako"!!!: "Quoniam hoc Apostolus lubet" (I Kanona. J. Vives. op.c. 16).

Eliza bere denboren alaba ere badala, Tegi borobilla bait da!

Eta Eliza bere denboren alaba dala egia baldin **egia da era** berean, aro bakoitzeko gizakumeak ere beren denboretako seme-alabak izaten dirala, eta, orregaitik, aro bakoitzeko erara itzegin bear izaten diela

"Studio vel discendi vel docendi": "ikasteko ta erakusteko" egindako batzarrak galerazi zituan kontzilioak. Priszilitarren billerak zeuzkan seguruaski, nere ustez, gogoan.

Geiago dana, betirako-neskustasun-osoaren ikurra zan buru-zapia beren adiñeko berrogeigarren urtera iritxiéaurretik jantzi aal izatea ere debekatu zien emakumezkoei IV mendeko kontzilio arek. Menopausi'ra sartuta atso biurturik zeudenean bakarrik artzen zituan Elizak "neskutsen saillean"! Ain konfiantza gutxi merezi ote zuten gure egoaldeko ta gure iparraldeko eta gure egoaldearen eta gure Iparraldearen inguruetan Zalduba ta Bordele'ko neska ta emakumezko gazteek? Ala priszilikeriaren kezka ote zegoan berriro kontzilioko Asaben buruetan? Ez dezagun aantzi priszilikeriaren okerhideak aztertzeke bildu zirala Batzar artan, eta emakume gazteak izan zirala ainzuzen Priszillano'ren jarraillerik ugarienak eta sutsuenak.

Jakingarriak dirala derizkiot kontzilio berak VIII kanonean damaizkigun itzak: Ona, kanon orren izenburua: "Ut ante quadraginta annos sanctimoniales virgenes non velentur": "Berrogei urte aurretik ez beza iñork neskuts sagaratuen badoi edo buruzapirik artu".

Eta gero: "Non velandas ese virgines quae se Deo voverint, nisi quadraginta annorum probata aetate, quam sacerdos comprobaverit": "Beren neskustasuna Jainkoari eskeiñi nai dioten neskutsak ez daitezke, berrogei urte bete dituztela gotzaiak egiztatu gabe, hadoiez jantziak izan".

Oartuko ziñan noski, kontzilioaren izkera arduratsu biribil orrek -- "sanctimoniales virgines", "quae se Deo voverint", eta batez ere emakume bat Neskustasunaren jantzia artzeko auzian Epaille bakarra Gotzai bera izan bear orrek ("sacerdos (inork eta gotzaiak berak!) comprobaverit") --, argi ta garbi erakusten digula gure egoaldeko mugan, mugaz kanpo ziurki, ta mugaz barrura seguruaski neskuts sagaratuak bazirala, eta neskuts oientzat Elizak "ordena" edo sail bereizi bat eta agian lekaimetxeen antzeko zerbait ere bai eraturik zeukala IV mende artan bertan. Euskale-

rriaren alboan eta, bearbada, Euskalerrriaren barruan ere bai, ikusiko dugun lez, Bordele eta Zalduba'ren artean priszilikeriz geiena kutsututako lurraldea, dokumentuek dioskutenez. III Akitania izan bait zan, ots, Garona ta Añamendia arteko Akitani euskalduna.

Beste bat da, kontzilio aren ustez, kristau arrunten arazoa. Ezpairik gabe, priszilikeria daukate asabek begien aurrean onako okerkeri auek gaitzesten dituztenean:

"Ez beza iñork igandez barau-egin; ez igande-eguna bera omentzearen, ez beste iñork aolku ori eman diolako, ez bere siniskeriaren eragiñak ortara bultzatzen dualako": "Ne quis ieunet die dominica, causa temporis, aut persuasionis, aut superstitionis" (Zalduba'ko Kontzilioa, l.c.).

Elizako arauen aurka, igandean eta ainzuzen igande-eguna sagaratzeko asmoz baru-egite ori Priszilikeri utsa da. Priszilikeriak ildumagintzari ematen zion geiegizko duintasunaren eta Elizako jerarkiari Elizak eratutako liturgiari ematen zion balio koxkoraren adigarria. Priszilikeri nabarmena! Ainzuzen ori izan bait zan gaiñera "ildumagintza gogorarekin batera, priszilitarren oiturarik ezaugarrienetako bat: igandeetako baraua": "Ils se distinguaient par un asc&isme rigoureux (...) et par le jeune du dimanche" (E. Latreilie, op. c. 52).

Bi arrazoi billatzen eta gaitzesten dizkio kontzilioak barauketa makur aren bidez igande-eguna omendu nai izate ari:

- "Beste batzuen aolkua": Aolku oiek jarraitzeagaitik igandez barau-egitea gaitzesten die kontzilioak baraugille iruzurtu aiei. ¿Nork, ordea, eman zezakean une aietan orrelako aolku txarrik emen, priszilikeriaren jarrailleek izan ezik?

- Siniskeria: igandez barau-egitera bultza zezakean "siniskeriari" ez jaramonik egiteko agintzen bait du. Zein izan zitekean ordea garai artan eta lurralde ontan igandeetako baraugintza artara bultza zezakean siniskeria? Soilki, barauari alako garrantzi gurena ematen zion priszilikeria.

Priszilikeriaren usaia dariote Kontzilioak galerazi zituan gaiñerako oitura auek ere: "Garizumaz, elizara ez agertzea", eta elizara agertzearen orde "etxeke gelarik izkutuenean edo mendietako leizeetan ertsirik egotea": "Quadragesimarum die ab ecclesia non desint, nec habitent latibula cubiculorum ac montium qui in is suspicionibus perseverant".

Ildumaketa, Elizaren garizumako liturgia berbera baiña balio geiagokoa! Priszilikeri portitza!. "Suspicionibus" itzari zentzu txarra

"ustelkeri ustelean" dabiltzala esaten die kontzilioak, oitura oien bidetik saiitzen diranei, eta, bide oiek utzirik, "gotzaien jardunbide ta irakasketak jarraitzeko" aolkua damaie. Aolku egokia, nor beraren kontzientziko aginduak jerarkiaren irakaspenaren gaiñetik ipintzen zituzten priszilitarrentzat.

"Ez bitez, beren batzarrak egiteko, besteren landa-etxez-etxe ibilli": "Ad alienas villas agendorum conventum causa non conveniant". Priszilikeria berriro, Orregaitik ainzuzen, isillezko batzarretan beraiek bakarrik biltzeko izan zuten gurari setatsu arengaintik izan bait ziran priszilitarrak beren asieratik Eliza-baitan ain era kezkatiz ikusiak.

Beraien ustez bide zuzenetik zebiltzan, orain Zalduba'ko Kontzilio ark gaitzesten dituan gure ta gure inguruko priszilikeri-zale aietatik asko. Baita, bearbada, geienak ere. Baiñan baziran, mola ez?, ain bide zuzenetik ez ziranak ere. Aientzako idatzi zuan kontzilioak bere VI kanona:

"Badaiteke, elizgizon batek, elizgizona izaten jarraituz baiño lekaide biurtuz legearen-serbitzari-zintzoagoaren-itxura emanen duala, uste izatea. Ba, arrokeriz edo lasaikeriz ori uste izan dualako, Elizan zituan eginbearrak bere kasa utzita lekaidetzara iges ba'dagi, bedi Elizatik jaurtia. Eta ez bedi berriro Elizaren altzoan artua izan, aurretik denbora Iuzez biziera on bat eraman eta Elizarako sarrera bein da berriro eskatuz ari izan ez ba'da". (Oso itzulpen lasaia eman diot, bereala oartuko zeran bezala berez aski baldarra dan Zalduba'ko gotzaien laterari. Alare, zintzo gorde nai izan dut kanon orren zentzua).

Ikus gaitzespen ori kontzilioaren izkeran: "Si quis de clericis propter luxum vanitatemque praesumptam de officio suo sponnte discesserit, ae se velut obsrvatiorem legis in monaco videre voluerit esse quam clericum, ita de ecclesia repellendum erit nisi rogando ac observando plurimis temporibus satisfecerit, non recipiatur".

Orra or berriro priszilikeriaren aztarna: Donetasunari dagokionez, duintasun geiagokoak dira bakartiak eliz-gizonak **Eta, orra or bertan** kristau-erriak bakartitzari zion eraspenaren eta maitasunaren adigarri bat ere. Ainzuzen bakarti biurtu ezkeru besterik gabe eliz-gizonak baiño santuagotzat artuak izanen zirala jakiteak bultzatzen bait zituan eliz-gizon oker aiek bakartien itxurak artzera.

"Bakarti" "anakoreta" ez baiña beste itz bat, "monacus" "lekaide" darabilki kanon ortan kontzilioak. Egia da "lekaide" itzak, idazki zarretan, orain "bakarti", orain "zenobitar" eta orain "lekaide" esan nai

duala, baiñan egia baitare gure inguruan, gure iparrean bereiziki, ordurako lekaidetxeak bazirala. Euskalerrriaren barruan ez oter

Danadala, priszilikeria ez zan beiñere lekaidetzaren etsaia izan. Maitale aundia baizik. Anakoretitzaren maitale baiño lekaidetzaren maitale aundiagoa.

Nik, nere aldetik atera nai nizkioke ondorio bereizi batzuk orain arte esan dugunari. Egia da Tarragona zala Ego-Euskalerrri osoaren "Metropolia", badirudi, Silbano gotzai kalagurritarraren auzian agertu-edo zitzaigun lez, Zalduba'k ere bazuala eraginmenik aski Ego-Euskalerrriaren sorkaldean. Zergaitik? Bearbada Ibero ibaiaren aran osoan uririk aundiena zalako, edo, agian, erromatekoan Euskalerrri Zar aren zati aundi bat bere esparruan zeukan "conventus" edo auzi-barruti baten uriburu izan zalako, edo, soilki, ain aundi ta garrantzitsua izanik Euskalerrri Zar aren mugamugan zegoalako. Danadala ez dirudi, priszilikeriaren okerkeriak gaitzeste-ko Zalduba lendabizi eta laister Bordele gero bi uri aundiok euskaldunengan zuten itzala kontuan artzeke aukeratu ziranik.

Goazen gu, orain, Zalduba'n, gure Ego-Sarkaldeko Euskalerrri Zarraren metropoli-antzeko Zalduba'n bildutako kontzilioak dioskuna begitatzera:

380'an emen lekaidetza bazala erakusten digu. Urte ortan bildu bait zan kontzilio ura. Esan dezagun berriro: IV mendean, mende ori amaitu

---

as "Bakarti" edo "anakoretak", "zenobitarrak", eta "lekaideak" aipatu ditugu aapaldi ontan. Ikus beroien arteko ezberdintasunak: izenak berak adierazten du bakartiak nor ziran: bakoitza bere zokoan mundutik urruti bizi ziranak. Beraiek izan dira Elizaren edeskian lendabiziko penitentzi edo garbai egilleak. Gero datoz "zenobitarrak". "Zenobio"etan bizitzen ziralako esan zitzaien orrela. IV mendeko Pakomio Donea euki oi da zenobitarren sortzailletzat. "Zenobio" itza "koine" ("alkar") eta "bios" ("bizitza") itzetatik dator. Beraz, alkarrekin bizi ziran zenobitarrak baiña bakoitza bere txabolatxoan, soilki mezarako-eta alkartzen zirala. Alkartasuna baiño geiago, bakartasuna, bakartasuneko otoiketa, eta garbaigintza dira, oraindik, zenobitarren onbiderik garrantzitsuenak. Askatasuna da ba, ainzuzen, zenohitarraren eta lekaidearen arteko ezberdintasunik aundiena. "Lekaidetzan", alderantziz, askatasunik eza, alkartasuna, eta, batez ere, une oro eta ekintza ororako beti Lekaidetxekeo Nagusi edo Abataren esanera egotea bait da onhiderik nagusia.

baiño 20 urte leenago, 380'ean, emen lekaidetza bazala, eta, **arras** ugaria zala, bestela ez bait zituan Zalduba'ko eta Bordele'ko kontzilio bietan eseri ziran gotzai aiek ain biziki kezkatuko.

Oridalata, emen lekaidetza leenago, 380'garren urtea baiño leenago sortu zala. Bai, gutxienez, 30 urte leenago, IV mendearen erdi-aldean.

- Beraz, emen lekaidetza ez zala priszilikeriaren ondorioz sortu, askoz leenago baizik, priszilikeriak bere gaillurra 380'garren urte orren inguruan lortu bait zuan. Ainzuzen bere gorabide ori moztutzeko bildu bait zuten urte ortan, ipar-eta-ego, gure inguru guziko urietako gotzaiek Zalduba'ko kontzilio ura.

- Jende kristauak, emen, lei, mirespen, zaletasun, arrimen, eta maitasun izugarria ziola lekaidetzari, bai gizon bai emakumeen lekaidetzari; ikusi bait dugu zenbaiteraiñoeko kezka ta bildurrez ibilli zitzaigun Zalduba'ko kontzilioa 380'garren urtean lekaidetzaren eta betirako neskustasunaren billa zebiltzen gizon-emakumeei buruz. VI kanonean argi esaten du gaiñera kontzilioak berak, lekaide-lekaimetzara jotzen zuten jende aien artean, baita apaizen artean ere, kristauen ongina mirespentsu ori irabazteko bakarrik lekaime edo lekaime biurtzen ziranak bazirala. Bada ori, noski IV mendeko euskaldunek Akitani'n eskier, eta Ibero-Ibaiaren ertzetan seguruaski, lekaidetzari emen oi zioten eraspén aundiaren adigarri ziurra".

- Esan dugunez, lekaidetzaganako mirespen ori ez zitzaigun emen priszilikeria zala-ta sortu. Mirespen orren geiegikeri baldar arroa, bai, ezpairik gabe; priszilikeriarenak ziran geiegikeriak bait dira kontzilio ark

---

" Ikus, VI kanon ura, Vives<sup>1</sup> en gaztelerazko itzulpenean: "Si algún cie'rigo por una supuesta vanidad o soltura "propter luxum vaniatemque praesumptam". "LUXUrn" ori obeto legoke "lujo, elegancia que esta de moda", lez gazteleratua abandonase espontáneamente su oficio y quisiere parecer como mas observante de la ley siendo monje que clérigo, debe ser expulsado de la Iglesia, de modo que no sera admitido en ella sino después de mucho tiempo de ruegos y stiplicas". "Arrokeria", "orduango modaren araura dotore ibiltzea", "lege-maitale zintzoagoaren itxurak ematea"...? Ez zan Euskalerrian lekaide biurtuz orrelakorik ezer ardiesterik izango Euskaldunek lekaidetzari izugarritzé ko mirespen aundi bat 380'gatTen urterako izan ez ba'zioten. Ezta euskaldunek 380'ean orrelako mirepenik izango aien artera lekaidetza askoz leenago iritxi ez ba'litz.

gaitzetsi zituan gauza bakarrak; baiñan mirespena bera, geiegikeririk gabe-ko mirespena, zarragoa izan bear duala dirudi, ez bait da autsik arrotzen autsik ez dagoan tokian. Era ortan, IV mendearen lenen erdiaren albora iristen gerala dirudi, Kostantzio inperatorearen urteetara, Aleksandri'ko Atanasio, Kostantzio orrek erbesteratuta, Erroma'n, 356'tik 362'ra, lekaidetzaganako zaletasuna ereiten ari izan zan denboretara; Ta, bearbada, baita aruntzago ere, aurreneko aldiz Kostantino'k erbesteraturik, Atanasio Treberis'en egon zan aro ber-berera (336-337)'.

¿Izan ote zuan ordea Atanasio'k Treberis'en lekaidetzaganako zaletasuna sortzen asteko, bear aiñako betarik? Urte bat iraun bait zuan ango bere egoitzak. Treberis, gaiñera, gaurko Alemani'n, oso urruti dago Zalduba-inguruko Euskalerritik, lekaidetzarako zaletasuna, andik onera ain arin eta azkar iristeko.

Nondik etorrira, eta nork ekarrira sustraitu ote zan ba emen ain azkar eta ain sendo gure lekaidetzaren zugaitz bikain ugaritsu ta jendez ain opa-roa?

4Urtezi gurtzen zuten euskaldun zaarren artean izan ote zan, mundu jentillaren beste baztar batzuetan baiki izan zan bezala, bakartasunezko lekaidetzarako joeraren bat? Edo, berdin dana, Done zaarrei-buruzko kon-daira ameskoi zar polit oiek, guk uste baiño egi geiago ote daramate beren mam an?

Arrakasta aundia izan zuan Zalduba'ko kontzilioak. Bere bidetik ibi-lliz, amazazpi urte geroago, 397'an, neskutsei-buruz onako au agindu bait zuan VI kanonean Toledo'ko I kontzilioak: "Ut religiosa puella virorum familiaritaten non habeat": "Ez bezate neskuts erlijios gazteek gizonezkoekin geiegizko adiskidetasunik izan" (J. Vives, op.c. 21). Izker a goxoz "Jainkoaren neskatxa", "puella Dei", esaten dio kontzilioak kanon ortan bertan, Jainkoari bere neskustasuna eskeiñi dion neska gazteari.

Bitartean, Galietako Balentzi'n, 374'garren urtean ospatutako kontzilioak ere "Jaikoari opal dutako neskutsei-buruz", "de puellis quae se Deo voverunt" zer esanik badu: egindako eskeintza urratuta ezkontzen danari

---

Erbesteraketa orren astapena 335'ean jarri izan da, Orain ordea urtegarren ori zuzendu-bearra omen da, "orregora aldatuz": "L'exil cl'Athanase serait a raporter au 5 fvrier 336" (G. Bardy: Iv, 13i4).



voverunt" zer esanik badu: egindako eskeintza urratuta ezkontzen danari bereala penitentzirik ez emateko agintzen bait du, eta eman ba'zaio ere, orrelako emakumezko oiek, penitentzi ori egoki betetzen dutenean bakarrik artzeko berriro Elizaren altzora. (Jakiña da, antziña artan penitentzia ausoluzioaren aurretik ematen zitziola pekatariari, eta, maiz aski luzea ta gogorra izan oi zala penitentzi ura bete arte, ez zitziola ausoluziorik eta komuniorik ematen).

Ondorengo kontzilioek ere, bai gure iparrean bai gure egoan, lekaide-lekaimeenganako ardura, ez dute azturik utziko. 506'ean, adibidez, Agate (Agde'ko) kontzilioa lekaioetako bakartasunaren arriskuetaz mintzatu zitziagun.

\* \* \*

Lekaimetza-lekaidetzarik, IV mendean, ote zan Euskalerrian?

Bai, nere ustez: Baiñan galde orri erantzun zurrago bat emateko saia-ketan asi aurretik, ordea, badut, egin bearra, beste saio bat, Zalduba'ko Kontzilio ark 380'ean emandako erabaki aiek, euskaldunentzat ere emanak izan ote ziran jakiteko.

Kontzilio aren azterketa egiten ari giñala, sarri erabilli dugu itz bereizi bat: EMEN itza, alegia: "Lekaidetza emen"; "lekaidetzaganako zaletasuna emen"; "emen"..."emen"..."emen..."

"EMEN", ordea, ¿nun? ¿Euskaldunen artean?

Nere ustez, euskaldunen artean ere bai, ots, Euskalerrri Zar eta Edatsu artako euskaldunen artean ere bai. Eta ona nere arrazoiak?

- Anei aldiz esan dutan bezala, Tarragona zan, -- erromatarren Tarrako Ego-Euskalerrri osoaren Metropol-Uria. Zuzenki bere zaintzapean zeuzkan Auñamendiaren ego-maldetako leiñu euskaldun sortaldetar guztiak. Badirudi ordea, Jarrako urruti zegoalako? ego-euskaldun sartaldepartaren zaintza Zaiduba'ko gotzaiena zala, eta, orregaitik, Zalduba, euskaldun sarkaldetar guztien, ots, Ueszitar, Baskoi, Berondar, Bardulitar, Karistio, eta Autrigoitarren "metropoli-itxurako" uria-edo zala garai artan.

Oroi, gaiñera:

- Euskalerrria, ipar-sortaldetik, iparretik eta sarkaldetik, bere atari berberetan asten zitziola Zalduba'ri.

- Ainzuzen, Zalduba'k bere elizbarrutiaren zatirik aberatsena Euskalerrian zuala: Ego-Baskoien eta Berondarren landa narroetan.

Nere ustez, eta ni baiño leenagoko beste askoren ustez, Zalduba'ko gotzaiak beren elizbarrutiko euskaldunentzat naitanaiezkoa zuten arduraren ezaugarri dugula IV mendean Barelo gotzai zaidubatar Donea'k "propter defectum linguae" Iondoni Bixintxo uezsitarra diakono sagaratu izatea.

- Ez dala ain errez ulertzen, Aufiamendi'z bestalde Euskalerrriaren ipar-muga zan Garona ibaiaren ondotik zergaitik izan ziran Kontzilio artara ekarriak Bordele'ko Gotzai eta Agino'koa, Kontzilio ark euskaldunetaz ere kezkatu-bearrik izan ez ba'lu.

- Gogoan artzekoa da, gaiñera, emen, Prisziliano'ren aurkako bigarren kontzilioa, bigarrena..., ta azkenekoa! lau urte geroago Bordele'n bildu zala 484'ean: Euskalerrriaren iparreko mugaren gaiñean eta bera ere Zalduba bezala seguruaski euskaldun ugariz orniturik zegoan urian.

- Aundia izan zala priszilikeriaren indarra Euskalerrrian, Ipar-Euskalerrian bereiziki dokumentuen bidez badakigunez, Ego-Euskalerrriko dokumenturik ez bait dugu eta ederki izan daitekeala arrakasta aundi aren zioa, ordurako Ieenagotik euskaldunek lekaidetzari bazioten eraspen sendoa.

- ,Zalduba'ko kontzilioak ez duala Euskalerrriko lekaidetik aipatzen? Ez Euskalerrriko, ez beste inongorik. Kontzilio ark ez bait du toki-izen bakar bat aipatzen. Ez du priszilikerririk ere izendatzen. Soilki ereji aren okerkeriak gaitzesten ditu, baiña okerkeri aietara jausitako lekaide-iekai-meak nongoak ziran esateko!

- Logikaren bidetik gabiltzalako uste ziurrez esan dezakegu, beraz, Zalduba'ko kontzilioa bildu aurretik ere euskaldunen artean lekaidetik anitz bazala. Uste ortan ziurtatzen gaitu, baitare, geroago Euskalerrrian lekaideté zak izandako oparotasunak, laister ikusi aal izango dugun bezala.

\* \* \*

Noizkoa ote dugu ordea euskaldunen arteko lekaidetza? Asi gaitzen garai berriagoetatik garai zaaragotara joz, galde orrentzat erantzuna-billatzen:

Eskierki, VI, VII eta VIII mendeetakoa. Beste inon ez bezala izan bait zitzaigun lekaidez aberatsa, mende oietako euskal-lekaidetza yoria. Aberas-

tasun aren lekuko ditugu oraindik Araba'ko mendietan dirauten leize-zuloak.

Erriak toki batzuetan "Goba" eta beste batzuetan "Gobia" esaten dien leize oiek, malda aski biguñetan aitzurrez irikitako leize zuloak dira: mende aietako bakartiek Leize oietatik batzuk, geienak, bertan bizitzeko izan ziran zulatuak. Beste batzuk, ordea, Jainkoa non gurturik izateko, bakarti aiek arduraz antolatutako elizatxoak dira.

Esan dugu, antziñateko lekaideetatik geienak kulturik gabeko gizakumeak izaten zirala, baiñan baita apaizak eta jende jakintsuak ere. Gure Gobietan apaizak izan zirala badakigu,-- lurrazpiko elizatxo aietako alda-reak lekuko eta, ez zala, apaiz aiek beraiek agian? jende jakintsurik ere peitu. Ori adierazten digute ba leize aietako idazki ugariek. Geienak, ordea, esan dugun lez, bakarti ta lekaide ta lekaime aien artean, kulturik gabeko gizaseme ta gizaalabak izan oi ziran.

Naiko eskiertasunez IV eta V mendeetan ere bai. "Dokumentuen bitartez ondo ziurturik daude, IV mendearen azkenaldera ikusi aal izan ditugun ildumagille, bakarti, zenobitar eta bizi-osorako-neskuts oiek": "On a vu les ascetes, anachorètes, cénobites et vierges consacrées, dont l'existence nous est attestée a la fin du IV'e (A. Latreille, op.c.66).

Naiz Latreille'k esan duana esan, esku bateko beatzak geiegi dirala derizkiot, Galietan dokumentu eskierrez ziurturik IV mendean agertzen zaizkigun bakartiak zenbatzeko, eta Gali osoari-buruz idatzi dituan itz oiek balio lezakete gure Euskalerra Zar eta Zabal arentzat ere. Guk ez dugu IV mendeko lekaidetxerik. Galietan ere bi bakarrik dituzte: Turona'ko Iondoni Martti'k irasitako bi aiek; 371'ren inguruan biak. Guk ere, Bilibio'ko Donefelize izan ezik, ez dugu V mendean, dokumentuz ziurtutako bakartirik ere, lekaide lez VI mendekoa bait da arek ikasle izandako Donemillian.

Baiñan Zalduba'ko Kontzilioa, eta aipatu dugun geroxeagoko eusko-lekaidetzaren agerpen arrigarria dauzkagu lekuko, mende aren azkenean emen ere bakartiak izan zitezkeala, naiko ziurtasunez aitortu aal izateko.

IV mendekoak dira gure alboko lenen lekaidetxeak ere: Aipatu ditugun bi oiek ainzuzen aurrenekoak: Iondoni Martti turonatarak Liguxe'n aurrena, eta Marmoutier'en gero irasitalco bi aiek, azkeneko au batez ere eraginmen aundikoa Turona Uritik bertan zegoalako emen bizitu zan bera, Turona'ko gotzai izatez utzi gabe.

Sulpizio Sebero edestilari bordeletarrak damaikigu ("Vita Martini", 10)) lekaidetxe aren eta ango bizieraren azalpen egokia:

- Toki ura, mendi-malda zuti baten eta Loira ibaiaren hilgune baten tartean ain bazterturik eta jendearengandik ain izkutaturik zegoalako, bai omen zan edozein basamorturen kide.

- Egurrezko txabola batean bizi omen zan Iondoni Martti gotzaia.

- Era berean bizi omen ziran "Anai" batzuk ere.

- "Anairik" geienek ordea, mendiaren maldan beraiek irikitako leize-zulo batzuetan hizitzen omen ziran.

Oso gutxitan irtetzen omen ziran beren txabola edo leize-zuioetatik, otoiizerako biltzen ziranean izan ezik.

- Otordurako ere danak alkartzen omen ziran.

"Anaiei" zillegi zitzaien lan bakarra liburuen birridazketa edo kopi-giaketa amen zan, eta, ori ere, "Anai" gazteei bakarrik, zarrek otoiketari igarotzen omen zuten bâ egun osoa.

- Ez omen zan eta ez omen zitekean an iñor ezeren jabe izan, guztia guztiena zalarik.

- LAROGEI'ren bat "Anai" ornen ziran, Iondoni Martti gotzai-abataren inguruan era ortan bizi ziranak.

Dakusgunez, Marmoutier ez zan egiazko lekaidetxea, egiazko zenobioa baizik; an ez bait zan araurik; an askatasuna ta bakartasuna bait ziran oraindik alkar-bizitze aren oiñarri nagusiak.

V mendekoak dira Marsella-alboan Lerins'koa (410?), au ere zenobio utsa oraindik, eta 416'az laister Marsella beraren ondoan Jon Kasiano Doneak eraikitako Bitor Donearena, au hai, au egiazko lekaidetxea, "Anai" danak bete bearra zuten Araudi edo "Erregela" bakar bat eta Abatarenganako menpekotasun orokorra bait ziran an, Erakunde edo Istituzio guzti aren oiñarri gailenak.

Lekaidetxeen arlori, sortu ziran lekaimetxeak ere Galiatan. Dokumentuz aurrena ezagutzen duguna, Kasiano'k berak Martsella'n sortua: "In questa citta fundo pure (baitare) un monastera femminile" (Bibi.Sanct."Casiano")'

\* \* \*

Galieta baino leenago dagerkigu Ispanietan Lekaidetza. Aipatu dugu 300'garren urtearen inguruko Eliberri (Elbira)'ko kontzilioa. Ortaz gainera IV mendean Balear-ugarateetan lekaidetegiak bazirala eskierki badakigu, V mendearen asieran idatzi bait zien Augustin Doneak eskutitz bat (Epistola 48) Eudosio Abatari eta arekin Kabrera deritzan Ugarte koxkorrean bizi ziran lekaideei. "Eran también numerosos los monjes y las vírgenes en Menorca a juzgar por el relato que nos dejó el obispo Severo de los sucesos que se desarrollaron en la isla con motivo de la visita de las reliquias de San Esteban llevadas allí por Orosio, y tanto la decretal del Papa Siricio dirigida a Himerio, obispo de Tarragona, como las cartas y la vida de Braquiario, un monje ilustre por sus escritos, nos dan a conocer la existencia de comunidades religiosas a través de la Península" (J. Pdz de Urbel: "Dic.Hist.Ecl.Esp". III, "Monacato").

Arduratu ziran Galieta kontzilioak ere beren lurraldeko lekaide-lekaimeetaz. Ala, 506'ean Alariko Tolosa'ko Errege arianizale hisigotaren baimenarekin ospatu zan Agate (Agde)'koa, mintzatu zitzaigun lekaimeetaz, erriz-erri ibilli oi ziran lekaide alderralekuz", baiñan mintzaketa artan esandakoatik bi dira guri emen geienik ajola zaizkigun gauzak:

- Lenengoa, Kontzilioaren itzegiteko erak adierazten digunez, VI mendearen asieran bertan oso ugari zirala lekaideak eta lekaimeak; V'ean ere ugari izango ziralaren adigarri

- Bigarrena, kontzilio artan izan zirala Ipar-Euskalerrri Zar artakoak ziran eta izan zitezkean gotzai guztiak: Elusa (Eauze)'ko Metropolita, Iliberri (Auch)'eko gotzaia, Konbene (Comminges)'koa, Bearn'koa, Oloron'koa, Laktore'koa, Konsorani (Conserans)'koa, Basate (Bazas)'koa, Atura (Aire)'koa (Nobenpopulani euskaldunekoak guzti oiek), eta Bordele'ko Metropolita, Tolosa'ko gotzaia, Petrokori (Perigeux)'koa, Erruteni (Rodez)'koa, Gabali (Gevaudan)'koa, auek ere, agian, hai bait zuten euskaldunik beren elizbarrutietako landa ta mendietan'

---

Erriz-erri eta donetegiz-donetegi, esketik biziz, erromesen antzera ibiltze ori, antziña artako lekaidetzaera bat izan zan. Baiñan izan ziran ordeak ibilketa oietara asmo zuzenegiez sartzen ez ziran gizak-umeak, Oientzako izaten zituzten kontzilioek gaitzespenik ugariak; berez ere, ain egokia bait da asmorik santuenak aztuertzeko andik-onako biziera lasai ori!

Or dituzu Iparreuskalerra Zar guztiko eta bere inguruko gotzaiak: amasei, ots, kontzilio artan bildu ziran 35 Asahetatik, 16: ia-ia ¡kontzilioaren erdia! iru izan ezik.

i Ez ote da ori naikoa, euskaldunen artean ere lekaime-lekaideak ugari zirala oiug egin aal izateko?

Bañan, lekaidetxerik izan ote zan Euskalerra zar artan?

Egiteak Kontzilio orren ariketaren araura, baietz dirudi; baiñan ori aitor-tzeko, bear aiñako arrazoi aski sendorik ez dugu.

Euskalerrian, lekaidetxeak sortuko dira. Baiñan geroago. Ugari gaiñe-ra; eta donetasunez eta kulturaz aunitz aberatsak. Kordoba'tik etorritako Eulojio Donea izan zitzaigun, arriturik, baskoien arteko lekaidetxe aietako aberastasun bikoitz orren lekuko, aldi artako Euskal-Elizaz mintzatzerakoan agertuko dugun lez.

\* \* \*

Izenez ezagunak ditugun bakarti zaar aien artean, bearbada, Bilibio-Mendiko Felize Donean izango da ospetsuena ta aiatuena, Donemillian bere ikaslearekin batera.


Autrigoitarren lurtean aurkitzen da Bilibio; Ibero ibaiaren egoaldeko ertzean. Obarenes esan oi zaion mendi-katearen azkeneko malkarra da. Gaur "Aro'ko Kontxak" esan oi zaien arkaitzetako bat. "Felice, eremita a Bilibio, santo, visse (bizitu zan) nel sec. V, fu maestro de s. Emiliano (sp.

e s. Braulio vescovo di Saragozza, lo dice *vir sanctissimus* (Bibl.-Sanc.).


Saturio Donea dugu garai artako beste bakarti txit ezaguna: Baleike euskalduna izatea, Garai edo Numantzi<sup>s</sup> ren alboan jaio zalako. Duero ibaiaren eremuetan bizitu zan, ikasle izan zuan Armenti'ko Doneprudenzio'rekin. Baiñan au eta baita Donemillian ere lekaide lez VI mendekoak izan ziralako, mende ortaz mintzatzerakoan aipatuko ditugu berriro.


\* \* \*

Erdiaro garaiaren asieran eta, agian baita erromatearen azken-aldera ere, Gobietako lekaide "arabarrak" ditugu eusko-lekaidetzaren eta euroé par-lekaidetzaren pitxirik miresgarriena: "Europa'ko Kapadozia".



Lz.m. 77. «Las Gobas». Epigrafs y grabados. Iglesia superior.






Lrn. 69

Gobas» 1.

ζ<sup>ο</sup> 6E TAKC' ikuoi Or<sup>2</sup> ii/Nk Aya.4-Co,



Lřrn. 70. oLas Gohas» 2.



Arabarrak? Noizkoak? Erromatearen azken-arokoak?

- Arabarrak..., ez dakit. Orduan ez bait zan Araba'rik. Sarkaldeko Gobiak, Autrigoni'n zeuden: Gobiaran'en. Sortaldekoak, baskoien mugaren alboan, baiñan bardulitarren lurraldean, Ibero ibaieraiño iristen bait zan Barduli! Bardulitarrak, beraz? Baskoiak agian? Berondarrak ote? Euskaldunak beintzat ezpairik gabe. Esango dut zergaitik pentsatzen dedan orrela".

- Erromatearen azken-aldekoak? Bai nere ustez. Gobietako lekaidetzaren gaillurra, VI eta VII mendekoa omen dugu. Orregaitik, mende oiek aztertzerakoan mintzatuko gera luze gure Gobietaz. Baiñan esan dezagun emen, alako bakartien ugaritasunik ez zala bat-batean sortu. Eusko-Kapadozia ez zala, gizakumeok jaiotzen geran bezala une bat-batean jaio. Gizakumeok ere jaio-aurretik ama baten sabelean umotze baten bearra badugun bezala, gure Kapadoziak ere izan zuala, bai beintzat V mendearen eta agian IV'aren sabelean bearbearrezko ernetze eta azitze eta sendotze-aro egoki bat.

Uste ortan ni ziurtatzera datorkit Zalduba'ko kontzilioak alako arreta aundiz lekaidetzari-buruz esan zigun guztia. Batez ere, gure Gobietako bakartien eta priszilikeriaren artean, batzuek oiukatu duan bezala, arrematik izan zala egia gertatuko ba'litz.

## GOBIAK

---

Autrigoien eta gaiñerako euskal-leiñuen aipua badaiteke emen egiazko anakronikeri edo aldizkanpokeri bat izatea, V mendean eta mende ortaz gero, bai Bisigotek, bai Frankiarrek, bai Arabitarrek eta baita Asturietako Bisigotiarrek ere, ia beti, izen bakarra erabilliko bait dute euskaldun oro adierazteko: Bascones, Vascones edo Wascones. Guaskuyin, Arabitarrek, "W" ori "Gu" agoskatuz, eta "ES" atzizki askotasun-adierazle latiñaren ordez semit-izkuntzen "YIN", gauza bera adierazten duan atzizkia erabilliz. Barduli itza agertuko da geroago ere, XI garren mendearen inguruan, baiñan oraingoan, Gaztela Zarra aipatzeko.

Araba'n, bereiziki Baldegobi'n (Gobiaran'en), Trebiño'n eta Konterri ori ta Naparroa'ren muga-bitartean aurkitzen diran leize-zuloei esan izan diete lurralde oietako baserritarrek, bizkaiera zarreko itza erabilliz, toki batzuetan "ias Gobas" eta beste batzuetan "las Gobías".

Gobi oiek, are-arrizko malda biguinetan aitzurrez irikitako zuloak dira.

Aro artako Kristaudi guztian bezala, Euskalerra Zar aren beste zokoe-tan ere izan ziran orrelako leizak; guk, ordea Araba'koak ekarriko ditugu atal ontan gure begien aurrera, ongien ezagutuak eta geien aztertuak oiek izan diralako. Zulo oietan bizitu ziran antziñate artan gure bakartasunzale penitentzigitak.

"Dokumentuei", ots, Gobietako arkeologiak damaizkigun albiStCBI bakarrik sinistekotan, VI mendean eta VII'ean izan zan Gobietako lekai-detzaren urrezko aroa. Eta, orregaitik, nere urrengo liburuan bi mende oiek azterterakoan mintzatuko naiz, astiroago, eusko-leize-zulo eraspengarri oietaz. Orrek, ordQa, ez du esan nai Araba'ko lekaidetegi oiek leenagokoak izan ez daite, zkeanik. Eta orixe da, ainzuzen, V mendeari dagokion liburu ontan ere Goba oietaz zerbait esateko arrazoia.


Naikoa izango dugu emen eta orain, dakarkigun ariari jarraituz, erro-nateko azken-arolari-buruz Gobiek erakus dezaigutena jasotzea.

Gobi oiek, ordea, :zenbat dira? Asko: "La Capadocia del Pais Vasco o el aomplejo rupestre im.s importante de Europa", esaten die Latxaga'k aipatu dugun bere liburua azalean, Bada noski zerbait esatea!

Gaur ugari badira, eskierki izango ziran gelago antzifiako mende aie-tan. Ekaitzetako urek lurpera sartuz sortutako lubizien eragiñez, edo arearri biguin ura lortzeko iriki diran arrobien erruz, edo zulo oiek mendeak-zear xede ezberdiñetarako erabilli dituzten gizakumeen zabarkeriz, bat geiago izango bait dira betirako ondatu zaizkigunak, Mendimaida aiei ikus-taldi bat ematea naikoa da, ori gertatu dala, ori naroki gertatu dala, ziurki jakiteko, ugari nabari bait dira len goba osoak izandakoen aztarnak.

Orregaitik, zugarri zenbaki borobil bat eman gabe, "Casi 120 cavida-des catalogadas", aipatzen dizkigu A. Azkarate'k bere liburu ederrean (op-.e.384). Gaiñera, dirudianez beintzat, ez du Azkarate'k uste, danetan lekai-deak bizi izan ziranik. Baiñan ortan arreta aundiz ibilli bearra da, naiz leizezuloak oso txikiak izan. Garai zar artan, maiz aski, Kristaudi osoko lekaide aiek, erdi lurpeko eta erdi egurrez edo adobez eraikitako non-sartu-tegi arlote batzuk aski bait zituzten, bertan pozik bizitzeko: mal lan, naiz

# Albaina



Lam. 83. «Sarracho» l v 2. Iglesias,

A Fon Lus 2=75.5


le

tr,-ij U<sup>co:N</sup> ff  
m./



*[Handwritten notes and scribbles]*

*[Handwritten notes and scribbles]*



0 : 1 6



l. m. 75. «Las Gobas». Epigrafes v grabados. Iglesia superior.



«Santorearia» 4.  
Iglesia.



Lâm. 88. «Santorearia» 4. Iglesia. Secciones transversales.

ttipia, babespetxo bat urratu, zulo txo oien aurrean txabolatxo bat jaso, ta, besterik gabe, eraturik zeuzkaten lur gorriaren gaiñean bizitzeko bearrezkoa zuten jauregia lekaide diruz-txiro gogoz aberats aiek. Badakigu Marmoutier'ko lekaide batzuek orrelako "jauregiak" bazituztela Lekaidetxe Nagusiaren inguruan.

Gure Gobi batzuk gaiñera, aundiak dira, bi gelako edo gela bat eta otoitegi bateko leize ederrak. Oietan ederki bizi zitezkean bi bakarti, lotegia otoitegi biurtzen zuten bezala, errez biurtzen bait zuten otoitegia ere lotegi, Io egiteko aren txoko batean lurrean etziñez.

Noizkoak ote dira? Ez danak une berekoak. Badirudi leizezulo oietako batzuk eraz aldatu ere egin dutela, lekaide berriek, beren aurrekoek irikitako zuloa aunditu naiez batzuetan, edettu naiez beste batzuetan, edota otoiegi biurtu naiez bizitegi uts izateko irikia izan zan zuloa.

Orrelako zulo oiek askotan jakintza urriko lekaideen lana izaten diralako, eta landuak izan diran lurraren belaskatasunaren erruz, edo geroagoko jendeen ariketaren ondorioz, gure aro ontara maiz aski aldaturik iritxi oi diralako, ez da erreza gertatzen gure Gobien adiñez nai aiñako eskiertasunez mintzatzea. Ederki idatzi du Gobiak andotxo ezagutzen dituan Monreal Jimeno irakasleak (op.c. 30):

"Ocurre frecuentemente que sus formas son irregulares o poco definidas". "Otra fuente de problemas que complica nuestro proyecto de tipología de lo rupestre son, junto a los inevitables desplomes, las reformas y remodelaciones que han alterado el aspecto originario". "Todavía puede señalarse otro matiz perturbador: con mucha frecuencia aparecen en obras rupestres de aspecto tardío algunos elementos o formulaciones que las retrotraen en el tiempo, quedando generalmente sin resolver la duda de si estamos ante elementos arcaizantes que han perdurado, o si por el contrario se trata de una obra antigua que fue tan profundamente remodelada en una fase ulterior que hizo desaparecer el carácter de la obra originaria".

Orregaitik dio berealaxe: "Inevitablemente Ia serie de reservas que acabamos de formular otorgan a nuestro intento de ordenación tipológica un carácter ensayístico y de hipótesis de trabajo".

Kezka berdiñez eta bildur ber-bera lagun dugula mintzatuko gera gu ere Araba'ko Gohien baioteko adiñari-buruz'.

- VII mendez eta baita eun urte lenago VI'ez ere Gobi aiek irikita zeudela eta beraietan lekaiderik bizi zala..., ori, eskier badakigun gauza da. Berdin Vill mendean ere, mende orren lenen erdian beintzat;garal ortan joan bait zen urtetik urtera ezerezen Gobietako lekaidetza.

Ta.. leenago? V mendean.. ez?

Bai nere ustez. Ez dugu ori bete-betea aldarrikatzeko VI eta VII mendeetan aiñako dokumentu zeatzik. Baiñan alako lorete naro miressgarri-rik ez zan noski VI mendean leenagotiko sustrai sendorik gabe bat-batean gertatu. Ataka ederra irikitzen digu beraz bide ortatik logikak, lekaidetza ura V mendetik zetorrela esateko.

Oroi gaiñera Agata'n ospatutako kontzilioak erakutsi-berri dizkigun xeetasun jakingarriok:

1<sup>a</sup>: VI mendea asterakoan lekaidetza-lekaimetza arras gertakizun ugaritsua zala Galietako egoaldean;

2<sup>3</sup>: V mendean ere berdiña zala lekaime-lekaideen ugaritasuna. Ori,.. ark erakusten duala? Bai. Kontzilioak beti, eta aro zar artan geiago, aurrera begira baiño geiago atzera begira mintzatzen ziralako: igarotako gaiztakeriak eskomikatzeko, igarotako okerkeriak zuzentzeko: V mendeko lekaide-lekaimetza zeukaten beraz begien aurrean, eta V mendeko lekaime-lekaidetzaz ari izan ziran izketan Kontzilio aren jardunaldi guztian.

3<sup>a</sup>: Euskalerra Zar artan ere ugari zirala lekaide-lekaimeak. Izan ere Kontzilio aren erdia Euskalerra'ko edo Euskalerraren inguruko gotzaiek osotzen zutelarik, txorakeri lodi koipetsua izango bait litzake, kontzilioa legegintzan bere erdiarentzat bakarrik ari izan zala pentsatzea.

- Ta... leenago oraindik? IV mendean zer? Geiegizko eskiertasunik gabe, baiñan galde orri erantzuteko zerbait esatekotan, baietz esango nuke nik. Era ortan jarduteko, ez bait nago arrazoiez zearo billutsik.

Adibidez: Gobi batzuetako ormetan aiztoz ziriztatuak agertzen diran idazkiak, "letra cursiva romana nueva"z idatziak omen dira.

---

<sup>94</sup>) Gaztelerazko "posible adierazteko erabili dut "baioteko" ori: "Gobien bai oteko adiñari-buruz": "sobre la posible edad de las Gobias".

"Esku-idazketa erromatar berri" ori, baiki, erabiltzen zan VI mendean, baiña bait V'ean, eta IV'ean ere. Bai beintzat IV'aren azken aldera,

Idazki oiek, baita leize zulo bat berean ere, maiz aski esku ezberdiñek eta garai ezberdiñetan egiñak ditugu. Badira, eta ez gutxi, VI mendearen eta VII'aren asierakoak dirala ematen dutenak.

Badira ordea itxuraz zarragoak diranak ere: Idazki oietako batez onela itzegiten digu A. Azkarate ikerlari maiz aipatuak (op.c. 390): "Ofrece a la vez que un onoma.stico muy claro **Iohanni un dato paleografico** notable (azpimarraketa nerea): nos referimos a la "a" cursiva con su trazo final orientado hacia arriba, característico de un período de transición entre la escritura tardo romana y la protovisigótica. El hecho de que no forme nexos con la letra siguiente constituye otro rasgo mas de su cronología temprana". Idazki ori V mendekoa dala esango nuke nik, eta Bisigotak gure egoaldera VI mendera arte iritxi ez ziralako, erromatarrek orduan zerabilkiten idazkeratik jaso: "tardorromana": "berand'erromatarra".

Gure idazki oietako "A" nagusietaz ari dalarik berriz, onela dio ikerlaeri ri berak (I.c. 397) bisigot-aroko "A"k badirala esan ondorean: "El tipo mas frecuente es, sin embargo, uno con dos trazos transversales formando unas veces angulo y otras sin llegar a constituirlo. Navascu&<sup>1</sup> lo documenta ampliamente en la epigrafía emeritense durante todo el siglo V y primera mitad del s. VI, a partir de cuya fecha comienza a decaer en favor de la A con travesaño recta". V mendean gabiltz oraingoan ere, eta A oiek erromatarren idazkeratik izan ziran artuak, esan dugun lez, Bisigotak Lusitani'ren buru zan Emerita (Merida) urira eta Ispani osora VI mendean etorri bait ziran: borrokan Frankiarrek garaituak izan ziranez gero.

V mendean gabiltz, beraz, oraingoan ere eta, ezpairik gabe, "berand'erromatar-Idazkerara oitutako eskuak izan ziran A oiek gure leizeetan ziriztatuz idatzi zituztenak.

Ona berriz zer dion (I.c. 398) "a" ttipiari-buruz: "Generalmente asientan su primera curva en la línea del renglón, a diferencia (azpimarratzaillea ni) de la visigótica cursiva". V mendean gabiltz ostera berriz berriro,

---

J. M. de Navascués y De Juan: "El concepto de la epigrafía. Consideraciones sobre la necesidad de su ampliación". Madrid, 1955, pp. 38-41". Nik ez dut liburu au erabiltzerik izan.

V'ean, bai. Baiña IV'ean?, IV'aren azken aldean beintzat zergaitik ez?

Azkarate, idazkirik geienak VI eta VII mendekoak diralaren ustekoa dugu (1.c. 404-405), baiñan berak eta J.M. de Navascues'ek eman dizkiguten zeaztasun oiek oso garrantzi aundikoak dirala derizkiot, eta V mendean ere an bakartiek izan zirala eta bakarti aiek ere orma aietan idazten ari izan zirala, eskier sinistu aal izateko naikoak dirala esango nuke nik oker-zulora jausteko batere bildurrik gabe.

Eta IV'ean, IV'aren azken aldera beintzat... zergaitik ez? Orduangoak bait dira berand'erromatar idazkeraren lenen sustraiak.

Indar aundiagokoa da neretzat, ongi ezaguna dugun Zalduba'ko Kontzilioak 380'garren urtean erabili zuan ariketa. Esan dugun bezala kontzilioak atzera begira aritzen diralarik, Zalduba'ko Asabek, eta 384'ean Bordele'koek ordurako arras zabaldurik zeuden okerkeriak izan bait zituzten begien aurrean:

Ots, 380'garren urtea iristerako zahalduak zeuden okerkeriak (orrek IV mendeko bigarren erdiaren astapenaruntz bultzatzen gaitu);

Arras zabaldurik zeudenak (ez bait ziran bestela okerkeri aiek zuzentzeko kontzilio bi ospatuko);

Euskalerrian, -- Gbereiziki Euskalerrian? -- ere zabaldurik zeudenak, (ez bait ziran, orrela izan ez ba'litz, bi kontzilio aiek Euskalerraren ego eta ipar muga ber-beretan ospatuko).

Argumentu orrek indar geiago artuko digu iru koxka auek gogoratzen ba'ditugu:

Gure mugetako bi kontzilio aiek, IV mendean, priszilikeriaren geiegiakeriak izan zituztela azterketa-gai;

Priszilikeria Euskalerrri Zar artan arrunt zabaldu zala;

Gobietako lekaideak ere, priszilikeriz salatuak-edo izan ere... izan dirala

IV mendean Araba'ko mendi aietan bakartiak bizitu zirala esateko, argibide geiagorik ez dugu, baiñan logikaren aldetik bizitu zirala uste aal izateko, esan dedana naikoa dala iduritzen zait, batez ere bi gauza ongi bereizten baditugu Lenen bakartien aroa, eta bakarti idazleen aroa. Bakarti idazleen aurretik, izan bait zitezkean an eta izan bait ziran seguruaski ezer idatzi ez zuten bakartiak. Bereizketa ori egin ezkerro, ez da aiolarik



aundieneko gauza gobietako idazkiak VI, V, edo IV mendekoak diran jakitea.

Uste berekoa izan zan Joxemiel Barandiaran ere:

"En cuanto a la excavación que hemos efectuado en Sarracho, podemos decir que los pequeños templos abiertos en aquel escarpe pueden datar de las postrimerías de la época romana (azpimarratzaillea neroni), si bien han debido ser utilizados y aun retocados en siglos más recientes, particularmente en los de la alta edad media. Que en tiempos visigóticos fueron utilizados muchas de estas grutas es cosa indudable: los trazados de algunas de ellas, las inscripciones y figuran de Faido y de Sarracho (Albaina), de Laño, de Urarte y de Marquinez, son indicios que nos inclinan irresistiblemente a tal conclusión".

Ori ondo iduritzen zaio Monreal Jimeno'ri (op.c.294), baiña, leize beraiei dagokienez "no son neolíticas las de Marquinez y en Laño como él supuso", esaten digu

Guri ez zaigu ajola leize aietako batzuk neolitik-aroaz gero irikirik egon daitezkeanik jakitea. Leize aietan IV mendean ere bakartirik bizi izan ote zan aztertzea da une ontan arduratzen gaitun guraria.

Alare, maixu izan genuan Joxemiel'engana.ko begiramenez, esan dezagun edestiarreko arri landu ta lurregosizko gauza asko aurkitu zuala Barandiaradek; Aldizkari aipatu-berri orren I eta II zenbakietan ikusi daitezkeala aurkikuntza aien irudiak; Barandiaran'ek ez duala esaten leizezulo aiek "ene,olitik-aroak diranik", "ala izan daitezkeala" baizik: eta ori ere kezka ta arreta aundiz itzegiñez, berealaxe ikusiko duzun lez. (Azpimarraketak nereak izango dira):

"El debate planteado sobre la edad en que se comenzó a labrar las grutas artificiales de esta zona, no sería aventurado decir que durante el Neolítico se hicieron los primeros ensayos en la excavación de tales abrigos y oquedades. Podemos adoptar esta opinión basada en indicios, como actitud provisional, mientras lleguen nuevos datos que contribuyan a aclarar mejor este problema" (ib).

Gure ustekoa dugula dirudi A. Azkarate bera. Ikus nola:

---

"Excavaciones en el Montículo de Charratu y en Sarracho. 1966". "Estudios de Arqueología Alavesa". Vitoria, 1967, 7-21)

Gohietako bakartiak priszilikeriz salatuak izan dirala esan dugu. Azkarate'k berak ere ez du begi txarrez ikusten, Gobietako lekaidetzaren asiera, Zalduba'ko kontzilioak gaitzesten zuan apaizen mendiko zuloetarako joera artan egon daitekealako ori. Ona zer dion "de los orígenes del complejo rupestre alaves" ari dalarik (i.c. 486-487): Eman dezadan, osoki, Azkarate'ren aapaldi ori:

"La historiografía de estos últimos años a raEz sobre todo de los trabajos de J.Fontaine viene insistiendo reiteradamente en la afloración de los ideales aseeticos que, a fines dei s.IV, conocid el entorno circumpirenico, ideales que ehocaron fundamentalmente con una jerarquía eclesial cada vez mas mundanizada, y de cuya confrontación el priscilianismo constituye, quizá, el episodio más radical y conocido. En este contexto general dominado por una espiritualidad angustiada, los intercambios de personas, de ideas y de experiencias, tuvieron un eje viario cuya protagonismo se nos revela cada vez mis decisivo: nos referimos a la calzada de Asturica a Burdigala, a través de la cual las ideas priscilianistas arriharon -- y echaron raíces -- en Aquitania y en el valle del Ebro, a juzgar por los concilios condenatorios que se celebraron a uno y otro lado de los Pirineos.

"Es por ello por lo que se ha sospechado la implantación de estas corrientes ascéticas en los territorios vasicos mas meridionales y a'reas adyacentes. Porque si bien es cierto que carecemos de evidencias concluyentes, no podemos tampoco cerrar los ojos ante los numerosos indicios que apuntan en el sentido de to dicho".

"Espiritualidad angustiada" esaten dio aro artako gogo-bizikerari. Bedi. Baiña "gogo-larritasun" ori ez dator inoñaz ere bat geroxeago aipatzen digun "jerarquía eclesial cada vez mas mundanizada" arekin, eta ezta orduango zerbaiten jabe zan jende orok bizi zuan lasaikeriarekin ere.

Beste oartxo bat. Lekaidetza eta Elizako jerarkia, talkarako gertututako ariak bezala, aurrez-aurre ipintzen dizkigu: "chocaron frontalmente", eta Zalduba'ko ta Bordele'ko kontzilio biak ipintzen ditugu talkaketa aren lekuko. Ez dut uste gauzak orren zakarki gertatu ziranik. Bi kontzilio aiek,

---

Ainbat bider aipatu diogun liburuaren 484'garren orrialdean damaizu Agustin Azkarate Garay-Olaun'ek "salaketariari" berri: J.Fontaine; U.Espinosa Ruiz; J.J.Sayas Abengoechea; M.O. Graffe...

astiro aztertu genduan Zalduba'koa ez zuten lekaidetzarik debekatu, priszilikeriz orbandutako lekaide batzuen geiegikeria baizik. Geiegikeri oien aurka beti egon zan Eliza. Baita Sortaldean ere. Ainzuzen ordurako Sortaldean bai, eta laister Sarkaldean ere bai, lekaidetegietan bizitutako gizonak izango dira ugari gotzai aukeratuak. Eta una ortaz aurretik, Lekaidetzaren lenen aroan, gotzaiak izango dira lekaide-lekaimeen mireslerik eta laguntzaillerik aundienak; ez bait zan ortan bakarra izan Aleksandri'ko Atanasio Donea. Ez da beraz zillegi gotzai ta lekaideetaz mintzatzerakoan ari-talkarik aipatzea.

- "La historiografía de estos Últimos años a raíz sobre todo de los trabajos de J. Fontaine viene insistiendo reiteradamente en la atloración de los ideales ascéticos que, a finales del s.IV, conocid el entorno circumpirenaico".

;"Entorno circumpirenaico"? ;Euskalerrria, motell ;Euskalerrri zaar edatsu zabala! Añamendiaren bi aldetara gure Arbaso euskaldunen Aberri eder lau-aizeetara-irikia!

- Aszetik'apeta kutsagarriaren galda ori, batez ere "Asturica-Burdigala" bidezahaletik ibilli zitzaigula goruntz eta beeruntz. Nik, len ere esan dut-eta, Egotik Iparrera ibilli zala esango nuke, Ego-Euskalerritik igaro zala Iparr-Euskalerrira; galda ori Ispanietan Galietan baiño leenago piztu zala iduritzen bait zait.

- Prisziliano'ren gogoetek Akitani'n eta "en el valle del Ebro" sendo errotu zituztela sustraiak. Akitani'koa badakigu. Ibero-aranekoa ere, Zalduba'ko Kontzilioaren ariketa ezagutuz gero, logikaren araura egia dala ziur iduritzen zaigu.

- (Au nere ustez garrantzitsuena), "es por ello por lo que se ha sospechado razonablemente a nuestro parecer la implantación de estas corrientes ascéticas en los territorios vasconicos mas meridionales y Ireas adyacentes".

Ederki, baiñan bereizketa bat "La inplantación de estas corrientes ascéticas", ots, "la atioración de los ideales asceticos que, a fines del s.IV conocid el entorno circumpirenaico", bai. "La inplantación de estas corrientes prisciliwas" ere hai, orrekin priszilikeriak euskaldunen artean arrakasta aundia izan zuala esan nai ba'da.

Baiñan orrekin gure Gobietako lekaideak priszilikerizaleak izan zirala esan ni ba'da, ez. Orrela, ago betez ori esateko, arrazoi naikorik ez bait

dugu. Uste izan daiteke, gaiñera, Euskalerra Zarrean, bakartitzarako leia priszilikeria baiño leenagokoa izan zitekeala. Ots! Uste izan daitekeala esan dut; ez, orrela uste bear danik. Ez bait dugu, ori esan aal izateko, kixazko argumenturik ezagutzen. Pentsatu daiteke beintzat, orrela izan ez ba'litz ez zuala priszilikeriak, Euskalerra, artaraiñoko arrakastarik izango; ez daiteke ba sagarrondorik ez dagoan tokian sagar-menturik txertatu.

- Aizu, erranen dit norbaitek: Ta, euskaldun aiek Prisziliano gotzaiak berak kristautu ba'litu"? Gotiar jendea ez al zuan Ulfila gotzoi arianizaleak kristautu. Ori orrela izanik, gotiarrek batai-une ber-beretik kristau arianitarak izan ziran bezala, kristau priszilitarrak izenen ziran gure euskaldun aiek.

Ez bā,

Baleike gotiarrak Ulfila'k kristautuak izatea, naiz ori gaur zalantzan ipintzen dan gauza izan, baiña Euskalerra priszilitarrak ez zituan Prisziliano'k kristautu. Ez ziran zuzenean jentiltasunetik kristautasunera Prisziliano'ren apostoluzaren eragiñez igaro. Zergaitik ez? Euskalerra priszilikerizaleak Zalduba'n bertan, Baskoien artean seguruaski, eta, ziuurki Akitani'n, eta Bordele'n bertan asko ta asko izan ziralako, Eta talde aundi ura sasijainkoen gurketatik Kristo'ren Elizaren altzora Prisziliano'k ekarri ba'lu, ori, ez?, edestiak oparo jasoko zualako, eta batez ere, ori, ori orrela izan ba'litz, Prisziliano'ren alde, bere jarrailleek deadarkatuko zutelako, Zalduba'ko ta Bordele'ko bi kontzilio aietan bereiziki, eta Prisziliano eriotzara epaitu zuan Inperatorearen Epategi Nagusian. Aizatuko zuten Prisziliano'ren merezimendu arras aundi ori, aren bizia salbatzeko Inperatorearen aurrean alako lan ederra egin zuan Turona'ko londoni Martti'k eta onen bidetik ibilli ziran besteek, Milan'go Ambrosio Doneak adibidez.

Gure lekaide aiek euskaldunak ala bisigotiarrak ziralako arazo au al dan sakonenik aztertzeke, saia gaitez an len egindako galde oni xeetasun geiagoz erantzuten: Noizkoak dira gure Gobiak?

Noizkoak dira?

Vi eta VII mendekoak? Eskierki, bai. Ori, beren ormetako idazkiek argi eskiertzen diguten gauza bait da.

- V mendekoak? Baleike. Ezpairik gabe idazkiak baiño aurreragoak bait dira Gobietako ormak. V mende ontakoak eta VI'aren lenen erdikoak dirala uste du A. Navascu6 ikerlariak, esan dugun lez. Eta uste ortakoa agertu zaigu Joxemiel Barandiaran. Eta uste ortarako bide-eman digu Azkarate'k berak ere. Baiñan esan dezadan berriro: V mendeko Gobietaz eskierki mintzatu aal izateko, oiñarri ziur-ziur bat peitzen zaigu. Alatagutziz, nere aburu ori gure frontoietara eramango ba'nu, dirutza ederra sortueraziko luke bere alde. Milla berreunera izango litzake ba, gutxienez, artekariak eskeiñiko luketen dirua.

Esan ditugunaren lekuko ziurrak bait ditugu gure lurralde ontan bertan, V mende orren bigarren erdiaren erdia baiño leenago Bertzeo'n jaitziz zaitzaitzaren Kukulla'ko Donemillian eta oso-osoan V mendekoa izan genuan Bilibio'ko Donefelize autrigoitarra, V mendeko bakartirik ospetsuenetakoak biak, eta biak bete-betean euskaldunak: Ta, Azkarate'k ederki dion bezala, gogora dezagun bide motza dala Errioxa'ko Bilibio'tik Araba'ko Gobieta-raifloko bidea.

- IV mendekoak? Baleike. Baleike IV mendearen azken-aldera Gobiren batzuetan bakartirik bizi izatea. Lekuko, mende ortan egin zan Zalduba'ko kontzilioa, eta mende ortakoa zan priszilikeria. Joxemiel Barandiaran'ek ere, badamaigu ori uste aal izateko Gobietan "erromatearen azken-aldera jendea bizi zala" dioskunean. Tamalez ordea, ezpairik gabeko deus esan aal izateko, argumentu eskierrik gabe aurkitzen gera.

Bada Gobietako ormetan garrantzirik gabeko marrazkitxorik eta zentzurik gabeko marra, lerro, ta antzekorik ugari. Baiñan auek ere ez digute Gobien noizkotasunaz ezer esaten: "Los relieves y grabados, la mayoría participan de un arte popular y prcticamente sin fronteras espaciales o temporales por lo que escapan a toda clasificaciÓN" (Montreal Jimeno, op,c. 291).

B) Gobietan bizitu ziran aiek Geuskaldunak al ziran? Nere iritiz, bai. Baiñan... ostera betiko leloa abestu bearrean aurkitzen naiz. Nere uste ori, alegia, ez dala edestiaren baratzako zitu zalantzakaitza. Aburu bat besterik ez dala. Nere aburu utsa; eta beste aburu batzuk ere badirala. Begira:

Gobietako lekaide aiek, gurera musulmanengandik igesi etorritako mozarabitarrak zirala, esan izan zan aurrena. Gero ordea, Gobietako lekaidetza VIII mendean, ainzuzen moro musulmanak Ispanietara iritxi ziranean ezabatu zala jakin zanez gero, oifiarririk gabe gelditu zan iritzi ura. VI eta VII mendeetan, Gobietako lekaidetza bizkorrenik zegoan unean Ispanietan moro musulmanik eta, ondorioz, mozarabitarrak ere ez bait zan.

- Arrezkero, Gobietako" lekaideak Bisigotiarrak zirala esan izan da. Baiña eskiertasun geiegirik gabe, nere ustez beintzat.

Gobietako batzuetan, batez ere eliza diran gobietan, maiz agertzen dala bisigotiarren perra-makoa, esanen didate aburu orren aldezelek?

"Ta zer"? erantzungo diet nik. Naiz perra-maku diralako uztai oietatik askoz geiago agertuko ba'lira ere, orrek ez bait lieke, bisigotasunzale oiei, ezertarako eskiertasunik ematen. ¿Zer agertu zitekeala uste zuten ba? Euskaldunok, esan dugun lez, ez dugu arkitekturazko estilo edo kera bereizirik izan. Mendeak-zear, inguruan ikusi izan ditugun kerak artu izan ditugu.

- Idazkera ere, "antigiledad tardia", ots "berant-antzifiatasun-arokoa" dala? Bedi. "Nueva romana eursiva" esan oi diote beste batzuk idazkera orri: "esku-idazkera erromar berria". Berdin zait. Lengo erantzuna emanen bait diet: Gure-gure idazkera bereizirik ez dugula sekulan euskaldunok sortu; gure inguruetako idazkerak artu izan ditugula. Ez bait dugu sekulan gure alfabetorik izan!

- Gobietako idazkiak lateraz daudela idatzirik? Ezer esan nai ez duan gauza. Antziñateko lekaidetik geienak kulturik gabeko kristau xumeak izan oi ziran. Baiñan aien artean bazituzten kulturik bazutenak ere. Eta apaizak. Erabateko apaiz anakoretak eta maiz aski aste batzuetarako edo illabete bakarrik, oroi Zalduba'ko kontzilioak galerazi zuana penitentzigintzara basamortura baztarten ziran apaizak ere bazituzten, eta aski ugari gaiñera kontzilio ark aditzera damagunez. Jakiña: kulturazko jende ta apaiz oiek ziran Gobietako ormetan idazten zutenak, besteek ez bait zekiten orrenbeste.

- Baiña, danadala, Llatiriez idatzi zutela? Ori ordea arritzeko gauza al da? ¿Zer itxaroten zenuten orma aietan ikustea? Atzo-atzo arte, ¿noiz idatzi

izan dute euskeraz gure apaiz jaunek eta kulturaz jantzitako beste jende euskaldunek?

- Bisigotitasun-zaleen arrazoiak, ez dute, beraz, nere uste apalez beintzat, ezer askorik balio.

Nere ustez,-- nere uste utsez beti! arritasuna; bai; arritasuna bait da, eraspen guztiz aipatu dizkiedan beste arrazoi guzti oien gaindik, Gobietako bakarti aiek atzeritarrak zirala uste izatera bultzatzen ditua: Oraindik ia-ia zearo jentilla zala pentsatzen duten Euskalerra zar artan ainbeste ta ainbeste leize-zulotan ainbeste ta ainbeste kristau lekaide euskaldunik izan zitekeala oldozten aste utsak sortarazten dien arritasuna.

Araba'ko mendietan, gaur bertan "saltus" zokoenetakoa dan baztar artan orrenbeste lekaide kristau? Orrenbeste izatea ezik, ez zaie ori arritzeko gauza gertatzen. Lekaideak, aro artan, zoko bakartienetara biltzen bait ziran. Baiñan zoko aietara bi mende edo agian mende geiagoren epean bildu ziran lekaide aiek euskaldunak Izatea... ori..., ori bai, ori da errez ontzat artua aal izateko arrigarriegia gertatzen zaiena. Baiña:

- Prizilikeriak emen izandako zabalkuntza azkar errez ugariak, Euskalerrian laugarren mendearen azkenerako kristautasuna tinko sustraiturik eta naiko zabaldurik zegoala adierazten digu.

- Zalduba'ko eta Bordele'ko Kontzilioek, kristautasuna ez eze lekaidetzarako guraria ere biziki edaturik zegoala uste izateko bide egokia damaigute.

- Kalagurri'ko Silbano Gotzaia, Askanio Tarragona'ko Metropolita eta Erroma'ko Ilario Aitasantuaren arteko arazo mingarri aren azterketak, zalantzarako biderik gabe utzi zigun argi ta garbi, V mendeko Euskalerra Zarrean Kristau-Eliza ederki erroturik, aski edaturik, eta ongi bizkorturik aurkitzen zala.

- Esaten ari geran guztia, Euskalerra Zarreko urietako kristautasunaz bakarrik esan daitekeala? Noski! Urietatik joan oi ziran ba, bereiziki, basoetara, ilduma egin naiez, mende aietako lekaideak. Ez, basoetatik. Basoak Euskalerrian eta mundu guztian jentillak ziran oraindik. Euskalerrian beste tokietan haiño jentillago? Ez da, ori esateko, ziurtasunezko arrazoi bat bakarrik. Alderantziz, ori ez zala orrela gertatu esateko, arrazoi bat baiño geiago aipatu ditugu:

Erromatean Euskalerra ain ederki ta ugariki bidezabalez sareturik egotea;

Euskalerrria Ispanietatik barrena Afrika eta Europa'ren artean naita-naiezko igaro-bidea izatea; eta igaro-bider orren zatirik ibilliena, gaurko Euskalerrria dagoan toki au izatea;

- Orduango euskaldunen gogo-zahaltasuna.

Danadala, ain zuzen kristaudi osoan basoetako lekaideek izan ziran basoetako jendea kristautzen geienik saiatu ziranak, ez bait zuten lekaide aiek, Tebaida'ko Antonio Donea ber-beraz asita, mixiokuntzarako bokaziorik galdu. Ez da arrazoirik, gure mendietako lekaide aiek ere beste orrenbeste egingo ez zutela pentsatzeko.

- Oroi dezagun zailki izan zitezkeala V mendeko gure lekaide "arabatar" aiek bisigotak izan, V mende artan bisigotak Ispanietan ez baiña Galietan zeuden ezkerro. Tolosa uriburu zuan Erreiñuan ainzuzen.

- Ez gaitezen aztu, VI mendean, Frankiarrek garaituta Galietatik uxaturik Ispanietara etorri ziran talde Bisigotiar aiek lanik aski izan zutela Toledo'tik beren Erreiñu berria antolatzen.

- Ez da gaiñera ulertzen zer-zala-ta, baztar gutzietatik bakartasunez inguraturik egonik, Bisigotiar batzuk bakartasun billa beren lurretik irtenda Euskalerrriko mendietara etorri bear zuten. Garai artan bisigotiar aiek edozein aize-aldera lau pauso ematea naikoa bait zuten bakartasunik gorrienera sarturik egoteko. Dana zan ba basamortu ta lekaro, suebi-alan-bandaliarren igaroketa ezkerro, ain jende urriz orniturik zegoan VI mendeko España zar artan. Ta gaur bezala orduan ere, bereiziki Euskalerrriko mugatik egoalderuntz, eundaka leguak Iuze, Gaztela'ko ta Aragoi'ren Teruel-aldeko lurak ziran oro basamortu.

Are gutxiago ulertu daiteke, oroébakartasun artatik igesi, zertara ta askatasun billatzera, nora ta ainzuzen oso adiskide makurrak zituzten euskaldunengana etorri nai izan zezaketen. Egia, errege bisigotiarrak arianikerizaleak zirala, baiñan ez zioten Elizari erasorik egin, eta asko gutxiago basoetako ta lekaidetxeetako lekaideai. Ez du beraz zentzurik pakezkoa zuten España'ko lurretik, etsaiak zituzten euskaldunen lurretara etorri izate arek.

Azken-aldi ontan 3 gogoeta aipatu oi dira Gobietako bisigotasunaren alde:

I<sup>a</sup>: lekaide aiek Errioxa'ko Bisigotak izan zitezkeala. Baiñan VI mendean ez zan Errioxa'n Bisigotik. Ez beintzat Gobietako lekaidetzaren sor-



tzaille ta iraunerazle, beraiek izan zitezkeala uste aal izateko 2a: VI mendean pakean egon zirala euskaldunak eta bisigotak.

3<sup>a</sup> : Egia VI mendean pakea izan zala Euskalerrian. Bai, pakea izan VI mende orren aurreneko erdian, Leobigildo'k buruntza bururatu zuan arte. Baiñan alatagutziz Bisigotentzat Euskalerria arerioen erria zan; V mendean ere Tolosa'ko Erreiñutik oso adiskide makurrak izan bait ziran euskaldunentzat Bisigotak; eta uste izatekoa bait da, Tolosa'ko Erreiñu artako Bisigotengandik jasotako ondamenak ez zituztela euskaldunek azturik eukiko.

Gaiñera, esanik utzi dugun lez, naiko lan izan zuten VI mendean lenen erdian Bisigotiarrek, Toledo'n oraingoan beren erreñua birr-ezartzen. Erreiñu ori sendotu bezain laister asiko dira berriro, V/ mendean bigarren erdian, euskaldunen aurka borrokan.

3<sup>a</sup> : 568'an Leobigildo'k asitako Bisigoten borroka oiek, ordea, gure leize-zuloetako bakarti aiek bisigotak izan zirala esanez jarraitzen dutenen ustez, soilki Baskoien aurka egiñak izan omen ziran, eta ez, uste oi dan bezala, bereiziki Araba'n gertatua; Naparroa'ko Erribera-aldean baizik. Eta Leobigildo'k eraikitako "Bitoriako" izeneko gaztelu ospetsu ura ere ez omen zan Araba'n eraikia izan, an nonbait Naparroa'ren egoan baizik. Arabarrak ez omen ziran ba "Baskoiak", "Barduliarrak" eta "Karistiarrak" eta "Autrigoitarrak" baizik. Uste ortakoa da Caro Baroja ere: "porque por estas fechas Vasconia segura estando bien definida" (Hist. Gen. País. Vas. op.c. "Alava en los orígenes del País Vasca" atalean).

Alderantziz, beste aburu batekoa dugu B. Estornés Lasa (Enc. Gen. Ilus. P. Vasc. I, 367), Bisigoten aroaz ari dalarik, ordurako, erromateko euskal-leiñuen izenak ezabaturik, Euskalerra osoari Baskonia esaten zitzaiola bait dio: "desaparece en la historia el nombre de las tribus antiguas para sonar, en adelante, solamente el de los vascones".

Edestiak arrazoia Estornés Lasa'ri damaio. Bisigotak Ispanietara iritxi aurretik ere, "Baskoi" euskaldun guztiei esaten bait zitzaien. 405'ean, ots, VI mendea sartuta gero, izan ziran Bisigotak Veullé'ko borroka gogorrean Frankiarrek garaituak eta ia ezabatuak. Igesi, Ispanietara etorri bearrean aurkitu ziran. 56 urte leenago Rekiario zan Ispanietako sarkaldean Suebiarren errege. Ba urte ortan bertan, V mendean erdian, errege orrek "Baskoniak erraustu zituala" diosku ongi ezaguna dugun Idazio'k:

"Ann. 405. Recchiarus Rex Suevorum initium regni Vasconias depraedatur mense Februario (Cron. Min. an. 405)": "405'grn. urtea. Rekia-

rio Suebiarren Erregeak, bere erregetzaren asieran Baskoniak errausi zituan".

Idazio, V mendekoa zan. 470'ren inguruan il zan. Bazekian beraz zer esaten zuan Rekarior'z mintzatu zitzaigunean.

Suebiarren erreñuak une artan, Autrigoioren mugatik Galiziar'ko itxasoraiño ta Kantauri'tik Tajo'ren ibarreraiño Españi'ren ipar-sarkaide guztia artzen zuan bere mugen barruan. Rekiario'k, beraz, sarkaldetik eraso zigun euskaldunoi. Urte batzuk geroago, mende artan bertan, berriro eraso omen zien errege arek Baskoniei, Itazio'k dioskunez.

Ondorioa: Idazio'rentzat, Autrigoni, "Baskoni"etako bat zala, eta, Baskoiak zirala Autrigoiak ere. "Vaseonia" ez baiña "Vasconias", esaten bait du, izan zirala porrokatuak".

Gudate aren berri eman zigun Sebilla'ko Isidoro'k ere, ia itzez-itzez Idazio'ri jarraituz, "Rekiario'k bere erregetzaren asieran, aztiei galde egin ondorean Baskoniak erraustu zituala" diosku: **regni auspicatus** Vasconias depredatur"). Eta ori egiñaz gero, Rekiario, "bereala", "mox", aitagiarreba zuan Teodoro bisigotiarren erregea ikustera abiatu zala Tolosa'runtz, eta itzultzerakoan, Zalduba'ren ingurua ta Lerida'ko uria, "Ilerdensi urbe" artuta, an "baitu-sail ugaria artu zuala katigu": "egit ibi magnam captivitatem" (Hist. Suev. era 486).

Rekiario soilki Napparroa'ko Baskoien aurka ibilli zala iñork uste ez dezan, ederki ipiñi zuan, ugarikera edo plurala erabilliz Idazio'k eta gero Isidoro'k ontzat artu -- errege ark "Vasconiae", ots, "Euskalerriak" astindu zituala.

---

Idazio'k gure auzi ontarako duan pixua azpimarratu nai nuke. IV mendean jaio zan, 390'ren inguruan; Galizi'n. Ispaniarrak edo ispani-erromar aietakoa zan, beraz, jatorriz. Sortaldean ibilli zan gaztaroaz gero; an, Jeronimo Donearekin, Aleksandri'ko Teofilo'rekin, eta Jerusalem'go Jon'ekin adiskide M-sunak izan zituan. Ispanietara itzuli zanean, Suebiarrak bere Galizi'ren jabe egiñik aurkitu zituan; eta suebiarren agintaritzapean izan zan bera Aqua Flavia, gaur Chaves'ko, gotzaia. Doneleon Aitasantu Aundiaren aginduz, erderki egin zuan lan priszilikeriaren aurka. jaiotzez, ispani-erromar, kulturaz sortaldetar, eta gotzai lez suebiar onentzat, V mendean, "Vasconias", Fuskalerri guztiak ziran!

VII mendekoa dugu, 636'ean il zan Sebilla'ko Isidoro. VI mendean, Baskoien aurkako borroka amaitu gabe, 568'aren inguruan 11 zan Leobigildo. Ba, urte-sail bat geroxeago, Baskoiak dira euskaldun danak Isidoro'rentzat; eta baita ikusi dugun lez eun urte leenago Idazio'rentzat: "Vasconias": "Euskalerriak. "Baskoni danak". Ba. orduantxe ainzuzen, Rekiario, Itazio, Leobigildo eta Doneisidor'en aro artantxe aurkitzen zan bere oparotasunik aundienean Araba'ko mendietan euskal-anakoretitza.

Euskaldunak ziran, eta gudaren bildurrik gabe, esango dugu zergaitik lasai jarraitu zuten otoigintzan gure lekaideak. Baita Araba'ren sartaldeko aiek ere. An ere, Rekiario il da gero ere, euskaldunen aurka gudara jo bait zuan Miro Suebiarren erregeak 572'ean, "Errokoiien aurka": "Miro Suevorum Princeps bellum contra Ruccones intulit" (ib. era 502. Eta "Esp. .Sagr.op.c.506).

"Rukones" oiek Autrigoiak ziran, Oka ibaiaren araneakoak. Etimologi ortan A. Ortueta'ri jarraitzen diot ("Vasconia y el Imperio de Toledo", 228): "Este nombre no vendría de Rio-Oja, como apuntan algunos autores, sino de Rio-Oca. En efecto, creemos que Rucconia procede de Rio Oca con la terminación latina -nia, contenida en Vasconia, Hispania etc. (Rioocania, Ruocania, Ruconia), como de río Vena afluyente del Arlanzón --se ha formado el nombre de Rubena; del río Ibillos, Rubrillos; del río Cieza, Rucieza".

Guzti orrek azken punttu ontara ekarri gaitu: V, VI, eta VII mende aietan, euskaldun guztiak zirala Baskoiak. Eta, ori, bai Suebiarrentzat eta baita Bisigotiarrentzat ere.

Eta VII mendeaz gero, VIII'ean, IX'ean, eta ondorengoetan, ori egiztatuz jarraituko digute Obiedo'ko ta gero Leon'go errege bisigotak.

VIII mendeaz gero, Asturietako Bisigotak ez or izango ditugu egoaldetik arabarren edestilariak, arabarren aurka ia urtero maomatarrek izan zituzten borroken berri-ematerakoan, arabarrei "Baskones" esaka. "Guaskuyin" idatzi oi dute edestilari aiek, franklarren<sup>2</sup> andiko "W"a ("Wascones") "GU" agoskatuz, eta, askotasuna adierazteko, semitarren "in", "yin" atzizkia erabilliz.

Iparraldetik berriz, VI mendea herberaz gero, orixe bera aitortuko digute frankiarrek ere: auek ere, VI mende aren asieran, 506'ean, Bisigoten Tolosa'ko erreinua ezabatuta, Euskalerriko mugara iritxi bezain laister asi bait ziran Akitani'ko euskaldunen aurka borrokan. Eta beti, beti, beti, "Baskoien aurka", "adversus Vascones" edo "advesus Wascones" ari dirala esango dizute.

Iparraldeko gure errege etsai aien artetik bezaigu lekuko I Kilderiko (458-481) Fortunato bere olerkariarekin batera: Ikus olerkariak erregeari eskeintzen dion olerkitik aapaldi baten zati au:

(Chilppericum regem) "quem Geta, Wasco tremunt,  
Danus, Euthio, Saxo, Britanus,  
cum patre quos acie te domItase patet" (Ad Chilp. Reg. I,IV,33).

(Kilperiko erregeari) "bildur diote Gotiarrek eta Waskoiek;  
Dinamarkatarrek, Euziarrek, Saksonitarrek, eta Britaniarrek;  
ezaguna bait da guzti oiek,  
zuk, aita lagun, ezpataz menderaturik dauzkazula".

Fortunato'ren atzetik, idazle frankiar guztiek, beti, "Wascones" esango diete Iparraldeko euskaldun guztiei. Alde ortatik zer geiago esan bearrrik ez dago.

---

<sup>95</sup> "Euziar" oiek Alemani'ko germaniar batzuk zirala dirudi. Ezin izan dut *non* bizi ziran ziurtasun osoz jakiterik lortu, naiz izen ori eta bere atzeko guztien billa saiatu. Cangius'ek bere Erdiaroko Lateraren Iztegian ez dakar. Ezta gure liburutegiko latifi'iztegi ugarietatik beste inork ere.

" Fortunato, lekuko garrantzitsua dugu auzi ontan Idazio'ren antzera. Erromatarra bai zan jaiotzez, Itali'ra jaioa. Frantzi'n agertzen zaigu azkenean; Gregorio Turona'ko gotzai edestilariaren adiskide aundia. Azkenik, Piktabi edo Poitiers'eko gotzai ikusten dugu, Italiar onentzat ere, dakusazunez, "blasco" ziran euskaldun guztiak Vi mendean. Zer esanik ez, Gregorio edestilariaren-tzat! Ez dezagun azturik laga, Fortunato, (Venantius Honorius Clementinus Fortunatus) izan zitzaigula, "Vexila Regis prodeunt" oraindik liturgia, abesten dugun ereserki bikaiñaren sortzaillea.

Luze dioa noski solasaldi au; baiñan bearrezkoa derizkiot gure Gobietako bakarti aiek bisigot ez baiña euskaldunak zirala uste izateko, eta nere uste ortan arrazoirik aski gabe ez nabillela ikusterazteko.

Bi arazo gelditzen zaizkit auzi au zearo garbitzeko: Leobigildo soilki Naparroa'ko Euskaldunen aurka ibilli zalako aburua, eta Latxaga'k bere liburuan azaltzen digun Gobietako eta Gobien lurraldean gaurr-egungo elizetan gurtzen dan Doned ia

\* \* \*

Leobiigido'ren guduketari-buruz iru gauza esan nai nituzke:

- Lenengoa: Leobigildo soilki Naparroa'ko Baskoien aurka ibilli zala esateko, erabateko arrazoirik ez dala. Are gutxiago garai artan, eta baita lenago -- eta baita geroago ere "Vascones" edo "Waskones" euskaldun guztiei esaten zitzaie, ikusi dugun lez, ezpairik gabeko gauza dala, dirudianez.

Beti uste izan da Leobigildo'ren euskaldunen aurkako guduak euskaldun guztien aurka izan zirala, bereiziki erromatekoan Autrigoi, Berondar eta Karistia esan zitzaie euskaldunen lurretan gertatu zirala, eta or nonbait, askoren iritziz Araba'ko Karistiarren lurrean, izan zala eraikia edo birrerakia I3itoriako zeritzan uria.

Gaur modan dago Leobigildo'ren borrokak soilki Iber'ibaiaren lurraldeetako baskoien aurka izan zirala esatea.

Aburu-aldaketa ori gure Gobiek sorterazi dute. Gobietako ainbeste ta ainbeste bakarti aiek euskaldunak izan izatekotan, naitanaiez esan bearko hait litzake, Euskalerra VI mendean neurri txit aundian zegoa-la kristauturik. Oso-oso neurria aundian!

Ta ori da, ainzuzen, iñolaz ere esan nai ez dana.

Ta ori ez aitortzearen, aurrena, gure bakarti aiek MOZARABITARRAK izan zirala esan zan. Eta Gobi aiek mozarabitarrak sortu baiña leenagoak dirala jakin danez gero, orain, gure bakarti aiek BISIGOTIARRAK izan zirala esan oi da.

Ori lasaiki esan aal izateko ordea, eragozpen aundia gertatzen zaie Leobigildo'z geroko Eusko-Bisigoten arteko gudate luzea, eta bereiziki gudate artan gogorrenak izan zirala diruditen Leobigildo beraren eraso biak.

Eragozpen ori ezabatzeko, Bisigoten guda sortaldeko euskaldunen aurka izan zala esaten dute eta aitopen au sendotzeko bi dira aurkezten dizkiguten arrazoiak.

- Bisigotak, garai artako edestilariak diotenez, Baskoien aurka ibilli zirala borrokan, eta Baskoiak, VI eta VII mendeetan soilki gaurr-egungo naparrak zirala.

Leobigildo'k artu ta birr-eraikitako Vitoriacum ura Iber'ibaiaren lurrean oraingo Naparroa ta Zaragoza'ren mugako lurretan zegoala.

Zer erantzun?

Onako iru-lau zeaztasun auek:

1<sup>a</sup>: Gudu aien berri damaiguten edestilarietatik iru dirala eta iruak Bisigotak: aurrenekoa, VI mendekoa: Jon Biklaratarra, (Sanctus Johannis Biclarensis) Lisboa'ren alboko uritxo batean jaioa, Kostantinopla'n ikasketan egona, eta Gerona'ko gotzai izana, eta orregaitik ainzuzen, agian orainé dik bere elizbarrutiko mendietan euskaldunak ziran "bildotsen" artzaia. Bigarrena, VII mendekoa, Sebilla'ko Isidoro donean, bere edesti-idazketan ia itzez-itzez eta askotan osoki itzez-itzez, Jon Biklaratarrari jarraitu ziona. Irugarrena, au ere VII mendekoa, Donebraulio Zalduba'ko gotzaia, Kuku-lla'ko Donemillian'en "Bizitza" idazterakoan Leobigildo'k Kantauri urian egindako sarraski ikaragarriaren berri damaiguna.

Oso uste on gutxi eman dezaiekegu edestilari Bisigotiarren aitopenei, ez daiteke ha sinistu ere nola egon zan Eliz Bisigotiarra Laterri Bisigotiarri loturik, eta Eliz artako gotzaiek zenbaiteraifio goratzen zituzten beren erregeak. Toledo'ko Kontzilioetan ikusi daiteke, ederki ta argi, gaur arrigarrri gertatzen zaigun gotzai bisigoten losintxakeria.

Badut ori, VI eta VII mendeak aztertzerakoan sakonago ikertzeko gogoia. Emen Donebraulio'k Leobigildo'k Kantauri urian egindako ikaragarrikeria nola zurretzen duan ikusiko dugu.

"Cantabria" itzak, iru gauza adierazten ditu: 1<sup>a</sup>: Estrabo'en aldiaz gero, Autrigoién sarkaldean bizi zan leiñu erdi-euskaldun erdi-iberitar erdi-keltiar bat. 2<sup>a</sup>: Iber'ibaiaren ertzean gaurko Biana ta Oion urietatik bertan zegoan uri euskaldun bat. 3<sup>a</sup>: Euskaldunen aurka borrokarako, Frankiarrek Akitani'n "Wasconi'ko Dukaterria" sortu zuten bezala, Bisigotek egoan gaurko Errioxa'n sortu omen zuten Konterria,                      iñoiz benetan eratua

izatera iritxi ba'zan ere, sekulan Frankiarren dukaterri ark aiñako nortasu-  
nik izan ez zuan konterria<sup>97</sup>.

Iru Kantauri oietatik zein ote dugu Leobigildo'k zanpatu zigan ura?  
Zalduba'ko Braulio'k deus idatzi ez ba'lu, betiko Kantabria, dala uste  
izango genuan guztiok: erromatarrek Autrigoiaren sarkaldera ipintzen zuten  
ura.

Ura izan ote zan Leobigildo'k arrapatua?

Ma, Errioxa'n Bisigotek eratu omen zuten "Kantabri'ko Konterria"?  
"Cantabriarn... provinciam" bait da Biklaratarra'ren esaria, Ez dut uste.  
Konterri ura Leobigildo'z gero eratua izan zala iduritzen bait zait. Artean  
pakean bizitu ziran euskaldunak eta bisigotak.

Iber'ibaiaren ondoko uria? Ori dala dirudi Braulio'k aurkezten diguna.

Kantabri Zarra eta Kantabri uria...biak? Baleike. Baiñan baleike baita  
ere, biak, Biklaratarra'k dion bezala gudu batean ez baiña bitan erasoak  
izatea.

3 Nere ustez "Vitoriacum" aurreneko guduan irasi zuan

eta ez bigarreanean, "berak ikusitakoan eta bestek esandakoan oiñarri-  
turik", "ex parte quod oculata fide providimus, ex parte quod ex relatu  
fidelium didieimus" idatzi zuan Biklaratarra'k dioskun lez. Gudu aietan  
gertatutakorik ez zuan berak ikusi, Bartzelona'n baiturik zegoalako, eta,  
dirudianeaz "berri-emaille zintzo" aiek ez zizkioten berri guztiak zuzen  
eman, edo bera atzipetu zan. Laister ikusiko dugu, itxuraz beintzat, Victo-  
riacum ura, nonbait Euskalerriko sarkaldean izan zala eraikia, eta leenago-  
ko erri euskaldun baten izen euskalduna daramala lateraz moztortuta.

Ortaz gaiñera, "Kantabri'ra indarrez sartu ("Cantabrium ingressus), ara  
sartutako `inbasore' edo atzerritiko agintariak danak erail (pervasores in-  
terfecit), Amaia'ko uria an sarkalde artan artu (Amaiam occupat), `perva-  
sores' edo atzerritiko agintari lapur aien ondasun eta gazteluak, ots, bi

---

<sup>97</sup> Esan dezadan, ez arian lez, Euskaldunen eta Bisigoten arteko gudate luze  
gaitz ura ez zutela euskaldunek piztu. Bisigotek piztu zutela: Leobigildo'k ain  
zuzen. Askorentzat ain basati ta mundu guztiaren etsai ziran euskaldun odoltza-  
le aiek ez bait zuten beiñere beste iñori gaitz egiteko gudarik sortu. Atzerritik  
gaitz egitera zetozkien erasoetatik, beren buruak babesteko baizik.

gauza oien adigarri diran `opes e,orum' aiek bereganatu (opes eorum pervadit), Probintzi osoa bere mendera birr-ekarri... eta, gaiñera, `Vitoriacus' izeneko uri-gaztelu babestu bat eraiki... geiegizko eginkizunak dirala derizkiot, eraso bat baterako.

Etsaiek ez zioten Leobigildo'ri, uda batekoa izan oi zan eraso-aldi baten epe laburrean, ori guztia egin aal izateko, ez betarik ez adiontasunik ez bear aiñako lasaitasunik emango; ain amore-emaille errezak izan ba'lira Iber'ibaiaren araneke euskaldun baskoi-berondar-autrigoiak, ez bait zuan Leobigildo'k bigarren guda baten bearrik izango, eta Biklaratarra Leobigildo'ren goratarrea egiterakoan ez bait zitzaigun "partem Vasconiae occupat" "Euskalerrriaren zati bat artu zuan" esate motz ori baiño zerbait geiago idatzi gabe geldituko.

Bigarren guduan, 581'ean, anitz adiontasun kaxkarrak zituan do'k bere erreñuaren iparraldean euskaldun etsaien artean lan aundiak egiteko, egoaldean 579'az gero gudan aurka jeikirik bait zeukan Ermenegildo bere seme nagusia, eta nekerik asko ematen bait zion iraultza oldogarrri ari aurpegi emateak, 584'ean borroka gogorren ondorioz seme biurri ura menderatu ta espetxeratu zuan arte.

Erailla izan zan azkenean Ermenegildo, baiñan Biklaratarrak ez dio erailketa ura Leobigildo'ri leporatzen, gero Rekaredo'k "norte turpissima", "txit eriotza zakarrez" illerazi zuan Sisherto izeneko gudalburu bati baizik. Ez da ordea ulertzen nola Leobigildo'k semearen eriotzean zer ikusirik izan ez halu ez zuan berak eriotzez seme aren eraillea zigortu. Errege losintxari ta erregeen ekintzen zuritzari aundiak izan zirala edestilari Bisigotak! Biklaratarra ere bai!

\* \* \*

¿Zer arrazoi duten Victoriacum Aragoi-aldeko lurretan egiña izan zitekeala diotenek? Auxe:

Biklaratarrak idatzi zuanez, bigarren guduan "Leobigildo'k Baskoni'ren zati bat artu zuala", ("partem Vasconiae oocupat"), eta orduan "eraiki zuala Victoriacum deritzan uria": "et Civitatem quae Victoriacum nuncupatur condidit" (Esp. Sagr. op. c. VI, 382).

Eta, jakiña, orduan oraindik "baskoiak" soilki Naparroa'ko euskaldunei esaten zitzaie la uste izatea!



Baiñan ordurako Vascon, Vasco, Wascones itzek edozein euskaldun adierazten zuten.

Adibidez, 581'ean egin zuan ori Leobigildo'k. Ordurako, ordea, ogei urtez aurretik errege zan frankiarren artean buruntza 561'an jantzi zuan I Chilperico, eta laister asi bide zan inguruko errialdeen aurka guduan, eta erri aiek garaituta artean menderatu omen zituan jende-mota ezberdiñen artean bat. Euskalduna, WASCO, Fortunato'k, errege aren olerkari lagunak, abestu zuanez ("Ad Chtip. I, IV, carmen 73).

Fortunato gotzai olerkari errege-zuritzailleak abesten zituan WASCO aien lurra Iparr-Euskalerra, ots, Akitania zala, olerkari berak argitzen digu, bere beste olerki batean Chilperico'k borrokatutako Errien nuntasuna ematerakoan. Auek izan omen ziran bâ, Erri aiek: "An" ("illic)", "Romanus", Erromatarra, eta, "emen" ("hinc"), ots, Galieta "Germanus, Batavus, VASCO, Britanus". Ezbaierako biderik batere sortu ez dedin, ;danak iparraldeko Erriak! (Carmen 33).

Eta berriro beste abesti batean Fortunato'k berak (Ad Justinum"):

\*

"Axe sub occiduo audivit Gallicia factum.  
VASCONE vicino Cantaber ista refert".

(Añaamendi)-"ardatzaren sarkaldean,  
entzun zuan Galizi'k garaitza;  
Ortaz mintza zaio baitare  
Kantabritarra auzoko Baskoiari"

\*

Or bai daudela gauzak argi. Aapaldi ortako BASCONES oiek ez bait ziran Naparrak, Autrigoiak baizik. Auek bait dira ba eta ez aiek Kantabritarren auzokoak.

Sartu zituan batera beste olerki batean Kantabritarrak eta Euskaldunak: "Cantaber ut timeat. VASCUS vago arma pabescat": "(Zure) izkiiluen aurrean beza bildur Kantabriarrak. Ikaratu bedi Euskaldun ariña".

Orrelaxe aitatzen zituan Kristo il zan urtearen inguruan jaio zitzaigun Silio Italico'k ere Anibal'en gudarozteko euskaldunak eta kantabritarrak: beti bata bestearen ondoan, eta izengoiti bera eman oi zion euskaldunari: "va s": "borrokarako azkarra, atzi-eziña".

Eta orrela beti iparraldeko idazleen artean: An, Akitani'n ainzuzen, irasi ere zuten frankiarrek "Dukatus Wascouiae" ospetsu ura, azkenean ainbeste kezka ta neke sortuko zizkien BASKONI'ko Dukaterri borrokalaria.

Geldi bedi beraz bein betirako erahakirik Leobigildo'ren aurretik, eta baita gero ere, "Vasco", "Vascon" "blasco" euskaldun guztiei esaten zitzaizela, eta B. Estornes Lasa'k dion lez "la ciudad de Victoriaeo de difícil localización" dala.

Askotan pentsatu ere dut, ainbeste zalantza sorterazi duan Victoriacum ori... VILORIACUM ez ote dugun. Izen orrek deus esaten ez ziolako, lateraz idazten zuan Biklaratarrak bere "Kronika"ra lateraturik Victoriacum lez sartu zigun izena ez ote dugun... Euskalerrri Zarraren sarkaldean dauden iru VILORretako bat, alegia.

\* \* \*

Leobigildo'ren gduetan "Cantabria" uriari ainbesteko garrantzia ematea eta ondorioz bai bera eta bai bere ondorengo erregeak soilki sortaldeko Baskoien aurka ibilli ziralako ori, agian Braulio gotzai zaldubatar doneak "Donemillian'en Bizitzan" idatzitako aapaldi batetik dator.

Donebraulio'k ez du liburu ortan esaten berak aipatzen duan "Cantabria" Kantauri itxasoa ta Ibero ibaia arteko Kantabri Zarra, edo Baskoien eta Bardulitarren artean Errioxa'n zegoan Kantabri Uria dan. Soilki, Jainkoak Donemillian'i "Kantauri'ren ondamena", "excidium Cantabriae" iragarri ziola, dio eta Donemillian'ek bereala egin zuala Kantauri'ko Senatua Jainkoak aldarrikatutako ondamen aren jakitun.

Baiñan, aapaldi osoaren doiñura, Uria dala dirudi. aapaldi ortan Donebrautio'k adierazi nai izan zuana; zegoan tokian zegoalako jatorriz bardulitarrak edo baskoia edo agian berondarra zan ziur ezagutzerik ez dugun uria, naiz danek, uri ori baskoia izendatu, bearbada, soilki euskalduna zala adierazteko.

Aapaldi orrek ordea ez du konfiantza aundiegirik merezi, agian, Leobigildo Aundiaren izena garbitzeko, sakristietan eta lekaidetxeetan sortutako kondaira bait dirudi.

Bere edestizko gunea, Leobigildo'k nonbait egindako sarraski izugarria dala ematen du. Non egifa? "Cantabria"n, esaten du Braulio'k, Kantauri

ori ibero-ondoko uria edo itxasaldeko probintzia izan zan bereiztatu gabe. Danadala txukun ibilli zan noski Leobigildo jende-erailketan, "aien odol-zipriztiñez margozturik gelditu zala" bait diosku Braulio'k: "he was spattered witz their blood".

Olertizko jantzia du noski, liburu ortan, Kantaurren ondamenar'l-buruzko atal onek, gaiñerako guztia. Adibidez: Jainkoak aldiz aurretik azaldu omen zion Donemillian'i "Kantauri aren ezabakata", "excidium Cantabriae", bertako biztanleen pekatuak izugarriak ziralako. Eman omen zien Done-millan'ek kantauritarrei Jinkoagandiko mezua, aiek ordea ez omen ziran damutu.

Nabarmen agiri da kondairen aurpegia Braulio'k dagian kantauritarren pekatuen zerrenda berebean ere: "murders" (erailketak), "thefts" (lapurkeritza), "incest" (aideéarteko aragikeria), "aets of violence" (indarkerizko gaiztakeria), "perjuri and deceit" (zinketen urraketa, beste gaitz egiteko gezurkeria). Dakusazunez, kantauritarrei ez zitzaizen batak bestea gordiñik ozkaka jatea besterik peitzen (op.c. II,135).

Pekatu izugarri eta izugarriki ugari oien ondorioz, ler-zorian omen zegoan aien aurka Jainkoaren gorrotoa, eta "ler zorian zegoan Jainkoaren gorroto ori erabilli omen zuan" Leobigildo'k an egin zituan ikaragarrikeriak egiteko: "he used the impending divine anger".

Kondaira ori, Donebratilio Zalduba'ko gotzaiak pozik jaso zuan eta bere liburura sartu. Bisigota bait zan bera, eta naiz arianikerizalea, Españi'n Bisigotek izandako erregerik aundien, berriz, Leobigildo. Españi'ren batasun sagaratu, "La Sagrada Unidad Nacional de España" egiten aurrena saiatu zan Erregea, eta, garaitzaz-garaitza, egoaldean bizantziotarrak eta sarkaldean suebitarrak, eta, iparrean, baita Baskoi arlote menderakaitz aiek ere garaituz gero, teoriaren maillan baintzat lortu, ere lortu zuana! Ta jakiña da Españi'ko gotzaiak "Batasun Sagaratu" orri beti eman izan dioten erlijiozko garrantzi jainkotiarra.

Gaiñera, kondaira orrek, askatzeke uzten du "Vitoriaecum" uriaren arazoa. Ta arazo ori askatzeko, "Vitoriacurn" Naparroa'ko Erribera'n edo

---

<sup>9</sup> Nik Braulio'ren liburu au C.W Balow'k inglanderara "Iberian Fathers" bildurnarako ( op.c) I966'ean egin zuan itzulpenean erabilli dut.

gaur Araigo'i'koak diran lurretan eraikia izan zala esan digute bateren bat-zuek.

Guztia, gure Gobaetako lekaide aiek euskaidunak ez baiña bisigotiarrek ederki izan zitezkeala aldarrikatu aal izateko!

- Baiñan "Vitoriaeo" Euskalerriaren sarkaldean ez baiña sortaldean, ots, Naparroa'n edo Araigo'i'ko zelaietan eraikia izan zala uste izateko, "uste izate" ori beste arrazoirik ez da: ez, noski, arrazoi sendorik.

Sarkaldearen aide, izenen kidetasuna beintzat badakusgu: "Bitoria" Araba'ko uriburua bera, eta. agian Zuya'ko "Bitoria-no"; Llaudio'ko "Bitori-eta"; an bertako "Bitori-ka"; eta "Bitoria"ren antza aundia duan "Biloria" Araba'ren sarkaldeko mendietan; beste "Biloria" bat, Naparroa'ko Lana aranean Araba'tik oso bertan; eta baita irugarren "Biloria" bat ere, orain Burgos'ena dan Errioxa Garaiean.

¿Ez dala naikoa izen-kidetasun ori? Bâ, geien-geien-geienetan, izenen kidetasun utsa gertatzen zaigu, antziñako urien nortasun ta nontasuna eza-gutzera iristeko, bide bakarra.

Neri ordea, Itxura berdintsua duten Araba'ko toki aietako bat ez baiña, Errioxa'ko Biloria izan zala, iduritzen zait Leobigildo'k iratsi omen zuan Bitoriako ura. Zergaitik diodan ori?

Leobigildo eta bere ondorengo bisigotak sekulan Araba'ko zelaira iritxi ez ziralako. Apika iritxi ziran indartsuagoak ziran arabitarrak ere, naiz, urtero-urtero, Astorica-Burdigala bidea iriki naiean arabarrak zirikatzen edo arabarrak gogorki erasotzen ibilli. Bein bai, Kordoba'ko Emir beraren anaia buruzagi zutela iritxi ziran Arganzon'go lepora, baiña ez bide izan zan nolanaikoa an jaso zuten jipoia. Samiñaz eta ituntazunez gaixoturik il bait zan bela, buruzagi arabitar ospetsu ura.

VI mendean, Vifean eta VIII'aren lenen erdian ere bikain jarraitu zuan Goba eta Gobietan gure lekaidetzak. Aro ortan gelditzeke jarraitu zuten Bisigotiarrek euskaldunen aurka borrokan. Soilki Naparroa'ko Baskoien aurka? ala Euskalerra Zar Zabaleko Baskoi guztien aurka? Euskalerra osoko Baskoien aurka, ezpairik gabe.

Baiñan arazo orrek, ots Bisigoten guduan Baskoi guztien edo soilki Naparroa'ko Baskoien aurka egiñak ote izan ziralako arazo orrek, orain argitu naiean gabiltzan auzi onentzat ez du zer esan garrantzitsurik, Gobak non dauden ikustea naikoa bait da, naiz gudu aiek Naparroa'ko Baskoien aurka bakarrik egiñak izan, Gobaetako lekaideak bisigotak ezin izan zite-

keala erabakitzeko. Naparroa'ren muga-mugan bait daude! Bardulitarrena edo Baskoiena zan, ziurki esan ez daitekean lurrean!

Gaiñera, Lurralde ura Baskoiena ez ba'zan ere, neketsua egiten zaigu Bisigotak Euskaldun batzuen aurka borroka beltzean zebiltzen bitartean, beste euskaldun batzuen lurrera, eta, ainzuzen, borrokatzen ari ziran euskaldun aien muga-mugan zegoan lurraldera, bisigotiar batzuk, paketsu otoitzean bizitzeko etorri zirala uste izatea.

Gobietakoa izan zitekean Donetegia gelditzen zaigu oraindik aztertzeke. Latxaga'k erabiltzen du gai ori aipatutako bere liburuaren 162'garren orrian. A. Azkarate'k eta L. A. Monreal Jurio'k ez diote beren liburu ederretan Donetegiaren arazo oni garrantzi aundiegirik eman. Baiñan badu, Aundia gaiñera. Gobaetako Donetegia bisigota ba'litz, bisigoten Eliza Euskalerrira sarturik zegoala esan naiko baluke.

Baiñan bisigotak ez zirala beñere Euskalerriaz jabetu, gaur iñoiz baiño obeki dakigun gauza da, Aldaleta'ko illobitegi oparo akitaniarra agertu zaigun ezkeru.

\* \* \*

Egin dezagun, auzi guzti onen laburpen bat. Auziaren gunea, "Kristautasunaren Euskalerrirako sarreraren noizkotasuna" da.

- Sarrera orren "atzeratzaileek", V, VI, VII eta VIII mendeetan Kristautasuna ain sarturik eguki genezakegunik ez dute iñolaz ere ontzat artzen

- Orregaitik, *Gobietako lekaideak ezin daitezkeala euskaldunak izan*, esan oi dute. Len, mozarabeak zirala esaten zuten. Orain, bisigotak zirala diote,

- Dioten orren aurkako eragozpen uka eziña lez bisigoten eta euskaldunen arteko gudate gogor arnaikaitza aipatzen ba'diezu, gudate ura soilki Baskoien aurka, ots, gaurko naparren aurka izan zala erantzungo dizute. Bissigoten guda Bardulitarren eta Autrigoiien aurka ere izan ba'llz, bisigotek ez zutela, ez noski, gaurko Araba'n, orduango Bardulitarren eta Autrigoiien artean bizitzerik izango, guda orren ondorioz.

Arrazoiketa orrek ez du batere balio. Ikus: "Araba'ko lekaide zar aiek bisigotak omen ziran, bisigotak arabarren aurka beñere gudan egon ez ziralako. Ez omen ziran bestela bisigotak izango, baiña bisigoten guda soilki naparren aurka izan zala".

Bapo! Zer ziran, ordea, Naparroa'ko basoetan ere orduan ugari bizi ziran lekaideak? Ez noski bisigotak, napparren aurka beintzat bai, gudan bait zeuden bisigotak. Zer ziran 1A? Euskaldunak? Aiek, bai, euskaidunak? eta Araba'ko basoetakoak ez? Zerdalata?

\* \* \*

Naiz bisigoten erregerik ez, Bisigoten Eliza bai, sartu izan zitekeala?

Ederki erantzuten dio galde orri Latxaga'k: "La rdponse est bien facile: de l'4oque est en "état de soumission totale aux rois et la ori se trouve rune les autres sont presentes".

Euskeraz:

"Aro artako Eliza erregei osoki loturik egon oi zan. Non Eliza, an erregea". Eta alderantziz ere esari orrek ederki balio dezake: Non erregea, antxe, laister, Eliza. Eta, aurrera joz, esan dezagun baliozkoa litzakeala beste onako au ere: Gorroto<sup>s</sup> arri erregea? Gorrotogarri errege aren Eliza ere.

Baiñan gaur ziurrago dakigu, Aldaieta'ko aurkikuntzaz gero, Bisigotek ez zutela Euskalerrian ez erabat oiñik ipiñi ez iñolako aztarnik utzi.

Euskaldunen eta Bisigoten artean "ikaragarrizko borroka izando zala" diosku Latxaga'k; eta "gogorra bi erri oien arteko muga: sua, eriotza, odola". Eta, "tarte luze ortan bisigotiko prailleak etorriko ote ziran"? bere buruari galdetu, ezezko erantzun bikain bat emanez: "Todo lo que fuera visigodo serfa rechazado radicalmente por el peligro que entrariaba" (Latxaga'ren liburu ori, euskeraz, eta bai Frantzi'ko eta bai Espri'ko erderaz ere idatzirik dago).

Aldayeta'ko illobi akitaniar ugariek arrazoi damaiote oso-osoan Latxaga'ri. An, oro bait da Autiamendi'z aruntzakoa! Deus ez, Bisigotiarren usaia izan dezakeanik! An, eta Buzaga'n, eta,agian, baita lendik ezaguna zan iruñako illobitegian! "Tres necropolis peninsulares con materiales que alejbdose de todo lo hispano-visigodo en dos casos al menos (Buzaga ta Aldayeta) tampoco son, empero, enteramente `francos' sino aquitanos y fechables por esas fechas en que Aquitania se va alejando irreversiblemente de los monarcas merovingios" (A. Azkarate, Arch.Esp.Arq. op.c.176)'.  

---

Ona zer dion Akarate'k berak (ib. 150) Iruña'ko illobitegiatz: "La necrópolis de Pamplona es denominada franca por unos y visigoda por otros. Si los materiales de Pamplona han sido discutidos, se debe, en parte al carkter mixtificado de la propia necrópolis, con elementos tardorromanos, hispanovisi-

Ondorioz, eta len ere A. Azkarate'ri jarraituz esan dugunez, teko gure oldozkera zearo eta erabat aldatu bearra dugula"! Eta Aldayeta'koak bezala Naparroa'ko Eiortz'en Buzaga esaten zaion tokian agertu zaigun illobitegiak ere orixe bera eskatzen digula: egoaldera begiratzez utzita iparreruntz begiratzan asi bearrak gerala: "El descubrimiento en tierras alavesas y navarras de estas dos necrópolis de los siglos VI y VII, con un rairnero de armas digno de menciOn y con rituales, depOsitos y ajuares funerarios que nos remiten no a un contexto cultural hispano-visigodo sino al norte de los Pirinees" naiko arrazoi dugula, Bisigotiarrek Araba'n eta Naparroa'n bertan ere sekulan zer-egin aundiegirik izan ez zutela, atzipen-bildurrik gabe uste aal izateko (A. Azkarate: Arch, Esp. Arq. op.c. 149).

\* \* \*

Asi gaitezen Latxaga'k "Bisigotiko Santutegia ta Araba'ko Baselizak" izen eman dion atalaren azterketa. Bere lana egiteko Gerardo L6pez de Guereriu'k bildutako arabar-elizéeta-baselizen izenak erabilli ditu ("Alava Solar de Arte y de Fe". Vitoria 1962) eta Justo Fernandez Alonso'ren "La Cura Pastoral en la España Romano-Visigoda. Instituto de Estudios Eclesi- sticos, N° 2; Madrid, 1955), eta azkeneko liburu ontan agertzen diran Doneen zerrenda aurkezten digu.

Jakintza aundi eta sakoneko gizona da Latxaga, Sorbona'n eta Paris'ko beste bi Ikastetxe Nagusietan iru doktoraduntza irabazitako gizona. Orre- gaitik, zeaztasunaren eta ziurtasunaren maitale porrokatua dalarik, ez digu Latxaga'k esango "au izan zan Gobietuko liturgia", baiñan Gobietakoa

---

godos, merovingios e, incluso, iskimicos". Ez da arritzeko gauza, iru jende- mota oiek Iruña'n sartu eta, naiz epe luzean ez, bertan bizitu zirala bai bait dakigu. Alare, edestilari españiarrek ezerezaz euki izan dute Iparretiko eragin- mena: "Lo norpiren sico ha sido visto siempre como algo esportklico y circuns- tancial que hubo de dejar alguna huella, obviamente, paro nada, en suma, que fuera estable o defmitivo en una Península /be'rica que, no sin cierta compla- cencia, se ha querido presentar unificada religiosamente y politicamente bajo el poder Toledano" (ib).



izan omen zitekealako liturgiaren bisigotasunari-buruz dioskunarekin ez natorkizute berekin bat. Ez beintzat geiagoko xeetasun argi-emailerik gabe. Oroi'zazute gaiñera, len esan dudan bezala, aspaldi idatzi zuala liburu ori, orduan ez zuala azterketarako gaur izango litukean izkillurik eta gaiñerako erreztasunik, eta, au benetan garrantzi aundiko gauza, orduzkeroko aurki-kuntza herri asko egin dala Naparroa'ko Buzeta'n, eta, batez ere, Gohietae'tik urbil, Araba bertako Aldaieta'n; eta, gaur idatziko ba'lu, oso beste era bateko liburu bat emango ligukela.

Ez dezadan ordea esateke laga, zor aundi bat badiogula bere liburu zar ari: Bertan aurkeztu zizkigun Goba batzuk, liburu artan aurkeztu zizkiguia-ko ezaguntzen ditugu ba, izadi beraren eragiñez edo gizakumeen zabarkeriz betirako ezereztuak izan diralako,

Alare, "quod scripsi scripsi", edo berdin dana, "idatzitakoa idatzirik gelditzen dala-ta", idatzirik dagoanetik artu bearko dugu ikerketa ontako bearrezkoa dugun aria:

"Bisigotiko santutegia eta Araba'ko baselizak", ipiñi zion Latxaga'k izenhurutzat bere "Arkaitzetako Bisigotiko Baselizak Araban" izeneko liburuaren 20'garren atalari (op.c. 162).

Atal ortako xeetasunak biltzeko Latxaga'k erabillitako bi liburuak, -- Justo Fernandez Alonso'ren eta Gerardo LOpez de Gerefriu'rena **nere** maiégaiñean dauzkat orain zabalik.

20'garren atal ortakoak ditu Latxaga'k onako esakizun auek:

"Len aipatu bezala, noizkoak diran gure koba auek jakiteko, bisigotiko santutegiak argibide aundi bat eman dezaiguke".

"Santuen izen zerrenda ortan (Fern&Idez Alonso'tik jasotako zerrendan) garbi asko, bisigotiko garaiko sailduen gurtza ikusten dugu"

"Orain ikus dezagun zer gertatzen dan gai oneri berari buruz guk agertutako koba sailduekin". Dan danak bisigotiko santutegian daude." (azpimarraketa, berea).

"Esan dezakegu gure kobaetako saildu dan danak bisigotiko garaie-koak dira".

Ori idaztean itz oiek berez esan nai dutena berbera ba'litz berak ere esan nai izan diguna, ezin egingo nintzake bat nere adiskide ta lagun aundi, maite orrekin. Baiñan ez da ori Latxaga'k esan nai diguna, baizik eta Done oien gurraketa zala Bisigoten garaiekoa. Obeto esateko, gurraketa ori Bisigoten

garaiekoa ere bazala. Latxaga'k, Lnala ez ek.ierki bait daki Done oiek danak Bisigotak Europa'ra agertu baiño leenagokoak dirala.

Ez du beraz auzi orrek bi sosen baliorik. Askoz garrantzi aundiagokoa da beste, bigarren, arazo au:

Latxaga'k ez du esaten gure gobietako lurraldera Done oiek bisigotengandik edo Bisigoten oiñordekoak ziran Mozarabeengandik **etorri** zitzaizkigunik, baiña, bere liburu osoak dakarren doñuaren araura, orixe esan nai izan zigula dirudi, eta ortaz bai, ortaz beste iritzi batekoa naizela, esatera bearturik ikusten dut nere burua.

Ez bezaigu, ordea, oartzeke geratu, Latxaga'k 1976'ean argitara eman zigula here liburua; xeetasun berri asko jakin dala gerontzean; eta gaur berriro gai beraz asiko ba'litz idazten, beste era batekoa izango litzakela ernango liguken idazki berria. (Oraingoa azpitnarratzaillea, ni).

Alare ongi merezi du azterketa sakontxo bat Latxaga'k damaigun Done-zerrenda orrek. Aurretik ordea iru oar egin nai nituzke:

- 1<sup>a</sup> : Goba ta Gobietan Done-izenik ez dala agertzen. Ezta bat bakarrik ere! Batean, bai, agiri da izki aundiz sakonki zirizaturik "ATANASIO" izena. Baiña ez dakigu izen ori, lekaideen lagunik aundiena izan zan Atanasio Aleksandri'ko gotzaiaren oroiz idatzia izan zan, **soilki**, **Goba artan** bizitutako bakarti baten izena dan.

- 2<sup>a</sup> : Ez dakigula ziur gaur eliz eta baselizetako aldareetan gurtzen diran Doneak, antziñate urrun artan Gobaetan gurtu ziranak beraiek diran. Oso erreza bait da Done oiek gure errietako eliz eta baselizetara geroago iritxiak izatea. Baiña baita, agian, Gobaetara, Bisigotak Iber Ibaiera baiño leenago ere.

Askoz garrantzi gutxiago dutela eliz edo baseliz batean gurtu daitezkean erlikiek.

Gauza berdiña esan bearko dugu nonbait Goba bateri Done baten izena alkartzen ba'zaio. Alkartze ori askoz geroagokoa izan bait daiteke.

Batzuetan baietz dirudi: Leizeari izena damaion Donea, asieratik izan zala bertan gurtua: Naparroa'ko Erreiñuaren oiñarrietako bat izan zan eta dokumentuz ziurtatu daitezkean S. Juan de la Peña datorkit gogora. Eta, baita, agian, gure Gobien artean, Faido'ko "Ntra. Sra. de la Peña" izeneko. Baiñan azkeneko ontan ere, Goba arekin Andramariren izena askoz geroago alkartua dala, esango nuke nik.

Damaiogun orain ikustaldi bat begien aurrean daukadan Justo Fernandez Alonso'ren liburuan "El Santoral Hispano hasta el Siglo VIII" izen-dararaman atalari (Op.c.368):

Oar bi, azterketan asi aurretik:

1<sup>a</sup>: Donetegi au Bisigotiarren Españi'n ospatzen zana dala: ez duala zergaitik Euskalerrian ere ospatzen zana izan bearrik: are geiago, orain arte Bisigot-eta-Euskaldunen arteko arremanetaz esan dugunaren ariora, Bisigotiarrena izatea naikoa zuala Euskaldunena ez izateko. Beraz, Donetegi ortako Donerik Euskalerrian azaltzen ba'da, Done ori ez zala onera Bisigoteengandik etorri.

2<sup>a</sup>: Mozarabeengandik ez zala etorri, gaur esan bearrik ez da. Gaur, Latxaga'k bere liburua idatzi zuanean ez bezala, gaur bai, gaur bai bait dakigu ziurki, gure Gobak eta Gobiak dokumentuen kronologiaren araura VI eta VII mendekoak dirala.

Bestalde, Mozarabeak erritasunez, liturgiz eta mentalitatez Bisigotak ziran, eta aien begiek euskaldunengana ez baiña senide zituzten Asturietako Bisigoteengana begiratzen zuten.

Gaiñera, Españi'ko musulmanek ez zieten mozarabeei ezpataz eraso, eta lekaideen aurka ez ziran sekulan sartu, alderantziz eraspen aundiz ikusi zituzten beti, eta bein baiño geiagotan erabilli zituzten aolkulari lez agintari musulmanek. Ondorioz loretsu iraun zuan lekaidetzak Españi musulmanean eta asko ta bikaiñak izan ziran an lekaidetxeak, Kordoba uriburuaren inguruan bereiziki. Ikus J. M. Ruiz Asencio "Dic. Hist. Eel. de Esparia"ko "Mozarabes" atalean. Bereak dituzu onako itz auek ere: "Los mozarabes se gobernaban por el `Liber Judicum' visigodo. Abundaron las comunidades religiosas rnonasticas en la España Musulmana. En los alrededores de C6rdoba llegaron a existir mas de quince monasterios. Algunos gozaron de gran fama entre los musulmanes".

Egia da kristau-erailketa batzuk gertatu zirala, baiñan IX mendean ia danak, eta kristau beraien "erruz", biotz oneko baiñan adimen nasiko kristau-talde bat martiri iltzearen billa, II mendeko montanitar aiek bezala, epailleen aurrera agertzen bait ziran Maoma irainduz.

Kristau zintzo aiek, jardunkera gogor orren bidez, kristautasuna utzita islamera ain errez igarotzen ziran kristau mottel aien kontzientzia nai izan zuten sendotu.

Ez dirudi ordea igikunde zorrotz ura Españi'ko musulman-lurretara asko zabaldu zanik. "Martiriketarik geienak, iruren bat izan ezik, Kordoba'n gertatu bait ziran": "A trois exceptions près, tous les cas connus se placent a Cordoue". Baiñan kontuan euki bear dugun gauza da, "Kordoba'tikoak omen dirala, albiste oiek jakiteko erabilli dezazkegun dokumentuak". "Martiri `beren-buru-iltzaille' aietatik ("suicides-martyres") %75, apaiz edo lekaideak omen ziran, eta, danak, gizonetakoak. Fatxista ta zipotza esan oi zaio musulmanen oitura orri. Ez dezagun, ordea, azturik laga, gauza bera gertatzen zala kristauen artean ere. Garai artan, apostata, ots fede-ukatzaillea, eriotzara galdu-bearra zan mundu osoko erlijio guztietan. Denbora artako oituren zitua! "Distingue tempora et concorciabis jura" esan oi zuten legiztilari "eskolastikoek": "Berezi'itez denborak; ulertuko'ituk oiturak".

Bada alare musulmanen eta kristauen lagedietan ezberditasun nabarmenik! Auzi orri dagokionez zearo aldatu bait da, denboren joanarekin batera, kristauen legedia; ez, ordea, musulmanen "xari'a", ots, musulmanen araudia. Musulmanen artean, oraindik!, eriotzera galdu-bearra da **legez** beintzat, musulman-sinispidea ukatu dezakeana ez eze... baita musulmanta-suna iraintzera ausartu daitekean guztia ere!

Zanazala, Kordoba'ko Kalifen jardunkera, dirudianez, oso gutxi izan ziran martiri aiek: 51, ezagutzen ditugunak. Eta 51 oietatik 8 ez gaineko guztiak "suicides-martyres" aietakoak. Beste 8 auek, berriz, islam-legeko fatxismo zipotzaren ondorioz erailak, erarik garbienean eta santuenean martiri illez bizia galdu zutenak. Ikus nola:

Islam-legearen aginduz, islamdar biurtzen dan aitaren ume gazte guztiak, ots, legezko adin-nagusira iritxi ez diran seme-alaba guztiak, besterik gabe, maometar billakaturik gelditzen dira bein betirako. Gure zortzi martiri aiek, txikitan legeak maometar egin zituan aietakoak dira. Legezko adiné betera iristean kristau biurtzera erabaki zutenak. Une berean, Maoma'ren erlijioari uko egin ziotelako, legearen araura eriotzez zigortu-bearrak ziranak. Askatasun osorik ez bait da musulmanen artean.

Bedi gure kristau-oroipenik eskertsuena eta eraspenik maitekorrena 8 mutil bikain aientzat.

852'ean Kontzilio bat egin zuan Eliz mozarabitarrak Kordoba'n. Lendakaria: Rekafredo, Sebilla'ko gotzaia. "Le concile condamna le sacrifice volontaire comme étant un suicide dguisé". "Kontzilio ark, martiriotza

eskatze ori, itxuraz-zuritutako nork-bere-buru-ilketa bait litzan, gaitzetsi egin zuan".

"Elizaren Agintari beraiek espetxeratu zituzten lengo bidetik jarraitzearen alde irten ziranak": "Les récalcitrants furent emprisonnés par l'autorité ecclésiastique"«).

Gotzai bat bakarria irten zan kontzilio artan, beste gotzaiak bertan erabakitako aren aurka: Kordoba'ko Saul.

Atal au idatzi digunaren ustez Eulogio Donea "izan zan, `beren borondatezko martirien' igikunde osoaren ats-emaille ta zabaltzaillerik bizkorrena, ezpairik gabe". "L'agitateur et propagandiste est, sans conteste, Eulogio". "Eulogio Kordoba'tik at zebillenetan, baretu egiten zan martiriotzaren egarri ura, eta, Eulogio erailla izan zan ezkerro, erabat eta betirako zan ezereztu": "Lorsque celui-ci etait absent de Cordoue, l'agitation se calmait pour s'eteindre definitivement aprs son exécution".

Maoma'ren erlijioa zuzenki zauritzen ez zuten bitartean, beren erlijioé rako pake osoa izan zuten, beraz, rnoz arabitarrek, eta, lekaideak, omen-duak ere izan oi ziran, ez beintzat, beñere, iñolaz ere, zigortuak. Bi gauzatxo esan nai nituzke gai au amaitu aurretik:

Eulogio, Kordoba'tik at, Euskalerrian bill zala, gure lekaidetxe batzuk ikustatzera, eta izugarrizko goratzarreak egin zituala, Iruña'ko gotzaiari idatzi zion gutun batean, etxe done aietako lekaideen ugaritasunari, santutasunari eta kulturari-buruz, eta -- gutun berean gotzai ari esaten zionez -- lekaidetxe aietako liburutegietatik liburu asko eramane zituala Kordoba'ra: teologizko liburuk, bai noski, baiña, baita liburu klasikoak ere, garai artan munduko uririk jakintsuenetako zan Kordoba'n ez zituzten liburuak, eta gure mendietako lekaidetxeek, bai, beren liburutegietan bazituztenak, eta seguruaski baita ale bat baiño geiago, Eulogio'k eramane zituenetatik beintzat, ez bait zizkioten bestela eramane utziko.

Zoritzarrez, danak euskaldunak ziran gure mendietako lekaide ain ugari, ain santu eta ain jakintsu aietatik ez zan bat bakarrik ere, guretzat euskeraz zerbait idazteko gauza izan!

---

"Encyclopédie de l'Islam". Op.c. VII, 248-251. Iztegi ortan "Moza:rahe" atal au, ZaIduba'ko Unibersitatean irakasle dan P. Chalmeta'ren lana dugu. Arras interesgarria.

Auxe, berriz, esan nai nuan bigarren gauza: Kordoba'ko martiri kris-tau aietako bat, euskalduna izan zala, "baseou", Eusebio'k bere "Donetegia"n esaten dion bezala, arabarra seguruaski, Santxo izeneko mutil gazte bat, musulnanek urteroko eraso aietako b<sup>y</sup>4 an baitua, Kordoba'ra eramana, eta an Eulogio'ren ikasle eta lagun eta adisk:ide aundia billakatu zana. Eulogio'k darnaigu beraren berri,

Goazen orain Done Bisigotiarren azterketara

Bikoteak ere bat bezala zenbatuz, adibidez Emeter eta Zeledon Doneak bat bezala zenbatuz, 53 Done aurkitzen dira Fernandez Alonso'ren "Donetegi Bisigotiarrean". Eta beste 5 erasten dizkio Fernkidez Alonso'k berak, orri-oiñeko oar baten bidez.

Donetegi ortako jaietatik,

LAU, Jaunaren Erdaintza, Jaiotza, Epifani, Gurutzearen Aurkikuntza, Josukristo'ran jaiak dira: Kristaudi guztian, bisigoten artean eta ezbisigoten artean ospatzen ziranak.

- ZORTZI, Iondoni Bixintxo (Bixente Ueszitarra), Jondoniane (Jon Batailaria), Jondoniane'ren Lepa-mozketa, Jondoni Xatordi (Saturnino Tolosarra), Iondoni Eztebe Lenen-martiria, Jondoni Murtux (Fruktuoso Tarragonatarra), Jondoni Martti (Martin Turonatarra) eta Done Lorentzo agian ueszitarra.

"Jondoni" goi-aipua, eta kuttuntasunezko izen-aldaketa goxoa, Euskaldunek Done oiei izandako maitasun bereziaren siñale dira, eta, baita, seguruaski Done oiek Euskalerrriaren ebangelizaketan egindako lanaren adigarri ere. Ta, bearbada, orregaitik ez zuan Lorentzo'k Iondoni titolorik irabazi: Bere lan eta ekintza guztiak Erroman burutu zitualako, naiz bera, agian, jatorriz euskotarra izan. [ondoni Eztebe'k, titulo ori, lenen martiria izateari zor dio.

Bai noski: "Iondoni" oiek danak, maitasunezko-adigarria dan izengoiti ori Ego-Euskalerrrian ez baiña Iparr-Euskalerrrian, ots, Toledo'ko Erreiñu Bisigotiarretik urrutien zegoan Euskalerrriaren lurretan irabazi izateak azpimarraketa bat merezi duan gauza dala derizkiot. ¿Tolosa'ko Erreiñu Bisigotiarren aroan sartu ote zan Bisigotiarrengana Done aienganako eraspena,

eta, gero, Bisigotengandik IparréEuskalerrira? Ez. Erreiñu Tolosar artako Bisigotak, ariokerizaleak izan bait ziran danak.

Dakusazunez, azterketa auek danak, gure Gobaetako bakartiak euskal-dunak izan zirala uste aal izatera garamate.

Gaiñera, aipatu berri ditugun ZORTZI Done oiek Eliz osoan ospatzen ziran Doneak dira; eta, ;auxe bai garrantzi aundiko gertaria! **danak** Prudentzio olerkari kalagurritarrak bere olerkietan abestu zituanak!

- Aipatutako oietatik BOST (Lorentzo, Jondoni Bixintxo, Jondoni Murtux, Jondoniane, Iondoni Eztebe), eta, bikoteak bat bezala zenbatzen jarraituz, oraindik aipatu ez ditugun Neste BEDERATZI (Emeterio ta Zeledonio kalagurritarrak, Zoilo, Kukufate, Felis jeronatarra agian-agian euskotarra, Justo ta Pastor, Fausto ta Jenaro, Martzelo, Azisklo, eta Eulali ere, danak, Prudentzio'k bere olerkietan abestutako Doneak dira.

Prudentzio, Kalagurri Baskoien uri Nagusiko semea zan. Garai artako olerkaririk onenetakoa ta, bearbada, baita onena ere bera zalarik, bere olerkiak aidean zabaldu ziran Kristaudi guzira. Eta baita ezpairik gabe, V mendean Eliza erakunde Iez ere ain tinko erroturik zegoan Euskalerrriaren ipar eta egoaldeko lur aietara!

Prudentzio Baskoiak abestutako Done oien izenak, ez ziran onera Bisigotengandik etorri; izatekotan, aruntzéonuntz ibiltzekotan, emendik joanen ziran Bisigoteengana. Izan ere, 405'garren urtetik laister Prudentzio il zanean, Bisigotak Sarkaldera agertzeke bait zeuden oraindik.

- Zerrendako beste AMAR (Sebastian, Ipolito, Zipriano, Mikel Goiaingerua, Erroman, Zezili, Klemente Aitasantua, Eugeni, Kolunba (Uxua galitarra), eta Lukrezia, Erroma'ko Doneak dira done bezala, eta Erroma'n ospatzen ziralako, laister billakatu ziran Kristaudi osoko Done. Eta, baita, zentzuzkoa da-ta, Euskalerrriaren lurralde kristautuetako Done. Urruti zebiltzan oraindik Bisigotiarrek Sortaldeko lurretan.

Done oietatik batek, Zipriano gotzai kartagotarrak ainzuzen, izan zizkigun III mendean euskaldun askoren gotzai-uri zan Zalduba'ko Felis'-ekin arremanak.

Dagian orregaitik izan ote zan oso goiz euskaldunen artean ezagutua? Non eta Bardulitarrena izandako lurraldearen biotzébiotzean, Tolosa'ko mendian ainzuzen, izan bait zuan Zipriano'k bee baseliza. Donezipriano omen da an oraindik erriak, ez "Done" ez "Iondoni" ez "Santu" edo oiek bezalako izengoiti goresgarririk erabilli gabe, izen maitekorraz, soilki

Zipirio deituz omentzen duan Santua. Izengoiti goresgarri oien ezak, Le-kuona'tar Imanol'en ustez, Euskak, rriak Zipriano Kartagotarrari izandako eraspeneren antziñatasun neurri gabearen adierazlea omen da: Bardulitarren semeek Done ari izandako jaiera, titulo donetzaille guzti oiek asmatuak izan baiño zarragoa dalako siñale!

Begi-aurrean daukagun zerrendan badira beste ZORTZI, Andramari bezala, berenez sortaldetarrak, eta lendabizi ta bereiziki an gurtuak izan ziranak: Andramari bera, Julen da Basilisa, Babila, Paul, Tirso, Muzio, Adrian eta Natalia, Kosme ta Damian. Kristautasuna Sortaldetik etorrita, bai Europa'ren egoan bai Afrika'ren iparrean txit ugariak ziran salerosle sortaldetarren kolonietara iritxi zan aurrena, eta koloni oietatik europarren artera zabaldu zalako, eta gero ere, Barbaritarrak onuntz etorri arte, Sortaldeak Sarkaldeko Eliza-baitan itzal aundia izan zualako, arrazoizkoa dirudi, Done Sortaldetar oienganako eraspenerak ere bide ber-bera ibilliko zuala, Sarkaldeko kristauen biotzetara sartzeko. Uste izatekoa da beraz Done oiek emen zeudela Bisigotak onera iritxi baifio askoz ere leenago.

Orain arte aipatutako done oietako batzuk (Jondoni Murtux, Jondoni Bixintxo, Jondoniane, Emeterio ta Zeledonio, Felis jeronatarra, Zoilo, Kukufate, Justo ta Pastor, Fausto ta Jenaro, Martzelo, Azisido, Eulali meridatarra), eta BOST geiago Kukullatarra, Eulali, Justa ta Erruffie, Justo ta Pastor, Eulali bartzelonatarra) Donejeronimo'rena esan oi zaion "Martyrologium edo "Martiritegiak" aipatzen ditualako, Europa guztian ezagunak ziran V mendearen azkenaz gerolm.

Eta Euskalerra Zar edatsu ura ere Europa'ren zati, eta zati aundia zalako, ezagunak ziran nosk, Euskalerrian ere, Eta naiz agian Euskalerra osoan izan ez, bai beintzat Eliza ain tinko ta bizkor erroturik agertzen zaigun Euskalerra aren lurraldeetan: V mendeko Akitani'n adibidez, eta mende ortako Ibero ibaiaren aran zabal jendetsuan.

---

Juste eta Erruffine bikotetik soilki aurrenekoa aipatzen du nartiritezi orrek: "Giusta e Rufina sante martiri di Seviglia, Patrone della eitt, sonno menzionate nel martirologio geronimiano (soltanto Giusta) in quelli de Adone e di Usuardo e nel romano" (Bibl. Sanet. "Giusta").



Done oiek ez dira, beraz, egokiak, gure Gobietako biztanleak Bisigotak izan zirala uste aal izateko. Alderantziz beste zerbait usteerazten digute: Bisigotak ez baiña Euskaldunak zirala Gobietako biztanle aiek!

Antziñatean izen aundia irabazi zuan "Done Jeronirno'ren Martiritegiak". Kristaudiak ordurako orrentzen zituan Donerik ospetsuenak bilduz, idazle ezezagun batek IV mendearen erdiko urteetan Nikomedi'n izan zan eleneraz idatzia. V mendearen lenen erdian, Ipar-Itali'n, beste ezezagun batek, Erroma'n eta Afrika'n ospatzen ziran martiririk ospetsuenak erantsi zizkion; eta laterara itzuli. Era ortan osoturik, izugarritzko arrakasta izan zuan Sarkaldean, eta bereala zabaldu zan, Itali'tik, alde auetako Elizetara. Martiritegi orren gaurr-egungo aleak oro, VI mendearen bigarren erdian Galietako Auxerre'n egindako argitalpenetik datozkigunak dira, Bai; argitalpen ori ere, Auxerre'n izan zan, ainzuzen, egiña: Paris'tik ez urruti: Gure iparrean, ainzuzen; ez gure egoan. Ortaz, "Martiritegi" ori ez zitzaigun noski Bisigoteengandik etorri',

---

<sup>1(2)</sup> "Le martyrologe dit de saint Jen)me est, dans sa premiere forme, anterieur a cet auteur. Il a ete constitue d'abord a Nicomedie, vers le milieu du IV siècle. (...) Dans la premiere moltie du V'e ce premier texte, eerit en grec, fut traduit en latin par un clere de la haute Italie et combine avec des documents occidentaux de mêmme nature, notamment un calendrier romain et une serie de listes martyrologiques provenant d'Afrique. (...) Vers la fin du VI'e ce texte italien parvint a Auxerre, oh il fut complete par l'accession d'un grand nombre de saints des Gaules, martyrs ou autres. C'est de cette recension d'Auxerre que derivent tous les manuscrits existants" (H. Leclereq'ek L. Delisle'ren itzak bere egiñez (Die.Arch.Chret. X,2a,2526).

Auxerre'ko argitalpena, VI mendearen azkenekoa dala, diosku L. Delisle ospetsuak, bera bezain ospetsua dan H. Leclereq'en luma-bitarte, 1932'an. Ona zer dion 49 urte geroago, 1979'an, R. Civil Desveus'ek opusdeitarrek zuzentzen duten GER iztegian (XV,207): "El Martyrologium Hieronymianum apareei6 en la primera mitad del siglo VI" (...) "Partiendo de Italia en donde fue elaborado, el M. Jeronirnio se difundió por todo el mundo cristiano..." "Penetró en la Galia ya antes del 605".

Dakusazunez badago ezberditasunik urtegarrenei dagokienetan. Nere iritzia jakin nai ba'duzu, ni Delisle'rekin eta Leclereq'ekin natorrela bat, esango dizut, bi edestilari bikain oiek arras ezagunak diran bitartean, ez bait

Baiñan..., -- esango dit agian norbaitek martiritegi ori Itali'tik Galietako ego-lurretara V mendean bertan **ba'zan ere, ez ote** zan an bertan Bisigoten liturgira sartu? Ego-Galietan egon bait ziran Bisigotak V mende osoan Tolosa uriburu zutela. Orrela izatekotan errez sartuko bait zitzaigun Euskalerrira oraindik agian erdi-euskalduna zan Tolosa'ko bisigotengand ik Donejeronimo'ren martiritegi ori.

Egia, bere Erreïñu Galitarraren uri nagusia Tolosa egin zutenez gero Ipar-Euskalerraren "jabe" izan zirala Bisigotak V mende guzian **Euriko'z** gero batez ere Frankiarren aurkako gudua 507'an **galdua**, Ispanietara uxatuak izan ziran arte. Baiñan Jeronimo'ren Martiritegia ez zan Galietan Bisigotengana sartu. Zergaitik? Bisigotak V mendean ariozaleak ziralako!

Ez zan beraz martiritegi ori gure Asabengana Bisigotengandik sartu.

Euriko'ren geiegikeri batzuk izan ezik, oso leguna ta txit eraspentsua izan zan katolikoentzat Bisigoten agintaritza Tolosa'ko Erreïñuan. Pakean bizitu ziran an katolikoak eta indartsu ta egunetik egunera bizkorrago jarraitu zuan Elizak bere eginkizun guztietan. Baita Akitani euskaldunean ere. Andik, bâ, iparraldetik, iritxi zan Martiritegi ori gugana.

507'az gero ere, ariozale jarraitu zuten Ispanietan Bisigotek, 586'ean, Rekaredo'k, Toledo'ko III kontzilioan bere Erria katolikotasunera ekarri zuan arte.

Ez zitzaigun beraz Martiritegi ori VI mendearen lenen erdian ere Egoaldetik etorri. Ta VI mendearen bigarren erdian naiko lan izan zuten Bisigotek. beren Ispanietako Erreïñua oiñarritzen, euskaldunak ebangelizatzen asteko. Gaiñera, ia etenik gabe, guda-giroa izan zan Leobigildo'z gero Euskaldunen eta Bisigoten arteko giroa.

---

dakit bedi au eraspen guztiz esana-- ez bait dakit Civil jauna nor izan daitekean.

Gaiñera, ziur uste dut gugana martiritegi ori Auxerre'tik ez baiña Itali'tik etorri zala. Ipar-Itali'rekin arremán geiago bait zuten Ego-Galietako Elizek Ipar-Gali herako Elizekin haiño. Izanere, iparrean Frankiarrak, sortaldean Borgoindarrak eta egoaldean Bisigotak, -- ain zatiturik egon zan V mende artan Galia!

Ez dut beraz uste, gure Gobaetako liturgia, Bisigotengandik etorri zala pentsatu ere daitekeanik.

Nere aburu orri erabateko sendoketa damaie, bein baiño geiagotan aipatu ditugun Augustin Azkarate Garai-Olaun irakasleak Aldayeta'ko illobitegian egindako azterketa anitz garrantzitsuak, eta, auek ere aipatuak ditugun Iruña-alboko Buzeta eta Iruña ber-bereko aurkikuntzek.

Itzuli gaitezen, ordea, aztertzen ari giñan Latxaga'ren done-zerrendara.

Badira zerrenda ortan, soilki bere erlikiak Españi'n zeudelako, agertzen diran Doneak: Treptetis, Fakundo ta Primitibo. Nork jakin ordea, beste dokumenturik gabe, Done baten erlikiak, noiz, nondik eta nola etorriak izan daitezkean?

Gaiñera...

Gerefiu'ren liburua artuta esan dezakegu ez Treptetis, ez Fakundo, ez Primitibo, ez dirala Araba'ko eliz edo baselizetan gurtutako Doneak, eta ez dutela emen erlikirik ere. Berdin esan dezakegu ez dirala emen gurtuak izan eta ez dutela emen erlikirik ere, soilki bisigotiarren Otoi-Liburu Lahirreko zerrendak damaizkigun Alisio'k, eta iruak senide ziran Kristeta, Sabina eta Bixente'k.

Len aipatutako Iondoni Bixintxo ez baiña beste Bixente bait da, beti bere bi arrebekin batera aipatzen dan eta gurtzen dan Bixente au. Sahina bat agertzen da mendeak geroago, 1618'an, Tolofiomendi'n zegoan eta Erramelluri'koa esaten zaion baselizari-buruzko dokumentu batean. Ez da ordea, izen bereko, Bixente aren arreba, ura, beti, bere bi senideekin, Kristeta'rekin ta Bixenterekin agetzen dan bezala, au bakarrik agertzen bait zaigu.

Done bat, obeto esanda, zazpi Done, ots, batean ospatzen diran Zazpi Anai Makabetar eta beren Ama Doneak peitzen zaizkigu zerrendako Done guztien azterketa-lana bukatu uzteko. Bisigoten Otoi-Liburuan agertzen omen dira, Aurkitu nituan nik IX mendekoa dan, Kukulla'ko, larruki batean ere. Larruki ortan, aien erlikiak aipatzen ziran. Gaur Araba'n ez dute gurketarik eta Gobien garaiean izan zuten edo ez jakiterik ez dago. Done-jeronimo'ren "Martiritegiak" ez ditu aipatzen.

Ona zer esaten digun "Bibliotheca Sanctorum" italiarrak:

"Al agosto (dagonillaren l'ean) il "Martirologio Romano" riferisce (dio): Ad Antiochia, la Passione dei Sete Santi Fratelli Maccabei martiri che soffrirono con la loro (beren) Madre, sotto il re Antiocho Epifane. Le loro reliquie, portate a Roma, furono deposte nella Basilica di S. Pietro in Vincoli".

Eta bere kasa: "I primi christiani ammirarono questi valerosi martiri del giudaismo. Il toro culto si diffuse rapidamente e la toro festa sembra (dirudi) sia stata universale neila Chiesa (Elizan) verso il secolo V. Beraz, Anai Makabeitarrak Gobaetan omenduak izan zirala egia gertatuko ba'litz, baliogarri izango litzaiguke ori, Goba aietan, V menderako, lekaideak bazirala uste aal izateko

Luzaro bizitu zan Euskalerrri'ko Eliza, Bisigoten itzal orotik at. "Euskerazaintza" aldizkariaren zenbakietan aztertuak dituk Kukulla'ko Donemilian'en lekaidetxean gordetako IX mendeko dokumentuak. Azkeneko zenbakian, ainzuzen, dokumentu oietan agertzen zaigun donetegia. **beti** binaka aipatzen diran Doneak bat bezala zenbatuz, 43 dira donetegi ortako Doneak. Eta oiek ere danak, aztertu-berri dugun zerrendakoak bezala, edo Prudentzio'k bertsoz gorestuak edo "jeronimiar" ala "erromar" nartiritegietan aipatuak, bi ez gaiñeko guztiak.

Eta bi auek ere ez bisigotak, done lez mozarabitarrak baizik, Araba'n, lenen aldiz, askoz geroago, IX mendean, ainzuzen Gobietako azken-lekaiddeen ezurrek lurpean berreun urte bazeramazkitenean agertzen zaizkigunak: Doneildefontso Toledo'ko Metropolita, eta, au il zanean, Metropolita artan aren ondorengo izandako Donekiriko.

Bi Done auek, IX mendean bertan Araba'ko sortaldean sortu zan Balpuesta'ko gotzaitegia-bitarte gugana etorriak, noski.

Doneildefontso'ri dagokionez, bera ez baiña bere erlikiak dira 869'ko larruki batean aipatzen diranak. Bibere izeneko gotzai batek aipatzen ditu,

eta baleike Asturietatik bere sendiak ekarriak izatea; bere aiton-amonak Leon'dik etorri zirala bait diosku".

Astiro begiratu diogun Justo Fernandez Alonso'ren donetegi orrek; Bisigoten eta Euskaldunen arteko artuemanai-buruz Bisigoten edestilari beraiek idatzi zigutenak; eta Iruña Baskoietik bertan Buzeta'ko ta Araba'n Aldaieta'ko illobitegieta agertu zaigun altxor ugaritsu arrigarriak, erakusten digutenaren araura, lasai esan dezakegu

Euskalerrira ez zala sartu ez Bisigoten kulturik ez Bisigoten liturgirik.

- Guzti ori, atal onen gunean gure Gobietako bakartiei-buruz esanik utzi duguna sendotzera datorkigula: Bakarti aiek euskaldunak zirala. V mendearen erdirako ain bikainki kristauturik ikusi dugun Iber'ibaiaren araneke euskaldunak, ots, Baskoiak eta Berondarrak? Bardulitarrak eta Autri-goitarrak? Barduli'n bait zeuden Araba'ren Sortaldeko Gobak eta Autri-goien sarkaldeko Cobiak. Gaiñera, VI mendean eta VII'ean Oka gotzaidun uri izateak, Autrigoni'ren egoaldea beintzat ederki kristauturik zegoala adierazten bait digu.

Ta, Karistiarrak ez?

Zergaitik ez? Oka gotzaidun-uria Bureba'n zegoan: Bureba'ren ego-egoko mukan. Bureba'ra, Asturica-Burdigala bidezabaletik iritxi zan kristautasuna, noski. Euskalerrriak iparrarekin arreman geiago izan bait

zitian egoarekin baiño. Bidezabal ura Araba'ko lur lauak-zear zetorren, eta zijoan, iparretik egora. Ez litzake beraz arritzekoa, lekaide aietan Bardulitarrak bezala Araba'ko Karistiarrak eta ere izatea,

---

<sup>103</sup> Bibere oni Araba'ko gotzaia esan oi zaio, baiñan berak ez du ortarako biderik ematen. Arabarra zala uste izateko, bai. Naiz bere aiton-amonak Leon'dik etorri, len Arabatik ara joan ziralako etorri bait ziran, Araba'n zituzten aberastasun ugariek adierazten dutenez. Noiz joan ote ziran aruntz? II Alfontso Asturietako erre<sup>g</sup>eak ostera bere Erreiñura itzuli aal izan zuanean? Amaren aldetik euskalduna hait zan errege ura, eta III Alfontso'ren Kronikak "Baseona" esaten dion Muña arabarraren aideengana etorri bait zan igesi, Asturietan bere aurka iraultza lertu zanean. Muria'ren seme odolez erdi-euskaldun eta agian elez euskaldun oso ark irasi zuan Balpuesta'ko gotzaigoa, eta gotzaigo au izan-bide zan Asturiarren eta Autrigoien arteko zubia.

Eta gaurr-egungo gure Euzkadi onen mugeTatik at, izan ote zan orduango Euskalerrri Zar eta Aundi aren lurralde zabaletan lekaidetik? Bai, eta Monreal Jurio Deusto'ko irakasleak zt.e.rtu ditu lekaidetegi oiek ederki. Bere ikerlan ortan oiñarrituta, aztertuko ditugu guk ere onen atzetik "Euskal-Kristautasunaren Sendoketa" izenarekin argitaratu nai nukean liburu berri baten bitartez. VI mendeaz gerokoak bait dira goba oiek, beraiei-buruzko dokumentuei dagokienez. V mendeari-buruzko ontan Araba'koetaz ari izan ba'naiz gaurr-egun guretzat garrantzitsuenak oiek diralako izan da; eta, batez ere, gure eta Europa'ko "Kapadozi" orren oparotasun arri-garriak, beste erudicidn bat Euskalerrrian, V mendean Lekaidetza, eta, ondorioz, baita Kristautasuna ere, uste dan baiño geiago, askoz geiago, zabaldurik zegoala aditzera emateko izan da.

Agindu dizudan liburu berri ori, VI mendeko auziak aztertuz asiko da, eta Goi-Erdiaroan Euskal-Kristautasunarentzat garrantzitsua izan daitekean orori, naiz aski laburki, begi emanez gero, XII mendeko arazozen azterketa-rekin bukatuko da.

\* \* \*

Ema'eiogun azkena atal luze samar oni kronologiaren bidetik: Gure Gobietako lekaide euskaldun aiek noizkoak diran jakin al daiteke?

- VI eta VII mendeetakoak zirala bai, ori Goba beretan agertutako dokurnentuek beraiek, batez ere idazkiek, ziurtzen bait digute. Bisigotak euskaldunen aurka borroka bizian zebiltzan garaiekoak zirala; eta Goba aietatik urbil, Araba'ko zelaiaren ipar-ertzean Aldaieta'ko frankiarrak emen bizi ziran mendeetakoak. ¿Izan ote zan frankiarrrik Gobietako bakartien artean? Baleike. Baiñan ez litzake orrekin bakarti aien euskalduntasunik galduko, Aldaieta'ko frankiar aiek, Akitaniarrak zirala dakigun bezala, Elusa uriburu zuan III Akitani'koak, ots, Nobenpopulani'ko Akitaniarrak zirala jakingo ba'genu'.

---

<sup>1e4</sup> Egia, Aldaieta'n ez dala kristau-usaia lezakeanik deus agertu. Ortaz, ordea, VI mendeaz jarduterakoan mintzatuko gera.

- V mendekoak? Erantzun ziur bat emateko dokumentu eskierrik ez dugu. Baiñan nik baietz esango nuke, VI eta VII mendez alako oparotasué naz agertzen zaigun lekaidetza sendo ark, naitanaiez leendik erro sendoak bearrezkoak bait zituan. Ez daiteke ba logika egoki baten araura ezerezetik sortua izan zala pentsatu.

V mende artan Euskalerriko kristauen artean anakoretitzarako joera pizturik zegoala erakustera datorkigu V mendekoa dugun Bilibio'k Donefelize bakarti euskaldun 4Berondarra?, ¿Autrigoitarra?, eta baita aren ikasle izan zan gure lekaide zarretan ospetsuena, naiz VI mendean V mendean azken aldera alkartu bait zan Donefelize'rekin Bilibio gaiñeko bakartegi arritsuan. Donemillian'en garaiekoa dugu, uste danez, baitare, Armenti'ko Prudentzio bera. Zori txarrez, agoz-agozko izparretatik landa, deus ez dakigu Done arabar oni-buruz.

- Ta... IV mendekoak? Aunitz eta aunitz zaillagoa, galde orri erantzun sinesgarri bat ematea. IV mendean ekarri zigun Sarkaldeko Elizara lekaidetzarako zaletasuna Antioki'ko Atanasio gotzaiak. Gure inguruan, iparraldera Galietan, Turona'ko Iondoni Martti izan zan lekaidetza erein ziguna. 37 l'an egin zuten Turona'ko gotzai. Ordurako sortuak zituan Liguge'ko lekaidetxea aurrena eta Marmoutieekoa gero.

Azkarrago ibilli ziran Ispanietan. Atanasio Erroma'ra 341'an iritxi baiño 41 urte leenago, Afrika'tiko eragiñaren ondorioz ezaguna bait zan bakartitza Andaluzi'ko kristaudian. Ala, 300'garren urtearen inguruan, Iliberris edo Elbira'ko kontzilio goiztar ura, XIII kanonean mintzatu zan Jainkoari beren bizi guztiko neskustasuna eskeintzen zioten emakumezkoetaz, eta emakume aietakoa omen zan kontzilio artako Osio Kordoba'ko gotzai arras ezagutuaren arreba, eta bera ere lekaroan bakarti bizitua.

IV mendearen azkenean, 397'an bildu zan Toledo'ko I kontzilioak ere, VI, XV, eta XIX kanonetan eman zituan emakumezko aientzako legeak. - Arras gogorrak, benetan.

Ispanietako lenen lekaidetxeak, ordea, dokumentuei dagokienez, Balear'Ugarteetan sortu ziran IV mendearen azken-aldera. V mendearen asieran idatzi bait zion Doneaugustifl'ek eskutitz bat (Epist. 48) Eudosio Kabreara Ugarteko lekaideen abatari. Alare, esan bearra dut ziur ez dakigula Augustin Doneak "Capraria" esaten dion ugartea Balear-Ugartediko Kabreéra dan edo, beste batzuk uste duten bezala, Itali-ondoko "Capraia" dan,

Uste ontakoa da Carcía M. Colombs". Minorika (Menorka)'n beintzat, bai eskier dakigu V mendean lekaideak bazirala. Bertako gotzaia, Sebero, baita eskutitz batean ori esaten diguna: "Nos habla de una "deodevota" ("Jainkoari opaldutako emakumea") y de un numeroso grupo de hombres que vivían en comunidad, celebraba el oficio divino de día y de noche, y, con sus oraciones y su vida aseetica, aportaban una contribucidn muy estimable y eficaz a la renovacidn religiosa de la didcesis" (id.ib.).

Lekaimea zan eta bere lekaimetxeko beste lekaimentzat idatzi zuan "Itinerarium" izeneko liburua 415'an, Egeria izeneko erromeseme ospeté suak.

Bere bi auzoko jende bakartasun-zaleen artean ez zaigu lotsagarri agertzen gure Euskalerrria. Ez dirudi ha askoz beranduago ibilli zanik. Ezagunak ditugu, ongi ezagunak gaiñera, 380'ean Zalduba'n eta 384'ean Bordele'n, ots, Euskalerrriaren muga-mugan, bildu ziran bi kontzilioak. Ederki gogoratzen dugu, bi kontzilio aietan nola neskustasunarako ez eze bakartizarako zaletasuna ere arras gauza ezaguna lez eta anitz oiturazkoa lez agertzen zaigun. Gogoan dugu, kontzilio aiek, Zalduba'koak bereiziki, Prisziliano'k ekarritako geiegikeria zuzentzearen eman zituzten legeak.

Esanik utzi dugun bezala, Prisziliano'k gure asaben artean izan zuan arrakasta arrigarriak ere, euskaldunen artean lekaidetzarako zaletasuna leendik ere bazala adierazten digu.

530'ean etorri zan Itali'tik Ueszitarren lurreko Asan'era Biktoriano lekaidea, eta bere donetasun- usai gozoak eraginda, aren ingurura bildu ziran inguruetako bakartiak ordurako sorturik zegoala dirudian eta "Iondoni Martti'rena" zeritzan lekaidetxera. V mendearen erdiko ugaritasun aberats orrek, IV mendearen azkenerako Auñamendi'ren gogortasun artan ere Ueszitar eta Ilergeta euskaldunen artean lekaidetzarako zaletasuna pizturik zegoala adierazi nai digu.

Adierazbide oietatik geranez gero, baietz uste dut, esan daitekeala IV mendearen azkenaldera gure basoetan erneturik zegoala lekaidetzaren azia.

---

"No se trata de Cabrera sino tal vez de Capraria donde consta por otras fuentes que hab(a) rnonjes, o de cualquier islote del mismo nombre situado cerca de la Gosta africana" ("El Monacato Primitivo", op.c.I.292).



Geldi bedi, ordea, unen urrengo liburarako, Araba'ko Geia **Gobie-**  
tatik kanpoko lekaidetzaren azterketa.



## PARROKIAK

Elizaren aurreneko denboretan, Sortaldeko kristaudietan presbitero edo bereterren bazkuna izan zan Eliz bakoitzaren burua. Bazuten bazkun bakoitzaren barruan lendakari bat, baiñan lendakari ura ez zan "primus inter pares", ots, "bere berdiñen artean aurreneko" bat besterik, seguruaski bereter aiek danak bait ziran sagaraketaz gotzaiak.

Laister, ordea, asi zan Eliz bakoitza gotzai bakar batek jaurtua edo gobernatua izaten. Ala dakusgu I mendetik II menderako atakan, Doneifiazio'ren Antioki siritarra gotzai bakar batek jaurtua. Alare, oraindik indar aundia gordetzen zuala dirudi bereterren bazkunak, "gotzaiaren eta hereterdiaren onespenik gabe ezer ez egiteko" agintzen bait zien kristauei Doneiiazio'k berak: "Nihil sine episcopo et presbiterio".

Baiñan II mendea aurrera zijoala, Eliz bakoitzaren zuzendaritza ere osoki bertako Gotzaiaren eskuetara biltzen eta biltzen ari izan zitzaigun. Eta, neurri berean, bereterrak, gotzai sagaraketarik gabe bereter utsetan gelditzen, eta, diakonoak bezala, soilki gotzaiaren Iaguntzaille biurtzen.

Alare, sendo jarraitu zuan Elizak, bereterren nagusitasuna, naiz gotzaiarenaren azpikoa izan, diakonoen eta beste eliztar guztien gaidikoa zala aldarrikatzen. Euskalerrja Sarkaldean dagoalarik Sarkaldeko Elizen oiturak zaizkigu bereiziki jakingarri-ta, entzun zer erabaki zuan 314'ean Arelate edo Arles'ko kontzilioak bere 18'gn, kanonean:

"De diaeonibus urbicis ut non sibi tantum praesumant, sed honorem presbyteris reservent, ut sine conscientia ipsorum nihil tale faciant", "Urietako diakonoak ez bitez orrenbeste arrotu. Alderantziz, erakus bezaiete bereterrei, zor zaien eraspena; eta auen onespenik gabe ez bezate deus egin" (Conc.Colec.Reg. op.c. 266'gn or.) "Urietako" diakonoak aipatzearekin, gotzai-urietatik landa, aro artan "errietako" diakonoak ere bazirala, adierazten digu kanon orren bidez kontzilioak".

Lenengo iru mendeetan Eliz bakoitzeko bereter eta diakono oiek danak gotzai-urian bertan bizitzen ziran, gotzaiaren inguruan kopuru bat osotuz. Egiztasun osoz esaten zitzaion, beraz, bereterren kopuru ari "presbyteriurn episcopale" edo "gotzaiaren bereterdia",

Gotzai-uritik at, ez zan apaizik, ez zan diakonorik, ez zan eliz-gizonik; ez bait zan kristaurik ere, III mendearen azken aldera asiko dira, erromatarrek "vici" esaten zieten (anda-uri txiki eta latifundista edo lur-zabal-jabe kristauen "villa" edo landa-etxe aberatsen kerizpean bizi ziran jopu, morroi eta maiztarren artean, kristaudi txikiak sortzen. Eta kristaudi txiki oiek apaiz edo diakonoen gogo-zaintza bearrezkoa zutelako, gotzaiak naitanaiezkoa izan zuten "vici" eta "villa" aietara berc diakono ta bereterrak bidaltzen astea'.

Diakonoak aurrena, kristaudi aiek txikiak ziran bitartean; bereterrak gero, kristaudi aiek jendez aundiagotzen asi ziranean.

Ez zan ordea oraindik parrokirik. Diakono aiek, eta baita bereter beraiek ere, "bidali" utsak izaten bait ziran. Gotzai-urian hizitzen ziralako, "presbyteri episcopales" ziran oraindik. Gotzai-uritik irtetzen ziran, igande ta jai-egunetan, beren eginkizunetara, eta eginkizun oiek beterik, gotzai-urira itzultzen ziran beti; ortarako, bide luzeegia adibidez eragozpen aundiegirik ez ba'zitzaien sortzen.

Landetako kristaudi aiek aundituz zijoazen neurrian asi bear izan zuten gotzaiak "vicus" edo "villa" kristau bakoitzarako hereter iraunkorak izendatzen. Bereter aiek, izendapenarekin batera, bakoitza bere "vicus" edo "villa"n bizitzeko bearbizuna jasotzen zuten. Orrela sortu ziran parrokiak; eta, era berean, "presbyteri episcopales" aietatik, geienak, "presbyteri

---

Oroi dezagun "villa" erdiarohan "erri arresituari" esaten zitzaion bezala, aro zarrean, "castrum" eta bereiziki militarra ba'zan "oppidum" esaten zitzaizela orrelako erriei. Aro zarrean, villa es una propiedad privada" (Justo Fernandez Alonso, op.c. 202).

parroquiales" birtu ziran<sup>w1</sup>, Arelate edo Arles'ko kontzilioa dugu 314'ean, aldakuntza orren lekuko. Ona zer dion bere 21'garren kanonean:

"De presbyteris aut diakonibus qui solent dimittere lora sua in quibus orad inati sunt, et ad asia toca se transferunt, placuit ut eis loeis rministrent, quibus prefixi sunt": "Toki baterako sagaratuak izanda, toki ori utzita beste batera aldatzen diran bereter eta diakonoeieburuz, au erabaki zuten (gotzaiek): Toki baterako sagaratuak izan diranak, toki artan bertan jarrai bear dutela beren eginkizuna betez" (ib. 266'gn. or.).

Noiz, eta nota sortu ote ziran ba,, egiazko parrokiak? Astiro, poliki-poliki, eta banaka-banaka.

Ez ziran danak batera sortu, lurralde bateko elizbarruti beraiek ere ez bait ziran danak batera sortu, Ez ziran goitik-beerako agindu baten ondorioz sortu. Alperrik ibilliko zera, elizbarrutiak prarrokietan zatituta parroki bakoitzera apaiz bat bidaltzeko agintzen duan Aitasantu edo kontzilio baten billa. Ez zan goitik beerako agindurik izan.

Bee tik gorako bearkizunak eskatuta sortu ziran parrokiak, elizbarruti bakoitzaren landetako biztanleen artean kristau-taldeak sortzen, aunditzen eta ugaritzen asi ziran.

Baiñan landetako lenen kristau-talde aiek, noiz eta noren eragiñez sortu ziran ez dakigu. LUnetara langille joanda, an kristaututako landatarren eragiñez? Lur-zabal-jabeen arduraz? Ez beintzat Elizak goitik-beera tajututako mixio-ekintza baten ondorioz. Elizak ez zuan leen iru mendeetan orrelako ekintza batera sartzerik pentsatu. baiñan ez dezagun Eliza gaitzetsi. Ez bait zezakean ortan pentsatzen asi erel Ez zuan ba ortarako adiontasunik izan!

---

Oroi, Inperioko lurra nola zegoan tajutua: Probintzi bakoitza, batez ere Sarkaldeko lurretan, oso aundia izan oi zan: Probintzi bakoitzaren barruan, "urriak", "eivitates": "Uri" edo "eivitas" oietako bakoitza ere probintzi txikiago baten antzekoa zan: Bere lurraldean, "viei" edo "erriak": "Vieus" edo "erri" oietako bakoitzak ere bazuan bere lurraldea eta lurralde ortan aurkitzen ziran "paL;us" esaten zitzaizen gaztelerazko "aldea" eta euskerazko "basa-erriak". Ori, eraketa zibillari zegokionez. Eraketa militarari bait zegozkion probintzietako "oppidurnn" eta "eastrurn" izeneko uri babestu ta gudaritegiak. Urietako lurraldeetan aurkitzen ziran, aski yare, aberatsen edo nekazar;tzta oparo yoritsuaren lur zabal eta landa-jauregiak.

Lendabizi, Inperioko legea, kristautasuna eriotzez zigortzen zuan inperioko lege anker ura, ortarako eragozpen aundia, izugurrizko eragozpena, izan zualako. Bestalde, lege baten bearrik gabe ere, bere jitez landa--ta-basa-errietako-jendea, Euskalerrian izan ezik, emen ez bait zan sekulan euskaldunek ildako martiririk gertatu fanatikeri gogorrezko jentilla zalako: osoki jentilla eta jentiltasuneko sasiéjainko ta jainkemeen maitale ta babeslea. Laister izanen ziran landetara bidalitako mixiolariak arrapatu ta milla pusketan ebakiak.

Oroi, Diokleziano'ren zigorketakoan il ziran martiriak ;zan ezik, beste guztiak, naiz danak ez, hai beintzat geienak, erriko jendeak bere eskuz zaurituta, edo erriko jendeak, aien aurka marruka, eriotzezko zigorra ematera epaillea beartuz izan zirala eraillak.

- Ondorioz, landetara irtetzea pentsatzen asi gabe ere, naiko lan izan zuan Elizak urietan, izkutuan batzuetan, erdi izkutuan beste batzuetan --, bizirik jarraitzen; H eta III mendeetan izandako aro aski-paketsuetan ere, lege bait ziraun kristauak eriotzara zigortzen zituan legea. Bazekian Elizak landetako jentil amorratuen artean ez zuala pake-apur txikienik aurkituko.

Erejiak ere, bere barrundik sortutako ereji zar aiek, eragozpen aundiak izan zituan, landetako jendea ebangelizatzerara irtetzen asteko. Alako gaitz ikaragarria egin zioten ba aro zar artako ereji makur eta ugari aiek! Gnosikeriak bereiziki, ta montanikeriak, eta manikeriak... Inperatoreen ezpata ta erri jentillaren gorrotoa baiño milla aldiz arriskugarriagoak zituan erejla, auek bere anirna bera bait zan erail zezaioketena. Orregaitik, ainbeste ta ainbeste erejikeri aundi ta txikiz pozoitutato giro zipotz artan, bere sinispidea argi mugatzen, sendotzea, erakustea eta babestea izan zuan Elizak eginkizunik garrantzitsuena eta bear-bearrezkoena.

IV mendean bertan, Kostantino'ren eskutik pakea lortuz gero ere, sortu zioten Elizari arazo larririk aski, aro artako erejiek: Arianikeriak bereiziki baiñan baita priszilikeriak ere.

V mendeko ereji aundiek pelajikeria, nestorikeria eta monofisikeriak ez dirudi gure lurrean eta gure inguru urbilleko lurretan, itzal aundia lortzera iritxi ziranik. Martsella'ren alboan zeuden "Lerin" eta "Donebixente" lekaidetxe ospetsu bi aietako erdi-pelajikeria ez zuan ba erriko jenderik ukitu. Soilki lekaide utsen eta, bereiziki, Kasiano Abataren arazoa izan bait zan ura.

Ori..., Kasiano, Donekasianorren eta bere lekaide zintzo aien oldoz-  
kera, egiaz erejitzat artu ba'daiteke. Donaugustin Aundia berbera ere, bere  
azkeneko urte aietako idazkietan ez bai zan osoéoso-oso bide zuzenetik  
ibilli.

Priszilikeriaz eta ereji orrek Euskalerra Zar artan izandako arrakastaz  
mintzatu gera. Arianikeriak ez zuan, dirudianez kernen aundirik izan eus-  
kaldunen artean. Agian, bai ote Auñamendiaren sortalde-sortaldeko euskal-  
dunen artean? "Narbonense" probintziko gotzaiek, Arenate edo Arles'ko  
goigotzaiari jarraituz, II Kostantzio inperatore arianikeri zalearen agitarit-  
zakoan ez bait ziran oso txukun ibilli. Altagutziz, guzi ura soilki gotzaien  
auzia izan zala dirudi, eta arianikeriak ez zuala galieta erriko jenderik  
ukitu.

Baiñan, orduan izan ziran Piktabi edo Poitiers'ko Ilario Donea, Tolo-  
sa'ko Rodanio eta Galietako iparraldean Triberi edo Trevers'ko Agrozio, II  
Kostantzio'k erbestera eta, naiko eragozpen gertatu-bide zitzaion iskan-  
hil ori Galietako Elizari, dirudianez beintzat: "Les 6. &lues songrent moins

† pandre qu'a dUendre le dogme. On comprend ainsi comment, dans la  
première moitié du IV<sup>e</sup> siècle, la religion nouvelle avait à peine entamé les  
campagnes. Le paganisme rural avec ses temples, ses sacerdoxes, ses rites  
locaux, &ait encore trop puissamment organisé pour 'tre si promptement  
détruit" (Imbart de la Tour. "Paroisses Rurales", op.c. 8-9)

Euskeraz: "Sinispidearen ereintza baiño geiago sinispidearen bahesketa  
izan zan gotzaien ardura. Orrela ulertu daiteke IV mendearen lenen erdian  
kristautasunak oraindik landetako jendearengana iritxi ez izatea. Tinkoegi  
eraturik jarraitzen zuan landa ta basoetako erri txikietan jentiltasunak bere  
jauretze, jaupari, eta tokian tokiko gurkera ta guzti ain errez ezerezturik  
geratzeko".

Altagutziz, III mendearen azken-aldera Euskalerra Zarrarekin muga  
egiten zuan lurralde galitarrean parrokiak sortzen asiak zirala dirudi, ari-  
anikeria jaio baiño leenago, Arelate artan bertan 314'ean ospatutako kontzi-  
lio ark aditzera damaigunez.

Esan dugu, nola, kontzilio artan errietarako sagaratuak izandako bere-  
ter eta diakonoei tokiz aldatzeke beren errietan jarraitzeko agindu zitzairen.  
Orrek, ordea, Galietako ego-sortaldean beintzat ordurako parrokiak eraturik  
zeudela argi-argi adierazten digu.

Ta, Euskalerrian? Baitare! Baietz sinistekoa da beintzat kontzilio artan agindu ura izenpetu zuan gotzaietako bat Mamerfino Elusa'ko goigotzaia izan ezker. Gogora dezagun Elusa Akitani euskaldunaren erdi-erdian zegoala! Elusa'ko Mamerfino'z gaiñera, Kontzilio artan izanak ditugu Orientalis Bordele'ko gotzaia e-ta baita Gabali edo Javols'eko gotzaiaren izenean ago diakono bat ere.

Bordele'k, II Akitani'ko urihuruak, Euskalerra Zar aren barniraiño luzatzen zuan bere elizbarrutia, berak ere, bere barruan, aski euskaldun ugari izateaz gaiñera. HORrelako zerbait gertatzen ote zitzaion oraindik, askoz sortalderago I Akitani'n zegoan Gabali izeneko gotzai-urtxo kokkor ari?.

Elusa, berriz, III Akitani edo Nobenpopulani'ren uriburua, esan dugun lez Probintzi euskaldun aren erdian zegoan, Garona ta Adur ibaiaren arteko lurraldearen erdian.

Gure ego-alboko Ispanietan gertatu zanaren berri laister emanen duguta, aitortu dezagun orain gure ipar-alboko Galietan, naiz poliki-poliki, gero ta azkarrago joan zirala sortzen parrokiak IV mendea-zear, eta gero ta ugariago gaiñera, eta orrela jarraituko zutela urrengo mendeetan ere.

Ezaguna da, 397'aren ingurua ildako Iondoni Martti turonatarrek IV mendearen bigarren erdian igikunde orri eman zion indarra. Eta eginkizun ortan jarraile egokiak izan zituan bere ondorengo gotzaiak elizbarruti artan: Donebrizio (396-443), Doneeustokio (443-460), Doneperpetuo (460--490)). Berdin ondorengo guztiak. Baita, geroxeago, berri oiek eman zizkigun eta bera ere 573'tik 595'era uri artako gotzai izan zan Donegregorio edestilari ospetsua ere (Die. Arch. Chret. XIII, 2.200).

So daiogun gure egoaldeko Ispanietan gertatzen zanari:

Dirudianez, an, bai beintzat Betika'n, osoóoso goiz asi ziran diakonoak apaizak ere hai ote? gotzai-urietatik at errietan bizitzen: 300'garren urtea baiño leenago!

Gutxi gora bera urte orren inguruan ospatutako Eliberri edo Elbira'ko kontzilioaren 77'garren kanonekoak bait dira Josu Vives'ek (op.c. 15) onela: "si algun dikono de los que rigen un grupo de fieles, sin obispo ni presbítero, bautizara a alguno de aquellos, el obispo deher después confirmarlo. Pero si antes muriese, podrá justificarse por aquella fe en la cual erey6", gazteleratu dituan itz auek":



"Si quis diaconus regens plebem sine episcopo vel presbytero aliquos baptidiaverit (sic), episcopus eos per benedictionem perficere debet. Quod si ante de saeculo recesserint, sub fide qua quis credidit poterit esse iustus".

Egon gindezke edo ez gindezke Vives'en itzulpenarekin bat, baiñan badirudi beintzat Kontzilioak aipatzen dituan diakono oiek beren lana gotzai uritik at zeuden kristaudietan egiten zutela. Ez dakigu kristaudi aiek parroki bihurturik zeuden, diakono bat izateaz gaiñera bereterrik ba'zuten ez bait digu kontzilioak ori argi esaten, baiñan badirudi baietz, diakono aiek gotzai baten esanera ez ezë, apaiz baten esanera ere bazeudela ematen bait du.

Ongi esana dagoala derizkiot edestilari españiar batek dioskun au: "Por lo que a España se refiere, es ya en los lejanos y oscuros días del Concilio de Elvira cuando encontramos los primeros indicios de la existencia de estas cristiandades no regidas inmediatamente por un obispo, pero dependientes de uno residente en la ciudad" (Fernandez Alonso, op.c. 202).

[V mende orren azken urteetan bai, ugari ziran Ispanietan gotzai-uritik at eratutako parrokiak 397'tik 400'era ospatu zan Toledo'ko I kontzilioak jakiñerazten digunez; egunero elizara joanda beren eginkizuna betetzen ez duten elizgizonak zigortu-bearraz ari dalarik, eliz oiek "gotzai-urian bertan, edo beste edozein tokitan, (ots, `pagi' edo `baserrietan'), gazteluetan, errietan edo landa-jauregietan" egon daitezkeala bait diosku kanonean: "intra civitatem, vel in loco in quo est ecclesia, aut castelli, aut vicus, aut villae" (J. Vives, op.c. 21).

Gure Euskalerra Zar artatik bertago ospatu ziran 380'ean, priszilikeriaren aurka aritu zalako ondo ezaguna dugun Zalduba'ko kontzilioa, eta 516'ean ospatu zan Tarragona'koa; baiñan, ez Zalduba'ko ark, ez bere kanon guztiak elizgizonen bizitzariéburuz eman zituan Tarragona'ko beste ark, ez digute txintik ere parrokietaz esaten.

Miñ izatekoa da, bi kontzilio aietan bildu ziran gotzaietatik, bat baiña geiago bait ziran beren elizbarrutietan euskaldunik ugari bazutenak, naiz, agian, landa, baso eta mendietan bakarrrik. Lu-ragona'n bildutakoetatik, adibidez, Ausona'ke Zinidio, Zalduba'ko Bixente, Eliberri'ko Orontzio ("Orontius episcopus Eliberritanus") eta Gerunda'ko Frontonio. Zalduba'n izandakoetatik, berriz, aipa ditzagun Zalduba bertako Balerio, Bordele'ko Delfino, eta Agino'ko Febadio.

VI mendearen asieran, 516'ean bildu zan Euskalerra Zar artatik ain urruti ez zegoan Tarragona'n beste kontzilio bat, eta kontzilio orrek bere

XIII kanonean goigotzaiei agindu zienetik, "sabemos que ya había sacerdotes en los pueblos" (Garefa-Villoslada, op.c. I. 533). Uste berekoa da Vives ere, kontzilioak "presbyteri dioecesani" izendatzen dituan, itzulpen egokiz, "presbiteros rurales" esaten bait die, kanonean "katedraleko berete-rrengandik ederki bereizirik agertzen diralako. Ikus kanon orren izkera, ez noski oso latera txukenez tajutua:

"Epistolae tales per fratres a metropolitano sunt dirigendae, ut non solum a cathedralibus ecclesiis presbyteris, verum etiam de dioecesanis ad concilium trahant, et aliquos de filiis ecclesiae secularibus secum adducere debeant"

Euskeraz:

"Bere anai (gotzaiei) idatzi bezaie metropolitak, kontzilioetara katedralako apaizak ez ez errietakoak eta, baita, Elizaren seme ezapaiz zintzoak ere ekarri ditzaten".

Kontzilio artako Asaben artean aipa ditzagun, berriro, Gerunda'ko Frontiniano (sic), Eliberri'ko Orontzio, Zalduba'ko Bixente, eta Ausona (Vich)'eko Zinidio, ez bait litzake batere arritzekoa gertatuko gotzai oietako batzuek beintzat oraindik euskeraz egiten zuten ardirik aski beren artaldeetan izatea.

Urrengo urtean, 517'an, Gerunda'n bildu zuan aipatu dugun Frontiniano orrek kontzilio bat. Gerunda bera ordurako elebiduna ez ba'zan ere, euskaldunik izan zezakean bere elizbarrutiko landa, baso eta mendietan. An izan ziran aipatutako beste iru aiek ere: Eliberri'ko Orontzio, Zalduba'ko Bixente, eta Ausoni'ko Zinidio. Kontzilioak ez du zuzenean errietako apaizetaz itzegiten baiñan ematen dituan kanon batzuek errietan apaizak bazirala adierazten digute.

Geroxeago, agian oraindik elebikoa zan urian, Ilergetarren Ilerda'n, ots Lerida'n, ospatu zan beste kontzilio bat, eta kontzilio orren III kanonak bi albiste pitxi ematen dizkigu:

- Mendateak-zear, aundiak zirala Auñamendiaren iparraldeko eta egoaldekoen arteko arremanak, "lekaideei buruz Agate (Agde)'ko eta Orleans'eko kontzilioek agindutakoa betetzeko birr-agintzen" bait du: "De monacis vero, id observare placuit quod synodo Agathensi vel Aurelianensi noscitur decrevisse" (Vives, op. c. 56). Oroi, une artan, seguruaski, euskalduna zala oraindik Ilerda'ren elizbarrutiko zatirik aundien-aundiena.

- Lurralde euskaldun artan lekaidetxeak bazirala eta baita errietan apaizak ere. Ainzuzen, erritxoetako jendeen zainketarako apaizak sagaratzeko lekaideen laguntza eskatzen duala bait dirudi: "Au bakarrik erasten diogu (Galietako bi kontzilio aietan) aginduari: Elizaren onerako gotzaiak aukeratzen dituan (lekaide) aiek, abataren baimenarekin, apaiz sagaratuak izan bear dutela": "Hoc tantummodo adliciendum: ut pro ecclesiae utilitate quos episcopus prebaverit, in clericatus officio cum abbatis voluntate debeant ordenari" (ib).

"Clericus" itza da kontzilioak darabilkiana, eta "clericus" edozein elizgizona da, baita ordena txikiak bakarrik artu dituana ere; baiñan kanon orren zentzuari adi ba'gaude, errez oartuko gera kontzilio artako gotzaiak Elizaren onerako nai dituzten "klerikoak", agian diakonoak ere bai noski baiñan batez ere apaizak dirala seguruaski.

Gotzaiak eskatu gabe ere, laister asi ziran lekaidetxe sortu berrietako lekaideak parroki-lanak egiten, eta sortu zan ortik asarre-bide bat baiño geiago. Batez ere, parrokiei ordaintzekoak ziran amarrenak adibidez, eta gaiñerako emaitzak, parrokien kaltez, lekaide beraiek jasotzen asi ziralako. Ori ordea, VII mendeko arazoa dalarik, gure azterketa-landatik urruti gelditzen da.

Alare entzun edestilari ezagun batek, mende artan Galizi ta Portugal aldeko lekaide ospatsua izan zan Fructuoso Donearen "araua" aipatuz dioskuna:

"... en la Regla Comunnis de San Fructuoso se nos habla de una gran corriente monasterial que invadía el noroeste español llevando consigo multitud de abusos, como alimentada que estaba, mis que por ei amor a la perfeccidn cristiana, por el fuego de la supersticin. Era el monasterio el centro de todas las miradas, y a ellos concurrían los fieles con sus diezmos y tributos, abandonando las parroquias. Debido a esto, había presbiteros que, temiendo perder todos sus ingresos, hacían tambi&I ellos, hip6critamente, profesi6n de amor a lo monstico, fundando por su cuenta y riesgo una especie de monasterios, `quasi monasteria' dice San Fructuoso, con el fin de atraer hacia sí la veneraci6n y la generosidad del pueblo" (Fernandez Alonso, op. c. 214).

Urte askoz, lekaide, abata, eta lekaidetzaren araugille izan ondorean Portugal'en Braga'ko goigotzai bezala amaitu zuan Donefructuoso onek bere bizitza.

Suebitarrena izandako Braga baiña askoz bertago zegoan euskaldunentzat Ilergeten Ilerda; ori, bera ere, oraindik, naiko euskalduna ez bazan! Bâ, aipatu berri dugun Ilerda'ko kontzilio arek, eta aipatu diogun kanon berean ainzuzen, Donefruktuso'k esan ziguna bera esan zigun, eun urte lenago, sasi-lekaideei buruz: "Si ex laicis quisquam a se faetam basilicam consecrari desiderat, nequaquam sub monasterii specie, ubi congregatio non colligitur vel regula ab episcopo non constituitur, ea a diocesana lege audeat segregare:

Ikus nola biurtzen duan gaztelerara "iperbaton" edo antolaketa zail naasiko esaldi ori Jose Vives idazti zarren ikeriariak: "Si algtin seglar desea consagrar alguna basilica editleada por el mismo, no se atreva en modo alguno a apartarle del régimen general de la didcesis bajo el pretexto de que se trata de un monasterio, si no viviere allí una comunidad religiosa bajo una regla aprobada por el obispo" (op.c. 56).

Asmo okerez zebillen sasi-lekaiderik izan zan noski Ilergeten artean ere, dirudianez beintzat. Urte artan, Febrero zan Ilerda'ko gotzaia: "Februarius in Christi nomine episcopus Ilerdensis is constitutionibus interfui et subscripsi": "NI, Febrero Ilerda'ko gotzaia, arau auen egille ta izenpetzaille".

Bederatzi gotzai bildu ziran kontzilio artan. Bostek bakarrik idatzi zuten izenpetzerakoan beren eljzbarutiaren izena: Bartzelona'koak, Tortosa'koak, eta, euskaldunen gotzai izan zitezkeanetatik, Ilerda'ko Febrero'k berak, eta Gerunda'koa omen zan (Vives, op.e. 563) Estafillo'k.

Bosgarren gotzai bere-urriaren-izen-emantzaillea, Tauro, ez dakigu Egara'koa ("egarensis") edo Agata'koa ("agatensis") zan, ez omen da ha erreza larrukian idatzitako itzaren irakurkera. Kontzilioko agirien irakurketa zuzena "egarensis" ba'da, Tarrasa'koa zan gotzai ura; "agatensis ba'da, Galietako Rodano ibaiaren alboan dagoan Agde'koa. Ta haleike au izatea irakurpen zuzena, III kanon ortako arauak ematerakoan, Asabek, aurrena Agde'ko kontzilioaren erabakiak aipatuz eta ontzat artuz asten bait dira. Danadala, euskaldunontzat ajolarik gabeko arazoa: bi uri aiek ez bait ziran euskaldunak, naiz Tarrasa'ren izen zar ori, Egara, euskal-kutsu aundikoa dala ukatu ezin. Agian orrelako zerbait esan daiteke Agata'ri-buruz ere. Izen ori "Agatha" idazten bait zuten erromatekoan. Ta, "TH" elenerazko "Zeta" izkiaren laterazko itzulpena dalarik..., eta izki ori elendarrek "TZ" agoskatzen zutelarik "Agatza" biurtzen bait zaigu uri orren izena.

Kontzilio orrek sasi-lekaideen okerkeriaz esan digun ori dana, batez ere VII mendeari dagokio, baiñan askoz leenagotik zetorren: VI mendetik, Ilerda'ko kontzilioak aditzera eman digunez; eta, ezpairik gabe, baita V'etik, eta, bearbada, IV'etik ere: agian priszilikeriak berak lagundutal IV mendekoa izan zan 380'an Agino'ko Febadio gotzai akitaniarraren zuzendaritzapean Zalduba'n ospatutako kontzilio ospetsu ura. Eta ikusi dugu nola kezkatzen zituan arazo orrek kontzilio artako Asabak, eta jabetu aal izan gera, era ortan lekaide biurtzen ziran apaizen aurka eman zituan arauetaz.

Zalduba'ko kontzilio aren jardunkerak, bi gauza adierazten dizkigu:

1<sup>a</sup>: IV mendeko Euskalerra artan lekaideak bazirala, logikaren araura sinistu dezakegunez.

2<sup>a</sup>: Parrokien eta lekaideen arteko zarata ura, IV mendean bertan asia zala piztutzen.

Parrokiei dagokienez berriz, Ispanietan bezala ibilli ziran gauzak Galietan ere. Euskaldun askoren elizbarrutia zan "Bordele'k, dirudianez, bai omen zituan 400'garren urterako landa-elizak bere ibaiaren ertzetart": "Dans le dioc.,se de Bordeaux, l'étabbssement d'églises chrétiermes sur la grande route fluviale de la Garonne paralt anterieur a 400" (Inbart de la Tour, op.c. 18).

Rin ibaiaren aranetik asita, Belgika-zear Auñamendiraiño Galietako probintzi zar guztien ikerketa egiñaz gero, onela amaitzen du aipatu dugun edestilariak bere ekintza: "C'est surtout i3 la fin du IV'e siëcie, au comencement du V'e, qu'apparaissent dans toute la Gaule nos plus anciennes églises rurales. Sans doute est-ce vers la meme epoque que nos premieres paroisses ont ete etablies":

Euskeraz:

"Batez ere IV mendearen azken-aldera ta V'aren astapenean agertzen dira Gali osoan aurreneko gure landa-elizak. Ezpairik gabe, orduantxe jaio ziran gure lenen parrokiak ere" (id.ib.).

\* \* \*

Errietako parroki-elizak aipatu dizkigu edestilari orrek. Nork eraiki ote zituan kristaudiko landa ta errietan parroki-eliz oiek?

Aurrenekoak, errietako kristauek beraiek eta "villa" edo landa-etxe oparoetako jabe aberatsek.

Errietako kristauek, diakono bat lortzeko aia ugaritzen ziranean otoiz-tegi apal bat eraiki bearrean aurkitzen ziran. Eta otoiztegi ura eliz biurtu bearrean, asko ugaritu ziralako, beren komunitatea, apaiz bat eta guzti, parroki izatera iristen zanean.

"Villa" edo landa-etxe aberats aiek,, nekazaritza oparoen biotza ziran,. Beraietan bizi oi ziran ba lur-zabal-jabe aberatsak, batez ere IV mendean, orietatik igesi joateko oitura zabaldu zanean. Arrazoi asko eman oi dira, bai ekonomiaren aldetik, bai eskiertasunaren aldetik, bai politikaren aldetik, mende artan ain oiturazkoa izan zan aberatsen landetarako-zaletasun ari benetako azalpen bat ernan naiez.

Danadala, Sarkaldeko Inperioan anitz zabaldu zan aberatsen joera landa-zale ori. Jaun aiek, noski, urietako jauregietan bezain aberaski bizi oi ziran urietakoak bezain jauregi atsegiñak ziran landetako nekazal-etxe bikain aietan' Ta, Jaun aberats aietako asko kristauak ziran ordurako-ta, egin zuten lanik aski, baserritar jendearen kristauketan. Guk ezagutu ditugu lurzabaljabe aietako batzuk: Ausonio olerkari bordeletar jentilla?; aren ikasle izan zan Nola'ko Donepaulino bordeletarra; Jondoni ivlarttren bizitza idatzi zigun Sulpizio Sebero edestilari au ere bordeletar **kris**-taua; Silbano Kalagurri'ko gotzaiaren alde irten ziran "possessores" baskoi et berondar aiek ..."

"Une loi d'Honorius (398) nous apprend que les grands propri&aires ont déj leer thapelle dans leur villa" (Imbart de la Tour, op. c. 26).

Euskeraz:

---

Ausonio, azkenean kristau il zan edo ez, eskier ez dakigu. Baietz esan oi dute Frantzi'ko idazleek. Aide kristauez inguraturik bizitu zala badakigu beintzat. Adibidez, seguruaski kristaua zan bere arrebaren seme batek alaba baten neskustasuna eskaiñi zion Jainkoari. Ala, "neskutsen saillekoa", ots, lekaiamea, izan zan neskatz ura. (Ikus Griffe, op,e.371). Amaren aldetik euskalduna zan Ausonio'ren sendia. Kristaua izan omen zan amona bat ere. ("Ausonius" itzak "Ausona'koa" esan nai du, eta AUSONA, ordu m, gaur VICH esaten zaion uriaren izena zan.

"Onorio inperatoreak 398'an emandako lege batek jakiñerazten digunez, ordurako bazuten lurzabaljabe aundiek beren landa-jauregietan otoiztegi bana".

"Villa" bakoitzaren inguruan etxe asko zeuden eraikirik: nekazal-lanetarako eta langilleentzako bearrezkoak ziran etxeak. Bat zan ordea etxe aietan bereiziena: eliza. Bear-bearrezko eliza, jahe kristau aientzat. Beren sendietako jendeetaz gaiñera, morroi, jopu ta maiztar beste gizakume ta gizaalaba asko bizi bait zan "villa" aietan eta "villa" aien inguruko lurretan

Ondorioz, ez zetorkien noski kaltegarri jabe aberats aiei, beren jendearen onerako, bai noski baiñan baita beren interesen onerako ere, "villa" oietara apaiz bat ekartzea, eta beren "villa"ko eliz ura parroki biurtzea. Eta ori, kristauak ziralararen aldetik, mola ez?, baiñan baita jaun jabe ta nagusi ziran aldetik ere, orrela beren eskupera errezago hiltzen, gordetzen eta menderatzen bait zituzten, jopu, morroi, ta maizterrak.

Euskalerra Zar artan ere orrelakorik gertatu ote zan? Baietz sinistekoa da. Oroitu-herri ditugu ezagunak zaizkigun lurzabaljabe batzuk: Akitani'n zegoan Sulpizio Sebero bordeletarraren "villa"; Baita, bera ere bordeletarra eta amonaren aldetik beintzat euskotarra omen zan Ausonio olerkariarena•• ere.

Aldi zar artako idazkietan maiz aski "basilika" edozein elizari esaten zaio, batez ere, eliz aiek, Erroma'ko basilika aundi aien antzera, bere lau ormak binaka berdiñak zituztelarik zabal baifio luzeagoak ba'ziran. Ori gogoan artuz, irakurri dezagun Imbart de la Tour'ek (op.c. 28) dioskun au: "Nous connaissons bien les deux basiliques que Sulpice Sévère fit construire dans son `ager Primoliacus'. Paulin de Nole (`Lettres', 32) nous en décrit avec complaisance les reliques, les inscriptions, les peintures murales, les mosaïques. Entre ces basiliques Severe avait fait construire un `baptisterium'. Lui-meme y célébrait le culte, y prêchait à ses esclaves ou ses colons. Ces exemples durent être fréquents. Aussi, dès les origines, l'église du domaine, l'église privée, s'oppose-t-elle **du `vicus'**, l'église publique".

Euskeraz:

"Ongi ezagunak ditugu Sulpizio Sebero'k, `Primoliacus' esaten zion bere landan eraikitako basilika biak. Atseginki damaigu Nola'ko Paulino'k ango erliki, idazki, ormetako margolan eta mosaikuen berri. Bataitegi bat

ere eraiki zuan Sebero'k basilika aien artean, An, bera aritzen omen zan bere jopu ta rnaiztarrentzat sermoigintzan eta elizkizunak zuzentzen. Ugariak izango ziran (aro artan) orren antzeko gertakizunak. Orrela, asiera berberetik, aurrez-aurre agertzen zaizkigu jabe jaun haten elizak eta "vieux" edo "erri" baten elizak". Eta "Elizaren.., elizak", ots, elizbarrutiaren jabeta-sunpeko elizak" esatea peitzen zaio aapaldi luze orri.

Or aipatzen dan landa `primolitar' ori Akitani'n zegoala badakigu, naiz, zeazki-non jakin ez.

Prudentzio'k aipatzen duan IV mendearen asierako bataitegi kalagurritar artan mintzatu Qiji anean, orduan batailaria gotzaia izaten zala esanik utzi genduan. LEun urte geroago, V'aren astapenean, apaizak ere asi ote ziran bataigintzan? Apaiz sagaraturik hait zegoan ordurako Sulpizio Sebero edes-tilari Tolosarra beste batzuen ustez.

Bataiaketaren auzi ori argitzea, auzi oietan bereiziki lan egin dutenei dagokie. Nik beste gauza bat begietara eman nai nuke orain eta emen: Sulpizio Sebero'k bere jendearekin zeramakian biziera, egiazko lekaide-biziera izan zala, izanere, azkenean bere "villa" bikain ura lekaidetxe biurtu zuala esan oi bait da.

Egoaldean, Euskalerra Zar aren egiaren barruan, naiz Sulpizio Sebero eta bere lagun aienak bezain aberatsak ez, ari zaizkigu, Naparroa'n adibié dez agertzen, agian Erroma'ren lejiotan txindi batzuk irabazita Euskalerra itzuli ziran "zenturioien" "villak", eta badirudi zerbait adierazi nai digutela V mendean Kalagurri'ko Silbano gotzaiaren alde irten ziran "possesores" Berondar eta Baskoi aiek. Ta, bearbada, baleike gure toponimian aurki oi ditugun izen batzuek ere orixe bera adierazi nai izatea: "Antortana", "Kintana", "Fustitiana", "Ordoliana"...

---

*Izen* oien atzizkiak ez du, naitanaiez laterazko "anus-ana-anum" atzizkia izan bearrrik. Ederki izan bait daiteke, laburpenez "ana" biurtzen zaigun euskeé razko "rena" atzizki norentasun-adierazlea: "ama"- "amarena"- "amana". Baiña aipatu ditudan izen oietan "ana" atzizkia euskalduna dala ziurki esan aal izateko, atzizki oien aurreko giza-izena arra ez baiña emea izan bearko luke, Antoni, adibidez "Antofiana"n, eta ez Antonio. "Antoniona" ez bait da beñere "Antoniana" edo "Antollana" biurtzen. Baditugu "ona"z amaitzen diran izenak ere, eta ugari gaiñera, baiñan atzizki ori beti lateratikoa dala, esan ez daitekean gauza da, geienetan euskal atzizki ugaritasun-adierazle bat besterik ez bait da.



Laister, gotzaiek berak asi ziran Elizaren lurretan eta Elizaren diTuz parrokiak sortzen eta parroki-elizak eraikitzen, IV, V eta VI mendean asko aberastu bait zan Eliza inperatore, errege, jaun aberats, eta kristau soillen emaitzei eskerrak

Eta parroki-sorkera eta eliz-eraikera orrek Elizaren edesti osoan iraun bait digu, orrela izan ditugu kristaudian, baita gure Euskalerrrian ere bi parroki-elizkera bereizi: Zuzenean gotzaiaren mendekoena bata; jabe sekulan baten mendekoena bestea.

Bigarren era ontako parrokiek bi buru izan oi zituzten: parroko bat animei zegozkien arazoetarako, eta nagusi sekular bat, beste arazo guztietarako. Onek ematen zion ari zertaz bizi, onek jasotzen bait zituan, amarrenak zirala, edo beste edozer irabaz-bide zala, parrokiak parroki lez sortu zezazkean aberastasun guztiak.

Jabe ori, edestia-zear, batzuetan, errege, jaun feudalar, lur-jabe, edo salerosle aberatsa ezur eta aragizko gizakume bat izan oi da. Beste batzuetan sendi bat, lekaidetxe bat, edo uri bat. Onela adibidez Gipuzkoa'n Tolosa'ko uria. Bere nagusitasuna ongi ziurtzeko euki du gaur arte elizaren barruan idatzirik: "Esta Noble Villa de Tolosa es patrona tinica merelega de esta su iglesia parroquial de Santa María".

Lekaidetxeak ere iritxi ziran parroki askoren jabe izatera, baiña, geienbat, jabetasun ori parrokien jabeengandik artu zutelako. Oiturazkoa izan bait zan, erdiaro guztian batez ere, jabe aiek beren parrokiatako baten jabetasuna eta jabetasun orren ondorio ziran aberastasun guztiak, limosna bezala, lekaidetxe bati ematea. Beste batzuetan Lekaidetxeen jabetasun ori parrokia lekaidetxeak berak sortu izatearen ondorio izan oi zan.

Parrokien sorkuntza-aroan lekaidetxeek, eta baita, gure Gobietako lekaideak bezala mendietan bizi ziran bakartasun-zale aiek ere izan bait ziran parroki-sortzaille. Lekaideek eta bakartiek beraiek ez zuten bei sekulan apostolutzarik erabat aantzi.

\* \* \*

---

Beti ere, gainera, latertasunera jo baiño len, ziur egon bear dugu atzizki oiek daramazkiten aurritzkiak giza-izenak dirala.

Gutziz jakingarria iduritzen zait, garai artako kristau jainkotiarren jardunbideak ulertzeko, bein baiño geiagotan aipatutako Imbart de la Tour-en aapaldi luze baiñan eder au (op.e.33):

"Le monachisme naissant etait alors sans règle. Les monasteres comme Lerins, Ligure, Marmourtiers. Ce n'était pas la vie en commun que recherchaient surtout les émigrants de la cite. Fuyant la vie civile, trop lourde pour les uns, trop vulgaire pour beaucoup d'autres, chasses peu a peu de leur ville ou de leur hourg par le dégoilt des charges puhliques, l'abandon de la curie, l'insécurité de l'empire, la secrete angoisse des ames, ils veulent la retraite. Seuls, ou avec quelques compagnons, ils se construisent une cellule en bois ou en feuillage et y prient Dieu en liberté. N'importe! Ils ont eu, ces solitaires, leur influence dans la formation de nos églises et de nos paroisses. Leur eella recouvre un autel, on y celebre un culte, et autour d'eux se groupent des fideles, habitants de ta villa ou du vieus voisin, attires pour la renommee des saints. L'oratorium grandit, donne naissance a une cette eglise elle-meme, a un monastère ou a une paroisse. Ces faits seront fréquents au VI siecle, mais nous les avons deja vu avant la chute de l'empire".

Euskeraz:

"Jaiotzen ari zan lekaidetza ura araurik gabekoa zan. Urriak ziran oso, Lerins, Ligure eta Marmourtiers bezalako lekaidetxeak. Ez bait zan alkarrekingo bizitza urietatiko igesleek billatzen zutena. Batzuentzat astunegia eta beste batzuentzat motelegia gertatzen zan uri-bizitzatik ald'egitera bear-tuta; uritarren arteko aginte-karguek, kuri edo gotzaitegietako axolagabekeriek, Inperio beraren eskiertasunik ezak eta anirnagandiko atsekabe ulerkaitzek bultzata lekarora zijoazen gizon aiek bakartasuna zan gura zutena. Bakarka edo lagun batzuekin egurrez eta abarrez etxola bat eraiki, eta bertan Jainkoari askatasun osoan otoi egiñez igaro oi zuten bizia. Bakartasunean, bai noski. Alare, izan zuten bakarti aiek eraginmenik gure eliz eta parrokien sorkuntzan. Beren gelak aldare baten babes-leku ziran, eta an, elizkizunak egiten ziran; eta, done aien aipu onak erakarrita, ara biltzen ziran "villa" ta "vicus" urbilletako biztanleak' Otoiztegi apal aiek, aundituz eta aundiagotuz, eliz biurtu ziran, eta eliz aietako bakoitza, edo parroki edo lekaidetxe. Ugariak izanen dira orrelako gertakizunak VI mendean, baiñan badakigu Inperioa jausi baiño len ere gertatu zirala."

Beste batzuetan, maiz aski gaiñera, bakartia bera izaten zan bere biziera gogorra lagatzeke, naiko epe luzez bere leiza-zuloa utzita, erriz-erri ebangelioko egiak ereiten ibilli oi zana.

Egoki-egokia dugu guzti ori gure Euskalerra zar artarako:

Ikusiak gera zenbat jende, ta parrokien sorketarako garrantzi aundia-gokoa dana zenbat apaiz joan oi zan urietatik igesi gure mendietara. Gure inguruan ospatutako kontzilio beraiek larri kezkatzeko aiña! Gure mendietan egurrezko edo abarrezko etxolik egiten zuten ez dakigu, urteen joana naikoa baita orrelako eraiketak ezerezteko, baiñan leize zuloak irikitzen zituztela, arrigarriki ugari irikitzen zituztela, ori badakigu. Euskalduna izan bait zan "Europa'ko Kapadozia" (Latxaga, op.e. azalean). Badakigu baitare leizezulo aietan aldareak bazirala, eta, uste izatekoa da, aldare aien inguruan zertarako bestela aldare aiek an? -- inguruko basa-jendearentzat elizkizunak egin oi zirala.

Leizezuloetako otoiztegi aietatik ote dira sortuak Arluzea, Urarte, Markinez, Laño eta lurralde arabar menditsu artako zokoetan aurkitzen diran beste errietako eliz eta parrokiak?

Gure errietako baselizak mendi-muñoetan aurki oi dira. Baseliz oietatik asko len parrokiak izan ziran. Arrazoi bat baiño geiago asmatu izan da mendi-muñotasun orren zergaitia adierazteko:

Antziña bideak, ibarrez-ibar ez baiña, gaindik-gain igarotzen zirala.

Garai artako euskaldunak artzaiak zirala, eta artzaia mendian bizi oi dala

Mendi-murioetan, gaizkille-taldeengandik eta etsai borrokalariengandik babeseerrezagoak dirala elizak lur garaietan beeko zelaietan baiño.

Bedi. Baiñan dez ote dute gure bakartasunzaleek gogoan artzerik merezi. Gaur baseliz eta antziña parroki oietatik asko ez ote dira leenago bakartasun-zaleen txabola-barrengo otoiztegi aien ondorio?

\* \* \*

Itzuli gaitezen ordea parrokien jabetasunari buruzko auzira.

Esan bearrrik ez da, parrokien jabe gotzaia ez baiña beste bat izateak istillu asko, eta istillu larriak ere, sortu izan dituala ugari edestia-zear animen kalterako. Arazo oiek, ordea, liburu onen elburutik at gelditzen dirala-

ko, naikoa izan zaigula uste izan dugu, arazo aien sorkuntza, parroki-eliz beraien sorkuntzarekin loturik nola dagoan emen adierazi nai izatea.

Bai Galietan bai Ispanietan III mendearen azkenetik onuntz eraikitako parroki-eliz guzti aiek danak ezabatuak ditugu, eta ez zaigu aien aztarnik ere gelditu, zorionez euskaldunen artean, Nobenpopulani'ko konbenetarren artean, eraiki zan batenak izan ezik:

"Quant aux églises elles-memes, ia plus ancienne connue serait, au dire Male, ceile de Lugdunum Convenarum, dans les Pyrenees, si ge dpiscopal de Comminges, qui remonterait a la première moitié du IV'e sicle; elle comportan trois nefs sans transept, une abside a cinq pans orientée au levant" (A. Latreille (op.c. 82).

Euskeraz: "Jauretxeei beraiei dagokienez, ezagutzen diranen artean danetan zarrena, Emilio Male'k dioskunez, antziñatasunean IV mendearen lenen erdiraiño iristen dan Lugdunum Convenarun'goa izango litzake: Auñamendietan orain Comminges esaten zaion gotzai-urikoa. Iru zabalgunedutuanetakoa da; ez du "kruzerorik", ots, "zearezko-zabalgun-gurutz-itxura-emailerik", baiñan hai, badu sortaldera begira, bost-ormazko ru edo abside bat.

Aburu berekoa da <sup>1</sup>Dictionnaire d'Histoire et de Géographie Ecciesias-tiques"en C.H.Higounet, "Comminges" atalaren idazlea: "...Les fouilles de Lugdunum Convenarum ont, en fin, revelé, superposee a un edifice plus ancien, (azpimarraketa nerea) la basilique chretienne la plus vieille de France".

Euskeraz:

"...Eta, azkenik, Lugdunum Convenarum urian egindako atxurketek, eraiketa-lan zarrago baten gaiñean agertu digute, zer eta Frantzi'ko kristau-basilikarik zaarrena",

Galietako elizik zarrena Euskalerrian alajaña! Ez da gutxi esatea!

Alatagutziz badu zer esan geiagorik H. Leclercq ikerlari ezagunaklw:


IV mendearen lenen erdiko eliz ari, basilika esaten dio aski izen ego-kiz auen alboko marrazkiak erakusten digunez.

---

gai oni-buruzko albiste auek, Dic.Arch.Chre't.(op.c.), "Lugdunum Convenarum" izenburu duan lanetik artu dizkiot Leclercq jaunari.

VÅL • SEVERA EGIT • ANNOS • XXX • RECESSIT-111-  
NON-P/L RVFINO ET EVSEBIO CONSS  
PAC PATROCLVS PRAESBYTER SIBI IN PACE\*

Puisqu'en signale pr«re Patrocle d *Lugdunum Conuerſum* en 347, il devait s'y trouver des fideles, une eglise, un baptistere, une communaute. On ne s'aventure guere en pensant que la basilique fouillee il y a pett d'annees avait remplacee un oratoire, un martyrium, une basilique plus anciens, dont il ne servirait de riev de coniecturer les dispositions et la. date.



7253. Chrisme et sarcopliage de la Basilique.

D'aprs *Comptes rendus de l'Arad. des inscr.*, 1914, p. 6.5.

Oti onlan:

Konbeneri-  
ko basilikan  
aurkitzen dan  
Patrokto pa-  
rikoaren il-  
-idazkia, 347'-  
koa. Beraz  
IV mende fuz-  
tian basilika  
bat bazan uri  
suskaidun  
artan. Basi-  
lika bateko or-  
dea gozari bat  
estatzon duela

iGt4; r 14-4.

41-1-11-1

cd.Li:-

r

( 54 - 11 - ( 1/2 - 1/2 kil)

. 1)-7

Dort\_F.. kCIrcrt t2\_€ (1 8


j(Rtr4fot

o tyl\_e44\_ .212 (t· 13iji`'k &

n. zA . o Y'''i'21`P

ri gLik,c;

ŠiLei



: 22(;. Vr:Igm(111 d'un chrisinr re fisimilini<sup>p</sup>n Sninf c-C.nsthRre. T'').:Ipr...

Basilika orren aztarnak, ots, ahside baten eta orma ta zutabeen ondakiñak, 1913'an agertu omen ziran, eta bere barruan 14 sarkofago edo arrizko zerraldo artzurizkoak auek danak izenik. gabeak, bat izan ezik. onek idazki bat eta "un tres bean (thrisme", "krismoitxite eder bat omen daramatza. (Gu idazki ortaz mintzatuak gera. Krismoitxite eder aren irudia alboan duzu).

H. Lederqc'ek dionez, 1.913'an, azterketak zuzendu zituan M. Dieulafoy'ren ustez, "krismoitxite ori baliotsuenetako bat omen da, eta ezagutzen diran guztien artean, agian, dotoreena", "un des plus precjeux, et peut-e`tre le plus l;:::,gant". Leclercq'i, ordea, geiegizkoak iduritzen zaizkio goratarre bipil oiek, baiñan erri kristattaren arlo ontan Doktore dan Okariz irakasleari, ez zaizkio ain geiegikoak iruditzen, dan garaiekoa izateko, bai omen da ba ederrenetako bat.

IV mendearen lenen erdikoa dugu, Leclercq'en iritziz, krismoitxite polit ori.

Guri beintzat alaiagarri zaigu benetan, krismoirik ederrenetako bat Euskalerrian egotea.

Eta milla aldiz pozgarriagoa zaigu oraindik Leclercq esatera dijoakigun auxe:

"Patrocio apaiza 347'an Lugdunum Convenarum'en agertzen zaigun ezkerro haziran noski an kristauak, bazan eliz hat, bazan hataitegi bat, bazan komunitate bat. Ez litzake beraz ausardia izan <sup>o</sup>, orain urte gutx; ikertutako basilika ori, leenagoko otoitegi, martiriren baten omenezko elizatxo, edo basilika baten gainean eraikia izan zala uste ;zatea. Basilika ori, ordea, nolakoa eta noizkoa zan jakin naiean saiatzea, alperrikako gauza gertatuko l itzaiguke" <sup>H</sup>.

Ona, frantzeraz, bere itzak ber-berak:

---

<sup>111</sup> Lugdunum uria eta Balkabrere erria nasten ditu ortzeke Leciercq'ek emen. Naiz bertan egon ez zan eta ez da gaur ere Balkabrere orain Saint Bertrand de Comminges esaten zaion Lugdunum'en auzoa. "Valcabre: Villaize et commune de France, canton de Saint Bertrand de Comminges a 16 ks S.O, de S. Gaudens" (Larousse): "Balkabrere Frantzi'ko erriska eta udaia, Saint Bertrand de Comminges'en kantoiean ("partiduan" esango genuke emen) Saint Gaudens'etik I6 kilornetroz Ego-Sarkaldera.

"Puisqu'on signale le pretre Patrocle Lugdunum Convenarum en 347, il devait s'y trouver des fides, une basilique, un baptisthe, une comunaut. On ne s'aventure guère en pensant que ia basilique fouiNe il y a peu d'annes avait remplacé un oratoire. un martyrium, une basilique plus anciens, (azpimarraketa nereia) dont il ne servirait de rien de conjecturer les dispositions et la date".

Bai, Leclercq Jauna, bai. Guretzat balio du, asko balio du elizatxo zaarrago artaz zerbait jakiteko saiotoxo bat egiteak. Eta ona zergaitik: - Basilika ura IV mendearen lenen erdikoa dala esan diguzu bainan bere azpian, lenagoko elizatxo zaarrago bat izan zala.

Ona zergaitik:

- Patrokio'ren illarria Basilika aren illobitegian izan zan aurkitua, ta illarri ori 347'koa izanik, uste izatekoa da Basilika orrek zarra ez ba'zan ere 47'ren bat urte beintzat izango zituala, eta, beraz, mendearen asieran, ots, 300'garren urtearen inguruan izanen zala eraikia.

- Oartzen al zera, Leclercq Jauna, basilika ori urte batzuk beranduxegokoa balitz ere, 317'koa?, 327'koa? bera baiño leenagoko beste otoitegi edo elizatxo ura III mendekoa zala, naitanaiez aurkitzen gerala, esatera bearturik?

Irugarren mendea!!!

- Irugarren mendean, Leclercq Jauna. Askoz geroago ere, IV mendearen amaiera arte, ots Turona'ko londoni Martti gotzaiak berak sortutako lekaideen bitartez bere misio-lanketak asi zituan arte, jentilla zan Galietako ipar-sarkaIde guztia. Bañan eun urte lenago III mendearen baziran zure ustez, Leclercq Jauna, baziran kristauak Euskalerrian. Eskerrikasko, Leclercq Jauna.

Irugarren mendean. Jondoni Satordi Tolosa'ko gotzaia eta, Turona'ko Gregorio'k VI mendean idatzi zigunez, kondairaren ustez Iruña'raltio iritxi zitzaigun Jondoni Satordi ura eta bere sei lagunek Erroma'tik, ia oso-osoan oraindik jentilla zan Galia ebangelizatzerat etorri ziran mendean, ieuskaldunen artean kristauak baziran!

Asko ote ziran? Bai, Leclercq Jauna, zuk esan diguzun guztia egia baldin ba'da. Ots, IV mendearen lenen erdiko basilika ura, elizatxo zarraga baten gainean, eta, au, (naitanaiez III mendekoa izan bearko zuan elizatxo au) jauregi erromatar baten gainean eraikiak izan zirala egia ba'litz.



III mendean sendo zegoan Erroma'ren inperiotza. Eta inperiotza bezain sendo bere jentiltasuna. III mendekoak dira, Dezio, Baleriano, eta, azken-aldera Gaerio'k, kristauen aurka piztutako zigorketa gogorrak. Jentilla zan ia-ia osoki inperiolurreko jende guztia. Sarkaldean batez ere! Gorroto bizia zion, gaiñera, erri jende jentillak kristautasunari baztar guztietan.

Orregaitik, arras ugariki kristauturik egon bear zuan naitanaiez uri artako erriak, an, kristauak, erromatar baten jauregiaren gaiñean naiz jauregiaren nagusia kristaua izan mundu guztiaren aurrean, batere bildurrik gabe, eliz bat egiten astea pentsatze soilera ausartzeko. Elizatxo txikia, nai ba'da, bañan, alare, ielizatxo kristaua!

Ikusi duzunez, arrazoiketa guzti orren indar osoa Leclerecfek ezan digun ori, ots, Patroklo bereterraren illarria, Basilikaren illobtegiaren aurkitu izan zalako ori egia izatean dago. Ori egia ba'da, egia bait da logikaren dialektika-bidetik atera dugun ondorioa: III mendean, eta mende orren barruan aski goiz, Kristautasuna sarturik zegoala euskaldunen artera.

\* \* \*

Geldi gaitezen emen eta atera'itzegun ondorioak:

Balkabrere'ko eliz ura Galietako, ots, Rin ibai eta Auñamendia arteko lurralde guztian elizik zarrena da! Ez dute gaurko Frantzi'k Belxika'k eta Olanda ta Alemani'ren sarkaldeek eliz zaarragorik. Ez al du orrek Euskaldunen kristautasun goiztarraren alde deus esan nai?

- Eliza, IV mendean asi zan parroki-sorketan. Galietan Turona'ko Jondoni Martti izan zan eginkizun ortan auresku. Baiñan IV mende orren bigarren erdia ondo sarturik! 370'ean artu bait zuan Turona'ko Elizaren gotzaigoa.

25 urte leenago ordea, 347'an, illa zan Patroklo, edestilarien ustez Balkabrere'ko parroko izan zitzaigun bereterra. Ortaz:

- Patroldo dugu, izenez ezagutzen dugun Gali guztietako lenen parrokoa, IV mendearen lenen erdian! Eta euskaldunen artean! SEz ote du orrek ere deus esan nai gure asaben kristautze azkarraren alde?

"Parroki" aiek, jakiña, ez ziran legearen aldetik so-egiten ba'diegu - gaurkoak bezalakoak. "Distingue tempora et coneordabis jura". Gotzairutik landa kristau-talde bat erri batean; elizatxo bat bertan, askotan eliz biurtutako etxeren baten gela eta elizatxo orren eta elizatxo ortan biltzen ziran kristauen serbitzura, bereter bat, ots, presbitero bat.

"Tales puestos no son eiertamente todavía parroquias en el pleno sentido de la palabra puesto que aun no disponían de bienes eclesiasticos propios y los cl&igos que ejercían allo sus funciones no gozaban todavfa de jurisdieciÓn propia sobre un territorio exactamente delimitado" (H.Jedin., op.c.II, 323). Egia: baiñan animazaintzarako bearrezkoa dan almen oro bazuten kristau-taldetxo aietako bereterrek.

"L'origine de l'institution paroissiale se trouve dans les communauts `extra muros' qui s'organisent a mesure que s'&anOlisent les campagnes. Au lieu de ramifier le r&eau episcopal comme en Italie ou en Afrique, la Gaule multiplie depuis le V<sup>e</sup> si&cle des centres ruraux cultuels" (J. Passicos. "Catholicisme", op.c. X, 671)"<sup>2</sup>.

Euskeraz.

"Parrokien jaiotza, landak-zear kristautasuna zabaltzen asi ta aurrera zijoan aiñean uri-arresietatik at sortzen ziran kristau-taldetxoetan datza. Gotzai-uriak ugaritu zale izan ziran Itali'k eta Afrika'k ez bezala, Gall'ak, V mendez gero, landa-errietan otoitegiak ugaritzea izan zuan gogoko". Ez zaitez, arren, ori dana Galietan "V mendez gero" gertatu zala oartzeke gelditu. Askoz goizago ibilli bait zitzaizkigun gure asabak Nobenpopulani'-ko fiakabrere'n.

- Balkabrere parroki zan 300'garren urtean, bearbada, edo, danadala, 300'garren urteaz gero oso laister. Galietan zarrena, izenez ezagutuak diranen artean, eta Sarkaldean zaarrenetako bat. Ta, ori, iEuskalerrriaren barru-barruan!

Egia da Lyon'go kristauek, sortaldetarrak geienak, bere lekuan esan genuan lez Sortaldeko aide ta adiskide kristauei I77'garren urtean, orduantxe ainzuzen Lyon'en izandako martirien berri emateko idatzi zieten eskutitzean, aipatzen dutela Biena'ko "Eliza". Biena ori, ez da Austri'ko

---

<sup>2</sup> gauza bat esatea aztu zaio Passicos Jaunari: Aro artan Itali'k eta Afrika'k Galia'k baiño uri geiago zituztela, uri aiek aundiagoak zirala, eta ugaria-goak uri aietako kristauak. Danadala, landetan baiño azkarrago sortu ziran parrokiak uri aundien barruan. Entzun idazle berari: "Erroma bezalako uri jendetsuetan --'au début du V<sup>e</sup> eraiki ziran otoitegiak auzoetan, auzoetako kristauek gurketarako erosotasun geiago izan zezaten". "Au début du V<sup>e</sup> si&cle". Bai orixe azkarrago ibilli zirala Konbenerriko gure arbasoek!

uriburua, Lyon'clik bertan Rodano ibaiean aurkitzen dan uri bat baizik, orduan "Civitas", ots. "probintzi txiki" bezala, Frantzi'n aurrez zahalcnetakoa. Bertako "Eliz" ura "parroki" bat besterik ez zala diote gaurr-egunez eliz-edestilari frantziar guztiek. Baiñan, nere ustez, ez zan "parroki" izatera iristen. Entzun:

"Vienne eut de tres bonne Neure une communaut chraienne: se" de Vienne est mentionne en 177 avec son diacre Sanetus": "Oso goiz izan zuan Biena'k kristaudi bat. 177'an, bertako "eliza" aipatzen bait da, Sanctus bere diakonoarekin batera.

"Kristau-talde batek "parroki" izateko bearrezkoa du, buru, presbitero edo bereter bat izatea. Diakono bat, Sanctus, zuan, ordea, Biena'ko kristauditxoak buru. Alderantziz, bereter bat, Patroclus, Balkabrere'koak. Orrek zer esan nai duan? Au, Nobenpopulani'ko Balkahrere, egiazko parrokia zala. Ez, ala, beste ura, Biena Lyonerritarra.

Ondorioz:

- Balkabrere'ko Eliza dugu Galietan, dokumentuek damaiguten jauretzerik zarrena: IV mendearen lenen-erdikoa. Eta, agian, III'goa. Ta... Balkabrere, ¡Euskalerrian zegoan!

Balkabrere'ko parrokia dugu ezagutzen dan Galietako parrokirik zaarrena; IV mendearen lanen erdikoa edo, agian, III mendekoa. Ta...Balkabrere, ¡Euskalerrian zegoan!

- Balkabrere'ko parrokia, Patroklo, dugu ezagutzen dan Galietako lenen parrokia: IV mendearen erdikoa edo, agian, III mendekoa. Ta... Balkabrere, ¡Euskalerrian zegoan!

Ez al da guzti ori naikoa, Euskalerrira ere kristautasuna "oso-oso" goiz", "de tres bonne Neure" sartu zala pentsa aal izateko? Aregeiago, Sarkaldean beste anitz tokietara baiño "askoz leenago" sartu zala, ots, "de tres meilleure Neure" sartu zala esan aal izateko? (Barka hezaidate frantziarrek trakeskeri baldar ori, nere errua ez bait da izkuntzek maiz aski oldozpenak egoki adierazteko gaitasunik ez izatea).

"iDe très meilleure heure"!!!. Bai orixe, elizatxo kristauaren azpiko "bi atari omen zituan etxe erromatar ura" "Mifice romain de double portique"-- jauretxe jentil bat izan zala pentsatzea zillegi ba'litz. Beste aapaldi batean, "monument" esaten dio, "le monument romain sub-jacent": "azpiko munumentua".

Itz ori, "monumentum", eskierki, erromatekoan, batez ere jauretxeak edo jainko-jainkemeekin zer-ikusirik bazuten eraiketak adierazteko erabili oi zan. Gure arazo oni dagokionez, ordea, nere ustez, biotako bat aitortu bearra dugu naitanaiez: edo eraiketa ura ez zala "monumentum" bat, edo, ori ba'zan, arras kristauturik zegoala ordurako, Akitani euskaldunaren alde ura dana. Edonun, eta baita Balkabrere'n ere, III mendearen bigarren erdi odoltsu artan, eta IV'aren asieran jentil errabiatuen eskuetan galduko zuten bâ bizia, kristau zitekean zerbait egiteko "monumentum" jentil bat ukitzera ausartu zitezkean kristau "sakrilegoak"... ordurako, Balkabrere ta auzoko "Lugdunum Convenarum" uri nagusia bera oso kristauturik ez ba'zeuden beintzat.

Ori, ordea, III mendeaz ari galararik, ori, Konbenerria ain kristauturik egon zitekealako ori, zailki pentsatu daitekean gauza da.

Aski bezaigu kristau geran euskaldunoi, geiagoko eta agian geiegizko zeaztasunik gabe, gure Asabengana kristautasuna oso goiz sartu zala jakitea.

\* \* \*

"Bedi! esango dit batek baiño geiagok bedi: erromatarrek, Euskalerrria bi zatitan ebakitzerakoan, AGER VASCONUM izenéman zioten zatira kristautasuna aski goiz sartu zanik ez dizut nik ukatuko. iBaiean SALTUS VASCONUM esan zioten beste artara...!"

"Saltus Vasconum", "Ager Vasconum". Ezer-ez utsak! Soiñik gabeko mamuak! Baiñan Euskalerrriko edestiari gaitz aundia egin dioten mamu zipotzak!

Bi mamu ustel oiengandiko arnas edentsuaren zitu bait dira "milla urte t<sup>1</sup>erdiz euskaldunon batez ere mendi baso eta aranetako euskaldunon -- izena zikindu diguten gaitzizen zakar laidogarriak", Augustin Azkarate'k erderki esan duan lez: "Los acostumbrados epítetos de ferocidad, barbarie e incultura que califican desde hace milenio y medio a los habitantes de los Pirineos" (op.c. 150. Azpimarraketa nerea).

Eldu dezaiegun mamu gezurti bi oiei. Kendu'elegun beren ezer-ez utsa estaltzeko erabili oi duten maindre iruzurkorra, eta utzi dezagun, agirian, maindre orrek estaltzen zuan... ezer-ez utsa!

Milla aldiz irakurri duzu noski, onako esari zar auxe: "Los romanos acostumbraron dividir en dos partes diferentes al País de los Vascones: partes, por otro lado, bien diferenciadas ya, por la misma naturaleza". Esari orrek bi zati ditu: "Los romanos aeostunbraron" eta "diferenciadas por la misma naturaleza". Bi zati oietatik, aurrenekoa, gezurra da. egia bait da bigarrena, Bigarren onen egitasunaren azpian gorderik, erreiz izan da mendeak-zeur egizat artua aurrenekoaren gezurra. Euskalerrria bitan zatitzen dualako ori. - Baiña ez da egia erromatarrek "Euskalerrria bitan zatitu zutenik". Ez politikaren aldetik, ez kulturaren aldetik, ez zuten Euskalerrria bitan zatitu: Mendia ("saltus"), eta, Landa ("ager").

- Ez da egia erromatarrek "Euskalerrriko Mendiaz" idatzi zutenik. Idazle bat bakarria da "Saltus Vasconum" edo "Euskaldunen Mendiaz", idatzi zuana. Plinio Zarra.

- Ez da egia erromatarrek Euskalerrriko Landaz idatzi zutenik. Batek bakarrik, Tito Livio'k, erabili zuan "Ager Vasconum" esaria.

- Ez da egia alako "acostumbraban" itz orren bitartez adierazi nai zaiguna, ots, bi esaldi oiek, alegia, "Saltus Vasconum" eta "Ager Vasconum" oiek, oiturazkoak zituztela beren liburuetan erromatarrek, bein bakarrik idatzi bait zuan Plinio'k "Saltus Vasconum", eta beste bein bakarrik "Ager Vasconum" Tito Livio'k. Ikus nola:

Plinio, bere Izadi-Edestiaren IV liburuko 34'garren atalean, Ispanietako Erriak aurkezten astera sartzen da onako itz auen bidez:

(Aurretik, Plinio'ren esaria guretzat ulergarri billakatu dedin ar dezagun gogoan Plinio'k sortaldetik sartaldera egin nai izan zuala bere lana, baiñan, ortarako, ez dala Mediterran Itxasoaren ertzetik asten, Kantauri-Itxasoaren sortalde-muturra dan Ondarrabi'ko Iger Aitzetik baizik. Ori zergaitik? Geografilari erromatar zarren ustez, Auñamendia iparretik egora zijoalako. Egia da zerbait egoruntz okertzen dala, baiña ez aiek uste zuten aiña). Ikus orain Plinio'ren idazkia:

"A Pyrenaei promontorio Hispania incipit, angustior non Gallia modo, verum etiam semetipsa, ut diximus, immensum quantum hinc Oceano, illinc Iberico comprimentibus. Ipsa Pyrenaei juga ab exhortu aequinotiali fusa in oecasum brumalem, brebiores latere septentrionali quam meridiano, Hispanias faciunt. Proxima ora citerioris est, eiusdemque Tarraeonensis situs:

"A Pyrenaeo per oceanum, Vasconurn saltus: Olarso: Vardulorum oppida: Morosgi, Menosca, Vesperies, Amanum portus, ubi nunc Flaviobriga Colonia. Civitatum IX regio Cantabrorum, flumen Sanda, portus Victoriae Juliobrigensium. Ab eo loco fontes Iberi quadraginta millia passuum..."

Itzuli'itzegun euskerara Plinio'ren esaldi labur oiek, kako-artean argipen txiki batzuk emanez):

"Ispani Auñamendiaren adarretik asten da. Galia baiño laburrago. (Jakiña, Galia, Italrn asita Kantauri itxasoraiño iristen bait zan). Ispani, dan guztia, esan dugun lez, emengo (asten dan tokiko, ots, Iger Aitzeko) Itxaso Zabalaren eta ango Iberiar (Mediterran) Itxasoaren tartean dago. Auñamendia da Ispanietako muga; eguzki beroaren aldean du astapena, laiño-tartean azkena; ta zabalagoa da egoalderuntz; iparraldetik, berriz, laburragoa. (Alde ortatik berealaxe jeisten bait da zelaira). Tarrakontse probintzian dugu bere muturrik urbillena".

"Auñamenditik, itxaszabalaren ertza jarraituz, Baskoien Basoa: Oiarzun: Bardulitarren uriak: Morosgi (Astigarraga?), Menosca (LGetari?), Vesperies (LBermeo?), orain Flaviobriga kolonia (¿Bilbao?) dagoan Amanum kaia (¿Ahandó?). Amaika uri dituan Kantabritarren lurraldera, Sanda ibaia, Juliobrigatarren Victoria kaia (¿Santofia?). Ortik Ibero ibaiaren sortiturrietara, urratsak, berrogei milla..." (Eta, beti sarkaldera jarraituz, Asturrietatik Galizrra dijoakigu Plinio, andik Portugalera jetxiz, eta andik aurre-ra joz, Ispani guztien berri emanez amaitzeko).

Ikusi duzu zertan gelditu zaigun gure lenengo mamua, Saltus Vasconun izugarri ura. Baso paketsu goxo legun alaitsu batean. Izan ere ori izan bait da beti danentzat, indarrez gudulari etorri zaizkigun etsaientzat izan ezik.

Bestalde Plinio izadiztilari, ots, naturalista zalarik, ez da arritzekoa izadiztilari lez baso batez oartu izatea. Idazle klasikoetan beste iñork ez bait du "Vasconum Saltuslk aipatzen; eta Plinio'k berak ere, ibein bakarrik! Gure baso ori non ipintzen digun da guretzat benetan arritzeko gauza, Auñamendia zala uste izan bait da, Plinio'k aipatu zuan "Saltus Vasconum" ura. Orrela uste izan dutenentzat, soilki naparrak izan zitezkean "baskoiak", Ez ordea Plinio'rentzat, onentzat euskaldun guztiak bait ziran Baskoiak.

Plinio'k, zorioneko "Saltus Basconum" ori Naparroa'n ez baiña Gipuzkoa'n eta Gipuzkoa'ren sarkaldeko lurretan ipintzen bait du!

Ikus Pinio'ren lumak darabilkian "sekuentzi" edo "jarraikera"

- Sortaldetik Sarkaldera doa Plinio.  
Orregaitik, aurrena, Auñamendia ipintzen digu.
- Geroago, Vasconum Saltus.
- Ondorean "Vasconum Saltus ori nondik nora zabaltzen zan jakitera emateko:

- Aurrena Oiartzun aitatzten du, (bertako zillar-berun-meatzai eskerrak erri anitz ezaguna erromatarren artean).

- Eta, Oiartzun'en atzetik, "Bardulitarren" uriak: "Vardulorum oppida". Uri oien artean baziran karistiarrak eta baziran autrigoitarrek ere, baiñan Bardulitarrak esaten die Plinio'k, arentzat, itxura danez, Barduli bait zan Baskoni ta Kantauri arteko lurralde guztia.

- Euskalerritik at, Kantauri'ko uriak damaizkigu.

- Beraz, "Vasconum Saltus", "Baskoien Basoa" aipatu zuan idazle klasiko bakarrarentzat, Plinio izadiztilariarentzat, "Baskoien Basoa" Auñamendi ta Kantauri'ren arteko lurraldea zan: Bardulitarren, Karistiarrren eta Autrigoitarren lurraldea.

- Lurralde guzti ori berdinki izendatzen dualako Saltus VASCONUM, Euskaldun guztiak ziran "VASCONES", I mendean bizitu zan Plinio'k izadiztilari ospetsuarentzat: EUSKALDUN DANAK: Oiartzun-aldeko Baskoiak, Bardulitarrak, Karistiarrak eta Autrigoitarrek.

Naitanaiez izan bear du nere ustez beintzat "sekuentzi" orrek era ortan ulertua, ez bait litzake bestela Auñamendiaren eta Oiartzunen artean SALTUS VASCONUM osoa sartzeko tokirik izango: "A Pyrenaeo, per oceanum, Vasconum saltus, Olarso...." Aregutxiago, Vasconum Saltus ori Plinio'k dioskunaren araura Kantauri-Itxasoaren ertzean egon bear duan ezkerro: "A Pyrenaeo per oceanum, Vasconum Saltus.

Bai noski beste erabatera ere aditu daiteke Plinio'ren esaldi ura: "Auñamendia" eta "Baskoien Basoa" bat egiñez alegia. Orduan onela irakurriko genuke Plinio'k eman zigun mezuaren asiera: "Aufiamendrtik, au da, Baskoien Basotik..." Eta orduan bai, orduan Vasconum Saltus, Napparroa'ko basoa izango litzake.

Baiñan Plinio'k ez du ori esaten. Ori esan nai izan ba'lu, bere latiniaren deklinabideak ederki ezagutzen zituan gramatikalarik klasikoa bait zan Plinio, "Saltus" ori ablatibu-eran ipiñiz onela mintzatuko zitzaigun: "A Pyrenaeo, Vasconum Saltus", edo, agian, txukunago "a Pyrenaeo Vasconum salatu..."

Eta, guri atsegin izan edo izan ez, bere Vasconum Saltus ori "per Oceanum", ots, "Itxaso Nagusiaren" ertzean jarri bear dugula esaten bait digu, ez zaigu, Plinio'k Baskoi euskaldun guztiei esaten ziela sinistea ta bere Saltus Vasconum Bizkai Gipuzkoa ta Araba'n zegoala ontzat artzea beste irten-biderik gelditzen.

Oartu zera noski, nola Plinio'k bere esaldi luzean, gaiñerako beste itz guztiak bezala "saltus" itza, laun-laun, batere bigarren intentziorik gabe sartu zuan. Argi ikusi dugu, ez zuala Plinio'k, "saltus" artako Baskoiak basapizti gaizkilleak zirala esateko asmorik txikienik ere izan.

Nola eta nondik eta nork eraginda sortu zaio ha Plinio'ren aapaldi bakun, apal, txukun, aratz orri, sortu zaion bezain zentzu zakar, oker, makur eta gaiztoa?

Erroma'ko idazle klasikoek ez zuten sekulan baskoien aurka itz zakar bat esan. "Barbaruak", — Bisigotak eta bereiziki Frankoek -- izan ziran, euskaldunen aurka, esan daitekean guztia esan zutenak' **Bisigotek** bezala Frankiarrek Euskalerra menderakaitzari izan zioten aierkunde gorria, ongi gauza ezaguna da edestilari guztientzat".

Gero, 1624'ean, onela itzuli zuan Plinio'ren esaldi ori Geronymo de Huerta Jaunak (op.c. 161), "saltus" itzari basatikeri zakarraren ziria txertatuz: "Desde el Pirineo por el oceano, las selvas incultas de los Vascones". Nork esan ote zion Geronymo de Huerta ari Baskoien "selva" k "incultas" ziranik? Gerontzean, ez digute españiarrek "incultas" orri izen-goiti gogorragorik erantsi gabe "Vasconum Saltus" orri-buruz sekulan deus idatziko.

\* \* \*

AGER VASCONUM: Soilki Tito Libio'k eta soilki bein! erabilli zuan esaria! Esan dezadan beste ororen aurretik "SALTUS" euskeraz "mendi", "baso", "oian" eta agian obeto "baso menditxua" dan bezala, "AGER"

---

Donepauhno Nolatarak IV mendearen azkenean edo V'aren asieran izandako olerti-joku txepelaz, liburu onen lenen atalaren amaieran luzaro mintzatuak gera.



"landa" daia, "eta, baita, orokorki, "lurralde", gazteleraz "campiria", paraje", "territorio".

Azkeneko zentzu au emanez frantzeratu du Grand Larousse'k (IV, 727) "Ager Vasconum"en kide dan beste esaldi bat; ainzuzen gure Euskalerrriaren zati genuan Konbenerrriari dagokion esaria: "CONVENENSIS AGER: PAYS DE COMMINGES: Ancient petit pays de la France" (IV, 727). "Ager" esan dio iztegi orrek Konbenerrriari, baiñan "Ager" lur zelai laua ba'litz, "ager" ez baiña "saltus" esan bearko zion, Auñamendirik garaienaren maldan bait dago lurralde oiantsu mendikor ura: "Le Comminges est le pays pyrénéen situé au centre de la grande chaîne de montagnes méridionale de la France, dans l'entallée des vallées de la haute Garonne et de ses affluents": "Auñamendiko Konbenerrria, Frantzi'ren egoaldeko mendi garaienek eratzen duten katearen erdian aurkitzen da: Goi-Garona ibaiaren eta mendietatik ibai orri datozkion beste ibaiek antolatutako ibar eta arantzan" (Dic.Hist.Gŕo.Eccl. XIII,378).

"Ager" itzari zentzu ori bera emanez, ederki itzuli zigun B. Estornes Lasa'k Gaztela'ko erderara Tito Libio'ren aalpaldi berbera: "Sertorio... salió el mismo con su ejército a través del territorio de los vascones y acampó en el territorio de los berones".

Gure edestilaririk omengarrietakoa dugun Bernardo Estornes Lasa'k osoan dakar, bai lateraz eta bai gazteleraz, Tito Libio'ren aalpaldi guzia. Ikusi gura ba'duzu, bere "Enc. Gen. Ilus. del País Vasco"ren sortakoa dan "Historia General de Euskalerrriaren liburuko I03'garren orrialdean aurki dezakezu. Nik, liburu ortatik artuta, euskerara bihurturik bakarrik emango dizut, aspergarriegia gerta ez nadin; berez ere bai bait da naikoa aspergarria Tito Libio'k dakarkigun izen adikaitzen zerrenda. Tito Libio'k bi bider aipatzen du AGER itza, eta, bietan, akusatibo-eran: "agros" ("per pacatos agros"), eta "agrum" ("per Vasconum agrum").

Sertorio gudalburua, Siia gudalburuak Erroma'n ezarritako diktatortzaren aurka dabil borrokan. Bi ditu etsairik gogorrenak: Metelo gudalburua, Ispanietan silatarren buruzagi nagusia, eta, aren esanera, izen aundikoa izatera iritxi bearra zan Pompeyo. Ez daki, bi oietako nori, lendabizi eraso.

Ona nola azaltzen dizkigun Tito Libio edestilari bikaiñak Sertorio'ren kezka ta zalantzak:

"Sertorio'k, aurrena, Berondarrei ("Berones") eta Autrigotarrei ("Autrigones") erasotzea, asmo-artu zuan; jakin zuan bera ("Celtiberiae")

Keltiberi'ko urien aurka zebillen bitartean, aiek, neguz, Ponpeyo'ri, la-  
guntza eskatu, eta, gaiñera, nondik errezen etorri zitekean jakin zezan,  
gidariak bidali zizkiotela; eta beren zaldundia erabilliz gaitzik aski egiten  
ziotela berak (Sertorio'k) Kontebri ("Contebria") inguratzen zeukan gudari-  
taldeari, batez ere "kastrum" artakoek (Kontebri'koak) abere ta gizakumeen  
janari billa "kastrutn"dik irtetzen ziranean; jakin ere zuan, (Berondar eta  
Autrigoitar aiek) beren alde gudara sartzeko eskaria egiñez, "Areuacos"  
(Arebatar)engana" joanak Borrokara irtetzeko erabakia arturik, bere  
bi etsaietatik nori lendabizi ekin eta ortarako noruntz aurrena abiatu oldoz-  
ten asi zan: ¿Itxasaldera, an adiskide zituan Ilerkaoni ("Ilercaonia") eta  
Kontestani ("Contestania") zeritzaten Erri bi oien albotik Pompeyo uxatze-  
ko?, ala ("Lusitania") Lusitani'runtz Metelo'ren aurka jo? Oldozketa oietan  
ziardula, ("Hiberum amnem") Ibero ibaia igarota, batere nekerik gabe  
pakeratutako *lurraldeak-zear* ("per pacatos *agros*", Estornes Lasa'ren  
itzulpenean "por *territorios* tranquilos"--)) eramán zuan bere gudaroztea.  
Eta, Borjatarren ("Bursanum"), ("Cascantinorum") Kaskantiarren" eta  
("Graccuritanorum") Alfarotarren lurretara sartu, an guzia ondatu, eta uzta  
oro kiskali ondorean adiskide zuan ("Calagurrim Nasicam") Kalagurri  
Nasiarrera (gaurko Kalagurri'ra) iritxi zanean, zubi bat eginda, Uriaren  
ondoko ibaia igaroz gero, antxe ezarri zuan bere kapardegia. Bigaramo-  
nean, M. Maria ("quae,stor") diruzalita ("Areuacos") "Arebatarren" eta  
("Cerindones") Zeritarren errietara bidali zuan gari ta gudarigai billa,  
azkenean andik Leukarra ("Leucada") esan oi zaion ("Contrebria") Kontre-  
bi'ra joateko aginduarekin; uri ontatik erasoá bait zan ("Beronibus") Beron-  
darren artetik edozein tokira gudaroztea eramán aal izateko bidea. Era  
berean bidali zuan Cayo Insteyo zaldundiko buruzagia ("Segoulam") Segó-  
bi'ra eta ("Vaccaeorum") Baktzetarren urira zaldundirako zaldun billa, oni  
ere, gero zaldundi guztiarekin ("Contrebiae") Kontrebi'n bere zai (Sertorio  
beraren zai) gelditzeko agindu-emanez. "Dimissis eis ipse profectus per  
Vasconum *agrum* ducto exercitu in confinio Beronum posuit castra") "Bi  
aiek bidalita gero, berak, bidera irtenda, baskoien *lurraldea-zear* a través  
del *territorio* de los Vascones, Estornes Lasa'ren erderaz, gudaroztea  
eramanda Beroién mugan ezarri zuan kapardegia".

Eta ori da guzia!

Aixa oartu zera Tito Libio<sup>1</sup>k aurrena per pacatos *agros*" esan duan  
bezain tolesge esan duala gero "per Vasconum *agrum*" ere. Eta, gaificra, bi

lerro oietan "vasconum agrum" orrek ez duala "baskoien *lur zelaia* esan nai, "baskoien *lurralde*a baizik.

Vasconum ager: Soilki Tito Libio izan zan Erroma'ko klasiko guztien artean, akusatibu-eran edo deklinabidearen beste edozein eran, esaldi ori, -- ager Vasconum erabilli zuan idazle bakarra. ¡Eta, soilki, irakurri duzun aapaldi bakar ontan!!!

Nork pentsa lezake, orrenbeste erri-izenen artean, Vasconum agrum" idatzi zuanean, Tito Libio Euskalerriko lurra bitan zatitu naiean zebillenik.

Oroi, Tito Libio'k "Vasconum" ager bezain xumeki erabilli zuala Plinio Zarrak "Vasconum saltus" esaria. Nork pentsa lezake, an ere beste ainbeste ta ainbeste toki-izenen artean Plinio'k lumaren joanari jarraituz beste edozein esaldi bezala "Vasconum saltus" idatzi zigunean, euskalerrria bitan zatitu naiean ibilli zanik?

Eta ez aztu Plinio, soilki Plinio dala klasiko guztietatik, esaldi ori erabilli zuana, eta soilki hein erabilli zuala.

Bir esan dezagun, ez Plinio'k ez Tito Libio'k ez dutela ez basoetako ez beste iñongo euskaldunen aurka deus esaten. Ekarri dezagun baitare gogorra, liburu onen asieran esan genduan lez beste klasikoek ere ez dutela gure Asabentzat laido garri daitekeanik ezer esaten. Alderantziz, esaten dutena, gure Asaba aientzat goresgarri gertatzen dala.

Ez du, ezta, klasikoetatik iñork, mendietako eta zelaietako euskaldunen artean izaerari, bizerari, edo kulturari-buruz iñolako bereizketarik egiten edo ezberditasunik agertzen.

Gauza bera esan dezakegu arkeologiari-buruz. Aski ugari ditugu Euskalerrri Zar osoan erromateko aztarna jentillak: sasijainko ta jainkemeen aldareak, illobiak, eta arri-ol idatziak... Geienak, gainera Auñamendiaren iparraldeko maldetan, aski "Vasconum saltus"en barruan! Ba, Arkeologiaren emaitza oietan ere, an, emen, eta or, bat bera agertzen zaigu gure Euskalerrria.

\* \* \*

Azterketa auek asi nintuanean ez nintzan lanera TESI baten billa sartu. Baiñan azterketa-lan orenen emaitza tesi bat izaten bait da beti, ona nere ekintza ontatik irten zaidan TESIA, galde-erantzun-eran aurkeztua:

Noiz sartu zan kristautasuna Euskaldunen artera?

V mendean?

Mende ortan kristautasuna euskaldunen artean sendo erroturik zegoala eta Eliza Erakunde billakaturik zegoala, ezpairik gabe aitortu daitekean gauza da. Ez du orrek esan nai Euskalerrian orduango jentillik ez zanik. Ezta Euskaldunik geienak kristauek ziranik ere. Ori ordea, orduan Europa'-ren Sarkalde guztiko arazoa zan. Baita Aitasantuen Itall'n ere.

IV mendean?

Baita mende ortan ere. Ori erakusten digu priszilikeriak euskaldunen artean izan zuan arrakasta arrigarriak. Aregeiago, agian egoaldeko Baskoien artean (oroi Prudentzio'ren lekukotza) eta ziurki Akitaniarren artean (Lekuko Elusa'ko Goigotzaigoa eta Konbenerriko parrokia) Eliza erakunde bihurturik zegoala ere esan daiteke.

III mendean?

Eliza erakunde zan seguruaski Akitani'ko euskaldunen artean, bai bait dirudi Elusa gotzai-uri zala mende orren azken-urteetan. Ia ziurki, kristautasuna aski edaturik zegoan Ego-Baskoien artean ere. Lekuko, mende orren azken-aldean martiri ildako Emeter eta Zeledon Deunenganako eraspenak ain laister artu zuan arrakasta.

II Mendean?

Mende ortako Doneireneo eta Tertuliano esan zigutena lekuko artuz, ez daiteke esan mende ortan euskaldunen artean, bai egoaldeko eta bai iparraldeko euskaldunen artean kristaurik ez zanik.

Oso-oso gutxi izango ziran! Orduan mundu guztian bezala. Mendietan gutxiago izango ziran uri ta uritxoetan baiño! Mundu guztian bezala. Ez aztu, ordea, naiko mendi ta naiko baso zala Konbenerria Auñamendirik garaienaren maldan, eta gure Baskonum Saltus, etenik gabeko jende soillen eta jende multzoen aruntz-onuntzko ibilketaren igaro biderik garrantzitsuenetakoa izan zala.

Noiz ezabatu zan Euskalerra'ko jentiltasuna?

Galde orri, idaztera noan irugarren liburuan erantzungo diot. Baiñan aurre-esan dezadan bildurrik gabe, ez zala Sarkaldeko beste errialdeetan baiño beranduago ezabatu; bai ordea Sarkaldeko beste errialde aietako batzuetan baiño leenago.

Ta..., ori zergaitik?

XXV.

AUSONIUS PAULUNIO SUO S.

QuARTa tibi huc uotos detexit epiStola questus  
Pauline, et blando residem sermone Iacessit.  
